


Errose Bustintza
Mañariko

IPUINIK IPUIN MAÑARIAN GORA

Sarrerea:
Jabier Kalzakorta
Edizinoa:
Nagore Etxebarria



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Errose Bustintza *Mañariko* (1899-1953) Ebaristo Bustintza *Kirikiño* handiaren lobeia izan zan. Ez dakigu gauza handirik haren bizitzaz, baina Mañaria herriari lotu-lotuta agertzen da, hortik ezizena be. XX. mendearen lehenengo erdialdean aldizkarietan hainbat ipuin eta kontakizun idatzi eta argitaratu zituan, eta halakoen sorta ederrak osatzen dau hau liburua.

Durangaldeko eta Arratiako euskaldunen ahotik gordin-gordinik batu eta irudimen oparoz jantzita dakar idazleak era askotako idatziak. Herri-kontalari aparta da, herriko hizkera jatorraren jabe. Ha ta guzti be, edertasun eta poesiaz jantzi gura ditu testuok. Alkarrizketa edo autu bizi-biziaz, naturaltasuna darien irakurgaiak ondu ditu.

Gaia kontuan hartuta, ipuinak bost multzotan sailkatuta dagoz: ipuin mitologikoak, ipuin magikoak, alegiak, ipuin barregarriak eta ipuin erlijiosoak. Guztira 51 ipuin dira, gehienak *Euzkadi* eta *Euzko-enda* aldizkarietatik ekarriak.

ERROSE BUSTINTZA MAÑARIKO

Ipuinik ipuin Mañarian gora

ERROSE BUSTINTZA
Mañariko

Ipuinik ipuin Mañarian gora

Sarrerea: Jabier Kalzakorta
Edizinoa: Nagore Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2009

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Irudi*ena: Enrique Morente

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-3116-09
ISBN: 978-84-92599-09-7

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitacé, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zati-
ren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Errose Bustintza ipuin-idazle: hurreratze modu bat.

<i>Jabier Kalzakorta</i>	11
1. Errose Bustintzaren bizitza-zertzeladak	11
2. Mañaria Errose Bustintzaren jaiolekua	16
3. Ebaristo eta Errose Bustintza biak kronista	22
4. Euskal emakumeak ipuin-idazle	25
5. Errose Bustintza ipuin-idazle	28
6. Errose Bustintzaren esaunda mitologikoen eta ipuinen gainean	32
7. Gure argitalpena: ipuin antologiaren nondik norakoak	34
8. Azkeneko eretxi eta pentsamentu bat	39

IPUINIK IPUIN MAÑARIAN GORA

Ipuin mitologikoak

I.	Laminak eta neskatilea	43
II.	Lorin laminea eta mutila	49
III.	Laminearen garrikoa	55
IV.	Lamina dantzaria	60
V.	Artamingo laminak	65
VI.	Laminearen ostikadea	69
VII.	Sörgin-idaztia	73
VIII.	Mariurika eta artzaina	77
IX.	Orratzontziko sörginak	81
X.	Deabrubarra	85

XI.	Jentilen bolalekua	89
XII.	Petralandako sorginak	97
XIII.	Azkondoko neskea	103
XIV.	Prakagorriak	107
XV.	Urrezko larakoa	111
XVI.	Gaua, gauckoentzat	117
XVII.	Artzaina eta Basojauna	121
XVIII.	Biraolaria eta txerrenak	125
XIX.	Laminearen orrazia	129

Ipuin magikoak

XX.	Mugarra eta Arranatz	132
XXI.	Bidekurutzeko mutila	136
XXII.	Abadea eta deabrua	140
XXIII.	<i>Txirikizen</i> txilibitua	144
XXIV.	Mutila eta muskerra	151
XXV.	Aingeru harri-iragotailea	154
XXVI.	Artzaina eta Epaila	157
XXVII.	Ehiztaria eta deabrua	161
XXVIII.	Ilargiaren zigorra	165
XXIX.	Malutako Atsoa	168

Alegiak

XXX.	Otsoa eta azeria	173
XXXI.	Zozoa, azeria eta txakurra	177
XXXII.	Azeri gaztaizalea	182
XXXIII.	Heriotzearen saġarra	191

Ipuin barregarriak

XXXIV.	Mikel Antonen gauzak	194
XXXV.	Atso gaixoa	196
XXXVI.	Dimako Pedro Deuna	198
XXXVII.	Hamargarren ahalegina	202

XXXVIII.	Gizona, gizontxo	206
XXXIX.	<i>Kokolomokolo</i>	213
XL.	Katakumea eta kereizak	220
XLI.	Basokoipetsu	229
XLII.	Mañariko kereizak	232
XLIII.	Bide-ipinteak	236

Ipuin erlijiosoak

XLIV.	Emakume gaixoa!	240
XLV.	Oxinbaltza	243
XLVI.	Birjina eta neskatoak	250
XLVII.	Hiru gorulariak	254
XLVIII.	Arrizabalgo jauna eta bidaztia	258
XLIX.	Birjinaren egurra	261
L.	Urtebarriaren onua	265
LI.	Errotazuri	269

ERROSE BUSTINTZA IPUIN-IDAZLE: HURRERATZE MODU BAT

1. Errose Bustintzaren bizitza-zertzeladak

Errose Bustintza Ozerin (1899-1953) Mañarian, Bizkaian, jaio zan XIX. mendeko azkeneko urtean¹. XX. mendeko lehenengo mende erdia eta Mañaria, aldi eta alde jakinak, gure idazlearen koordinada nagusiak izango dira. Errose Bustintza *Mañarikoren* bizi-zertzelada gitxi ezagutzen ditugu. Ebaristo Bustintza *Kirikiño* (1866-1929) idazle handiaren lobeia izan zan Errose Bustintza. Kirikiñok anaia bi eta arreba bat izan zituan. Bere anaia Felixen alabeagaz, Basilegaz, ezkondu zan Kirikiño 1909an. Kirikiñok, kontuak ondo atera baditugu, berrogeta hiru urte zituan eta Basile lobeak hogeit. Kirikiño ezkondu zanerako, apurren bat nagusiturik edo mutilzaharturik egin zala esan ginei. Kontuan hartzekoa da osabea loba gazteagaz ezkondu zala, behin kanpoetan irakasle ibilirik, sasoi bateko indianoen antzera. Kanpoetan ibili eta ostean, Almansan (Albacete) eta Sigüen-

¹ Kirikiño kanpoetatik, erdal herritatik, Euskal Herrira etorri eta bertan gelditzeko urtea 1899a dogu, Errose Bustintza jaio zan urtea, hain suertez be. Esan daigun, beste kontu eginaz, 1899 urtea oparoa izan zala literatura unibersalari jagokonez. Urte horretan jaio ziran, besteak beste dirala, Nabocov, Ernest Hemingway, J. L. Borges, Yasunari Kawataba... Eta euskal mundura etoririk, Nemesio Etxaniz edo Henri Lafon, esaterako.

zan (Guadalajara), Bilbon Azkueren laguntzaile ibilia zan hamarkada baten².

Basile eta Errose ahiztak ziran. Basile baino hamar urte gazteagoa zan gure Errose. Urte-kontuak aurrera eroanik, Kirikiño ezkondu zanean hamar urteko neskatoa zan Errose. Kirikiñoren lobeia eta koinatea izan zan, aldi berean, beraz, gure idazlea. Bizi, Basilegaz eta Kirikiñogaz bizi izango zan, Mañariko herri barrubarruan, bihotz-bihotzean, Urkiolarako bide nagusiaren ertzean dagoan Zumelaga handietxean³. Kirikiño 1929ko zezeilaren 10ean hil zan, Errosek hogeta hamar urte zituala. Handik aurrera ahizta biak, Basile alargun gaztea eta Errose, biak bietara, Zumelaga etxean bizi izango ziran. Gerratean Basile eta Errose erbestean, batera ibili izan ziran.

Errose Bustintza gazterik hil zan, neskazaharturik, berrogeta hamalau urte besterik ez zituala, gerraoste latz eta baltzean, eta guk dagikula idazteari itxirik, jaio zan herri berean, Mañarian. Bai, halantxe da, Mañarian jaio eta hil ziran Kirikiño eta Errose osaba-lobak. Orain dala bost hamarkada baino gehiago, jaioten

² Kirikiñoren bizitza-zertzeladarik oinarrizkoenak eta interesgarrienak Aita Santi Onaindiak argitarara eban *Abarak* 1966ko edizionoko berbaurrekoan dagoz. Kirikiñoren ipuinik gehien biltzen dituan edizimoa be bada. Orduan batu zituan bizitza-zertzelada asko orduantxe batu eitekezan bakarrik. Kirikiñoren emaztea Basile bizirik egoan eta proba-zuzenketen egilea Lon Arteaga mañariarra izan zan. Mañarikoren bizitza-zertzeladak batzeko berandutxu gabiltzan begitazinoa daukagu. Haren gaineko hurretik hurrerako barriak batzeko berandutxu, behar bada. Aita Santi Onaindiak berak zelan ez ete deuskuz barri gehiago jarri? Aita Santi hamar urte gazteagoa zan bakarrik eta hurretik hurrera ondo ezagutzeko ereia izan eban.

³ Ebaristo Bustintza Etxanoa etxean jaio bazan be, Zumelaga harlanduzko etxera joan zan bizi izatera zazpi urte zituala. Errose Bustintzaren jaiotetxea, itxurak diranez, Zumelaga da. Lehen, Zumelaga etxearen ezkerreko aldean harrizko idatzi bat egoan Kirikiño idazlea gogoratuaz. 1999 urtean, Errose Bustintzaren mendeurrena ospatu zanean, haren omenez etxearen ezkerretara beste lauza bat erantsi eutsan Euskaltzaindiak. 1999 urte berean, Errose Bustintzaren gainean egun biko berbaldiak eratu ziran.

eta biziten ikusi zituan Urkiolapeko lur oparoak bere kolkoan gordeten ditu osaba-lobak; kereiza-arbolak urtero euren lora zuriz apaintzen dabon lur aberatseko ortu santuan datzaz euskal behargin jator bi.

Uste dogu Errose Bustintzak gerra aurrean hain ugaria izan eban idazketa-jarduna guztiz eten ebalá. Ez dogu ezagutzen euskal literatura osoan hain erabateko etenik. Gerrateko azkeneko urtean *Euzko Enda* aldizkariko sei ipuinak eta gerraostekoak, *Karmel* eta *Gernika* lako aldizkarietan azaldu ziran ipuinak, ez ziran barriak izango, gerra aurrean agertu ziran berberak baino. Gerrea galtzeak sortutako iluntasun eta ezinak eraginik argitaratzeari ezeze, idazteari be eragin ete eutsan? Argitaratu ez arren, idazten jardun ete eban Errose Bustintzak?

Ebaristo Bustintza *Kirikiñok* fisika eta matematikako goimailako eskolak ikasi zituan erdal herrietan eta irakasle be egon zan Almansan eta Sigüenzan. Euskal Herrira etorri zanean, Bilbon, Azkueren laguntzaile eta idazle jardun eban. Kirikiño idazlearen zehaztasun asko jakin gineiz literatura manualetara zein artikulu monografikoetara jo ezkeró. Kirikiñoren kazetari eta ipuin produkzino eskergan be hainbat datu batu leitekez idazle horren nortasun eta abarrez. Errose Bustintzaren gainean, osterá, datu, zehaztasun eta zertzelada gitxi be gitxi ezagutzen ditugu. Ez dakigu haren ikasketa, joan-etorri, lagun-adiskide eta abarren barri handirik. Euskal literaturako monografiarik ezagunenetan ez dago haren azterrenik. Orixe, Mitxelena, Villasante, J. Kortazar, P. Urkizu eta abarren literaturearen gaineko liburu monografikoetan haren izenik ez dogu ikusten. Ez da, beharbada, bidebageria handia idazle lez ez aitatzea. Errose Bustintza folklorista eta kronista handia izan zala deritxagu. Sasoi bateko Euskal Pizkundea dalako mobimentu zoragarri eta baikorrean folkloristarik eta kronistarik sutxu eta maitegarrienetarikoa izan zan. Ama Euskerearen beharginik handi eta sutsuenetarikoa, ezertariko duda barik.

Neurri honetan behintzat, bidez eta legez, dauenari dauena emon gurarik, Aita Santi Onaindiaren literatura liburuetan agertzen da. Errose Bustintzaren bizitzea eta beharrak kontuan hartu eta neurri baten aztertu dituen hiru aztertzaileren izenak aitatze-kotan, beste alde batetik, Lino Akesolo, Nikolas Alzola Gerediaga eta Jaime Kerexeta geunkez.

Errose Bustintzaren ikasketen barririk ez dakigu. Ez dogu uste bere herritik urrindu zanik. Ez dogu uste beraren osabea lez kanpoetan eskola handiak ikasten ibiliko zanik. Herrian ikasiko eban kaskondu arte, seguru antzean. Pentsau leiteke osaba euskaltzale eta idazle handiaren ondoan trebatuko zala, osabearen ondoan hasiko zala idazten. Bizenta Mogel bere osaba Juan Antonio Mogelen hegapean eta gidaritzapean trebatu zan moduan, aldeak alde eta aldiak aldi, ez ete zan gure Errose Bustintza be idazle bihurtu? Errose iturri bitako euskera ereduak landu zituan. Batetik, Mañarian ikasi eban herri-euskerea bere aberastasunik osoenean, eta, bestetik, garbizaleak erabilten eban euskera asmau barrian. Adar bi horreetan sekulako sakontze lana egin eban. Idazle gitxi ikusiko dogu herri-euskerara ohartuago Errose Bustintza baino. Maite zituan ahozko generoak: dantza-kopla zahar, esaera, kontu, ipuin eta mitoak. Etenbakoak ei ziran, berak esaten deuskunez, atso-agureakazko berbaldiak⁴. Errose Bustintza folklore-biltzailea izan zala esan behar dogu. Dantza-kopla bildumarik handiena berarena dala esan leiteke, baina herri-otoitz, balada eta esaera zaharren biltzailea be izan zan. Dinogunaren proba argi eta erabatekoak dira batu eta argitara ekarri zituan folklore aleak. Uste dogu folklore lorratz horretan Kirikiño izan zala, neurri baten, bide-gidari. Beste gidari bat, zelan ahaztu, bada, Lauaxeta izan zan. Eta Kirikiñoren heriotzearen ostetxuan, *Euzkadi* egunerokoaren *Euzkel atala* izeneko zatian, zenbat bider

⁴ Dinogunaren adibiderik garbiena, *Aititordearen lehenengo ipuina* kontakizunean (gure edizioan *Biraolaria eta txerrenak*) egiten dituan aitortzak dira.

ez ete doguz irakurri Lauaxetaren hitz suspergarriak gure Erroserentzat?

Esan daigun, beste alde batetik, Errose Bustintzaren lanik gehientsuenak gerra aurreko egunkari eta aldizkarietan barreaturik dagozala. Batez be *Euzkadi* eguneroko abertzalean idatzi eban, baina *Ekin* astekarian eta 36ko gerrako *Eguna* eguneroan ikusten ditugu haren kronikak. Anaia arteko 36ko gerrearen ostean gure idazlearen lana, beste askorena lez, eten egin zan. Ipuin bat edo beste agertzen da aldizkari baten edo bestean, baina folklore-bilketa eta kronikak ez ditugu inon ikusten.

Errose Bustintzak, bizi zala, ez eban bere libururik argitaraturik ikusi. Kirikiñoren bizitzearen atzenaldean, 1918an, lanik ontxuenen bilduma polita egin zan: *Abarrak*. Kirikiñoren liburuizenburu hau Euskal Literaturako izenbururik apal baizen egokienetariko bat dogu. Andima Ibiñagabeitiak, Errose Bustintza artean bizi zala, han-hor-hemengo aldizkari nahi egunkarietako ipuinakaz beste hainbeste egiteko burubidea agertu eban. Baina, zoritxarrez, ez zan asmo hori libururatu. Hona Andimaren berbak:

«*Mañariko Errose*, “Jesusen maitatzaille zintzoa” antzirudia. Trebea duzute Mañariko Errose ipuiak idazten, gure artean garaienetakoa nik uste oraingo ontan. Badizu irudimen, badizu batez ere biotzondo. Noiz emango dizkiguzu, Errose, zure ipuiguziak liburu batean bilduta?». (*Euzko Gogoa*, 5-6 zenbakia, Orrila-Garagarrila, 1952, 7 or.)

Beste ipuinlari edo ipuin-idazle ugari bat aitatu gura dogu hemen, hari-harira datorren kontua dala deritxagu eta, Pedro Migel Urruzuno elgoibartarra (1844-1923). Urruzunok bere sasoiko aldizkariirik gehienetan argitaratu ohi zituan ipuinak. Batez be herri-sena edo herri-enkantua alderdi guztietatik darien ipuin barregarriak ondu zituan, baina ez zituan agerkarietan

sakabanaturik zituan ipuinak libururaturik ikusi⁵. Gauza bera jazo jakon gure Errose Bustintzari. Andima Ibiñagabeitiaren deia ez eban inork haragitu eta Erroseren ipuinak hegabanatuak eta sakabanatuak gelditu ziran, ardi deslai eta galduen gisara, sasoi bateko egunkari eta aldizkarietan. Pentsetakoa danez, gerraosteko urte latz hareek ez eben lagunduko, ez, idazle abertzaleen lanak libururatzten.

Aitamen horretatik askoz geroagora, Errose hil eta askoz geroagora, 1990ean, Jaime Kerexeta izango da, gure Mañarikoren lehenengo ipuin-bilduma kaleratu ebana. Kaleratu, gainera, liburu bitan eta erregistro bitan, bizkai-euskeran eta euskera batuan.

2. Mañaria Errose Bustintzaren jaiolekua

Mundu honetako persona guztiak lez, bere sasoiko alabea izan zan gure idazlea. Mañaria herritxua Durango erdaldundu eta erdaltzaletik hur dagoan herri erabat euskalduna zan orduan, eta gaur egun be neurri handi baten eusten deutso bere euskaltasunari. 1936ko anaia arteko gerra aurrean, euskal herrietako uri han-

⁵ Pedro Migel Urruzunok eta Ebaristo Bustintzak badabe, zelan ez, bada, bateratasuna. Biak izan ziran ipuin-idazle eta, gainera, oso idazle oparoak. Ipuin-idazleak eta, orduko denporeak agintzen eban lez, bi-biak aldizkarietako zein egunkarietako ipuin-idazleak. (Urruzumoren kasuan, guk dakigula, batez be orduko aldizkarietan idatzi eban: *Baserritarra*, *Euskaltzale*, *Ibaizabal*, *Argia*, *Jesusen Biotzaren Deya*, *Euskal-Erria*...) Esan daigun, era berean, biok izan zirala herritar-herritarrak, eta jenteak asko irakurten zituela haren lanak. Urruzumo apur bat zaharragoa izanda be, biak ideak izan zirala esan ginei. Hil, bata 1923an eta bestea 1929an egin ziran. Bi-biak herritarrak izanik, Kirikiño garbizaleagotxua izan zan. Aranaren berbak Kirikiñoren Janetan ikusten ditugu; Urruzunok, guk dakigula, ez zituan orduko korronte edo moda barriko berbak sartu bere idazlanetan (*Auspoa* bildumako liburutetan –*Euskalerritik zerura*, 1961; *Iru ziri*, 1965; *Ur-zale baten ipuiak*, 1965; *Sasiletrau baten ziria*, 1974– batuta dago ezagutzen dan produkzionik gehiena). Oso interesgarriak dira, bestetik, 1974ko *Euskera* aldizkarian datozan Antonio Arruc, Antonio Zavala eta Julene Azpeitia-ren lanak.

ditxuak erdaltzaletzen eta erdalduntzen hasi ziran sasoiari —emon daigun, kasurako, Zarautz eta Durango, Lizardi poeteak zoli salatzen ebanez— erdal olatu gogorraren babespean egoan herri euskalduna genduan Mañaria.

Mañariko izateak pisu handia izan eban gure idazlearentzat. Ez dogu ikusten beste idazlerik, egia esanda, bere jaioterriari hain loturik. Lehentxuago esan dogun moduan, ez dogu uste, ezelako daturik ez daukagun arren, Mañaritik urten ebanik eskolak ikastera. Kirikiño, danok dakigunez, kanpoetan ibili zan eskolak ikasten eta erakusten, eta Euskal Herrira etorri zanean, Bilbon jardun eban *Euzkadi* egunerokoaren euskal atala atontzen eta eskolak emoten. Gure Errose Bustintza, ostera, Mañarian ikusten dogu sartua eta sustraitua. Onerako eta txarrerako, Mañaria izango da beraren mundua. Gure begietan ez da Mañaritik asko urinduko. Urkiolara sarri joango zan San Antoniori eutsan jaiera edo debotinoak eraginda, baina askoz urrinago ez da aldenduko. Mañarian ezagutuko dituan baserritarrak, atso-agureak, kontu-esaleak izango ditu euskerearen iturri naro eta oparoa. Mundu osoa bere jaioterrira trinkotu eta ardaztuko da. Herriko auzoera urinetara joango da, beraren kroniketan irakurten dogun moduan, baina alboerrietara urtetan ebanik ez dakigu. Inoiz beste herrietako barri-emoilei Mañarira etorteko konbitea egiten deusie. Kereizasasoiari kereizak jateko konbidautzea agertzen da kronika baten edo bestean, Mañariko kereiza gozatsuak inguru zabalean ospe handia daukie eta. Baina ez dogu beraren idatzietan inora joan zan konturik irakurten.

Errose Bustintzak hartu eban goitizena edo idazteko izena, lehenengo *Mañariko Errose* izan zan, eta, gerorantz, *Mañariko* huts-hutsa. Berba bakar baten ondo baino hobeto laburbiltzen dau idazle baten koordinada geografikoa eta nortasuna, neurri baten behintzat.

Mañaria herriaren ezaguarriak ez dira erraz berba bitan adierazoten. Urkiolapeko herri hau Bizkaiko Gaztelarako zubi edo igarobidea izan da menderen mendeetan. Itzainak, burdizainak

eta gainerako saldu-erosietako merkatariak luzaroetan Mañaritik zehar merkaduria-garraioan, haruntz-honuntz etenbakoan, ibili izan dira. Orioa, ardaoa, garia, ehuna eta beste mila merkaduria Arabako lautadan zehar, Urkiolako santutegiaren barrenean dagoan bidetik zehar aurrera eginaz, goitik beherako amiltegian zehar Mañarirainoko aldasbehera pikan joan behar izan eben mendeetan zehar. Bizkaian, era berean, bidaiari asko harri eta zur gelditu ohi ziran behin Otxandiotik aurrera Urkiolarunzko bidean gora joiazala, Mugarra mendi-kateko hatx tantai eta itzalakaz topez egitean. Mugarra mendia, eta ondoko mendiak be, Mañarialdea inguratzen eta babesten dabela, ze ikusmira ederragorik? Mendiak baino ez ete da hobeto esatea, bestalde, hatx-mendiak? 'Hatx-mendi' hitza, toponimo ezaguna izan arren, ez ete da Mugarra aldeko hatxezko mendien izena? Erroseren ipuinetan 'hatx-mendi'⁶ berbea sarritan irakurten dogu. Baleiteke herri-berbea izatea. Urkiolara ezkerre Bizkaiko bailaretaraino jastea, zelaiz eta basoz hornidutako laku baten sartzea lakoxea izango zan. Bidaiari eta merkatarien pasoa edo igarobidea izateak ondorio onak eta ez hain onak ekarriko zituan historian zehar. Kirikiño idazleak esaten deuskunez, Urkiola ondoko basoak lapur-habia izan ohi ziran: bidaiarien eta merkatarien diruak konpontzen ei zituen mila zurkulutan gordeten ziran bide-lapurrak. Behinolako mikelleteak ezin burutu ei eben Mañaritik Otxandiorainoko baso zabaltan eta mila hatx-bitartetan ostendu ohi ziran lapurraz.

⁶ Ez dogu berba hau hiztegiatan aurkitu, baina Mañarialdekoa izan behar dau hurrean. Lau kontakizunetan behintzat agiri da. Hona adibideak: XI. ipuinean, «Eta aldi luzean haize-putzetan lainoan zehar bakankiro erabilia, hurrengo gauean inguruko *hatx-mendietan* sakabanatuta itxi zituan»; X. ipuinean, «Arratsalde haretako eguraldia hotza eta iluna zan; *hatx-mendiak* lainoz ondo estalduta zirala, euria zaparrada handiz jausten zan»; XXXIV. ipuinean, «Eta orduan, han izan zan zaratea eta burrundadea! Hango negarra eta hango ulua! *Hatx-mendietan* behera etorri balira be, handiagorik 'ez»; eta XLI. ipuinean, «Unc haretan *hatx-mendiak* emoten eben poza, inortxuk be kolkoan ez eban gordeten!... ».

Mañariarren Gaztelagazko hartu-emona era batekoa baino gehiagokoa izango zan. Mañariko gazteak XIX. mendean, gerra karlistak baino lehenago, Gaztelako hainbat herritara joan ohi ziran upagintzara lehenengo, eta beste lanbide batzuetara, gerora. Ezagutzen dogun Kirikiñoren azkeneko lan idatzian, "Gaztelamutillak" dalakoan, hartu-emon eta bidaiia harrigarri horreen barri zehero emoten dau.

Euskal Herri barruan Arratiagaz hartu-emona izango dabe mañariarrak. Aita Lino Akesolok "Atxosterik Atxostera" lanean esaten deuskunez, Arratia eta Mañariaren arteko zubia, Dimako Indusigaz loturea eginik, hatx-arte batetik izango dabe. Horrexe gaitik Atxoste izango da mañariarentzat zein arratiarentzat hatxen osteko bailarea⁷.

Euskal Herriko mendebalde osoan hain jaiera edo debozino handia daukan San Antonioren santutegira Bizkai osotik ezeze, Mañarian gora Gipuzkoatik eta gainerako lurraldeetatik be erromesen geldibako joan-etorria izango zan mendeetan zehar. Gure Mañariko idazlea be, ezagutu eben bere herritarrak esan deuskunez, San Antonioren debozino handia ei eutsan. Arabere gehiago, gure idazleak sarri egin ohi eban Urkiolarainoko bidea Mañarian gora, beste erromes askok lez. Bizitzearen atzenean, gaixoaldi latzak hartu ebanean, fede burruka handiak izan ohi zituan, beraren lagun hurrekoak esan deuskunez, bere bihotzeko San Antoniogaz.

⁷ Liburu-sarrera polita da Lino Akesolok *Balentin Berriotxo*a, *Bitaño* edo Nikolas Alzola Gerediagaren *Atalak* (Kuliska sorta, 64 zk., Donostia: Itxaropena, 1967, 15-25 or.) liburuan jarri ebana. Baita, nahi izatera: Lino Akesolo, *Idazlan guztiak*, I liburua, Karmel sorta, Larrea-Zornotza: Karmel, 1989, 599-604 or. *Bitaño* Izurtzakoa zan, Mañaritik hurrekoa. Durangotik hasi ezker Urkiolaruntz, Izurtza eta hurrengo herria Mañaria dogu. Hona sarerearen hasierca: «Atxostekoa naz eta Atxostera nator./ Arratia aldeti Durango-aldera, bitartean diran atxontor laño-zaleen ganeti, Izurtzara luzatu nai dot eskua, ango seme argi batek eskintzen deuskun euskal-liburu barri au esker onez artzeko». Hemen, ikusten denez, 'atxontor' darabil Errose Bustintzak, goratxuago esan dogunez, 'atx-mendi' adierazoteko.

Urkiola mendiaren magal baten datzan Mañaria herriari lotu-lotua ikusten dogu, beraz, gure idazlea. Untze bat oholean sartu eta betiko gelditzen dan modu-moduan ikusten dogu, geure begiz, Errose Bustintza. Soka motxean laiari loturik dagoan astoa lez, arima apartaduta, ikusten dogu geure begiz. Mundu osoa Mañaria balitz lez, gure idazlearen uniberso osoa Mañaria edo bere inguru estuan ikusten dogu⁸. Herri bakar bati lotutako bizimodua harrigarri egiten jaku gaur dan egunean. Harrigarriago, gainera, idazlea bada bizimodu hori eroan dauena. Idazlea, gure begietan edo imaginarioan, biziera alderraia eroan behar dauen personatzat daukagu. Pierre Loti ibiltaua edo Robert Louis Stevenson abenturazalea hartu ohi ditugu idazleen paradigmatzat. Itsasoak hausten urrineko leku eta parajeak ezagutu zituen euskal idazleak baditugu lehenago be. Eusebio Maria Azkue eta Jose Manuel Etxeita, barbarako, munduko itsaso baltzetan zehar, hara eta hona, ibili ziran Euskal Herrian finkatu baino lehenago. Ez dakigu Herman Melvillek eta Josef Conradek lez abentura estu eta miragarrietan sartuta egon ziran, ez deuskue, zoritxarrez, era horretako kontakizunik idatzita itxi eta. Baina gorriak eta bi ikusi behar izan zituen... Lehenengo karlistadan ibili zan, kasu baterako, E. M. Azkue Iparragirre mutikoa lez (hamahiru urtegaz sartu zan lehenengo karlistadako gerrea biztu zanean), eta bi-biak bitzita gorabeheratsua eroan eben kanpoetan.

Tankera bateko idazleak, beraz, neurri baten, mundurik hara, erbeste urrintan, jazoera, ohitura eta abentura harrigarriak bizi dituen personak dira, geure irudimenean. Batzuen batzuk ezin dogu ulertu, era batera behintzat, ia beste idazle-eredurik. Idazteko ez da lumearen tintea bera baino beharrezkoagoa haize barriak

⁸ Herritik kanpora nondik nora ibili ete zan? XLIII. ipuinean, "Bide-ipintek" izenekoan, holan dino: «Herritik at, batetik bestera nabilen artean, eurakaz hamaikatxu bider gomutetan naz!». Halan bada, nondik nora ibili zan herritik kanpora?

arnatea? Irudimena indarbarritzeko ez ete ditugu behar oilolur estu-bedarrean izaten ez diran jazoera miragarriak? Zelan ekanduko da, gaurko begiz ikusita, idazle bat lur-txatal estu batera? Zelan ekandu edo egin Mañariko ganbarrura irudimena irakinean daukan idazle sentibera bat? Errose Bustintzaren bizimodua, ostera, bizi izan zan sasoiko edozein euskaldunen bizimoduaren erakoa zan. Herri bati edo, gehienez, bailaratxu bati lotutako bizimodua. Aita Donostiak esan eroian berak ezagutu zituan euskaldun gehienez bizimodua begi-bistan zabaltzen zan eremutxu urrian amaitzen zala, begi-bistan sartzen ziran mendietatik harago sekula be ez ebela oinik ezarri.

Gure Errose Bustintzaren bizimodua berari-berarizkoa izango da bilketa-lanetarako. Mañariko kaletar-baserritarrakaz berba egin eta entzundako esaera zahar, koplak eta ipuinak transkribiduko ditu. Ez dakigu gerratean erbestera egindako bidaiak batez ostean beste bidaiarik egin ete eban. Baditu alderdi horretatik Emily Dickinson (1830-1886) idazle amerikarragaz, *mutatis mutandis*, zelanbaiteko bardintasuna. Bi-biak gazte samarrik hil ziran. Bata berrogeta hamahiru urtegaz, bestea berrogeta hamaseigaz. Bi-biak barru-bizitza aberatsekoak izan ziran eta bizitza bakarti samarrekoak, itxurak diranez. Ezkongai edo neskazaharturik hil ziran, eta jazoera horren errazoiak azaltzeko alperrikoak dira izan leitezkezan uste-muste guztiak. Emily Dickinson *Amhersteko ermitaia* lez ezaguna da, beregan bildurik, bizitza bakarzalea eroan ebalako. Gure Errose Bustintzak, jarraibide honetatik apurren bat badau. Gure idazlea ezagutu dabenak autortu deuskuenez, gaztezalea ei zan, gaztez inguratutik egotea gustetan ei jakon, eta mendi-ibiltaldiak egin ohi zituan gazteok lagun harturik.

Idazle bi-biak herri bakar bati lotuak dagoz: Amherst eta Mañaria; idazle bi-biak oilolurrean ibili ohi ziran, baina irudimenez arranoaren hegaldi goitarra eukien. Hatx-mendi lainozaleak baino gorago hegan egin eta zero goitarrera aldentzen ei ziran, irudimenez. Gorputzez leku fisiko mugatu baten bizi arren, edertasunaren lur edo kontzientzia-eremuetara eroaten zituan gora-

nahiak. Esan daigun azkenean, Andimaren berbak barrero gogoraturik, idazle biak ebela «bihotzondoa» eta «irudimena», edo beste era batera adierazorik, idazle biak zirala sentiberatasun eta bihozberatasun apartekoak.

3. Ebaristo eta Errose Bustintza biak kronista

Lorraz nagusietariko bat aitatu beharko bagendu Kirikiño-ren idazle-produkzinoan, esparru nagusia zedarritu beharko bagendu Kirikiño handiaren idazletzan, kronistea zala esango geunke. Beste lorraz bat Kirikiño ipuinlaria geunke. Kirikiño olerkari eta Kirikiño antzerkilari beste maila apalago baten ikusten dogu. Eta Kirikiño-ren bi bide berberak ibili zituan lobeak. Osabearen ikasle ezeze, osabearen idazle-lorraz biak hartu zituan ondorengotzan: ipuinlaritza eta kronikagintza. Guk atal honetan kronikearen barri emongo dogu. Pentsetakoa da Kirikiño-ren kronikak izango zituala bide-erakusle gure Errose Bustintzak. Osabearen zunetzean eta gerizan emongo zituan lehenengo pausuak; osabearen gidaritzapean apal-apalik hasiko zan osabearen egunkari berean, *Euzkadi* barripaper abertzalean. *Euzkadi* egunkariak baeban orrialde bat euskeraz *Euzkel atala* eritxana. Onenean orrialde osoa izaten zan, gehienetan, ostera, orrialde erdia. *Euzkel atala* horretako zati edo sailtxu bat *Errijetatik* eritxan. Sail horretan Bizkai-Gipuzkoetako korrespontsalak idazten eben, herrian herriko gertaerarik nabarmenenak idatziaz. Sail xume honek uste baino tradizino handiagoa izan dau gure artean. XIX. mendeko Iparraldeko astekarietatik etorri zan gure artera. Iparraldeko astekari nagusiak herrian herriko barriak kontetako sailtxu bat eukien. Lau kasu bakarrik aitatu ezkeru, *Eskualduna* astekariak, zein diasporako aldizkariak Kaliforniako *Euskal Herria* zein Argentinako *Euskaria* edo *Izarra* edo *Gure herria* agerkariak sail hau bizi-bizi mantenido eben. Herrietako korrespontsalak ez ziran, jakina, eskola handikoak. Herri-gizon eta -emakume apalak ziran, euskerearen aldeko borondate eta gogo onez jantziak.

Herri-korrespontsal honeek ez zituen jazoera handien barri emoten, herriko jaiotza-heriotza datuak, jai-ospakizunak, mitinak eta holakoen barri baino ez. Kirikiñoren beraren meriturik handiena *Euzkadiko* korrespontsal honeen prestatzailea eta adoretzailea izatea izan zan. Kirikiñok eukan filosofian euskerearen laguntzaileen artean barru eta borondate oneko guztiak sartzen ziran. Hona hemen, laburbildurik, Xabier Agirre *Lizardik Hora triste* artikuluan⁹, Kirikiñoren hilbarrian idatzi ebana:

«Mirámoslo largamente, en tanto que el pensamiento nos bailaba una danza loca y lúgubre, mezcla de dorados recuerdos añejos y de actuales consideraciones desoladas. Allí estaba, yerta, la terrena imagen de aquel gran niño-grande que durante largos años se impuso la misión transcendental de crear el primer cuerpo popular de obreros del idioma, quizá el más viejo del mundo. De mil ocultos rincones comenzaron a surgir corresponsales, tocados con el capuz de sobrenombres pintorescos. Era aquí el carnicero, ahí un campesino, más allá un mozo de estación, quienes a lápiz y en cuartillas mal cortadas sometían al euskera al yugo torturador de su caligrafía jeroglífica trazada con mano que jamás sospechó semejante cooperación en tarea literaria.

“Kirikiño” atendía a todos, día tras día les aleccionaba, y amábalos con especial cariño, tanto mayor cuanto más humildes fuesen». (Euzkadí, 1929-II-08)

Herri-korrespontsalak ez ziran gizonetzkoak bakarrik, gizon-emakumez eginiko taldea osotzen eben herri-kronistak. Talde honetan pisu handia eben emakumeak. Borondaterik onena eukien abertzaleak ziran, gehienetan, *Euzkadiko* korrespontsal edo kronistak. Emakumeak, gainera, gehienetan begi-bistakoa danez,

⁹ Lurdes Otaegi, *Xabier Lizardi: Kazetari lanak*, Donostia: Erein, 1987, 204 or.

Emakume Abertzale Batzako partaideak. Markinakoa, esaterako, Elixabete Aginaga zan, *Ete* izenaz izenpetzen ebana. Euskal Bizkundearen optimismoaren zurrumbilo amesgarrian ekinean ziharduena herri-idazleak osotzen eben korrespontsaltza hau. Kirikiño bera be korrespontsala zan, baina beste era batekoa. Kirikiñoaren korrespontsaltza eremu handikoa zan, ez zan mugatzen herrian herriko jazoera xumeetara. Bilbon Azkueren hegaltzean behar egiten eban idazle fin honek kezka zabalak zituan. Kirikiño handiaren kronika eta ipuin antzeko gertaeraz liburu mordoskada bat osotu da¹⁰. Orixe idazleak Kirikiñoaren hilbarrian azaldu eban moduan, honen kronikak euskaldunen ondarea osotzen eben eta merezidu eben lan guztiak batzea eta argitaratzea¹¹. Euskal idazle gitxi egongo dira, beraz, Kirikiñoak hainbat kezka intelektual zituanik. Mila eta bat gairen gainean idatzi eban. Unamunoren gainean edo Ameriketako barriak edo Bilbon euskera eta euskaldunak, edo perretxikoen hazketea... Bizkaiko klasikoen sailean atondurik dagozan Kirikiñoaren artikulu-liburuetan, Europa guz-

¹⁰ Labayru Ikastegiak bost liburu behintzat argitaratu ditu Sutondoan liburu sortan: *Egunekoa*, 1981; *Edo geuk edo iñok ez. Euzkerekaren alde*, 1984; *Guda Nagusia 1914-1918*, 1989; *Bizkaia begietan (1913-1923)*, 2002; eta *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*, 2008.

¹¹ Nikolas Ormaetxea Orixe, «Kirikiño. Su testamento literario», in *Euzkadi*, 1929-02-09: «Pero su testamento literario, por desgracia, no es efectivo por el momento. Todos los vascos debiéramos disfrutar por igual de ese tesoro, desperdigado en las columnas de un periódico. Bustinza es conocido y no es conocido. No ha tenido la pretensión o la oportunidad de escribir libros, que son los que mejor quedan y se pueden extender a gentes a quienes no llega un periódico determinado y se pueden grabar mejor aún en los que lo hayan leído en fugaz lectura diaria. Hace falta, es indispensable, editar en libros lo más escogido de su producción./ Sea quien fuere el encargado de los papeles inéditos de don Evaristo, es preciso toda cautela para no entregarlos en manos inexpertas o, lo que sería peor, intencionadas. La parte crítica de su edición hay que confiarla a persona de solvencia intelectual que respete lo que deba respetar y anote lo que deba anotar. En una palabra: a persona que esté capacitada para hacer una edición crítica de esos escritos que, impresos, compongan la obra póstuma».

tiz aztoratu eban 1914-1918ko Gerra Nagusiaren kronikak bilduta dagoz. Beste liburu batek, esaterako, artikuluko politikoak batzen ditu¹².

Gure Errose Bustintzaren lehenengo artikulua izenpe bakoak izango ziran. Guk dakigula, 1927. urtean hasi zan idazten Mañariko herriko kronikak. 1927ko *Euzkadi* egunkarian Mañariko kronikak ez dabe izenperik. Apaltasunaren eta umiltasunaren proba handiagorik non ete dago? *Mañariko* izenpea Kirikiñoren hilbarria idazteko ikusi dogu lehenengoz. Badirudi osaba maitea hil eta ondorikotasuna indartu gurarik edo lotsa barik hartzen dauela bere izenpea. Data horretatik aurrera sarriago agertzen dira Mañarikoren kronikak, guztiak izenpea dabela.

Kronika horreetan askotan ez dagoz herrietako zertzilidade hutsak. Ipuin txikiak eta gainerakoak be aurkitu leitekez. Edurrak, esaterako, herri bat estaldu badau abenduan, edurraren gaineko esaera bat edo beste egon leiteke; edo Gabon inguruan kantau ohi zan koplá edo Gabon-kanta eta abarrak noizean behin kronikan txertaturik ikusten ditugu. Zelan ez, urteen joanean kronistak eurak alkarren lagun egin eta alkarri idatzitako konbite eta ziriak be irakurriko ditugu.

4. Euskal emakumeak ipuin-idazle

Hartu daiguzan urak goi-goitik, gure Errose Bustintzaren denpora baino goragotik, eta egin daigun berba, apurren bat bada be, euskal idazle emakumeen gainean. Emakume idazleen artean, XIX. mendetik hona, ipuin-idazle apartak ditugu. Euskal literaturan ezagutzen dogun lehenengo emakume idazlea Bizenta Mogel

¹² Kirikiño 1929an hil zan, esana doguez. Lehen Mundu Gerrako barriak 1914tik 1918ra bitartekoak, ardurá handia emon eutsien. Sasoi haretako barriakaz liburu bat osotu dá, goratxuago aitatu dogun *Guda Nagusia 1914-1918* liburua, hatan be (Bilbao: Labayru Ikastegia, 1989, Xabier Perearen hitzaurre eta edizinoaz).

dogu. Bizenta Mogelen liburua *Ipui onac* izenaz argitara atera zan Bilbon 1804an, bere osabea hil eta urte bat geroagora. Gabonkanta mordoskada bat idatzi eban arren, batez be ipuinlartzat dogu Bizenta Mogel. Badago uste dauenik Bizentak argitaratu zituan ipuinak beraren osabearenak dirala. Errazoibide sendo bi behintzat badagoz hori uste izateko. Argitaratu zan ordurako, 1804rako, gazteegia zan Bizenta Mogel, eta gainera, osabearen eskua edo idaztänkerea igarri-igarrian ikusten da... Halan pentsetako bidea emoten dabe *Ipui onac* liburuko ipuin on edo alegiak, baina hori beste kontu bat da eta itxi daigun hor konpon.

Beste emakume ipuin-biltzailea Mayi Ariztia (1887-1972) saratarra izan genduan. Mayi Ariztiak aita Donostiaren gidaritzapean herri-ipuinak bildu eta argitaratu zituan. Errose Bustintzak eta Mayi Ariztiak badabe alkarren antza kontu baten baino gehiagoan. Bi-biak bizi izan ziran Euskal Herriko lurralderik zaindu, babestu eta euskeratsuenetariko bitan, hain suertez be. Emakume argi honeek nekazari gizarte euskaldun-euskalduna ezagutu eben. 1936-39ko gerra aurreko Sara eta Mañaria herri-nekazariak, herri-literaturearen altxor parebakoak ziran. Emakume biak herri-ondarea jaso gurarik herritarrakana jo eben, kontulari apart eta zoragarriakana. Mayi Ariztiak nekazarien edo, berak gurago eban moduan, «ichtorio-errailen» ezpanetatik hara entzundako ipuinak leial jaso zituan. Errose Bustintzak, ostera, entzundako kontakizunak dirala, esaundak dirala, ipuinak dirala, bere narrazino landuetako gai edo oinarri erabili ohi zituan. Garbizaletasunak, gaurko begietatik ikusirik, hondatu edo indargatu zituan herri-kontakizun asko. Garbizalekeriak edo hobeto esateko, euskera landu beharraren landu beharrak indargatu zituan hainbat kontakizun.

Errose Bustintza folklorista edo folklore-biltzailea izanik, batu zituan dantza-kopla, herri-otoitz eta herri-baladak leial, aldaketarik egin barik, argitara ekarri zituan. Inoiz edo behin, santa eske-kopla batzuetan, esaterako, zozertxu garbitu edo txukunduta emon zituan, baina gehienetan herritarren ahotik batuta

lez emon zituan moldezko letretara. Kontakizun-bilketan, oster, alderantzizko bidea erakusten dau. Errose Bustintzak larregi puzten ditu bere kontakizunak eta balio etnografikoa galtzen dabe. Balio literarioak berak be, irabazi gurearen gureaz, geure uste apalean, galduan urteten dau. Zer dan benetako kontakizuna eta zer ez, zer dan entzunikoa eta zer asmaurikoa bereiztu beharra dagoala deritxagu. Zer dan herri-euskerea eta zer zan laboratoriko euskerea, azkenean, bereiztu beharra dagoala deritxagu.

Mayi Ariztiaren idea zan Julene Azpeitia zumaiarra (1888-1980). Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan*¹³ liburuan ehun kontakizun ditugu gehien-gehienak herriaren ahotik jasoak eta bizkaieraz zein gipuzkeraz atonduak (guztiak esatea gehitxu izango litzateke, baina gehienak bai; inoiz edo beste itzultzen edo moldatzen badau, nongoa dan jatorrizkoa esan ohi dau eta)¹⁴. Kontakizun horretan badira kontakizun mitologikoak eta gertaera barregarriak. Julene Azpeitia ez zan, zorionez, Errose Bustintza baizen garbizalea. Don José Miguel Barandiaran zein Mayi Ariztiaren kontakizunak ahotik harako transkripzioak dira, herri-ondareko bene-benetako aleak. Julene Azpeitiarenak zein Errose Bustintzarenak, oster, ez dira transkripzio fidelak, neurri bateko moldapen literarioak baino¹⁵.

¹³ Julene Azpeitia, *Amandriaren altzoan*, Kuliska sorta, 45-46 zk., Donostia: Itxaropena, 1961.

¹⁴ Herri-kontakizun zabala dogu, esaterako, "Mayetz luzea", 24. ipuina. Kontakizun mitologikoak dira, esaterako; "Gizona goruetan", 33.a, Mateo Txisturena "Juantxo txistularia", 34.a eta "Anbotoko Mari", 36.a. "Zugatz azpian milla errial" Europa osoan barreaturik dagoan ipuina da; guk lantxu bat eskini geuntsan aspaldian. *Zuentzat*. (Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1974) liburuan, oster, itzulpen eta moldapen asko ditugu.

¹⁵ Horrexegaitik beragaitik agertzen da biltzaile horreen kontakizunetan barri-emoile, jasotze-data eta non batuak diran.

5. Errose Bustintza ipuin-idazle

Errose Bustintzaren ipuinak aho eta gogo batez goratuak izan dira. Errose Bustintza idazlea ipuinlaria zan batez be. Santi Onaindiak, Andima Ibiñagabeitiak eta Nikolas Alzola Gerediagak Mañariko idazlearen ipuinak goratzen ditue. Errose Bustintzak berak be ez dau, egia esatera, ezkutetan zaletasun hori.

Errose Bustintza ipuin-idazlea izan genduan bere osaba Ebaristo Bustintza *Kirikiño* lez. Kirikiñok eta Errosek, ostera, desbardintasun handiagoak ditue bardintasunak baino. Kirikiñok eta Errosek biak edan eben euskerearen iturritik herri berean eta baita familia berean be. Batagandik besteagana doan denporearen koska handitxua da: mende heren bat. Errose Bustintzak XX. mende hasieratik edan eban euskerearen iturri ugaritik. Kirikiñok, ostera, XIX. mende amaieratik. Kirikiñoren denporan bigarren karlistadako gertaera latz eta baltzak zein gertaera barregarriak bizi-bizi egozan. Kirikiñok bere ipuin-estetika alderdi zuzen eta errealista batetik arteztu ohi dau. Inoiz edo behin, bere errastu ezagunetik urten gurarik edo, kontakizun mitologiko bat edo beste idatziko dau. Kirikiñoren gertaerarik gehienak, ostera, barregarriak izan gura dabe.

Maite dogun Kirikiño idazlearen alderdi bat, bestalde, erreportaia-egilearena da. Berak ezagutu dauen munduaren barri erreportaian kontetan dauenean, bere lumearen bizkortasuna eta graziarik handienetarikoa erakusten dau. Adibide bat emotearren Urkiola aldeko lapurrai jagokena da; erreportaia itxurako bat egi-ten diharduala azkenean ipuin itxurako gertaera bat sartzen dau eta irakurlea aho bete hazurregaz ixten dau. Edo karlistadak edo *Santa Kruz abadea* atxakia harturik, gertaera harrigarriak kontatu ohi ditu. Autorpen bat egitea zilegi izan balekigu, euskeraz inoiz irakurri dogun gertaerarik lazgarri eta erdiragarriena Kirikiñoren lumeari zor deutsagu. Kontakizunaren izenburuak “Jazoe-
ra itzela” da *Euzkadi*, 1928-XI-16an idatzia. Artikulu-kronika horretan karlisten lehenengo gerratean bere inguruan jazotako

gertaera harrigarri baten barri kontetan dau. Zuzen eta artez lumearen dardara barik idatzi izan ez baleu, ez leuke emongo kronika horrek arimearen erdi-erdian hain erpekada mingarria. Dinogunaren beste adibide harrigarri bat, erreportaiarik zoragarrienetariko bat, beharbada idatzi eban azkena, gainera, "Gaztela-mutillak" da.

Erroseren estiloa bestelakoa da ehuneko larogean. Errose barrokoagoa da. Kontraerak poesiaren jantzipean atondu gura ditu, gehienetan. Euskera landu eta goitarrez jantzi nahi ditu. Kirikiño zuzentasun, bizkortasun eta graziaren bila doa. Errosek, ostera, edertasun, poesia eta magia jantzi gura ditu ipuinak. Kirikiño eskolatua zan, baina herriaren euskerea aintzat hartu eban. Badauka, halan bere sasoiko garbizaletasunaren ikutu bat¹⁶. Errose, ostera, osabearen modura eskola handiak ikasten ibili ez zan arren, bati baino gehiagori eskolatuagoa dala begitandu leki-kio. Errose bere osabea baino ondotxuz garbizaleagoa izango da. Osabearen garbizaletasuna apurra dan neurrian, garbizaletasun

¹⁶ Aita Santi Onaindiak bere edizinoko *Abarrak* liburuan honelantxe epaitzen dau Kirikiñoren euskerea: «Idazkeran etzan mordollo-zalea, ezta itz-barri zalegia be; bai, ostera, bien arteko, ta garbi-zalea. Ikusi ta irakurri bere lanak». Kirikiñoren euskerea zein Errose Bustintzarena aztergai polita izan leiteke. Hemen holako azterketarik egingo ez badogu be, hona argi-izpi batzuk. Kirikiño *edozalet* dogu. Hitz zahar barritu bat sartu nahi dauenean (zahar barritua edo neologismoa, edo hitz konposatu ezezaguna), *edo* darabil: «Agingina *edo* dentista, esonde *edo* kontseju, ben-ben *edo* serio-serio, autaldi *edo* eleziño, erredizai *edo* muebleai, gaikera *edo* abilidade», eta abar. Herri euskeratik ateratako hainbat berba be erabilten ditu, gaur dan egunean erabiliko ez geunkezanak. *Espaloia* esateko, berbarako, *zinta-arri* darabil, eta herri-berbea dirudi. Azkueren hiztegitiko berbak be badarabiltza, jakina, Azkuek izan eban laguntzailerik handiena izan zan eta. Berak herrian entzundakoak be zelan erabiliko ez ditu, bada. Honek guztiak, lehenengoko begiradan, mordoilokeriarako joera txiki bat dauela dirudi, gaurko begiz ikusirik. Kirikiñok, ostera, herri-sena helburu nagusizat hartu eta joera nahasgarri horreek baztar samarrean gelditzen dira. Gure irakurle-senari jarraiturik, Errose Bustintza ez dala hain *edozalet* esango geunke. Osabea baino garbizaleagoa, ostera.

neurtuan gelditzen da. Errosegan, ostera, garbizaletasuna, neurritz kanpokoa dan neurrian, garbizalekeria bihurtzen da askotxutan. Maminari gagokozala be, Erroseren ipuin-esparruak bestelakoak dira. Erreportaia itxurakorik ez dau egingo bere osabearen moduan. Ipuin barregarrien ildoak jorratuko badau be, batez be kontakizun mitologikoak, magikoak eta erlijiosoak landuko ditu. Ipuin erlijiosoak, Kerexetak bere edizinoan sartu bazituan be, ez ditugu gurean sartu, beste lorratz batekoak diralakoan. Holako aleak irakurri nahi dituanak jo bei Nagore Etxebarriaren "Errose Bustintza *Mañarikoren* ames-kontakizun erlijiosoak"¹⁷ lan zehatzera.

Zeintzuk dira, beraz, ezer garbian ateratekotan, Errose Bustintzaren meriturik edo baliorik handienak bere ipuinetan? Besteak beste dirala, ipuinak autu edo dialogoz josita dagoz. Autuak edo alkarrizketa bizi-biziak, naturalak eta indar handikoak dira. Ipuinetako kontakizuna, ezertariko duda barik, arindu eta arnasbarritzen dau alkarrizketeak. Ipuinetan askotan ikusten dan artifizio edo landu beharraren landu beharra, eta inoiz edo behin gozoegia edo landuegia dan ikutu hori edertu egiten dau alkarrizketeak. Autuotan, gainera, hitanoa nagusi agertzeak halako balio erantsia emoten deutso gaur eguneko begietatik ikusita¹⁸. Kirikiñoren ipuinetako alkarrizketetarako joera markau egin ebala dirudi gure Errose Bustintzak. Alkarrizketetarako joera hau, bizkai-euskerearen gatza eta piperra inork baino hobeto darabil gure Errosek. Inoiz, geure buruan dogun pentsamentu bat esango bagendu, pentsau dogu alkarrizketak eta narrazinoa idatzi dituan

¹⁷ Nagore Etxebarria, «Errose Bustintza *Mañarikoren* ames-kontakizun erlijiosoak», *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 10 zk., 2008, 71-119 or.

¹⁸ Hitanoa erabiltearen kontu hori Kirikiñoren beraren ondorengotasuna ez ete da? Kirikiño izan da euskerez gehien idatzi dauen autoreetariko bat. Aita Onaindiak diño, ezelako duda barik, gehien idatzi dauena dala. Era berean, ez ete da bere ipuin, gertaera eta izkirimirietan hitanoa gehien erabili dauena? Errose Bustintzak be, osabeak lez, naturaltasuna eta hurrekotasuna emoteko hitanoa darabil askotan.

idazlea bat bakarra izan beharrean bi dirala. Geuk Errose alkarrizketagilea edo autugilea maiteagoa dogu Errose kontalaria baino. Bata naturala eta ezpanetatik harakoa egiten jakun moduan, bestea artifizioz beteegia ikusten dogu. Estilo bat herritarra eta zuzena da, bestea landuaren landuaz herri-euskeratik urrintxu egiten dana. Bizkaiko holako alkarrizketak edo autuak, esaterako, Felix Bilbaoren *Ipuin-barreka* liburuan ikusten ditugu. Kontakizunaren pisurik gehiena alkarrizketetako hariak badaroa, pertsonaiak berben alkarren arteko bizitasunak zizelkatzen ditu. Eta alkarrizketa honeek hitanoz diran ezker, ez ete da, era batera behintzat, Errose Bustintzaren liburu hau bizkai-euskerako hitanoa ikasteko liburuik ederrenetariko bat? Hitanoa ikasteko bere erabilera naturalenean, alkarrizketan, eta ez liburuetako paradigma hotz eta hutsetan. Hika-berbetea adierazoteko, oster, ez dira autukide bi bakarrik behar, orain arte bakarriketako eredurik eredugarriena be izan leiteke. Horrexegaitik egiten dau hitanoz azeri gaztaizaleak; emakumeak be bere artean berbaz dabilela hitano markabakoa egingo dau: «eztok eta baidok».

Liburu klasikoetan ez dogu askotan autuetako gatz eta bera-katz hau geuganutzen. *Peru Abarkan* alkarrizketa zoli batzuk egon arren, Peru Abarkaren esanak sermoiaren tajua dabe askotan, gainerako pertsonaiak naturalagoak emoten badabe be. Juan Jose Mogelen *Baserritar jakitunaren etxeko eskolia* liburuan be beste hainbeste esan ginei. Gerotxuagoko beste autore zahar batzuk be ez euskuen, guk dakigula, alkarrizketa askorik eskini (Balbino Garitaonaindia eta abar aitaturko geunkez...).

Bada, azkenik eta beluenik, atal honetara ekarri gura geunken kontu bat. Idazle bi izan dira irakurrienetarikoak XX. mendean, Txomin Agirre eta Kirikiño. Txomin Agirre batez be jente eskolantearen artean edo eskolaz apur bat jantzita dagozanen artean euki dau harrera ona. Askotan esaten izan danez, Kirikiño idazlea izan zan XX. mende hasieran irakurle gehien izan eban idazlea. Euskeraz gehien idatzi dauena, eta, era berean, irakurle-rik gehien izatea ez ete da, biak batera kontuan harturik, euske-

rearen alde gehien egin dauen idazle edo egileetariko bat? Kirikiñoen kronika, erreportaia eta ipuinak herri zeheak irakurten zituan. Kirikiño idazleak inoiz euskeraz irakurri ez eban jentea euskeraz irakurten ipini eban eta sekulako arrakastea lortu, gainera. Errose Bustintzak, ostera, zelako irakurle-kopurua ete eukan? Osabearena baino gitxiago, geure ustez. Erroseren bihoztongo eta irudimenak ez eben, geure ustean behintzat, herriaren gogoa asebeteko. Herriko jente zeheak idaztankera zuzen eta indartsuagoa maite dau. Gertaera harrigarri, mingarri zein barre-garriak modu zuzen eta indartsuan maite ditu herriak.

6. Errose Bustintzaren esaunda mitologikoen eta ipuinen gainean

Guztira hemeretzi esaunda mitologiko ditugu bilduma honetan. Esaundarik gehienak Mañaria inguruko erreferentzia toponimikoz josiak dagoz, bertako baserri-izen, troka, mendi eta auzoen izenak bertakotasuna, eta era berean, neurri bateko egitasuna ziurtatzen deuskue. Egitasuna dinogunean tradizinoz entzundako leienda edo esaunda benetakoetan dabela oinarria esan gura dogu. Honeetatik guztietatik bat, barriz, itzulpena da “Artzaina eta Basojauna” eta beste bat asmazinoa “Sorgin-idazia”. Lehengoak azpizenburu bat dakar, «Lapurdiko ipuina». Kasu honetan behintzat, iturria asmetan ez da gatx: Barbierren *Legendes Basques* liburutik egina da.

Geure begietan, eta gaurko asko irakurleren begietan be bai, esaunda asko, gorago esan dogun moduan, puztuegi eta gozoegi agertzen jakuz. Gaintxurikaturik edo gozoegiturik dagoz aukeran. Berba baten: jatorrizko indarra belaxkaturik. Kontakizun bako txaren barruan sartzan dituan olerkitxuak lehenago puztuegi egotana puztuagotu egiten dau, eta errime indargatzen dau kontaktuzuna.

Emon daiguzan adibidetxu bi bakarrik. “Artamingo lami-nak” dalakoan lamina batek laratzutik eskegita dagoan galdarila-

tik esnea ostu daroa. Lamina esne-lapurrak inoiz edo behin ikusten ditugu gure ahozko narrazinoetan; lamina koipezaleak, gehiagotan. Gure kontakizunean esnea irakiten ikusten dauenean laminenak ez dau, ahotik hara batu diran beste narrazinoetan lez, «Txuria gora!» esaten (laminen berbakuntzea murrizta izan ohi da, ume-berbakerea lakoa, oso berba gitxikoa). Lamina honek euren galbidearen barri emoten dau: San Juan bezperan jaioriko txekor nabar bigaz itailatu behar da errekea. Era honetako narrazino mordotxua bildu dira gure artean¹⁹. Errose Bustintzak herri-kontakizuna biribildu eta loratu egiten dau. Gure artean jokabide hau berau hartu eban –ez, jakina, kasu guztietan baina bai askotan– Piarres Duni-Petri *Hegittoa* garaztarrak.

Orratzontziko sorginak beste herri-kontakizun ezagun bat dogu. Orratzontzian gordeten diran pamerialak edo gaizkinak milaka izan ei dira. Normalean abade bat izan ohi da, gure kontakizunean legetxe, orratzontzi-jaubea eta inoiz ez da dirutan ez saldu ez erosten. Orratzontziaren jaube egiteko trukau egin behar da beste zeozegaz. Orratzontziko pamerialak urten ezkeru, eten barik egin ohi daroe beharra. Behar guztiak errazto eta arrapataka egin ezkeru zelan geldiarazo? Galbahean ura ekarrarazorik²⁰. Ipuin hau berau Kirikiño osabeak be idatzi eban “Bizkarreko abadearen pamerialak” izenburupean. Certaerak antzekoak dira baina jainua bera desbardina da. Batean sorginak dagoz, bestean pamerialak²¹.

¹⁹ Don José Miguel Barandiaranen adibideez gainera ikusi bedi, nahi izan ezkeru, Juan Manuel Etxebarriaren *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*, Bilbao: Labayru Ikastegia, 1995.

²⁰ Tankera honetako ipuin-sorta bat emon genduan *Gorbeia inguruko Etno-IPUIN eta Esaundak* liburuaren berbaurrekoan: “Kastrejanako zubia” atalean, 33-56 orrialdeetan.

²¹ Ebaristo Bustintza *Kirikiño, Egunekoa*, Bilbao: Labayru Ikastegia, 1984, 170-173 or. Eta, in *Euzkadi*, 1923-VIII-16.

“Gizona, gizontxo” Euskal Herri osoko kontakizuna da eta ia beti kontakizun laburra izan ohi da. Herri-esaera be bihurtu da horko «Gizona, gizontxo» edo «Gizona, gizon, otzarapetik be». *Oxinbaltza* kontakizuna Filemon eta Baucisen mitoaren euskal aldaera berak entzuna ete da edo bestaldeko tradiziotik gurera ekarria? Hegoaldean ez dogu honelakorik ikusi, gehienak Iparraldekoak ditugu. Barbierrek be badakar aldaera bat. Antzerako kasua dogu “Abadea eta diabrua” kontakizuna Jose Maria Satrustegik batutako kontakizunen tankerakoa²².

7. Gure argitalpena: ipuin antologiaren nondik norakoak

XX. mendeko hogeta hamarreko eta berrogeta hamarreko hamarkadetako euskal aldizkariak hutsitu eta ostein, Errose Bustintzak eurotan argitaraturiko ipuin zein osterantzeko kontakizunak batu eta txorta ederra osatu genduan. Gure helburua, baina, Mañarikoren ipuinen edo ipuin antzeko idazkien antologia hutsa egitea zan, eta beraz, edizino hau mamintzeko, albo baten itxi behar izan doguz haren beste kontakizun edo barri askotxu, gorago be esanda dagoan moduan.

Era askotako ipuinak dira bizkaitar emakume idazle honek Durangaldeko eta Arratiako euskaldunen ahotik gordin-gordinik batu eta irudimen oparoz heltzen jakin zituanak: tradizino zaharreko alegiak ditu batzuk, euskal mitologiako pertsonaien istorioak beste batzuk, ipuin magikoak be badira, ipuin barregarriakaz eginiko txortea be bai, eta baita irakaspen erlijiosoak dakarren narrazio laburrak be.

Horixe da, izan be, testuak aurkezteko hartu dogun erispidea. Halan, gai-atal horreek ardatz eginik, ipuinak bost sailalara zabaldu ditugu: ipuin mitologikoak, ipuin magikoak, alegiak,

²² Jose Maria Satrustegi, «Personajes populares relacionados con la brujería en Navarra», in *FLV*, 5 zk., 1970, 183-224 or.

ipuin barregarriak eta ipuin erlijiosoak²³. Ostean, sail bakotxekoak argitalpen-kronologiari jarraituaz antolatu dira.

Testuak grafia eta puntuazinoa gaurkoturik dagoz; lexikoaren adierazgarri ipini ditugu oin-oharrak be ugari, neologismo edo bizkai-euskerazko berbai jagokezanak batez be. Neologismoak dirala-ta, izen bereziak aldatzera egin dogu; konturako, *Neskutz* edo *Josu*, *Birjina* eta *Jesus* izenetara ekarri ditugu. Bestetik, lexiko arruntean nahi adizkietan, idazlearen erregistroko aldaeren ordean, bizkaiera estandarreko forma nagusiak ezarri ditugu sarritan, euskalkiaren batasunaren mesedegarri; esate baterako, *jabon* > *jagon*, edota *dituz* > *ditu* eginaz.

Osotara 51 ipuin pilotu ditugu, gehienak *Euzkadi* eta *Euzko-enda* aldizkarietatik ekarriak dirala. Badira, baina, Jaime Kerexetaren *Ipuñak*²⁴ bilduma-lanean argitaratu ziran ipuin bi, "Laminearen orrazia" eta "Errotazuri", aintzat hartu bditugu be, inondik be zuzendu ezin izan ditugunak. Hagaitik ba, nahi-ta edizino hau atontzeko lehenengo argitalpeneko testuak –eta izenburuak– erabili ditugun, ipuin bi horreen kasuan, Kerexetak dakarzan bersinoakaz baliau behar izan dogu, besterik ezean.

Hona hemen jatorrizko testuen argitalpenaren inguruko ohar batzuk, non, noiz eta zenbat biderrez argitaratuak izan ziran zehazten dituenak, eta edizino honetako ipuin-zerrenda osoa.

²³ Gorago aitatu dogun N. Etxebarriaren «Errose Bustintza *Mañarikoren* ames-kontakizun erlijiosoak» izeneko artikulura batu ziran Errose Bustintzaren hamahiru idazlantxuak be kristinaiu-fedea dabe oinarri; baina, ipuinak barik, ipuin-generotik kanpora idatzitako istorioak edo kontakizunak dira. Ha-ta guzti be, eurok eta antologia honetako ipuin erlijiosoen sailekoak alkarren osogarritzat ditugu.

²⁴ Errose Bustintza, *Ipuñak*, Bilbao: Mensajero-Gero Euskal Liburuak, 1990 (Jaime Kerexeta edizio-prestatzailca).

SAILKAPENA	IPUINAK	NON	NOIZ
Ipuin mitologikoak	Laminak eta neskatilea	<i>Euzkadi</i> ²⁵	1931-01-17
	Lorin laminea eta mutila	<i>Euzkadi</i> KAE ²⁶	1931-05-14 1955
	Laminearen garrikoa	<i>Euzkadi</i>	1931-10-27
	Lamina dantzaria	<i>Euzkadi</i> KAE	1932-03-16 1956
	Artamingo laminak	<i>Euzkadi</i> KAE	1933-03-14 1954
	Laminearen ostikadea	<i>Euzkadi</i>	1933-05-18
	Sorgin-idaztia	<i>Euzkadi</i> KAE	1933-07-14 1956
	Mariurrika eta artzaina (<i>Herri-ipuina</i>)	<i>Euzkadi</i> <i>Ekin</i> ²⁷	1935-07-30 1935-10-09
	Orratzontziko sorginak	<i>Euzkadi</i>	1935-10-17
	Deabrubarra	<i>Euzkadi</i>	1935-11-14 1936-09-05 1936-10-22, 31 1936-11-7, 19
	Jentilen bolalekua	<i>Euzkadi</i>	1935-12-5, 12
	Petralandako sorginak	<i>Euzkadi</i>	1936-01-30
	Azkondoko neskea	<i>Euzkadi</i>	1936-02-14
	Prakagorriak	<i>Euzkadi</i> KAE	1936-04-23 1953
	Urrezko larañoa	<i>Euzkadi</i>	1936-04-30 1936-05-07
	Gaua, gauekoentzat	<i>Euzkadi</i>	1936-08-28

²⁵ *Euzkadi* (1930-1936).

²⁶ *Karmengo Amaren Egutegia* (1951-1956).

²⁷ *Ekin* (1935).

SAILKAPENA	IPUINAK	NON	NOIZ
<i>Ipuin mitologikoak</i>	Artzaina eta Basojauna	<i>Euzko-enda</i> ²⁸	1939ko martxo
	Biraolaria eta txerrenak (<i>Aititordearen lehenengo ipuina</i>)	<i>Euzko-enda</i>	1939ko abuztua
	Laminearen orrazia	<i>Aránzazu</i> ²⁹ <i>Ipuñak</i> , 1990 (13.a)	1954
<i>Ipuin magikoak</i>	Mugarra eta Arranatz	<i>Euzkadi</i>	1935-10-10
	Bidekurutzeko mutila (<i>Txikitako ipuina</i>)	<i>Euzkadi</i> KAE	1936-02-28 1952
	Abadea eta deabrua	<i>Euzkadi</i>	1936-03-06
	<i>Txirikizen txilibitua</i>	<i>Euzkadi</i> KAE	1936-03-14, 21 1955
	Mutila eta muskerra	<i>Euzkadi</i> KAE	1936-03-26 1956
	Aingeru harri-iragotailea	<i>Euzkadi</i> KAE	1936-04-03 1953
	Artzaina eta Epaila	<i>Euzkadi</i>	1936-04-16
	Ehiztaria eta deabrua	<i>Euzkadi</i> <i>Gernika</i> ³⁰	1936-06-05 1951ko apirila-ekaina
	Ilargiaren zigorra	<i>Euzkadi</i> KAE	1936-06-13 1956
	Malutako Atsoa	<i>Euzko-enda</i>	1939ko abendua

²⁸ *Euzko-enda* (1939-1940).

²⁹ *Aránzazu* (1937).

³⁰ *Gernika* (1951).

SAILKAPENA	IPUTNAK	NON	NOIZ
<i>Alegiak</i>	Otsoa eta azeria	<i>Euzkadi</i>	1933-06-30
	Zozoa, azeria eta txakurra	<i>Euzkadi</i>	1933-08-22
	Azeri gaztaizalea	<i>Euzkadi</i>	1935-11-21, 28
	Heriotzearen sagarra	<i>Gernika</i>	1951ko urtarrila-martxoa
<i>Ipuin barregarriak</i>	Mikel Antonen gauzak	<i>Euzkadi</i>	1931-10-16
	Atso gaixoa	<i>Euzkadi</i>	1932-02-13
	Dimako Pedro Deuna	<i>Euzkadi</i>	1932-02-25
	Hamargarren ahalegina	<i>Euzkadi</i> KAE	1935-10-2 1955
	Gizona, gizontxo	<i>Euzkadi</i>	1935-11-08
	<i>Kokolomokolo</i>	<i>Euzkadi</i>	1936-05-16, 27
	Katakumea eta kerezak	<i>Euzkadi</i>	1936-07-11, 18 1936-08-16
	Basokoipetsu	<i>Euzko-enda</i>	1939ko otsaila
	Mañariko kerezak	<i>Euzko-enda</i>	1939ko ekaina
	Bide-ipinteak	<i>Euzko-enda</i>	1939ko iraila
<i>Ipuin erlijiosok</i>	Emakume gaixoa!	<i>Euzkadi</i>	1932-05-07
	Oxinbaltza	<i>Euzkadi</i>	1935-12-19, 26
	Birjina eta neskatok	<i>Euzkadi</i>	1936-06-25 1936-07-11, 18 1936-08-16
	Hiru gorulariak	<i>Eguna</i> ³¹	1937-02-03

³¹ *Eguna* (1937).

SAILKAPENA	IPUINAK	NON	NOIZ
Ipuin erlijiosoak	Arrizabalgo jauna eta bidaztia	<i>Euzko-enda</i>	1939ko maiatza
	Birjinaren egurra	<i>Euzko-enda</i>	1939ko azaroa
	Urtebarriaren onua	<i>Aránzazu</i>	1953
	Errotazuri	<i>Ipuñak</i> , 1990 (46.a)	

Txataltxu hau amaitu orduko, Bego Ereño filologoari eskerak emotea legea da, edizino hau prestetan sano lagundu deuskulako. Berak aratu zituan, banan-banan eta soseguz, aldizkari zaharrak eta berak be transkribidu –zati handi baten, behintzat– hareetatik ateratako gure Erroseren testurik gehienak.

8. Azkeneko eretxi eta pentsamentu bat

Liburu honetako gari-azaoak berrogeta hamaika galburu ditu. Galburu honeek euskal agerkarictako soloetatik hona ekarriak dira, irakurlearen gozagarri eta atsegingarri. Gerra aurreko behinolako euskal sailetan ostendu samarrik egozan ipuinak dira. Gaur eguneon ipuinetako berba batzuk sortu ziranean, orain dala mende bat baino gehitxuago, hitz barriak edo neologismoak ziran, eta zahartu edo itxuratxartu dirala dirudi. Ipuin honeetako irakurleak ipuineko onaurkia bilatu behar leuke, alderdirik eder eta zoragarriena. Garia eta lastoa bereizten jakin behar dau. Edo Mañarikok berak inoan moduan, gaztaina-garaua orbel artetik apartetan jakin beharko leuke. Mañarikoren burubidea aitatu dogun ezkeru, sartu daigun beraren konparantza bat:

«Udagoyenetan mendijetako orbel artietan ostenduta egoten diran gaztaiña aliak lez, geure basetxietako atso-agura agurgarrijen kolkuetan ondo gorderik egon diran esakun eta bertso

zarrak agertzera nayatortzue. Lenagokuak esaten eben lez, ludi-
ja zar eta barri dala ta gauza zartxu oneik be atsegiñez irakurri-
ko dozubelakuan nayatortzue. Ona curetako batzuk ba». (*Euz-
kadi*, 1936-VIII-20)

Behinolako atso-agureen kolkoetako aleak dira, geure uste
apalean, hemengo ipuinak be. Behinolako gure tradizino zaharre-
ko kontakizunak orduko hitz barri eta abarrez hornidurik.


Jabier Kalzakorta

Derion, 2009ko urrian

IPUINIK IPUIN MAÑARIAN GORA

I

LAMINAK ETA NESKATILEA



Behinola, goizalde baten Goitsu eta One Bolunzuloko etxagun¹ alargunaren seme-alaba on eta begikoak² Inungane mendira ira-ekarten joan ziran. Goizalde haretan, Mugarra aldeko izarrak margo politez ikusgarri agertzen ziran, eta batera eta bestera birak bizkor eginaz, neska-mutilen pozgarri, jolas politean ebiltzan. Ortzeko³ izar dizdiratsuak zenbatzen joiazan gazteak hurrengo.abestia abesten hasi ziran:

¹ Etxagun: etxejaube.

² Begiko: jator, maitegarri.

³ Ortze: zeru.

*Bihotz eder bat dago
hodeien ganean,
han da neure maitea
izarren artean.*

Abesti honegaz, Erleabeko hatx-bide luzera behingoan heldu ziran. Han, neskeak esan eutsan nebeari aurrera jarrai behar eba-
la, ira-azpel⁴ batzuk eginda burkadea⁵ arinago gertetako. Aurre-
ra jarrai eban, ba, eta Kobagorri ingurura heldu zanean, zuga-
tzarte⁶ batetik lamina dotore bat beragana joiala ikusi eban.
Lamineak txingarra baino gorriago zan jantzi apain bat eban soi-
nean; samako idustun⁷ ederrak argi-argi egiten eutsan, eta
buruan eban orrazi dotoreak margo polit asko eginaz, bere burua
ikusgarri egiten eban.

Laminea hurreratu eta laster inon diran berba gozo eta laba-
nakaz neskea atsegindu guran hasi zan. Eta soinean eban idustun
dotorea, Onetxuren samatik dingiliz ipini eban; baita harribitxi-
dun ereztun eder bat be neskeari eskumako atzamar nagusian sar-
tu eutsan. Ereztun ederra atzamarrean sartzeaz, neskearen biho-
tzak taupada handi bat egin eban, eta ereztun miragarria neskea-
ren eskuan behingoan urtu eta ezereztu zan. Orduan lamineak,
haserre antzera, «Maitasunen baten berotasuna, ala zer don?...»
esanda, bihotzaren ganean ezkerreko eskua ipini eutsan. Honetan,
Goitsu mutila bere burdi eta guzti hurreratu jaken, eta laminen
arerio handia zanez, akulukada⁸ handi bat bizkarrean emonda
beingoan bialdu eban Kobagorrirantza.

Neba-arrebok aurrera jarrai eben eta uste baino lehen Inun-
ganen ziran. Azpel handiak eginaz, burkada ira ederra behingo

⁴ Azpel: eskuta, txorta.

⁵ Burkada: gurdikada.

⁶ Zugatzarte: arboladi.

⁷ Idustun: lepoko, iduneko.

⁸ Akulukada: ziztada, sastada.

baten pilatu eben. Eguerdi ingurua zala-ta, bazkaltzeko asmoan Sorabilgo iturritxura jatsi ziran. Su handi eta ederra egin eben eta burduntzikoa jaten hasi ziran. Bazkaria amaitu baino lehen, beste lamina bat agertu eta ondoan jesari jaken. Harek be Oneri idustun eder bat ipini eutsan; eta Goitsuren ondora joanda, mutilari be garriko gorri bat ipinten hasi jakon.

Bolunzuloko mutila haserre bizian jarri zan eta eskuetan eban burduntzi gorria lamineari matrailatik sartu eutsan. Orduan laminea uluka eta garrasika deadar⁹ handiz hasi zan, eta mutilari begirakune zorrotza eginaz esan eutsan:

—Heure bihotza inoren maitasun gozoak ez ahal jok gozotuko! Eta heure bizitza guztian hara eta hona atsedeen apurrik barik ibiliko ahal haz!

Eta laminearen zaratetara, Kobagorriko lamina guztiak Sorabileratu ziran. Mutilari lepoa ondo berotu eutsien, eta neskea hartu eta kobara eroan eben. Goitsuk negar baten etxerantzakoari emon eutsan; hartu ebazan zartadak baino bere arrebearen gomutan negar gehiago egian. Ilundu eta ordu bigarrenean etxea jo eban, eta aitaren gelara zuzen joan zan. Bolunzuloko etxaguna, semea hain arpegi ben¹⁰ eta tamaltsuaz arreba barik ikustean, errime¹¹ ikaratu zan eta esan eutsan:

—Non dok arrebea?

—Hor gelditu da.

—Non, baina? Egunaren argiak igazi¹² dabela ordu bi baino gehiago dok... Eta ordu honetan heure arreba barik hator? Landaluzen ala Arridun gelditu dok?

—Ez. Kobagorriko laminak eroan behar izan dabe...

⁹ Deadar: txilio, oihu.

¹⁰ Ben: serio, zintzo.

¹¹ Errime: oso, gogoz.

¹² Igazi: pasau, igaro.

Kobagorri izena entzutean, Bolunzuloko gizonak dar-dar egin¹³ eban. Eta arpegia eskuakaz estalduta negarrez hasi zan, ahots tamaltsuz esaten ebala:

—Neure alaba kutuna non ete da? Bera ikusteko atseginik barriro izango ete dot? Ala behinolako zemakuna¹⁴ beteko ete...? Laminatzar horrek, mutil gaztea nintzala artaldeagaz etxerantza nentorren baten, artaldiko bildotsik ederrenak eskatu eustazan; eta emon ez neutsazalako, sekulako irainak eginda, izango neban alabarik kutunena ostuteaz zematu¹⁵ ninduan... O ilargi eder-ederra! Zeu baino askoz ederrago eta handiagoa dan Jaunagandik barriro neure alabea ikusteko atsegina lortu eidazu! Ortzeko izar politok ostendu¹⁶ zaitetze, agureonen begiak ez dabe atseginik eta!

Aita negarrez zoratu beharrean ikustean, mutila asko tamaldu zan; eta Arriduko etxagun gaztea lagun hartuta, aitaren aurrea aurkeztu zan. Eta esan eutsan:

—Aita, gaur gaueko hamabietan Kobagorriko laminak Inunganen jai handi bat ospatzen ei dabe. Eta Arriduko Atxin lagun dodala, gaueko hamabietan mendi horren inguruan izango naz eta zeure alaba kutuna guztien ganetik etxeratuko dogu.

Eta mutil biak agurearen aurrean belaunikotuta, eskuan mun eginaz agur egin eutsien. Orduan agureak, itxaropen sendoaz bihotza poztuta, mutil bulartsuai esan eutsen:

—Neure alabeagaz etxerantza zatozenez, ilargi mosuzabalak¹⁷ berarizko argiz zeuen bideok argiztuko ahal ditu! Eta ortzeko izar guztiak neure Onetxu kutumaren omenez margo ederrakaz dizdira politak eginaz, gauaro¹⁸ zoragarri bat izango ahal dozue!

¹³ Dar-dar egin: ikara egin.

¹⁴ Zemakun: mehatxu.

¹⁵ Zematu: mehatxatu, mehatxu egin.

¹⁶ Ostendu: ezkutau.

¹⁷ Mosuzabal: bete.

¹⁸ Gauaro: gaugiro.

Berba honeek entzutean, Arriduko etxagun gazteak agureari begiakaz hitz egin eutsan... Eta agureak buruaz baietz erantzun eutsan.

Gaueko hamaiketan abiau ziran mendirantza eta hamabiak baino lehen Inungane baino gorago egozan. Eta laminak noiz agertuko zain, landa eder baten jesarri ziran. Gaueko hamabien dangadan zerbaiten zaratea entzun eben eta euren begiak Amilarantza zuzendu ebezan. Amila zelai ederretik lamina-pilo handiak Inungane alderantza joiazala ikusi ebezan. Euren artean batzuk panderoak joten eta beste batzuk aho-soinu politai hots eraginaz, hurrengo abestiak abestuz mendiratu ziran:

*Goazen guztiok
aldatsetan gora,
guraina¹⁹ dantza
gaur egitera.*

*Izar-jokoan
jolastuko dogu,
barrerik asko
egingo dogu.*

Kanta, ujuju eta zantzo askoren artean euren jolas bakanak atondu ebezan. Inon diran dantzak eta jolasak egin ondoren, *izar-joko* politean hasi ziran; lamina guztiak hara eta hona ikotika²⁰ eta saltuka ebiltzala ikusten ebezan. Onetxu be, jantzi apain ikusgarri bat soinean ebala, *izar-jokoan* jolasten ikusi eben. Orduan mutil biak mendian belaubikotu²¹ ziran eta ilargiari bihotz apa-
lez arren egin²² eutsien:

¹⁹ Guraina: zenbat-gura.

²⁰ Ikotika: saltuka eta ostikoka.

²¹ Belaubikotu: belaubikatu.

²² Arren egin: erregutu.

—Ilargi eder-ederra, zeu baino askoz ederrago eta handiago dan Jaun Ahaltsuagandik, geure bihotzak indartu eizuz!

Ilargia, mutilen arrenaz bere Egileagana joan balitz lez, iroiren²³ batzuetan ostendu egin zan. Inguru eta bazter guztiak bat-batez ilundu ziran; isilune bakan eta itzala²⁴ izan zan. Mutil bien bihotzak bildurrez dar-dar egin eben... Halako baten ilargi betea inoizko argien agertu zan eta gauak egunaren antz osoa agertu eban. Goitiko argi berarizkoak bihotzak adoretuta, Goitsu eta Atxin lamina artera jatsi ziran eta eskuetakako makila sendoakaz lamina guztiak hil ebezan.

Onetxuk bere nebea ikusi ebanean, pozarren zoratuta lez beraganatu zan eta maite-maitero besarkada handi bat emon eutsan.

Gero hiru gazteak mendian behera etxerantza abiau ziran; eta abesti eta zantzo askoren artean, goizeko lauretan etxeratu ziran. Aitak alabea etxean ikustean, poz handia hartu eban eta maitero laztanduaz bere malkoak alabearen arpegi gozoan lehortu ebazan.

Handik hilebetera Bolunzuloko alargunak bere alaba ona Arriduko mutilari ezkontzaren bitartez beretzat emon eutsan. Auzo eta inguruetakoa jentea batuta, eztegu eder eta alai egin eben. Eta luzaroetan ederto bizi izan ziran.

²³ Iroiren: minutu.

²⁴ Itzal: begirune, errespetu.

II

LORRIN LAMINEA ETA MUTILA*



Antxina, Eperlabarreta eritxan basetxe ederrean emakume bat seme bategaz bizi zan. Semea mutil morrosko errimea²⁵ zan; laietan, bedar-ebaten eta enparadu²⁶ lanak bizkor eta ondo egiten bera lakorik han inguruetan ez zan. Eta indarketa²⁷ guztietan be txapeldun izaten zalako, herri eta erbestekoak Indartsu izenaz

* [Neure herriko mendigoizale bizkorrai, bihotzez.]

²⁵ Errime: sendo, indartsu.

²⁶ Enparadu: gainerako, garaitiko.

²⁷ Indarketa: buuruka, liskar.

ezagutzen eben; eta guztiak aho batez esaten eben halako mutil adoreturik egundo ez ebela ezagutu eta abar.

Huntze baten semeak amari esan eutsan:

—Ama, bihar goizean Saibi mendira iratan joan behar naz. Eguraldiak antz ona dakar eta uste dot mendi haretan irea aspal-diko arorik onenean aurkituko dodala. Eta ganera, Urkioletako neska-mutilak be bihar goizean ei doaz mendi horretara ira-ebaten; eta neuk be eurakaz batera ira-ebate eta -ekarteak egin gura dodaz. Neureztat, adiskide onak izan dira beti eta.

—Asmo hori —amak erantzun eutsan— hurrengo asterako atzeratu hobe dozu. Entzun dodanez, ba, Lorrin laminea, hainbeste guratori negar eragin deutsan lamina ankerra, Sailuenteko hartzulo²⁸ aurreko landatxuan urrezko aulki baten jesarrita egunokaz egoten da. Eta haren gurari eta asmo guztiak, beti lez, nondik gazteak atzipetu²⁹ ei dira. Horregaitik, ba, ene semea, basorantza bihar ez zaitze abiau. Bestela, galdua zara...

Mutilak amaren berbak entzutean barre-algara handi bat jaurti eban, eta irribarrez esan eutsan:

—Galdua neu? Lorrin laminearen bildurrez nazala uste dozu, ala? Nire indartsu ospea non litzateke?... Hondino holakorik!

—Ene semea, indartsua eta adoretua zaran arren, munduko barri hondino ez dakizu. Mundu honetan, ba, jente maltzur asko dago, eta hor-hemenka sareak ugari zabalduaz, gaurko gazteak atzipetzen era bitara dihardue: indar bidez eta atsegin bidez. Indar bidezko soka latzaz harrapau ezin diran gizon sendoak, leunkeria eta haragikeriazko hari mehe leun bigunaz sarritan behingoan lotzen dituez... Kontuz, ba, maite! Askoren maltzurkeriak luzez azkenbakoak dira eta.

—Esan, esan gura dozuna! Laminea dala-ta, neure asmoetan atzera-mardorik³⁰ ez dot egingo eta. Ni bildurtzekorik hondino ez

²⁸ Hartzulo: kobazulo, hatx-zulo.

²⁹ Atzipetu: engainau, iruzur egin.

³⁰ Atzera-mardo: atzera-pausu.

da jaiio, eta jaioko be ez... Bihar goizean, lamina eta sorgin guztien ganetik, mendiratuko naz eta kitu.

Eperlabarretako mutil harro eta eretxiak³¹ bere ama onaren onu³² on guztiak alde batera itxita, biharamon goizean Saibirantz abiau zan. Eta Sailuentera heldu zanean, hartzuloaren aurreko landatxuan Lorrin laminea urrezko aulki eder baten jesarrita ulea orrazten aurkitu eban. Indartsuk, ikusi ebanekoxe, hurrengo aupadea³³ jaurti eutsan:

*Lorrin laminatzarrak
ez dau adorerik,
Indartsu harrapetako
ez dauka indarrik.*

Hitzok entzutean, laminearen arpegia haserre bizian jarri zan eta eskuetan eban orrazi gorria mutilari amorrus jaurtiz, ahots itzalez esan eutsan:

—Mutil harro eta zitala! Indartsua eta adoretsua hazan edo ez, iluntzeko ipar-haizea izango dok zinaldari³⁴...

Indartsuk orraziari polita eretxita, kolkoan sartu eban. Eta kolkoan sartzeaz batera paparra erre jakon. Ulu handi bat eginaz, «Impernuko bitxi madarikatua!» esanda, orrazi bakana³⁵ errekarra jaurti eban, eta orrazia ureratzeaz errekarako ur guztiak irakin egin eban.

Jazokun honegaz mutilak ikara handirik ez eban hartu, eta «Laminen gauzak...» esanda aurrera jarrai eban Saibi mendira arte. Han, egun guztian Urkioletako gazteakaz batera ira-ebaten

³¹ Eretxi: harro, handiuste.

³² Onu: aholku, gomendio.

³³ Aupada: erroñka.

³⁴ Zinaldari: lekuko, testigu.

³⁵ Bakan: berezi.

ekin eban. Eta iluntzean, Eskumendiko labar³⁶ handi baten jesarrita, hurrengo abestitxuak abesten hasi zan:

*Auzoko neskatilen
ahots gozatsuaz,
ipar-haizea dator
amets eztsuaz.*

*Goiko mendietako
zelai ederretan,
maitea dantzan dabil
urrezko landetan.*

*Eguzki eder horrek
bi maitale ditu,
eskertzar ankerraz
biak mindu ditu.*

*Auzoko neskatilen
ahots gozatsuaz...*

Abesten iharduan bitartean, Lorrin laminea neska gazte baten itxura ederrean agertu jakon. Eta ahots eztsuz esan eutsan:

—Oi, Indartsu, ze ederto zagozan! Iluntzeko hozgiro³⁷ gozaroan zeure abesti politik atsegingarri jataz. Zeure indar eta adore handiaren ospeak zeu ezagutzera ekarri nau. Zuri irabaztekorik hemen inguruetan be ez dala esaten dihardue eta.

Hitzok entzutean Indartsuk, senetik urtenda lez, poz-pozik esan eutsan:

³⁶ Labar: aldar.

³⁷ Hozgiro: hozkirri, freskotasun.

—Nor zara zeu? Eguzkitik ilargira eta ilargitik eguzkira izan nazan arren, zu lako gauza eder eta leunik egundo ez dot ikusi. Ortzean, mila izarren artean be, zure dizdira politik bihotza atseginez urtuko leuskit, ipar-haize gozoak mendi-baratzetako lora txukunen sundarik gozoenakaz eginiko ora ederretik sortua dirudizu-eta...

—Goiko mendietako zelai ederretan —neskeak erantzun eutsan— dantzatzen dan zeure maitea naz ni. Mendi-gailur horren ostean da nire bizitokia. Oi, ze ederra bera! Bertako haizeak, eguzki-hegaletik, ilargiaren erditik eta izarren artetik leunki ro igaroaz, amesik zoragarrienakaz atsegintzen gaitu; eta geure bihotzak mitxeletak lez lorarik lora hegaztuaz, bizitzea atsegin hutsa egiten jaku. Han bai edertasuna! Bertako gauzak azaltzeko nire mihina ez litzateke gai; edestia³⁸ egiteko be, urrezko idazkortza³⁹ beharko litzateke eta.

Leunkeri azko hitz honeekaz lamineak mutilari eskua luzatuta, beragaz joateko esan eutsan. Eta mutil liluratua lamineari eskua emonda, han joan zan sasi eta arantza guztien ganetik Sai-luenteko landatxura arte.

Orduan landatxua ezti bihurtu zan, erre kako ura esne, eta harrizko zubi trauskila⁴⁰, oster a, lorazkoa bihurtu zan. Indartsu lorazko zuba pozik igarotera joiala, Lorrin lamina ankerrak erri-me bultzatuaz hartzulo edo koba baltz bildurgarrira buruz aurre-ra jaurti eban.

Eta lamina guztiak orduan, han barruan makilakaz eta burduntziakaz zartada ederrak emonaz, bizkar guztia birrindu eutsien. Eta danak aho batez, inon diran irainak eginaz, esan eutsien:

—Non dozak indarrok eta adoreok? Goizean harro-harro jaurti doan aupadearen anotsik⁴¹ ez joagu entzuten... Mututu egin

³⁸ Edesti: kontakizun, kondaira.

³⁹ Idazkortza: idazluma.

⁴⁰ Trauskil: baldar, baldres.

⁴¹ Anots: zantzo, oilhartzun.

haz, ala? Orain hire nagusiak geu gozak, hartzuloaren barruan ondo lotua hago eta. Eta aurrerantzean hire egunoroko janari onena, makilea eta atsekabea baino besterik ez dok izango!

Ganeko egunetan Sailuenteko hartzulo ingurutik igaroten ziran gazteak, Eperlabarretako mutilaren ulu eta negarrakaz nahastean hurrengo hitzok entzuten ebezan:

—Neutzaz gehiegi uste nebalako eta neure ama onaren onu onak aintzat ez hartzearren galdu naz! Eztiak mingotsa, loreak arantzea eta une labur bateko atsegin zoroak atsekabe handi eta luzeak leporatu deustaz!...

Eta gazte askok hitz honeekaz bildurrez dar-dar eginda, euren gurasoen esanak zintzo eginaz on-onak izateko asmoa hartzen eben.

III

LAMINEAREN GARRIKOA



Angurretako etxagunaren semerik zaharrena, igande arratsalde baten herriko plazan auresku eder batzuk egin eta gero, iluntzean etxerantza abiau zan.

Gau haretan zerua izarrez ondo apainduta agertzen zan arren, ilargiaren argi bigunak biderik ez bazterrik ez eban argitzen. Inguruak ilun-ilun ziran. Gauaren itzala! Gure mutil morroskoa harri-mokilen⁴² batzuk oinakaz noiz joko bildurrez joian, eta ikarraz esaten eban:

⁴² Mokil: sokil, erpil.

—Ene! Hau gauaren baltza! Hau bildurra! Ilargiaren ordezt bideak nork argiztu aurkituko baneu...

Honetan, eban bildur-ikarea kentzearren-edo, zantzo errime bat jaurti eban; eta mutilaren zantzo errimeari beste zantzo ahots zolidun batek erantzun eutsan. Angurretako mutila zantzoa entzutean ikaraz jarri zan. Eta bere kautan, hagin artean esaten eban: «Ordu honetan nor izan leiteke hemen? Emakumearen ahotsa izan dala esango neuke... Baina, gau baltz honetan eta ordu honetan halakorik ezin izan leiteke!».

Holako oldozkunak⁴³ buruan ebazala, Angurretako mutilak astiro izanda be, bidean aurrera jarraitzen eban beti. Halako baten, Oxinburuko zugatzartetik emakume bat argiontzi⁴⁴ gorri bat eskuetan ebala hurreratu jakon.

Emakumea mehea eta luzea zan; arpegia edurra baizen⁴⁵ zuria eban eta begiak ikatza lakoxeak. Soinean margo askodun jazki dotore bat eban; buruko ule eder, gorri eta luzea, haizearen jostailutzat lez, moltso kizkurtsuak⁴⁶ eginaz lepotik behera apainkiro jausten jakon. Begirako emakume eder-ederra zan. Mutila halako emakumea ikustean ezin gehiagoan harritu zan. Eta itza-lez itandu eutsan:

—Emakume ezezagunori, onez ala txarrez zatoz?

—Onez naiatork, mutil —erantzun eutsan—. Ni hiretzat ezezaguna banok be, heu behintzat neuretzat ondo ezaguna haz. Angurretako etxagunaren semerik ederrena haz eta. Ez dok holan?

—Bai, Angurretakoa naz... Baina, ordu honetan ze asmok ekarri zaitu nire ondora?

—Heuk bildurrez jaurti doan zantzoaren anotsak ekarri naiok, mutil. Gaua iluna jagok, bai?, eta ilargiaren ordezt, eskue-

⁴³ Oldozkun: gogoeta, pentsamentu.

⁴⁴ Argiontzi: kruselu, lanpara.

⁴⁵ Baizen: besteko.

⁴⁶ Kizkur: kirru, kiribil.

tako argiontzi honegaz heuri bideak argizten etorri nok. Bidelagun ez nok gura, ala?

—Egin-eginean be⁴⁷, argi baten beharra badot bide ilun eta lakar⁴⁸ hau ondo igaroteko. Eta zeuk ezagutzen nozun ezkerro, zure ondoan joateko higuinen⁴⁹ apurrik ez dot...

Angurretako mutila eta emakume agertua argiontzi gorriak bidea bakankiro⁵⁰ argiztuta, Angurretarantza abiau ziran. Emakumeak bidean barriketa ugaria eginaz, mutil gizajoa itsututa ixten eban zer esan ez ekiala. Iturrietara heldu ziranean, emakumeak ortzera begiratuaz, mutilari esan eutsan:

—Gau iluna dagoan arren ortzea zoragarriro agertzen dok, izarrez inoiz baino horniduago jagok eta. Begiratu egiok Mugarra aldeko hodei-moltsoaren ertzean dingiliz jausi gurarik lez dagoan izar gorrizkeari. Ederragorik ikusteko be!

—Halantxe izan be! Ipar-haizearen indarrak batera eta bestera gozaro higituta⁵¹ margorik politenak eginaz, ikusgarriro dago.

—Ba, izar zoragarri horrek kinu politik eginaz, maite nauelá argiro agertzen jok. Eta ahots isilkor eztsuz belarrira hots leuna eginaz, beraganatzeko jinostak. Joango ete nok...? Baina, bide bakarti honetan bertan behera heu ixteak errime tamaltzen naiok...

—Ene, holakorik! Zelan arrano igongo zara hara goraino?

—Igongo ez nok, ba, haizearen umea izanda!

—Haizearen umea? Egundo entzun ez dodan gauzea! Hondi-
no handiagoak entzun behar doguz!

—Ez dan gauzarik entzuten ez zagoz, ba; behinola, ipar-haize gozoak eta hego-haize epelak Usurbilgo mendi-gailurrean sortu

⁴⁷ Egin-eginean be: hatan be.

⁴⁸ Lakar: latz.

⁴⁹ Higuin: eragozpen.

⁵⁰ Bakankiro: nekez.

⁵¹ Higitu: mobidu.

zan lora ederretik etorria nok eta. Horregaitik, ba, hodei eta izarretaraino igoteko hego beharrik ez dot izaten, nongura eta hantxe nagoalako.

Honako gauza bakanak entzuten mutila ikaraz joian, bere kautan esaten ebala: «Zer ete da berau? Beronegaz onez ala txarez ete noa...?».

Hatan-horretan Angurretako basetxera heldu ziran. Eta etxe ondoan barriketan apur baten egon eta gero, emakumeak mutilari, gomutakitza⁵² emoten eutsala esanaz, garriko gorri eder bat garrian ipini eutsan.

Mutila bezuza⁵³ haregaz ezin gehiago harritu zan, bere bidelaguna Zirtzil laminea zala orduan ezagutu eban eta; baita emon eutsan garriko gorria *zoritxar-garrikoa* zala be behingoa ingarri eban. Eta sutondoan aurkitzen zan aitari esan eutsan:

—Gabon, aita.

—Baita heuri be, gau ona badakark behintzat —erantzun eutsan—. Beste igandeetan baino beluago etxeratu haz gaur. Eta heurre arpegiko zurbiltasunak bidea on hutsez ez doala igaro argiro agertzen dok. Arpegi horrek margo txarra jok, eta ganera ikarearen ikaraz oztaz berba egiten dok... Zer jazo jak, baina? Esan eidak agudo!

Semeak orduan garrian eban garrikoa erakutsi eutsan. Agurrea garriko gorria ikustean negar baten hasi zan, eta ahots tamaltsuz esan eutsan:

—Galdua haz, mutil, Zirtzil laminearen *zoritxar-garrikoa* soinean daukak eta! Orain laminatzar hori, heugaz ezkondu gurarik, etxe inguruan ibiliko dok beti. Eta hori lortzen ez bajok, inon diran jazarkundeak⁵⁴ eginaz, zoritxarreko egingo hau. Horra, ba, zelako etorkizun baltza daukaan, alde bietara galduta hago eta!

⁵² Gomutaki: gomutagarri, oroigarri.

⁵³ Bezuza: opari, erregalu.

⁵⁴ Jazarkunde: eraso, jazarpen.

Honako berba itunak⁵⁵ entzutean, mutila berehala gaixotu zan, eta handik hiru edo lau egunera tamalez hil zan.

Hil eta biharamonean, auzoetako jentea batuta gorpuari hobiraltzea⁵⁶ egitera joiala, Zirtzil laminea negarrez eta uluka jente artean sartu zan, deadar handiz esaten ebala: «Hori neurea da, hori neurea da!». Eta hildegiraino⁵⁷ lagundu eta gero, Oxinburuko kobara garrasi baten sartu zan.

Ganeko egun baten, Landaluzeko eta Agerreko mutilak laminarean bila urten eben; eta basoan aurkitu ebenean, harrika eta makilaka hil eta gero, Arranatz gailurretik behera jauurti eben. Eta *zoritzar-garrikoa* be, basoan ota-abarrakaz su handi bat eginda, erre egin eben.

Egun haretan, Zirtzilen heriotzea zala-ta, Aldebaraietan jai izan zan. Eta ujuju eta zantzo askoren artean aureskuak txairo⁵⁸ eta ederto eginaz, erromeria begiko bat egin eben.

⁵⁵ Itun: triste, goibel.


⁵⁶ Hobiraldu: lurra emon, hurpetu.

⁵⁷ Hildegi: kanposantu, hilerri.

⁵⁸ Txairo: bizkor, arin.

IV

LAMINA DANTZARIA



Egungentiko argiak gauaren iluntasuna aienatzen⁵⁹ eban bitartean, Gailurretako etxagunaren alabarik gazteena, baso-txabolan aurkitzen zan bere aitari gosaria eroaten urten zan etxetik.

Egunaren goiza udabarriaren antz osoa hartzera joian... Txori-abesti zoragarriak errekatxuaren mur-mur hots bakanaz batera «Udabarria, udabarria!» deadar eginaz, bidazti⁶⁰ irainaren⁶¹ oin-

⁵⁹ Aienatu: ostendu, desagertu.

⁶⁰ Bidazti: bidezko.

⁶¹ Irain: adoretzu, gogotsu.

kada bakotxean baso-lora politak sortzen ziran. Bidearen zoragarria!

Eta Gailurretako neskearen bihotz zabalak udabarriaren altzoan atsedentzen zalako, barru-taupaden anots isilean eresi⁶² ederra sortuta, bidetik zehar maite-abesti politak abesten ihardu.

Haizearen indar bigunak zugatzetako orri guriak leunkiro higitzen dituan lez, gure neska gaztearen soin mehea be, zoragarriko bidean maitasun-abestiaren indar miragarriak gozaro higituta, bidezidor⁶³ eta aldatsak⁶⁴ bizkor igaroaz, eguzkiaren beroak bazterrak berotzen hasi baino lehenago aitaren txabolan zan.

Eguna han goian aitagaz batera ederto eta pozez igarota, iluntzean basoan behera etxerantza abiau zan. Gaua iluna eta itzala zan eta gure neska gaixoa ikarearen ikaraz arnasa be oztaz hartzen ebala etorren.

—Hau iluntasun bildurgarria! —esan eban—. Norantza noan banenki... Ilargi ederraren argiak lagun beit!

Eta bildurrez bazan be, aurrera eta aurrera egiten eban beti. Halako baten, Untzilatz aldeko hodei-moltso sendoa astiro urratuaz, ilargi betea hamaseiko⁶⁵ gorri baten antzera ikusgarriro agertu zan. Eta bidazti bildurtiak bere bidelaguna agertu zan goiko argiontzi bakanari «Agur, ondo etorri!» esanaz itzalez agurtau eban.

Ilargiaren argiak gauari egunaren antza emotean, bere bildurra behingoa aienatu zan, eta bidea errazago igaroko ebalakoan, abestiak kantetan hasi zan.

Honetan, Arranatzeko landatxuan, Ilinti laminea jazki gorri-gorri bat soinean ebala maniura⁶⁶ handi bat joten ikusi eban.

⁶² Eresi: abesti, kanta.

⁶³ Bidezidor: bide labur, zeharbide.

⁶⁴ Aldats: aldapa, malda.

⁶⁵ Hamaseiko: hamasei ogerlekoko txanpona.

⁶⁶ Maniura: zitara, harpa.

Eta ilargirantza begira mon diran zirki-mirkinak eginaz, gurketa⁶⁷ bakana egiten iharduala ohartu eban. Haxe bildurra! Zer egin...?

Ikuskizun hain bakanaz, gure neskeak iges egiteko asmoa hartu eban. Baina, lamineak kinu bat eginaz neskea geratu eban eta deadar handiz esan eban:

—Nire soinu-hotsera dantzatuko dan emakumea hona hemen non datorren... Ene, berau dan ederra! Dantzatuko zintzatekez bertan? Aspaldiko gauetan, ba, ilargiaren argi biguncon soinu polit hau joten dihardut; eta dantzaririk aurkitzen ez dodalako, neure lan eta ahalegin guztiak alperrik izaten dira. Lana egin eta ezer be ez. Baina, gaur, zeu lako emakume liraina aurkitu dodalako pozez be pozez naz. Honetarako zeu zaran zoragarria! Soinu honetan dantzatzen bazara, ludian⁶⁸ zorionekoena zeu izango zintzatekez... Ez dozu gura?

—Ez, ez dot gura —neskeak erantzun eutsan—. Guraso onen umea nazalako, gau dantzaketan-eta ez naz ohitua. Ganera, barriz, neure senargeia dan Leunganeko mutilari be holako dantza motak ez jakoz atsegin izaten... Beraz, neure soinak zeure soinu-hotsera ez dau zirkinik egingo, ez da higituko.

—Ene! Zeu zaran ederraz Leunganeko mutilari begira zagoz? Ha baino askozaz lerdengoak eta aberatsagoak aspaldiz zeuri adi dagoz, bada-ta! Zelako edertasuna dozun bazenki, edozeimentzat ez zengokez... *Zaldi urdineko* asko be zeure gai ez dira eta.

Hitz honeek entzuteau, neskeak bere kolkorako esaten eban: «Honen esan guztiak egiak ete dira...? Ala haizearen orbelak lez hutsak eta ustelkorrak ete dira?».

Eta beratzaz entziun ebazan gorallbenatzaz⁶⁹ apur baten oldozkumtsu egon eta ostean, lamincari ikaraz itandu eutsan:

⁶⁷ Gurketa: gurtza, adorazino.

⁶⁸ Ludi: mundu.

⁶⁹ Gorallben: goraipamen, laudorio.

—Hain ederra ete naz, ba? Neure arpegiaren irudia hondino egundo be ez dot ikusi... Neure aitak, ba, norbere edertasunaren barri jakitea gazte askorentzat galgarri izaten dala esaten deust eta. Eta neure senargeiak be neure edertasunatzaz inoiz ez deust hitzik egin. Ete naz, ba?

—Izango ez zara, ba? Esan dozuzan gauza guztiak zeure aita-ren lelokeriak baino ez dira. Bere esanak eizuz, bai?, eta ikusiko dozu zorionak zelako arin iges egingo deutsun! Leunganeko mutil zirtzila⁷⁰, barriz, zeuri edertasunatzaz hitz egiten ez da azar-tzen⁷¹, bera alde batera itxita beste bategana joango ete zaran bil-durrez dago eta.

Eta orduan lamineak neskeari eskumako eskutik oratu⁷² eutsan eta errekearen ondora eroanda esan eutsan:

—Begiratu hor, egiaren espilu garbian...

Eta Gailurretako alabarik gazteenak, bere begi zabalak erre-kearen sakontasunera zuzenduaz, bere arpegiaren irudia ur gar-denaren argitasunera ikusi eban.

Orduan pozez beterik deadar egin eban:

—Ederra nazala? Bai, behin! Zure berbak haizearen orbelak ez dira... Emakume ahaltsua zara zeu behintzat. Orain zorioneko izateko, zeure soinuaren dantzaria izatea baino besterik ez dot behar. Zeure jauregira goazen. Hantxe biziko gara ondo eta! Han-go lamina dantzaria neu izango naz eta!

Eta neska gaixoa, gau haretan, Ilinti lamineagaz batera Kobagorrira joan zan. Eta hartzulo bildurgarri haretan laminea bihurtuta, ganeko gauetan ilargiaren argi bigunean dantzan jarduten eban. Eta guztiak 'Lamina dantzaria' erexten eutsien, dantzaririk bizkorrena zala-ta.

Egun baten, baina, Gailurretako etxaguna Mugarrako puntan bere alaba kutuna zanaren zain aurkitu zan. Eta, han inguruko

⁷⁰ Zirtzil: traukil, zarpail.

⁷¹ Azartu: atrebidu, ausartu.

⁷² Oratu: heldu.

landa eder baten dantzan ebilela ikusi ebanean, negar eta negar egin eban.

Orduan aitak hamar bider beraganatzeko hots egin eta ostean, hurrengo hitzokaz dongetsi⁷³ eban:


—Alaba gaiztoa, jolas lizun horretan ihardunan artean dongetsia izan hadi! Eta heure aitak sorturiko soin hori bat-batez harri-mokil bihurtuko ahal don!

Eta une haretan, Gailurretako alabearen gorputz liraina harri-mokil bihurtu zan. Eta harri-mokilaren inguru guztian arantza zorrozdun larrosozdo batek lora baltz-baltzak sortu zituan...

⁷³ Dongetsi: kondenau, madarikatu.

V

ARTAMINGO LAMINAK



Behinola, Artaminerrotako etxagunak egunaz basoan irabaten ekin eta gero iluntzean etxeratu zanean, bere emaztea sutondoan negarrez aurkitu eban. Gizona emaztea negarrez ikustean ikaratu zan, eta atsekabearen zioa jakin guran itandu eutsan:

—Zer jazoten da? Zergaitik negarrok?

Eta senarraren itaunari emazteak ez eutsan ezer erantzun, negar eta negar eginaz bere arlo isilean aurrera jarraitu baino. Orduan gizonak haserre antzera ben-ben esan eutsan:

—Nahi bata dala, nahi bestea dala, zer jazoten jatzun agudo esan behar deustazu!

—Hara, ba, zeuretzat afaritako euki dodan esnea —erantzun eutsan emazteak—, neska batek laratzutik galdarilea hartuta dangada baten edan deust.

—Jesus! Hori baino ez bada... Eta gauza horreri horrenbeste negar eta ulu?

—Bai, baina, esan deust iluntze guztietan etorriko dala, eta esnea laratzuan gertu⁷⁴ eukiten ez badeutsat, beragaz eroango nauela eta abar.

—Nora, gero, eroan? Geu ez gagoz, ba, hementxe? Eta neska hori, ze modutakoa izan da, ba?

—Larrosea lako arpegiaz, eder-ederra izan da. Eta nor dan itandu deustanean, erreka-ertzeko lora abeslaria dala esan deust. Oi, haren ahotsaren ezitia! Abesten be ekin dau eta.

—Egingo neuke-eta lamina danganinoren⁷⁵ bat izan dala!... Egunoro esnea edaten etorriko dala esan badeutsu, ezbai⁷⁶ barik laminaren bat izan da; laminak, ba, gizonak ardaora lez esnera itoak izaten dira eta. Bihar, barriz, neure begiakaz ikusi gura dodalako basotik goizago etxeratuko naz, eta beragaz barriketaldi bat eginaz zer dan edo zer ez dan laster igarriko dot.

Esan eta egin. Biharamon iluntzean Artamingo etxaguna goizago etxeratu zan eta bere emazteagaz batera neskatila ezezaguna sutondoan barriketa ugarian iharduala ikusi eban. Neskatilea, baina, gizona ikustean ikaratuta isildu egin zan. Eta gizonak berba eta berba egiten eutsan arren, ez eutsan ezer crantzuten.

Orduan senarrak emazteari esan eutsan esnea egosten ipini egiala, eta emazteak berehala laratzuan galdarila handi bat bete esne ipini eban. Eta esnea gorantza abiau zanean, neskeak, pozarren zoratuta lez, deadar handi bat eginaz esan eban:

—Txuria gora! Txuria gora!

Etxekoandreak hau entzunik, neskeari guraina esne emon eutsan; eta neskea, guraina esne edan eta ostean, isilunea hausita barriketetan eta abesten hasi zan.

⁷⁴ Gertu: prest.

⁷⁵ Danganino: demonino, deabru.

⁷⁶ Ezbai: duda, zalantza.

Artamingo etxagunak neskeak esnezko mozkorra aldean eballa igarri ebanean, bere artean «Zertzeladak oraintxe aterako dozan» esanda, neskeari berbetan egin eutsan. Eta inon diran barriketak egin eta ostean itandu eutsan:

—Nor zara?

—Hemetik⁷⁷ hurrean dagoan hartzulo eder bateko laminea naz; eta gure egurastoki⁷⁸ kutunena hor goiko erreka-ertzean daukagu —erantzun eutsan.

—Zenbat zarie?

—Mila eta bat.

—Eta zer egiten dozue?

—Egunaz mendian lorak batu, eta gauaz ortzeko izarrak zenbatu eta haizearen soinuan dantzatu...

—Sekulako bizitza daukazue, arranutan! Noizik zagoze ludian?

—Eguzkia agertu zanetik lurraren ganean gara, eta ilargiak eta izarrak goia apaintzen dabean artean hemen izango gara.

Azkenengo hitzok entzutean, gizona ikaratu zan eta bere kolkorako esaten eban: «Eurok inguruan doguzala beti bizi behar bagara, onak gagoz! Gure asaba zintzoak be eurok zirala bide, inon diran atsekabeak jasaten ebezan; eta geuk be bardin. Eta lamina honen biziak ludia ludi dan arte badirau, gure ondorengo guztiak be inon diranak jasan beharko dabez. Hau zoritxarra!».

Eta apur bat oldoztu eta ostean itandu eutsan:

—Zuen bizia amaitu leikenik badago ala ez dago?

—Bai, ezer badago... Baina inortxuk be ez daki, geuk izan ezik.

—Esan eidazu, ba, zer dan, nigandik kalterik ez dozue izango eta. Ganera, barriz, esnea egunoro emongo deutsugu.

⁷⁷ Hemetik: hemendik.

⁷⁸ Egurastoki: pasealeku, ibiltoki.

Esnearen abintzeaz⁷⁹, laminea pozez zoratu egin zan. Eta buruan eban ule-adats eder gorrikeari eskuakaz oratuta esan eban:

—Hona hemen gure bizia eta indarra; honetan dago geure iraunkortasuna.

—Eta ule-adats miragarriok zelan ebagi leikez, ba? —gizonak itandu eutsan artega.

—Hara, ba —erantzun eutsan lamineak—, gure ule eder gorrikok ebagiteko, Deun Joan egunaren aurregun⁸⁰ gauean jaioriko txekor nabar biren indarraz, ilargi beteko gau baten, hoge horzdun burdinareaz hori goiko errekeori gau osoan arakatu behar da. Eta gero, errekea ondo arakatu eta ostean, egunsentia bazterrak argiztu baino lehen, txekor nabar biak mendi-gailurreko hatxetan aske itxi behar dira. Horretan dago, ba, gure amaia.

Ganeko egun baten, Artaminerrotako gizonak, ibili eta ibili, Joan Deunaren aurregunean jaioriko txekor nabar bi aurkitu zituan. Eta, lamineak esan eutsan lez, goiko errekea ilargi beteko gau baten burdinareaz batera eta bestera ondo arakatu eban. Eta egunsentia baino lehen, burdinare-hortzak ikusgarritzko ule-adats piloak kanporatu ebezan. Guztira, mila eta bat ule-adats zenbatu ei ebezan. Eta Artamingo lamina guztien azkena egun haretan izan zalako, errotako sendia aurrerantza bakez eta ederto bizi izan ei zan.

⁷⁹ Abintza: agindu, mandatu.

⁸⁰ Aurregun: bezpera.

VI

LAMINEAREN OSTIKADEA



Antxina, Pagatzarteko mutila Eskubaratxera orbeletan joan zan. Eta mendian lanean zintzo iharduala, gauaren oihal baltzak berak uste eban baino askoz lehenago estaldu eban egunaren argia.

Gauaren iluntasunaz gure mutila apur bat ikaratu zan; bae-kian, ba, ha ingurua lamina- eta sorgin-leku bildurgarria zala. Laminak, baina, hainbeste ez eben bildurtzen; sorginak, ostera, asko, gaiztoagoak ziralako-édo.

Eta gauaren aldi bakana oinkada isilez aurrera joiala ikustean, orbel-zorro handi bat bizkarreratuta, etxerantza bizkor abiau

zan. Bidean isiltasun miragarri bat nabariten eban, gizonik ez abererik ludian bizi ez balira lez...

Halako baten, baina, isiltasun itzalaren erdian, ujuju zoli eta alaiak entzun ebazan. Eta zarata hareekaz ikaratuta, bere begiak Sagarmingo landa zabalera zuzendu ebazan. Eta hantxe landan bertan, lamina-pilo bat neskabila lirain eta ederren antzean dantzan eta dantzan ebiltzala ikusi zituan.

Orduan Pagatzarteko morroskoa, neska dantzariak hobeto ikustearren, bizkarrean eban orbel-zorroa lurreratuta, harri-mokil baten ganean patxadaz⁸¹ jesarri zan. Eta aldi luzean adi-adi egon zan... Hainbeste eta hainbeste emakume eder euren soin luze-meheakaz, luna hutsezkoak balira lez, haizearen soinu-hotsera txairo eta bizkor jolasten zirala ohartu eban. Halako ikuskizunik!

Eta ikusten ebazan gauzakaz osoro⁸² gelduta⁸³, bere kolkorako esaten eban: «Honeek bai dantzariak! Honako emakumerik nire begiak egundo ez juek ikusi. Horraitik, honako bategaz aiko-maiko⁸⁴ handi barik ezkonduko nintzatekek... Baina, tamalez, ahateak⁸⁵ lako oinak dituezalako ezin ezkondu eurok lako bategaz; gure amak, ba, nire emaztea laminea dala behingoan igarriko leukek eta. Hauxe tamalgarriena!».

Honako⁸⁶ autuakaz⁸⁷ mutila ebilen artean, laminak euren jolas bakanak amaitu ebezan. Eta amaikeran, laminarik ederrenak, begiak eta eskuak gorantz jasota, hurrengo bertsoa ahots zoragarritz oguzi⁸⁸ eban:

⁸¹ Patxadaz: soseguz, trankil-trankil.

⁸² Osoro: guztiz, erabat.

⁸³ Geldu: harritu, zurtu.

⁸⁴ Aiko-maiko: ezbai, zalantza.

⁸⁵ Ahate: paita...

⁸⁶ Honako: holako.

⁸⁷ Autu: solas, barriketa.

⁸⁸ Oguzi: esan, ahoskatu.

*Eguzki, ilargi eta izar,
haizeak bere hegoak izan;
zuekandik etorriak
gu danok izan.*

Bertso honeek oguzitean, enparadu laminak ujujuka eta zantzoka hasi ziran. Eta Pagatzarteko semeak be, bere atsegina agertzearren, txalo errimeak pozez beterik jo eutsazan. Laminai, baina, euren jolasak inortxuk be ikusi ez ebazalakoan egozalako, txalo-hots hareek ez jakezan atsegingarri izan. Eta bertsoak oguzi ebazanak begietatik txinpartak eriozala, haserrez esan eutsan:

—Oi, mutil zirtzila! Isilpetik geure jolasari adi, e? Ikusgurea behin asetzen dauenak, barriro be asetu gurako jok... Jausiko haz...

Eta mutilak, laminak haserre zirala ohartu ebanean, esan eban: «Hauxe baltza! Ondo gurez txalotu, eta haserratu? Noan berehala hemetik, bestela galdua nok» —eta arinka etxeratu zan.

Ganeko egun baten, Pagatzarteko mutila Durangon ondotxu afaldu eta gero, gauerdi ostean Mañarirantza abiau zan; eta Mendibetan, neskaitila dotoreen irudian, lamina bi dantzan jolasten iharduela ikusi ebazan. Eta bera be —hareek dantzan ikustean jolaserako gogo sortuta— neskaitilen artera joanda, saltuka eta ikotika hasi zan.

Laminak, baina, zolietan be zoliak izan; eta behinola Sagar-mingo landan egin ebezan jolasen adi isilean egon zana, haxe bera zala igarri ebanean, sekulako zartada errimeak emonda txarto zauritu eben. Eta azkenez, bide-zati baten tatarrez⁸⁹ erabili eta gero, Arpelduko zubian bertan behera itxi eben.

Biharamonean herriko jenteak Pagatzarteko mutila Arpelduko zubian erdi hilik aurkitu eban. Eta zer jazo jakon jakitearren, bere konortera ekarteko ahaleginak ahalegin egin ebezan, baina

⁸⁹ Tatarrez: arrastaka, dandarrez.

guztia alperrik. Orduan atsoren bateri otu jakon mutilaren zau-riak *parte txarreko* gaizkinen batzuk eginikoak izango zirala eta bedeinkazino batzuk emotea onena izango zala eta abar. Azkenez, guztiak ondo eretxita, bedeinkazino batzuk emon eutsiezan, eta mutila berehala konorteratu zan.

Eta zer jazo jakou itandu eutsienean, mutil gizajoak erdi negarrez bertsoetan honan⁹⁰ erantzun ei eban:

*Ai ene bada! Oi ene bada!
Zelan nagoan gaixorik,
lamineak ostikadea emonda
saihets bat daukat hausirik.*

*Saihets bat daukat hausirik,
bihotza daukat tristerik,
hementxe nauka larririk.*

⁹⁰ Honan: honetara, holan.

VII

SORGIN-IDAZTIA



Behin baten, Irakorta basetxeko mutilari, basotik etxerantza etorrela, bide-ertzean lamina bat agertu jakon. Eta lamina harek mutilari abegi ona eginda, irribarrez esan eutsan:

—Morrosko, Irakorta basetxeko semea al haz?

—Bai, hangoa izan behar naz —mutilak erantzun eutsan—, hantxe jaiorikoa nazala esaten dabe eta. Zergaitik itantzen deustazu?

—Heure aitaren seme bateri bezuza bat egin guran aspaldiz nagoalako.

—Bezuza egin guran?

—Bai. Ez dok gura, ala?

—Ona izan ezkeru, hartu be...

Orduan lamineak, eskunako eskua bularreratuta, bihotzaren ganetik azal gorridun idazti dotore bat atera eban; eta bezuzatzat emoten eutsala-ta, mutilari eskini eutsan. Eta mutilak, polit eta eder eretxita, pozez hartu eutsan:

—Hauxe gauza polita! Hauxe bezuza ederra! —esaten eban.

Irakurteko zabaldu ebanean, baina, gelduta geratu zan, liburuaren orrietan itsularrosa⁹¹-piloak aurkitu ebazalako.

—Gauzearen bakana! —esaten eban—. Liburu honek itsularrosak daukaz! Larrosatxu honek ze ikur ete...? Onez ala txarrez ipiniak ete dira? Ene, holakorik! Loratxu honetzaz esakune berezia bada, ba...

*Itsularrosa, larrosa,
ez zara eder, larrosa,
lorea dozu txikia
eta arantza zorrotza.*

Eta Irakortako mutil gaztea bertso esakune hau ulertu guran itun eta oldozkor⁹² jarri zan. Lamineak, baina, mutilari ezertara be astirik euki ez egian, begirakune zorrotz bat eginda, ben-ben esan eutsan:

—Tirok, tirok... Buruhauste gehiago barik ekark idazti hori, hizki dotorez ederto apainduta bihurtuko deuat eta.

Mutilak liburua aiko-maiko barik emon eutsan; eta lamineak, berehala, eskubitorretik arantza zorrotz bategaz odola aterata, idaztiaren orri zurietan odol-idazkunaz⁹³ hizki bakan batzuk egin zituan. Gero, idatzi eta ostean, barrero be mutilaren eskuetan ipi-

⁹¹ Itsularrosa: astalarrosa, arkakarats.

⁹² Oldozkor: pentsakor.

⁹³ Idazkun: inskripzino.

ni eban. Eta esan eutsan etxera arte ez egiala zabaldu; eta etxeko leihorik txikienean gauero ilargitan irakurri egiala arren egin eutsan.

Ganeko egunetan gizagaixo handiak, laminearen onu-esanak aintzat hartuta, inon diran gaiztakeriak egiten ebazan. Hori zalalata, auzoetakoak beratzaz berba egiten hasi ziran. Lehen hain ona izan zan gaztea hainbestean gaiztotzea, ezin izan eben ulertu! Gauza bakanak egiten ebazala-ta, sorgin gaizkinak euren erara erabiliela batzuk esaten eben, eta gauaren iluntasunaz batera munduan zehar haizetan ibiltzen zala eta abar.

Egun baten, baina, *Itsularrosa*, *larrosa* bertso esakuneaz gomutauta, gure mutilak egin ebazan txarkeria guztiakaz damututa, laminearen liburuaren errekara jaurti eban. Iluntzean etxeratu zanean, baina, errekara jaurtiriko idaztia bere gelako mahai ganean aurkitu eban. Biharamonean gar artera jaurti eban; eta orduan be, gelako mahaiaren aurkitu eban...

Jazokun hain bakan eta harrigarriaz ikaratu zan, eta buruko ulc guztiak zutik ebazala mendirantza arinka abiau zan.

Han, mendi-gailurrean, aguretxu bat otoitz egiten bular-joka iharduala ikusi eban. Eta «Ni gaiztoa eta hori deuna» bere kolporako esanda, aguretxuaren aurrean belaubikotu zan. Eta jazoriko guztia negarrez edestu⁹⁴ eutsan, beratzaz erruki zedila arren eginaz. Bitartean aguretxuak otoitz egiten eban.

Harako baten, eremutar⁹⁵ harek mutilari begirakune gozo eta abegi argia eginda, ahots leunez esan eutsan:

—Zutundu hadi, jagi hadi, gazte; neu be heu lakoxe bat baino ez nazalako. Ez egin negarrik, zoritxar horretatik aldentzeko bidean oraintxe jarriko haut eta. Hara, sorgin-liburu hori Joan Deunaren aureko gauean sugarretara jaurti behar dok; eta gero atzamarra mendi batera zuzenduta-, mendi horretara igon eta

⁹⁴ Edestu: kontau, esan.

⁹⁵ Eremutar: ermitau, anakoreta.

bertako kurutzearen oinetan gau osoan otoitz egin behar dok. Ulertu ondo, baina: bidean gora hoala, zantzoak, ujujuak eta inon diran soinuak entzungo dozak, gaizkin guztiak heure aurka gogor jagiko diralako; hik, baina, ez jaramon. Bidean aurrera zuzen jarraitu eta entzunikoa ondo betetu... Hori egin eta ostean ikusiko dok sorgin-idaztiaz batera gaizkin guztiak zelan bat-batez alden-duko diran.

Mutilak dana egingo ebala agindu eutsan. Eta esan eta egin. Hurengo Joan Deunaren aurreko gauean, eremutarraren esan guztiak betetu ebazan, eta gauza guztiak harek iragarri ebazan lez jazo ei ziran. Eta aurrerantzean Irakorta basetxeko mutila on-ona izan ei zan.

VIII

MARIURRIKA ETA ARTZAINA*



Behin baten, Aldrabasketako artzain zaharrari Anbotoko Mariurrikak ilinti biztu bat eskini eutsan. Artzain zahar harek, baina, emakume bakan harek eskini eutsan bezuza ezertara be ez eban hartu gura izan.

Orduan Mariurrikak artzain zaharrari bere mukertasunaren⁹⁶ zergaitia jakin gurarik, ben-ben esan eutsan:

* [Madariagatar Nikase andera agurgarriari, bihotzez.]

Kerexetaren bildumatik ateratako izenburua; jatorrizkoan: *Herri-ipuina*.

⁹⁶ Mukertasun: muzin.

—Ilinti polit hau, zergaitik ez dozu hartu gura?

—Ilinti polita hori? Hazelakoa! —erantzun eutsan gizonak—. Holakoak geure ezkaratzean asko be asko dagoz, bada-ta! Hori dala-ta, ez daroat, ba.

—Ez, artzain, honakorik ez daukazue zuek. Hartu eta eroan eizu, bai?, eta etxean ikusiko dozue zelako gauza ederra dan. Ilinti berezia da. Hartu eta eroan eizu.

Esanaren esanaz eta ekinaren ekinaz, halako baten Mariurrikak artzain zaharra ilintia hartzera ipini eban. Eta gure gizona ilintia eskuratzeaz batean, mendian zehar eta basoan behera, etxerantza abiau zan. Eta etxeratu zaneko emazteari esan eutsan:

—Hona hemen Mariurrikak emoniko bezuza.

—Hori bezuza! A, lelotzarra! —emazteak erantzun eutsan—. Ilintia da, bada-ta! Hondino holakorik! Ezkaratzeko supazterrean hamaika holako bajagok...

—Holakoa ez dala esan deust, baina. Gauza berezi bat dala esanaz, hartzeko eta hartzeko isildu barik ekin deust, bada-ta! Eutsi ilinti hau, eta ikusi eizu ea zelako gauzea dan...

Orduan gizonaren esku gogorretatik, ilinti bakana emaztearen esku bigunetara igaro zan. Eta, zer izan ha...! Ilinti miragarriak, emaztearen eskuari ikutu eutsaneko, urre-diruak parrastadaz jaurti zituan ezkaratzaren erdi-erdira. Halako urretzarik!

Hori ikustean, andrea, pozaren pozez zoro bat eginda «Hau zoriona! Hau zoriona!» esanaz, arterik hartu ezinda⁹⁷ deadarka, zarata baten hasi zan:

—Ilinti hau dala-ta, zorioneko gara, gizon —esaten eban—. Dana dirua eta dana urrea! Honako aberastasunik eta zorionik! Orain, baina, ene gizonorrek, geure zoriona handiagotzeko, bihar goizean Anbotora joan eta Mariurrikari beste holako ilinti bat eskatuko deutzazu. Orduantxe bai izango garala aberats zoriontsuak...

⁹⁷ Arterik hartu ezinda: urduri, artoga.

—Nahiko zoriontsuak ez gara, ba? —erantzun eutsan gizonak—. Aberastasun gehiago, zertako? Lehenari begiratu ezkerero...

—Ez, ez eta ez. Ez da nahikoa. Hondino aberatsagoak izan behar gara eta. Zoaz bihar, zoaz andrearen esana egitearren be. Eta Mariurrikak ezer esaten badeutsu, emaztearen esana egitera joan zarala esan.

Gehiagoko barik, Aldrabasketako artzaina emaztearen esana egitearren, goizean goiz Anboto mendira joan zan eta bertako erpinean Mariurrikari beste ilinti bat eskatu.

Anbotoko dameari eskakizun ausartu harek barre eragin eutsan. Eta nahiko barrerik egin eta gero, esan eutsan:

—Zer, artzain? Zer dakarzu? Lehengoa nekez hartu, eta orain zeu eske? Zer dala-ta hori?

—Hara, ba, Mari, andreak esan deust beste ilinti bat zeuri eskatzeko, atzo eroan nebana asko atsegin izan jakola-ta. Beraz, andrearen esanak ekarri nau.

—Eta andrearen esana egitearren etorri zara? A, gizon oiloa⁹⁸! Andrearen esanok egiten bazabilz, ez zabilz txarto... Zeure andrearen handinahikeriak galduko zaitu.

Eta Mariurrikak esanak esan egin eta gero, artzain zaharri ilinti handi bat emon eutsan; eta artzaina, bestea lakoa izango zalakoan, mendian behera pozez joan zan. Bitartean Mariurrikak ahots itzalez abestu eban:

*Andrea etxean agintari,
gizona etorri mandatari;
izar politik agertu orduko,
damuko jako berari.*

Aldrabasketako artzainak ha ilintia be, aurreragokoa letxe⁹⁹, emaztearen eskuan ipini eban, gauza onak urtengo ebalakoan.

⁹⁸ Oilo: kikel, koldar.

⁹⁹ Letxe: modu-moduan.

Eta, orduan jazo zan jazo zana! Emakumearen eskuak zapo eta sugez behingo baten bete ziran; ilintiaren barrutik urteniko zapo-suge higuigarriak ziran. Eta handik lasterrera, barriz, Aldra-basketa basetxea be pizti bildurgarriz bete-bete egin zan. Holako zoritxarra ikusita, senar-emazte gaixoak negar baten hasi ziran. Eta herriko abadeak bedeinkazino sendo batzukaz etxea garbitu arteragino¹⁰⁰ holan ibili ei ziran, negarrez eta negarrez.

¹⁰⁰ Arteragino: arte.

IX

ORRATZONTZIKO SORGINAK



*Ipuina, ipuina,
esana eta ez izana.*

Lehenagoko urteetan, Bizkarra basetxean abade bat bere arreba bategaz bizi zan. Abade harek bere etxeko arka zahar baten orratzontzi bat ondo gorderik eukiten eban; eta berak, orratzontzi hareri inortxuk be egundo ez egiola ikutu eta abar esaten eragoion beti.

Hori zala-ta, etxeko eta auzokoak —emakumeak, batez be- orratzontzi miragarri haretan zer egon ete eitekeanentz, buruhausterik askogaz ebiltzan.

Egun baten, abadeak bere arrebeari esan eutsan:

—Gaur Urkiolara naioan, bai?, eta etxeko zereginak eta abar ondo eginaz, ea etxea ondo baino hobeto jagoten donan. Kortako abelgorriai be lantzean behin begiratu. Eta, ni etxetik at¹⁰¹ nazan artean, hor arka zaharrean gorderik dagoan orratzontziari ez egion ikuturik egin, gero! Goizetik gauera zoritxar gorriren bat leporatu ez deinan be... Kontuz!

Eta beste barik, abadea Urkiola ganera joan zan. Eta nebeak atzea emon orduko, arrebea arkara begira jarri zan, bere kolkorako esaten ebala:

«Orratzontzi hori dala-ta, gure nebeak darabilzan buruhaus-teak ez dira txikiak, gero! Horrenbeste ardura eta buruhauste, zer dala-ta, baina? Urrea, zidarra, ala harribitxi dirdiratsuren batzuk ete dagoz bertan? Ontzi bakan horretan zer dagoan berak baka-riak daki; hori, barriz, holan ez litzateke izan behar. Etxean zer dagoan, etxeko guztiak jakin behar leukie eta; hor ez dago norarik ez zer esanik. Etxean bizi danak, gizonak nahiz emakumeak, etxean zer dagoan jakitea gauzarik bidezkoena da eta. Aiko-maikoetan beti ibili barik, arka zahar hori giltz handi honegaz edegi be egingo neuke, eta bertan zer dagoan ikusi be bai... Baina, baina... Gure abadea hain da zuhura ze, jazorikoaren barri, beharbada, berehala jakingo leuke; besterik ezean, zer izan dan igarri egingo leuke eta. Ene! Zer egin...? Dana dala, honako buruhausterik gehiago ezin neike jasan nik. Neure osasuna bape maite badot, behintzat, iroiren baten be gehiago ezin neike itxaron».

Eta hori esanaz, neska jakingureak, arkea edegita, orratzontzia eskuan hartu eban. Eta, orduan izan ziran izan ziranak eta jazo ziran jazo ziranak!...

Beste barik, orratzontzitik sorginak taka-taka urteten hasi ziran. Eta «*Zer eingu ta zer eingu*» esanaz, sorgin batzuk neskea-

¹⁰¹ At: kanpora.

ri oinetatik oratu eutsien, beste batzuk eskuetatik eta besteak samara, zart!, egin eutsien. Orduan neskea estutu zan eta negarrez hasi, eta esan eutsen:

—Beharra egin gura badozue, zoaze solora eta behientzako bedarra ekarri eidakue, ba...

Eta sorginok, berehala soloratuta, bedar guztiak behingo baten etxeratu ebezan.

Eta barriro be, neskearen inguruan ikotika hasita, «*Zer eingu ta zer eingu*» esaten ekin eben. Eta bakea izango bazan izan, arbiak¹⁰² ekarten solora bialdu behar izan ebazan; eta iroiren batzuen barruan han inguruetako arbi guztiak etxeko atartera ekarri ebezan. Eta orduan be, «*Zer eingu ta zer eingu*» esaten hasi ziran.

Neska gaixoa holako esturaldian¹⁰³ negarrez eta uluka hasi zan, bere inguruan ikotika ebiltzan sorginai zer agindu be ez ekiala. Halako baten, halan beharrik, bere zorionerako gauza bakan bat agintzea otu jakon:

—Zoaze erre kara —esan eutsen— eta etxean behar dodan ura galbahe¹⁰⁴ honetan ekarri eidakue. Gure etxean ur-tantarik be ez dago eta.

Eta sorginak galbahea hartuta, erre kara joan ziran eta ur-iragoten zintzo-zintzo hasi. Baina, eurak horretarako egiten eben dana alper-alperrik zan; hartzen eben ur guztia lau oinkada emon orduko, galbahearen zuloetatik urten eta munean behera joakelako. Barriro be joan ziran, eta barriro be hori jazo jaken; ezelan be urik ezin ekarri.

Horretan ebiltzala, abadea, Urkiola ganean eguna ederto igitara, danpa-danpa etxean sartu zan eta bere arrebea negar baten aurkitu eban.

Zer jazo jakonentz itandu eutsanean, neskeak erantzun eutsan:

¹⁰² Arbi: nabo.

¹⁰³ Esturaldi: larritasun, estukura.

¹⁰⁴ Galbahe: gari-bahe.

—Orratzontzikoak sakabanatu dira..., eta orain larri eta barregarri narabile! Ene!

Eta jazoriko guztia zertzelada guztiakaz edestu eutsan. Entzunikoaz abadea haserratu zan eta haserrez be haserrez esan eutsan:

—Jakingura petralak halakook! Orratzontzi horregaz arduraz ibilteko eta abar ez deunat esaten izan, ba, beti? Zuek lakoakaz, baina, alperrik dona. Eskerrak galbaheaz ura ekarten ipini dozanalako; bestela, hire galdua... Hor hintzan orratzontzian, eurakaz batera!

Gero, abadea orratzontzia hartuta erre kara joan zan eta bertan latinazo¹⁰⁵ bat esanda beste barik, sorgin guztiak behingo baten orratzontziratu zituan; kanpoko argitan batxu bera be geratzen ez zala.

Geroko egunetan, abadeak bere arreba gaixoari sarritan esan eutsan hurrengo esakune-bertsoa:

*Jakingura, jakingura,
ez izan beti ikusgura,
inoiz ez badon galdu gura.*

¹⁰⁵ Latinazo: latinezko berbea.

X

DEABRULABARRA



Mañarian Deabrulabarra erexten jakon labar handi bat dago. Harri-mokil hori, Urkuletatik Saibi mendira goazala, eskumaldeko baso handiaren ganean dago. Labarra handi-handia eta jauskera txarrekoa da. Hori dala-ta, ez gorantza eta ez beherantza eta ez alborantza, bertatik inortxu be ezin leiteke igaro beheko trokara buruz aurrera jausi barik.

Haren ingurutik igaroten garanetan, bertan gauza bakan bat ohartzen dogu. Labarraren erdian marra batzuk dagoz, burdia igarokeran txirringak itxi ohi dituezan ezaugarriak lakoxe erraituak.

Marra bakan horreek dirala-ta, gure herritxuan labar horreetaz inon diran ipuinak edesten dira. Hona hemen euretari-ko ipuin bat edo bi. Baina, itxaron apur baten, irakurle, ipuinak edestu baino lehen, hemen esan ohi dan esakune-bertsoa lehenengo esan behar deutsugu eta.

*Ipuinzale bazara,
belarriak zuhur,
eta kontuzale ez bazara,
belarriak gor.*

I

Behin, Ganoste menditik gizon bat burdi bete iragaz etorren. Eta «Aida, Gorri» eta «Aida, Zuri» esanaz, deadarka eta zantzoka etorren. Halako baten, burdiak bide-ertzean laprast egin¹⁰⁶ ebalako-edo, idi, burdi eta ira, bili-bolaka mendian behera joanaz, beheko errekaraino jausi ziran. Hori ikusirik, gizona haserre-bitsetan jarri zan; eta goiak eta beheak amorruez izentauta, erderazko berba zantar¹⁰⁷ bat esanaz, birao handi bat jaurti eban. Honetan, behetik goruntz, deabru batzuk agertu ziran; eta deabru bildurgarri hareek idi eta burdi eta gizon, guztiak batera hartuta, labarrean gora eroan ebezan. Orduan hango deadarra, hango zaratea! Ene!

Deabruak txartes¹⁰⁸ gorri-gorriakaz jantzirik ei egozan eta oinetan burdinazko zapata gogorak ei eukiezan.

¹⁰⁶ Laprast egin: laban egin.

¹⁰⁷ Zantar: lohi, zikin.

¹⁰⁸ Txartes: alkondara, ator.

II

Beste behin, sorgin dotore batek umetxu bat burditxu baten ganean labarrean gora eta labarrean behera erabili eban, eguerdiko hamabietan eguzkiak bialtzen eban beroa hartzen.

Halako baten, umeak, burua jasota, sorginari irriz¹⁰⁹ esan entsan:

*Sorgin, sorgintxo,
sorgin, sorgintxo,
txarri, txarrito,
txarri, txarrito.*

Hori entzunik, sorgina haserrez jarri zan, begirakada¹¹⁰ zorrotza jaurtiaz, umeari amorrus esaten eutsala:

*Ume gaizto,
ume gaizto,
hoa beherantza,
babalasto.*

Eta hori esanda beste barik, burditxuari beherantza bultzatuta, ume gaixoa beheko troka sakonera jaurti eban. Ume errukarria bertan hilik geratu zan. Gero, ganeko egumetan sai-piloak lainoan behera jatsita, umetxuaren gorputz samurra jan eta jan egin eben.

Sorgin ankerrak be, baina, txarto eginaren ordaina, edo hobeto esateko, zigorra, hantxe bertan izan eban.

Biharamoneko goizaldean, sorgin gaiztoa Untzilaxera begira ortzeko izarrak zenbatzen hasi zan; eta, horretan egoala, Artzateko landatik agertu zan adar handidun ahari errime batek, tope-

¹⁰⁹ Irriz: burlaz.

¹¹⁰ Begirakada: begirada, begiratu.

kada handi bat emonaz, labarrean behera jaurti eban. Eta haren gorputzaz be sai-arranoak ase eta bete egin ziran. Sai-arrano hareek euren moko zorrotzak sorginaren gorputzean sartu baino lehen, adar handidun ahariak hurrengo esakunea abestu ei eban:

*Hik hari, nik hiri...,
ez egin gatxik inori.*

III

Bariku iluntze baten, Txilibristo, Urkuleerdiko etxagun zaharra, Saibi aldetik asto handi bat aurrean ekarrela etorri zan. Eta Deabrulabarraren inguruan, Txilibristok astoari ahots sendoz esan eutsan:

—Oño, arre, demoninoori!

Eta orduan labar-goienetik *alde txarrekoak* txaloak jo eutsiezan. Maldizinoa jaurti ebalako, *parte txarreko* hareek txalotu eta goratu egin eben.

Txaloak entzun ebazanean, Txilibristok ikaraldi errimea hartu eban, gehiago ezinean ikaratu zan. Eta gure gizona, basoan behera arinka hasita, arnasoska¹¹¹ baten etxeratu zan, bere kolporako esaten ebala: «Ene Jainkoa! Leku onetik apartau nok! ‘Oño’ eta holako berba zantarrrik, gehiago ez nik... Ezta ‘Demoninoori!’ be egundo ez joat esango. *Alde txarrekoak* pozteko gauzarrik, ezer be ez joat egingo. Holakorik!».

Eta, Txilibristo Urkuleerdiko etxagunak, sutondoko aulki zahar baten jesarrita, holako berba damuzkoak esaten gau oso-oso igaro ei eban. Aurrerantzean, barriz, haren ahotik ur gardena lakoxe berba garbiak bakarrik isuriten ei ziran. Deabrulabarrako jazokunaz egunoro gomutetan ei zan...

¹¹¹ Arnasoska: arnasestuka.

XI

JENTILEN BOLALEKUA



Lehengo egun baten Deabrulabarratzaz hemen edesten diran ipuintxu batzuk edestu neutsuzan, irakurle. Gaur, oster, Jentilen Bolalekuatzaz zeozer baino gehiago esan behar deutsut. Oraingon be, baina, «Bazala edo ez zala...» esan behar dodana, haritik marira ipuinetan esango deutsut.

Lehenengo, baina, ezertan hasi baino lehen, Jentilen Bolaleku miragarri hori non dagoan ikusi behar dozu; ezjakinean, edo hobeto esateko, itsumustuan horra eta hona oinkada zororik egin ez daizun be. Ganera, barriz, gauzea ikusirikoan askozaz lehenago ulertzen da.

Gura badozu, hontxe bertantxe, astiro nahiz arinka, zeuk ahal dozun lez, Untzilatx erpinera zoaz.

Kapanaburutik bazoaz, hobe. Hodeietako landara behin igon ezkerro, handik osterik oste triski eta trauski joanaz, bape bizkorra bazara, behintzat, behingo baten erpineratuko zara eta. Han goian, txuntxur-txuntxurrean egonalditxu bat be ederto egin zeinke. Eta, neke osteko atsedena zeru-ertzean gozoro hartu eta gero, Mañariko hatxartean sortua bazara, Urkiola alderantza ehun bat oinkada ardura barik emon zeinkez; eta bestela, hor beheko urietan jaiorikoa bazara, labar handi horretan kontuz ibili beharra izango dozu... Eta barrero beste horrenbeste oinkada alborantza emon orduko, zuti eta muti¹¹² Jentilen Bolalekuan plantauko zara.

Eta orduan: «Ene! Hau dok Jentilen Bolalekua? –irri-destainaz¹¹³ esango dozu–. Bedar guriz horniduriko landa txiki-txiki bat baino ez dok, bada-ta! Landa hau, bere izenaren jaube, ezertara be ezin leitekek izan. Lekutxu honetan bola-jokoan, nork jardun leikek, gero? Ez lehen, ez orain, ez gero..., ez jagok hola-korik».

Holantxe da, izan be, Jentilen Bolalekua deritxan lekua bedar guriz apainduriko landa txiki-txiki bat baino ez da. Baina, heme-ko baserritarrak esaten dabe, jentilak, laminak eta sorginak gauza bakanak egiten ebezala. Eta aitaturiko landatxu horretan be, antxina, jentilak bola-jokoan ekiten ebela; eta hori zala-ta, gero-ra, herriko jenteak leku horrerri Jentilen Bolalekua izentzat ezarri eutsala.

Jentilak, beso eta hanka luze-luzeakaz, haretx-tantaiak lakoxe gizon handi-handiak ei ziran; indartsuak, barriz, eurak lakoak... Euren beso luzeak ikutzen ebezan zugatzak, sendoenak izanda be, txirikilan¹¹⁴ jausten ei ziran; eta euren hankatzarrak

¹¹² Zuti eta muti: artez.

¹¹³ Destaina: czespen.

¹¹⁴ Txirikilan: erraz-erraz.

zapaltzen ebezan harriak sarri askotan haustuta gelditzen ei ziran. Gizon bakan-bakanak ei ziran.

Herri honetako jentilak gaur San Martin basotxonoa¹¹⁵ dagoan inguruan bizi ei ziran. Eta euren jolas bakanetan ekiteko, gauero-gauero Untzilatx erpinera joaten ei ziran beti. Hona hemen jolas horretzazko ipuintxuak.

I

Ilargi eder-ederrak gau ilun-iluna argi bereziz argizten eban gau miragarri baten, Otsortiaiko gure jentilok Untzilatx txuntxurera jolasari ekiten joan ziran.

—Gaur zertan jolastuko joagu? —Jentil Nagusiak orroaka esan eban.

—Gaur bolan! —enparadu jentilak erantzun eutsien.

—Tira, ba, bolan... Bolan ekingo joagu, ba —Jentilburuak esan eban—. Harmokila ekarri, ba, agudo!

Orduan eurretarikeo batek Markaidako labarrari harri-mokil handi bat kendu eutsan. Mila arroako harri biribila zan. Eta harmokila besapean ebala, jentilburuagana aurkeztu zan eta ben-ben esan eutsan:

*Hor dok, ba, bolie
mila arroako harrie,
hankaz gora jaurtiteko
heuk gura doan guztie!*

Eta berehala bola-jokoan hasi ziran. Harri-mokilak kea ateraten eban; batera eta bestera indar handiz jaurtiten eban. Hala-ko baten, harmokilak bere lekutik at joan zan eta bere zartada

¹¹⁵ Basotxono: baseleiza.

errimeak etxeko zugatz guztiak erroz gora txirikilan jaurti zituan. Halako triskantzarik!

Eta hatxean behera bilin-bolaka¹¹⁶ etorri zan arte-zugatz batek Kukin artzain-mutil errimea, buru erdian jota, zerraldo lurreratu eban. Jentilak Kukin mutila maite eben; egunoro ardi-esne gozoz elikatzen ebazalako, kutun-kutun eben. Hori zala-ta, ezbehar itun horrek errime tamaldu ebazan. Eta guztiak batera hatxean behera arrapaladan jatsita, mutila seneratzen hasi ziran, horretarako erremedio batzuk eginaz.

Jentil batek asunakaz arpegian joten eban; beste batek, ostera, bularra aker-koipeaz igurtzi¹¹⁷; eta hurrengoak, bere barruko arnasea mutilaren ahora sartzen ekin... Horreek guztiok holan zirala be, baina, mutilak zirkinik be ez.

Honetan, euretariko bateri, txistua jota dantzan, dantzan egi-tea otu jakon; mutila gazte alaia zala-ta, beharbada, alaitasunak seneratuko ebala usterik.

Cerotxuago, zugatz ganean gautxori batek, mozolo batek abestu eban:

Ujuju!
Ze jentil eta ze jentiloste?
Ze soinu eta ze txistu?
Behin mutila hil ezkeru,
ezin leike biztu!

Hori entzunik, jentilak ikaratu ziran eta txori mozoloari isil-misilka esan eutsien:

—Gizon zantzolari, nondik horrenbeste jakituria?

Mozoloak, baina, jaramonik be ez; bere hegoakaz pla-pla hotsa eginaz iges egin eban.

¹¹⁶ Bilin-bolaka: kulunka, zabuka.

¹¹⁷ Igurtzi: igurdi.

Jentilak, mozoloaren esanari jaramonda, Kukin hilda egoala tamalez ohartu eben. Eta gau haretan bertan beste artzain-mutil baten bila hasi ziran; eta hortik-hemetik ibiliak ibili eginda be, ezin izan eben mutilik aurkitu. Orduan, besterik ezean, mutil barria euren eskuz egitea erabagi eben.

Hona zelako soin-atalakaz mutil barria egin eben: lehenengo, zotzezko oin-behatzak ezarri eutsiezan; gero, barriz, sagar ustelezko horpoak, kainaberazko txankak, kipulazko belaunak, bildots-narruzko sabela, aihenezko hesteak, arto-lastozko¹¹⁸ besoak, egurrezko eskuak, karrapustazko¹¹⁹ bularra, haretx arrozko¹²⁰ bizkarra, igeltsuzko arpegia, tomatezko matrailak, arrautza lokazko begiak eta kalabazazko burua.

Eta jentilak eurak eginiko mutila, lurrezko pipea musturrean ebala, mendian gora bialdu eben. Txori mozoloak, baina, itxura haretako mutila mendira igoten ikusi ebanean, barre-zantzoka hasi zan eta Sasiberesi izentzat ezarri eutsan.

II

Beste gau baten be, gure jentilok barrien barri¹²¹, euren bola-lekuan bola-jokoan hasi ziran. Eta hiru edo lau, edo bost edo sei jokaldi egin orduko, barriro be mila arroako harmokil handia hatxean behera bilin-bolaka joanaz Intxaldeko troka sakonera jausi jaken.

Hori jazorikoan, jentil harro batek ilargi mosuzabalari begirakada zorrotza jaurti eutsan, hagin artean amorruez esaten ebala:

—Ilargi zirtzila! Bolearen saltua, hik galduriko tantua!

¹¹⁸ Lasto: aihen, galtzu.

¹¹⁹ Karrapusta: sápin, lino lodi.

¹²⁰ Arro: huts, ustel.

¹²¹ Barrien barri: osterabe, atzera.

Eta orduan ilargi mosuzabalak jentil harroaren soin errimea, harmokila bizkarrean ebala, 'ene' esateko be asti barik indar bereziz beraganatu eban. Zama astuna bizkarrean ebala, batetik bestera munduan zehar ibilteko eroan eban.

Lagunaren zoritxar handiak enparadu jentilak laborrian¹²² ikaraz jarri zituan. Eta euretariko batek, ilargi haserratua bigundu gurarik, harmokila jaustearen errua laino zeharka ebilen hego-haize ikusiezinari ezarri eutsan:

*Haize, haize, heu haz errudun!
Gure bolea haize-bitsetan heuk eruan!
Ibili eta ibili, eta ikusi ez...
Hoa, ho, heure bidez,
guztiok itxirik bake hutsez!*

Eta hego-haizea be jentilaren berba garratzak entzunaz haserratu egin zan. Eta indar handiz txistuka hasita, Untzilatzeko jentil guztiak bere altzo miragarrian hartuta eroan ebazan. Eta aldi luzean haize-putzetan lainoan zehar bakankiro erabilia, hurrengo gauean inguruko hatx-mendietan sakabanatuta itxi zituan. Batzuk, Mugarran; beste batzuk, Arranatxen eta Artzaten eta beste mendi-erpin batzuetan geratu zirala.

Gaucerdiko ilunune itzal bildurgarrian, jentil guztiak zantzoka hasita alkarregaz ederto baten ulertu ziran:

—Ze arrano dok hau? —esaten eben—. Indartsuak eta errimeak garala baina, hor goian gogorragorik bajagok...

Eta guztiak era batez mendi-txuntxurretan belaumbikotuta hego-haizeari bular-joka parka eskatu eutsien.

Halako arren¹²³ beroak hego-haizearen txistu bildurgarria bat-batez isildu zan; hego-haize indartsua bigundu egin zan, adis-

¹²² Laborrian: bildur-bildur eginik.

¹²³ Arren: erregu.

kidetu egin zan. Eta jentil guztiak barrero bere altzo miragarrian hartuta Untzilatx erpinera ekarri ebazan.

Erpin haretan be danak era batez belaunbikotu egin ziran, ilargiari euren lagunaren alde arren sutsua egiteko. Eta ordu berean ilargi haserratuak be bere haserre guztia alde batera jaurti eban, samurtu egin zan. Eta aspaldiz beraganatuta eukan jentil harroa, bere adiskideen arrenak zirala-ta, Untzilatx erpinera harmokila eta guzti jaurti eban.

Orduan hango poza eta zaratea! Pozaren pozez ikotika hasita, luzaroetan *kiribio-dantzán* ekin eben, euren barruko poza zelan edo halan agertzeko.

III

Otsortiaiko jentilok bola-jokoan ezeze, palanka jokoan be ederto baten jokutzen ei eben; palankari errimeak ei ziran. Euren palanka astunak, Untzilatxetik Anbotora eta Mugarrara jaurtiten ei ebezan.

Behin baten, jentilik indartsuenak eta gogorrenak norgehiagoka palanka-joko errime bat egitea erabagi eben. Eta matraka eta eztabaida asko egin eta ostean, horretan ekiteko gertau ziran.

Lehenengoak, palanka sendoa eskuetan ebala, mendi-txuntxurrean garri-zutik¹²⁴ esan eban:

*Hoa, hoa, haize-putzetan,
hoa agudo Larranoraino.*

Eta esku indartsuz jaurti eban palankeá Larranoraino bertaraino heldu zan. Bigarrenak be, bestea letxe jagita, gorantza begirara esan eban:

¹²⁴ Garri-zutik: zutunik, artez.

*Hoa, hoa, haize-bitsetan,
hoa Anboto puntaraino.*

Eta beste barik, palankeak haize-bitsetan joanda Anboto gane-ko labarrean beso betez sartu zan.

Hirugarren jentilak be, palankeak jaurtitean, bere guraria enparadu jentilen aurrean agertu eban:

*Hoa, hoa, laino zeharka,
hoa Mariren kobaraino.*

Eta hirugarren palankeak be bere ugazabaren guraria osoan betetu eban. Hain zuzen be, jaurtiriko palankeak irrintzi baten lainoak agudo zeharkatuta, Mariurrika Anbotoko Dama ezagunaren bizitokira sartu zan. Eta palankearen zartada errimeak Mariurrika hatx-zulotik kanpora jaurti eban; eta Dama gaixoa, lainoan zehar su eta gar joanda, Mugarrako hartzulo nagusian sartu zan.

Baina gure jentilok Mugarrara be palankak jaurti ebezan. Eta Mariurrikak, handik be, nora edo hara hanka-jokoa egin behar. Artzateko landara joanda, hantxe hatx-bazterrean aienatu zan.

Ganeko egun baten, baina, Mariurrikak jentil gaizkinai *atze-ko martitzena*¹²⁵ ederto ekarri eutsen. Jentilok Otsortiaiko landan kontu-kontari egozala, Mariurrika hodei-ertzetik, su eta gar buztanetik suzko txinpartak dariozala igaro zan; buztaneko txinparta mingarriak jentil artera jaurtiten ebazala.

Orduan hango negarra eta hango ulua! Batari begiak erre eutsazan, besteari besoak, eta hurrengoari, hankak eta abar.

Eta jentilok hurrengo egunetan, errearen minak eraginda, negarrez eta garrasika atsedenge¹²⁶ ibili ei ziran. Aurrerantzean, barriz, gure jentil errimeok Mariurrikari palankarik jaurtiteko adorerik arean be ez ei eben izan. Mariurrika, Mariurrika zala-ta, begiak gorantza zuzentzeko be bildurrez ei egozan.

¹²⁵ Atzeko martitzen: zigor, eskarmentu.

¹²⁶ Atsedenge: atsedean barik, gelditu be egin barik.

XII

PETRALANDAKO SORGINAK



Lehenago, basetxe zahar baten ama-alaba batzuk morroi bategaz bizi ziran. Ama-alabak emakume beharginak ziran; egunez, behintzat, soloko lanetan bizkor eta zintzo jarduten eben; eta gaulehenean¹²⁷, barriz, etxeko lanak egin eta gero, ezkaratzeko supazterrean goruetan ekiten eben. Eta sarri askotan, gure ama-alabok etxeko eta soloko lan guzti-guztiak aitearen egiteko oztaz astiz agudo-agudo egiten ei ebezan. Holakoxe bizkor-bizkorak ei ziran.

¹²⁷ Gaulehenean: ilunabarrean.

Etxekoandrak ezeze, morroi-mutila bera be beharrak edo lanak egiten ez zan mutil makala. Laietan, bedar-ebaten eta abar, danean danera ekiana zan. Eta, batez be, inork eginiko gauzeari oker edo zuzen antza emoten mutila zan. Horretan ahutzak¹²⁸ eta mahutzak eukazan; begi eta belarri, adi eta zuhur ebilen beti.

Ama-alabak, egunez soloko lanak zehatz egin eta gero, gauaren iluna mendian behera geldiro-geldiro etorten hasten zanean, ezkaratzeko supazterrean jesarten ziran eta goru-ardatzak eskuetan hartuta, bertatik hari finak egiten hasten ziran.

Eta hau eta hori eta bestea esanaz, gauerdi ingurura arte holan egoten ziran beti. Mutila be eurakaz egoten zan eta berak arto-zuriketari ekiten eban.

Behin gauerdi ingurua heldu ezkerrean, baina, mutila, ordurako nekatuta egongo zala-ta, lotara bialtzen eban. Eta ama-alaba biak, mutila aldentzean, isil-misilka supazterrean isil-kontuetan jarraitzen eban; eta gauerdi-gauerdia heldu behar zan une itzalean, ama-alabak, goru-ardatzak bertan behera itxita, etxetik at, etxetik kanpora joaten ziran.

Euren morroia, baina, kokoloa izan ez; eta kokoloa ez zalako, bere etxeko ama-alabak gauerditzarretan etxetik kanpora joaten zirala behingoan igarri eban. Eta, orduan haren jakingurea!

«Horreek andra barrabanok, gauerditzarretan nora arrano joaten ete dozak? –bere kolkorako ikaraz inoan–. Honakorik! Andrak gauean etxetik kanpora! Ez, ba, neu banok neu, eta inor badok beran, gautxori denganinook norantza hegazten diran, gaur gauean bertan jakingo joat... Honan, ezjakinean, ezertara be ezin neinteke bizi. Zelako jentteagaz ogia jaten dodan be ez jakiat eta».

Mutilaren logeak ate bi eukazan eta ate bietatik bat ezkaratzari eutsala eukan. Eta gure mutila gau haretan bere jakinguru-

¹²⁸ Ahutz: mustur, mosu.

rea asetzarren, atearen giltz-zulotik begi eta belarri ezkaratzean aurkitzen ziran ama-alabai adi jarri zan:

—Ajaja! Hau don gauaren ederra, hau don gauaren baltza!
—amak barre-zantzoka esan eban.

—Ujuju! Hauxe gau miragarria! Guztia ilun eta izarrak argitan dantzan eta dantzan! —alabeak zantzoka deadar egin eban.

—Ijiji eta ajaja! Hortik zehar haize-bitsetan ibilteko gauaren egokia! —barrirokoan atsoak esan eban.

Bitartean, barriz, morroia bere etxeakoandrak sutondoan egiten eban guztiari adi-adi egoan. Giltz-zulotik entzun eta giltz-zulotik ikusi egiten eban.

Gauerdi inguruan atsoak laratzuan topin¹²⁹ handi bat ipini eban; topina ora baltzez bete-beterik egoan. Eta, oinkada isilez joan joan gau zaharrak arinka etorren gau barriari bere lekua itxi behar izan eutsan une-unean, ama-alabak euren oinak topineko ora baltzaz igurtzi ebezan, biak batera esaten ebela:

*Sasi guztien ganetik
eta hodei guztien azpitik,
harantza arnasa baten
eta honantza beste baten...
Trularalara, trularalara,
gaioazanan Petralandara!*

Eta beste barik, ama-alaba biak, kezuloan¹³⁰ gora abiada handiz abiauta, gau ilunaren altzoan haizeak zeharkatuaz Petralandako akelarrera joan ziran.

Hori guztiori begi argiz ikusita, atostean adi egoan mutila ikarraz jarri zan; bere etxeakoandrak sorgin-sorginak zirala bertatik igarri ebalako!

¹²⁹ Topin: lapiko, eltze.

¹³⁰ Kezulo: tximinia.

—Petralandara gauaz joateko sorginak edo pamerialak¹³¹ izan behar, bai... —esaten eban.

Biharamon goizean, egunsentiak egun barriaren argia ekarri orduko, gure ama-alabok supazterrean goruetan egozan. Eta gau guztia horretan igaro balebe lez, arretaz lanean iharduen, morroiak ezertxu be ez ekialakoan.

Eta egun horretan gure ama-alabok, batak eskuko mina eukala, eta besteak hankakoa eukala-ta, gaulehenean oheratu ziran. Mutila, barriz, sutondoan artazuriketan geratu zan; artaburuak garaundu eta txorokilak surtan erreten ebazala, sutondoko bero gozoan pozez egoan.

Eta gauerdiko une itzala heldu zanean, mutila be, jakingureak errime jota, bere etxeakoandrak egiten ebena egiten hasi zan.

«Petralandan zer dagoan be ikusiko joagu, ba, arranotan!», barrurako inoan.

Eta horretarako, berak be, haxe topin handia laratzuan ipinita, oinak ora baltzez sekulako ondoen igurtzi ebazan, ben-ben hagin artean esaten ebala:

*Sasi guztien azpitik
eta hodei guztien ganetik,
harantza arnasa erdiz,
eta honantza beste erdiz...
Trularalara, trularalara,
banaioak Petralandara!*

Eta hori esanda, mutila be kezulotik gora abiada handiz abiau zan... Eta esan ebana oker esan ebalako, bere etxeakoandrak lez arnasa baten haize zeharka ez zan Petralandaratu... «Sasi guztien ganetik eta hodei guztien azpitik» esan beharrean, «Sasi guztien azpitik eta hodei guztien ganetik» esan ebalako.

¹³¹ Pamerial: iratxo, inguma.

Oker esate hori zala-ta, gure mutilak sasitzarik sasitza eta otatzarik otatza joan behar izan eban, eta hori zala-ta, haren negarrak eta haren uluak bide guztian!

Halako baten, baina, ordu bi luzeak holan bidean igarota, arpegia eta gorputz guztia odolduta ebazala garrasi baten Petralandaratu zan. Eta Petralandan sorginak batzarrean egozala aurkitu ebazan. Bertan, ikusteko sorgin-piloak ikusi ebazan eta euren arteko bat Sorgin Nagusia izenaz ezagutzen ebela ohartu eban. Eta Sorgin Nagusiari, batzarraren amaian, enparadu sorginak atzealdetik joanda bizkarrean mun egin eutsien.

Eta gure mutilak, horretarako bere txandea heldu zanean, Sorgin Nagusiari arrapaladan joanda bizkarretik burduntzi gorri bat sartu eutsan. Orduan hango zaratea eta hango deadarra!

Horrenbestegaz, sorgin guztiak benetan haserratu ziran, eta euretariko sorgin mehe batek mutila, ostikoaz eperdian jota, morroi egoan basetxeko teilatu-txuntxurrera amorruez jaurti eban. Harantza ordu bi luzeetan joan izan bazan be, honantza, berak esan eban lez, arnasa erdiz heldu zan.

Gero, teilatuan negar-muskurioka¹³² hasita, kezulotik behingo baten etxeratu zan. Eta goiz haretan mutila, gorputza ezin gehiagoan mankauta¹³³ eukala-ta, etxeoandrai ezertxu be esan barik ohera joan zan. Ama-alabak, baina, harek egin ebanaren barri Petralandara ostera¹³⁴ bat eginaz bakarrik jakin eben. Eta holako okerkeria euren Sorgin Nagusiari egin izan eutsalako, amorruez jarrita agiraka garratzak egin eutsiezan.

Mutila bera be horrenbeste agiraka entzutean haserre jarri zan, eta halako andra sorgin petralakaz batean bizi be ez ebala gura eta, zor eutsiezan hamar urteko alogerak eskatu cutsezan; urte horretan lansaritzat ezertxu be egundo ez eutsiela emon eta.

¹³² Negar-muskurioka: negar-muzinka.

¹³³ Mankauta: elbarriturik, herbaldurik.

¹³⁴ Ostera: buelta.

Orduan ama-alabak, mustur okerrez izanda be, hamar urteko alogerak egun gitxiren barruan emon behar izan eutsiezan. Eta ganeko egun baten morroi-mutila, hamar urteko lansaritzat ehun dukat eta mandarra¹³⁵ hartuta, etxe haretatik pozez beterik aldendu zan. Horrenbeste dirugaz basetxe bateri heltzeko asmoz joan zan, basetxe baten bere kontura biziteko.

¹³⁵ Mandar: mando ar.

XIII

AZKONDOKO NESKEA



Antxinako negualdi baten, Azkondo deritxan basetxeko alaba bakarria Etxebarriarrueta deritxan basetxera goruetan ekiten joaten zan. Etxebarriarruetako etxagun gaztea Azkondoko alaba bakarraren senargeia zan. Eta hori zala-ta, Azkondoko neskatilea bere senargeiaren etxera goruetan ekiteko atxakiaz poz-pozik joaten zan.

Arruèta auzotegiko neskatilarik gehienak be orduko aldian Etxebarri basetxera gauero-gauero joaten ziran; goruari eta barriketeari eten barik ekinaz, neguko gau luzeak zelan edo halan laburtu guran.

Azkondoko etxaguna bere alabea gauetan etxetik kanpora joaten zalako haserrez egoan; gazteen arteko gau-ibilerak beti edo gehienez kaltegarriak izaten zirala-ta.

Neskeak, baina, aitaren esanari jaramonik be ez; eta neska tematia, bere aitaren agirakak ez entzutearren, aita lotan egoan bitartean etxetik kanpora joaten zan.

Ilargi eta izar bako gau ilun-ilun baten, Azkondoko neskatilea, goru-ardatzak esku batean eta galtzu-esku isiotua¹³⁶ bestean ebalatzen, beste gauetan lez Etxebarriarruetara joateko asmoz etxetik urten zan. Eta eskuzuziaren argiz bideak ederto argizten ebazala, Sailuenteko iturrira heldu zanean lamina luze-luze bat ikusi eban. Eta orduan, eskuzuzia ahal eban bestean gora jasota, ikaraz bazan be, lamineari begira jarri zan.

—Neskato, gau baltz honetan nora arrano hoa? —lamineak begi zeharka itandu eutsan.

—Heldu eta bertara... —neskeak siku eta idor erantzun eutsan.

—Lotsabakotzarrori! Heure senargeiaren etxera ez al hoa?... Etxebarriarruetara hoa, ezton?

—Bai, horrax bertara —neskeak barreka esan eutsan.

—Eta, Etxebarriarruetara hoala dinon? Senargeiaren etxera gauaz joateko, horraitik, hire aitaren etxean lotsarik ez itzalik ez jagon. Barriro ez haditela joan, gero! Bestela... —lamineak ben-ben esan eutsan.

Neskatilcak, baina, laminearen esanari be, bere aitarenari lez, jaramonik be ez. Eta barre-destainaz berba batzuk esan eta gero, abesten hasita bidean jarraitu eban:

*Etxebarriarueta
etxaguntzearen ederra!
Nire maitea hantxe dago,
bentanan adi jarrita.*

¹³⁶ Galtzu-esku isiotu: zuzi, eskuzuzi.

Eta hori abesten senargeiaren etxera joan zan.

Biharamonean be Azkondoko neskea, bere goru-ardatzak eta eskuzuzia eskuetan ebazala, bere senargeiaren etxerantza abiau zan. Eta Sailuenteko iturrira heldu zanean, barriro be haxe laminea berbera ikusi eban.

—Neskato! Gaur be bai? Hirezat esanak ez jon balio! —lamineak haserrez esan eutsan—. Beste behin hemetik igaroten bahaz, hire galdua, eta hire aitaren errukarria... Neska, barriro ez haditela igaro, gero! Heure onerako berba egiten deunat. Batera eta bestera gauaz hortik zehar dabilenak goiz edo belu larrapast egingo¹³⁷ jon...

Berba bildurgarriok entzunda be, neskeak jaramonik be ez. Eta, batean lamineari eta bestean senargeiaren basetxcari begi argiz begiratuaz, maitasun-bertsoa bihotz-zotinez abestu eban:

*Itsasoan ura lodi
ez dala hondarrik agiri,
maitea ikusteagaitik
uretan nintzateke ni.*

Hori entzunik, lamineak begirakada zorrotzez esan eutsan:

—Hoa, hoa, pesteori, heure burua galtzeori...

Hurrengo gauean be, Azkondoko neskatilea bere aita lotan egoan bitartean etxetik at urten zan. Eta etxetik urten zaneokoxe, Sailuenteko lamineak gona-magaletik helduta beragaz eroan eban. Orduan haren negarrak eta haren deadarrak!

Lamineak neskatilea Sailuenteko hartzulora eroan, eta hantxe, hartzuloaren atakan¹³⁸ eskuetakoko goru-ardatzak eta bere buru arinean ebazan ule-kopeta edo adats ederrak kendu eta gero, hartzulo bildurgarrira sartu eban.

¹³⁷ Larrapast egin: laban egin, laprast egin.

¹³⁸ Ataka: ate txiki.

Ganeko egunetan auzoetako jentea Azkondoko neskeatzaz bala-bala berba egiten hasi zan. Hori zala-ta, Azkondoko alaba bakarra aienatu zala herri guztian bertatik zabaldu zan; berari zer jazo ete jakonentz, guztiak artega itantzen eben.

Eta egun baten herritarrak, batera eta bestera ibili eta gero, Sailuenteko hartzulora heldu ziranean, hartzuloaren atakan goru-ardatzak eta neskearen ule-adats ederrak aurkitu ebezan. Eta ezaugarri horreek zirala-ta, neskatilea hantxe hartzuloan egongo zala uste izan eben.

Bere bila joan ziranean, baina, hartzuloaren barruan neskarik ez eben aurkitu, eta inon ezin izan ebelako aurkitu, neska gaixoa laminaren batek hartzulorik hartzulo erabiliko ebalakotan geratu ziran.

Eta hori zala-ta, aurrerantzean herrian Azkondoko neskatileen barririk egundo ez zan jakin. Beratzaz, laminaren batek eroan ebala baino besterik ez zan esaten.

XIV

PRAKAGORRIAK



*Bazala, ez zala,
ipuinetan esango...*

Zuek gomutan ez dozuen bariku arratsalde baten, Gereta basetxeko etxagun zaharra azkora handi bat eskuetan ebala basora egurretan joan zan.

Arratsalde haretako eguraldia hotza eta iluna zan; hatx-mendiak lainoz ondo estalduta zirala, euria zaparrada handiz jausten zan. Holako eguraldia izanda be, baina, gure gizonak bere asmoan atzerarik be ez; behin bidean jarri ezker, aurrera eta aurrera baino ez eban egiten.

Euria goian-behean zala bideak igaroten ikusita, bere emazteak esan be egin eutsan:

—Gizona! Eguraldi honegaz nora zoaz?

—Untzilatx aldera egurretan —gizonak hitz gitxitan erantzun eutsan.

—Gaurko eguraldiaz egurretan? —andreak ikaratuta esan eutsan—. Ez zaitez joan gaur; horretarako eguraldi txarra be badago eta. Barikua danez, barriz, ekatxaz batean *beste aldeko mutikoak* be, horren urduri ibiliko dira...

Senarrak, baina, emaztearen esanari entzun eta gor eginda, bidean barrero be aurrera egin eban, atsoen esanak zehatz egitea gauza zaila be bazala-ta.

San Martingo hartzulora heldu zanez, baina, trumoi-hots ikaragarriaz batean ekatx bildurgarri bat sortu zan. Hango oinaztuak¹³⁹, hango trunoiak, eta hango euri- eta txingor-jausteak handiak ziran!

Horrenbestegaz, Geretako etxaguna ikaratu zan, bildurtu zan, eta ekatx handiaren erpeetatik iges egiteko, hantxe bertan zan labarpe batera iraduz¹⁴⁰ joan zan; hatx-mendi guztiak bere ganera joakozala begitandu jakon.

Honetan, San Martingo hartzulotik urten ziran zarata batzuk Geretako etxaguna, bertara, hartzulora, adi ipini eben. Zarata bakan hareek ule-zutik gelduta ipini eben. Halako zarata eta garrasirik bere belarriak egundo be ez eben entzun...

—Honako zaratarik eta garrasirik egundo ez joat entzun —inoan—. Zer ete jagok bertan? Egingo neukek *bestaldeko mutikoak* dagozala... Demonino guztiak bat eginda be, holako zaratarik egiteko, horraitik!

Gure gizona holako oldozkun bildurgarriakaz ebilen bitartean, oinaztu handi baten argitan hartzulotik zortzi mutil, zortzirak

¹³⁹ Oinaztu: inizitu.

¹⁴⁰ Iraduz: prisaz.

dantzari antzean, arrapalada baten kanporatu ziran. Mutilok euren soinak alkondara baltzakaz eta praka gorriakaz estaltzen ebezan; eta euren atzetik beste prakagorri bat be turuta-soinua eskuan ebala arinka agertu zan.

Eta orduan zortzi mutilak, zortzi prakagorriak, turuta-hotsean inon diran dantzak egiten hasi ziran. Haren jirabirak eta haren saltuak ikusita, Geretako gizona hitz egiteko be adore barik geratu zan.

—Ai, nik andrearen esana egin baneu! —tamalez esaten eban.

Eta ikuskizun hain bakana begi aurretik kentzeko, eskumako eskuaz aitearen egin eban.

Orduan prakagorriak geratu egin ziran; eta euretariko batek, haserre-bitsetan joanda, Geretako etxagunari aitearen eginiko eskua zugatz batera lotu eutsan.

Hori eginda, barrien barri dantzak egiten hasi ziran. Barriro be Geretako etxagunak beste eskuaz aitearen egin eban; eta orduan be, prakagorriak beste eskua be lotu egin eutsien.

Hirugarrenez dantzan hasi ziran, barriz, ujujuka eta deardarka pozarren ibili ziran, labarpeko gizonak gehiago aitearen zingo ebala egin eta.

Geretako gizonak, baina, eskuak lotuta eukazalako aitearen ezin ebala egin ikusi ebanean, 'Jesus' izena gogoz deadar egin eban.

Eta, orduan jazo zan handiena! Prakagorriak 'Jesus' izena entzuteaz batean garrasi baten dardarka hasita, jolas eta dantza guztiak bertan behera itxiaz, arrapalada baten hartzulorantza abiau ziran. Bidean lauoinen¹⁴¹ joiazala esaten ebela:

—Horrek Geretako gizon zirtzilak jaukak errua! Horrexena dok errua! Horrek apurtu jozak gure dantzak eta horrek galdu jok gure umorea.

¹⁴¹ Lauoinen: galapaka.

Eta hori esanda beste barik, prakagorri guztiak haserre-bitsetan ke-moltsoak atzean ixten ebezala amorruez heterik hartzuloratu ziran.

Gereta etxaguna, oster, prakagorriak amorruez joiazala ikusi ebanean, barre-zantzoka hasita, etxerantzako bidean jarri zan eta gauean etxera heldu zanean, barriz, ikusirikoaren barri bere emazteari zchatz-zehatz emon eutsan.

Prakagorri horreek txerrenak edo deabruak izan ei ziran.

XV

URREZKO LARAKOA



*Ipuin, ipuin, berezi,
niri berbak igazi,
nire esana ezbaian badon,
heuk beharko don ikusi.*

Izarřak dantzan iharduen eta ilargia barreka egoan gau zoragarri baten, Usua lamina liraina Mugarra hatxean Kataxuriko harmokil handiaren ganean, dantza bereziak egiten hasi zan. Eta ilargi mosuzabalari adi-adi zala, besoak gora jazo eta hankai bizkor eraginaz, haizearen hotsean dantzan eten barik egiten eban.

Horretan iharduala, baina, halako baten, lamineak oinak ezarrita eukazan harmokila bere lekutik bat-batez kanporatuta, mendian behera bilin-bolaka kea eta lantarra¹⁴² dariola joan zan. Eta tximista baizen arin joan zan harmokil handia Inpernuerrekara —Aldebaraietako errekkara— heldu arteraino gelditu be ez zan egin.

Eta orduan Ilinti lamina nagusiak, Usua lirainari begirakume zorrotza eginaz, haserre-bitsetan esan eutsan:

*Neskato, jausi badon jausi,
hoa atzetik igesi,
ez badon gura
gataxik ikusi...*

Eta hori esanikoan, Ilintik gau haretan bertan harmokila barriro Kataxuriratu egiala agindu eutsan.

Usua laminea, barriz, bere nagusiaren esana egitearren, Inpernuerrekara arinka joanda harmokila uretatik ateraten hasi zan. Guztia alperrik, baina; horretarako eginahalak eginda be, harmokilari ikaratxu bat be ezertara be ezin eragin izan eutsan.

Eta bere guraria inongo moduz be ezin ebala betetu ikusi ebanean, Usua laminea mendian ardi zurien atzean ebilen artzain-mutilagana joan zan laguntza eske:

—Artzain, heure behar nok! Inpernuerrekara jausi jakun harmokila jasoteko heure behar nok, mutil. Horretan lagunduko deustak, eztok? Bestela, nire galdua... Ilinti ankerraren zigorra nire lepoan legokek.

—Lagunduko deustut, bai, eta pozik lagundu be. Estualdian aurkitzen danen bat poztean, nire bihotzak atsegin berezi bat hartzen dau eta. Zeozergaitik neuk be sarritan be sarritan negar egin behar izaten dot, bada-ta!

¹⁴² Lantar: txinpart, txatar.

Eta beste barik, lamineagaz batean Inpermuerekkara joanda bertako harmokila ateraten hasi zan; eta ahaleginak ahalegin egin eta gero, uretan zan harmokil handia bizkar ganean kanporatuta, Kataxuriko txuntxurrera behingo baten jaso eban. Orduan laminearen poza!

—On-eginaren saritzat, orain zer eskatzen dok heuk? —Usua lirainak artzain-mutil gazteari ahots gozo-gozoz itandu eutsan.

—Nik ezer be ez —mutilak haziera onez erantzun eutsan—. Bata-besteari horrenbeste on egitekotan beti gagoz gu.

—Tirok, ba, mutil, tirok, ba. Eskerririk asko. —Eta esker onez esan eutsan—: Halako baten, ba, estualdiren baten, itunaldiren baten-edo, gaurko on-egina zezegaz esku zabalez ordaindu beharko deuat, bai. Negar dagianean-edo...

Eta artzain-mutilak azkenengo hitzak entzutean, bere begiak Landaluze basetxera zuzenduta ben-ben esan eban:

—Negar sarritan egin behar izaten dot, bai.

Beste egun baten be, Usua laminea artzain-mutilagana joan zan; egun haretan artzain gazteak bere artaldeko ardi ederrak, eguraldi txarraren bildurrez, joranez¹⁴³ txabolaratzen ekin eban.

Horretan iharduala, Usua lamineak dei eginda samurkiro esan eutsan:

—Mutil, heure ardiak behingoz itxi eizak mendian; orain be heure laguntza beharrean aurkitzen nok eta. Geure ahuntz zuria, Mugarrako ahuntzik ederrena, atzo goizean nora be ez dakigula aldendu jakuan; esne gozo-gozoz elikatzen izan gaituan geure ahuntz kutun-kutuna aienatu... Eta gau guztian bere bila mendirik mendi eta basorik baso ibili izan nazan arren, ahuntzik ez bere azterrenik be inon ezin aurkitu... Hauxe tamala! Geure ahuntz maitea, non aurkituko ete joagu? Honetan be heuk lagundu beharko deustak, mutil. Lagunduko deustak, eztok?

¹⁴³ Joranez: gogo biziz, adorez.

—Bai, gaur be lagunduko deutsut, bai —mutilak gogo onez erantzun eutsan—. Neure ardiak txakurraren ardurapean itxiko dodaz, bai?, eta hortik zehar mendirik mendi ahuntz bila joango gara.

Eta beste barik, Usua eta mutila mendirik mendi ahuntzaren bila joan ziran.

Ibiliak ibili egin eta gero, Mugarrako ahuntz zuria Arranatzeko labar baten erdian egoala ikusi eben. Eta orduan lamineak mutilari leku bildurgarri haretatik ahuntza atera egiala arren egin eutsan. Mutila, baina, haren esana egiteko muker¹⁴⁴, bertako jauskera bildurgarriak burua zorabiatuta, beheko trokara jausi zeitekeala-ta.

Lamineak, baina, holako bildurrik arean be ez egiala euki esan eutsan. Eta Usuak artzain-mutilari eban bildurra aienatzearren, begi biak zapi gorri bategaz estaldu eutsazan, isil-misilka belarrira esaten eutsala:

—«Begi, begitxu, ez zagoz itsu» esanaz, jatsi hadi labarrean behera, eta ekarri eik, buru eta hanka, neure ahuntz kutuna; gaxik arean be ez dok izango eta.

Usuaren esana egitearren, gure artzain-mutila, begi biak estalduta ebazala, labarrean behera jatsi zan; eta labarraren erdian «Begi, begitxu, ez zagoz itsu» deadar handiz esanda, ahuntz zuri ederra behingo baten gailurreratu eban.

Usua, ahuntza esku artean ikustean, pozez zoratu beharrean aurkitu zan. Eta mutilari pozarren begirakune gozoa eginaz esan eutsan:

—Hi lako mutilik ez jagok! Hire egintzak¹⁴⁵ harrigarriak dozak. Adoretsua haz, bihotzak harabil... —Geroago esan eutsan, barriz—: Eta, eginiko mesedeakaitik, orain zer eskatzen dok?

—Ezer be ez —mutilak erantzun eutsan—. Negar dagidanean, poztea baino besterik ez deutsut eskatzen...

¹⁴⁴ Muker: zakar, temati.

¹⁴⁵ Egintza: egite, ekintza.

Ganeko egun baten, artzain-mutil gazteak, bere ardi zuritari begiratuaz, arto-garaunak lakoxe negar-malkoak isuriaz, mendian negar eta negar egiten eban.

Mutila holan zala, Usua laminea bertatik igaro zan; eta mutila modu haretan negarrez ikustean tamaldu egin zan. Eta negar egitearren zioa zer zan esan eragitearren, bihotz samurrez esan eutsan:

—Hori dok negar egitea! Horrenbeste malko isuriteko, zer dok, mutil? Zer jazoten jak?

—Maitemindurik nago... —mutilak ahots dardarez erantzun eutsan.

—Maitemindurik? Nork hauka, ba? —lamineak jakinguraz itandu eutsan.

—Landaluze basetxeko alaba bakarrak.

—Ene! Hori baino ez badok... Ezkondu hadi beragaz eta kitu.

—Bai, baina, Landaluzeko etxagunak bere alabeagaz ni ezkontzea ezertara be ez dau gura...

—Zergaitik ez jok gura, ba?

—Lugintzan¹⁴⁶ ezertxu be ez dakidalako. Bai, ba, txiki-txikitatik artzaintzan bakarrik ohitua nozu eta. Landaluze etxaguntza ederrean, barriz, lugin¹⁴⁷ ona behar ei da... Ni, barriz, horretarako gauza ez. Horra nire negar egitearen zioa!

Mutilaren zoritxarra ikusita, Usua tamalago egin zan; eta lehen berari hainbeste mesede egin eutsan mutila zelanbait pozteko ahaleginetan hasi:

—Ez hadi estutu, mutil, ez hadi estutu —esan eutsan—. Neuk hontxe emongo deudan bezuza berezi batek zorioneko egingo hau eta.

Hori esateaz batean, lamineak kolkotik aterata urrezko larakoa¹⁴⁸ eskuratu eutsan.

¹⁴⁶ Lugintza: nekazaritza.

¹⁴⁷ Lugin: nekazari.

¹⁴⁸ Larako: kabila, ziri.

—Hona hemen lugin on-ona egingo hauen larako miragarria —irribarrez esan eutsan—. Berau aldean doala, «Larako, larako, egin lan eta lan asko» esan ezkeru, edozein luginza-lanetan ondo baino hobeto ekiteko laguntza berezia izango dok eta. Holan dala, hemen inguruetakoko luginik onena heu izango haz. Eta orduan, Landaluzeko alaba bakarragaz ezkontzeko zoriona bertatik izango dok.

Mutila, laminearen eskutik harturiko urezko larakoaz ezti-bitsetan jarri zan, Usuaren esanak hartu eta zehatz betetuko zira-lakoan.

Eta gehiagoko barik Landaluze basetxera arinka joanda, hango soloetan lanean hasi zan.

Lehenengo egunean, urezko larakoa aldean ebala, «Larako, larako, egin lan eta lan asko» atxurketan hasi zan; gero, barriz, laietan, bedar-ebaten, burdinareketan eta abar ekin eban.


Eta egun bi eta erdian holan ibilita, Landaluze basetxeko soloak ertzetik mertzera ederto irulita sekulako edertoen ipini ebazan. Ikusgarri geratu ziran.

Haren lan egitearen ederra ikusita, Landaluzeko aita-alabak gelduta geratu ziran. Lehen horretan ezertxu be ez ekian mutila, luginik onena eginda ikusita poztu be poztu egin ziran. Eta luginik onena bera zala-ta, artzain-mutila Landaluzeko alaba bakarragaz ezkontzea erabagi eban.

Eta egun batzuen buruan, eztegu handi bat gertauta, neska-mutil gazte biak poz-pozik ezkondu ziran. Eta aurrerantzean zoriontsu be zoriontsu bizi izan ziran.

XVI

GAUA, GAUEKOENTZAT



Bidetxingo neskatila gaztea eta Txingelako mutil gaztea txikitatiko adiskideak ziran. Euren basetxe kutunak alkarren ondo-ondoan egozalako, umearoan eta gartzaroan jolaskideak izanaz, betiko ezagunak ziran.

Eta Txingelako mutilak bere auzokide maiteari «Hik eginiko taloak jango neukezan» esan eutsanean, barriz, aitaturiko neska-mutilok alkarren senar-emaztegei egin ziran.

Ordutik aurrera euren adiskidetasuna gehituaz joian, geroago eta adiskideago; igandeetan, batez be...

Igandeetan herriko enparantzan euren lagunokaz batean ederto baten jolastu eta gero, iluntzean agurmaritakoen kanpai-

-hotsean, hurrengo igandera arte plazaeta bertan behera itxita, etxerako bidean arpegi alaiz jarten ziran.

Enparantzatik ordu onez aldentzen ziran arren, baina, gure gazteok euren etxetara hain ordu egokietan be ez ziran heltzen. Ezta hurrik emon be! Bidean kontu-kontari barriketeari emon eta gero etxeratzen ziran.

Igande baten, beti lez, erromerian jolastu eta gero, senar-emaztegeiok gauaren altzo ilunean bidekurutze batera —lau bide egozan lekura— heldu ziran.

Eta hantxe, lau bideen erdi-erdian egoan harmokil handiaren ganean jesarrita zirala, hau eta hori eta bestea esanaz, beste igandeetako gauetan lez kontu-kontari hasi ziran.

Bitartean, zeruan izarrak kinu politak eginaz goia dirdika baten egoan. Gaua ilun samarra zan, igitai antzo¹⁴⁹ agertzen zan ilargiak argi epela egiten ebalako.

Honetan, ipar-haizearen hots bigunaz batean, bidekurutzetik, neska-mutilen ondo-ondotik, gauza miragarri bat igaro zan.

Neskea, euren ondotik zeozer igaro zala ohartu ebanean, ikarraz jarri zan; mutilak, ostera, ez eban ezer ikusi, ez ohartu.

—Hontxe, hontxe hemetxik ingurutik baten bat oinkada isilez igaro dala esango neukek... —neskatileak, bertatik igaro zana zer izan ete zeitekeanentz, senargeiari ahots dardarez esan eutsan.

—Bai, zera, zereko zera! Holakorik uste izatea be! —mutilak barreka erantzun eutsan. Eta barre-destainaz jarrai eban esaten—: Zuek emakumeok, zeuen begi zoliz haizea bera be ikusiko zeunkie...

—Bai, bai, zeozer igaro dok... Hango edo hemeko *izenbako-
ren* bat baino ez badok be, zeozer igaro dok, behintzat! —barrirokoan neskatileak gogorkiro inoan—. Aingeru jagolea-edo izan ete dok? Bera igarotean, ba, arrehunaren¹⁵⁰ fra-fra hotsaz batean, pla-pla hego-hots miragarria entzun joat eta. Ene, zer izan dan eta zer izan ez dan bagenkik!...

¹⁴⁹ Antzo: antzera.

¹⁵⁰ Arrehun: seda.

Eta hori esanikoan, neskea esku biak bekokiratuta oldozkor jarri zan.

Mutilak orduan be barre eta barre egin eban.

Gerotxuago barriro be, haize-hotsagaz lehengo *gauzea* igaro zan. Orduan, baina, itzalkiro, bildurgarriro hitz egin eban:

*Gaua, gauekoentzat,
eta ez neskatilentzat...
Gaurkoa nahiko,
hurregoan damuko!*

Holako hitz bakanakaz gazte biak gelduta geratu ziran. Eta izu-ikaraz berehala zutunduta, gehiago berba egiteko adorerik ez ebela, euren etxeetara arinka joan ziran.

Astearen barruan, baina, euren bildur-ikarak zeharo aienatu ziran. Eta hurrengo igandean be senar-emaztegeiok enparantzako erromerian ziran.

Orduko iluntzean be, guraina dantza egin eta ostean, agur-maritakoen hotsaz batera enparantzatik aldeniduta, bidekurutzeko harmokil handiaren ganean bildurik arean be ez ebela, kontu-kontari jarri ziran.

Horretan egozala, halako baten «Gaua, gauekoentzat...» dea-darra barriro entzun eben. Eta deadarra entzun ebenekoxe, mendi-goienetik zezen bat agertu zan. Zezena baltz-baltza zan. Eta zezen itsusi harek Txingelako mutila, topekada errime bat emonda, konorte barik luze jaurti eban; eta Bidetxingo neskea, barriz, adar artean hartuta beragaz mendira eroan eban.

Biharamonean herriko jenteak mutila bidekurutzean konorte barik aurkitu eban; eta erruki handiz berehala etxeratuta, bere senera ekarteko ahaleginak ahalegin egin ebezan.

Senera etorriko bazan etorri, bularrean ikatz zati bat ipini eta gero, berakatzezko igurtzi sendoak emon behar izan eutsiezan.

Konortera etorri zanean, barriz, mutilak curai jazorikoa zehatz-zehatz edestu eutsen.

Guztia jakin ebenean, auzokide batzuk Bidetxingo neskatileen bila joan ziran; eta ibiliak ibili eginda be, bere azterrenik inon be ezin izan eben aurkitu.

Neskatila barik etxerantza etozala, bidekurutzeko harmokilean eguerdiko eguzkitan neskatila eder-eder bat —ezezaguna bera—, urrezko goruaz zidarrezko hari mehea egiten iharduala aurkitu eben.

Bera ikustean, euretariko batek esan be egin eban:

—Hau neskatilearen ederra!

Eta neskatila ezezagunak hori entzunik, eurakana begiak jasota irribarrez eta itunez esan eutsen:

—Neskatila ederra eta garbia izateko, gauerdiko ilargitan barik, eguerdiko eguzkitan, hau da, egun-argitan ibili behar da, baina. Bidetxingo neskearen bila hortik zehar alper-alperrik zabiltze. Ha galdu zan betiko:

*Gaua, gauekoentzat,
eta ez neskatilentzat...*

XVII

ARTZAINA ETA BASOJAUNA*



Behinolan, neguko iluntze baten, Martin artzain gaztea Larrungo txabolatik Azkaingo ardanetxe batera etorri zan, bere lagunakaz musean jokatzeko asmoz. Martin artzain errimea eta talogin ospetsua zan; Larrun inguruko herritxueta berak eginiko taloak baino gozoagorik egundo inortxuk ez ebala jan, guztiak aho batez esaten eben.

Holan zala, Martineri ardanetxera heldu zanean bere lagunak esan eutsien:

* [Lapurdiko ipuina.]

—Martin, gauza bateri beti ekitea itxura on ez dan ezkeru, gaur mus-jokoa alde batera itxita, taloak jan behar joaguz. Beraz, hontxe bertan taloak egin behar dozak; beti lez, azal biren erdian mamin gozo-gozoa jarrita... Hire taloak ogi zuri fina baino be askozaz gozoagoak dozak, izan be eta.

—Ez, gaur zuen asmoa ezin neikek betetu, talopalea Larrungo txabolan itxi joat eta —Martinek irribarrez esan eutsen—. Orain gauaz, barriz, zera joak hango txuntxurrera talopalearen eske!...

—Gauaz ibilteko horrenbeste bildur? Guzuzra jirudik! Ilargi mosuzabalak eguerdiko eguzkiak baino argi gehiagogaz bazterrak argitzen dauzala, ez al dok ikusten heuk? Hoa, hoa, ba, agudo, Martin, eta talopala hori ekarri cik arin —lagunak arrenka esan eutsien.

Eta artzain gaztea lagunen esana egitearren, Larrungo txabolarara tapa-tapa joan zan. Eta bertara heldurikoan, gizon ezezagun bat suaren ondoan jesarrita egoala ohartu eban. Gizona luze-luzea eta baltz-baltza zan, eta garrirainoko bizarrak ebazan.

Itxura horretako gizona ikusita, gure mutila ikaratu zan; eta bere oinak txingar gorri artean sartuta eukazala ikustean, hondino gehiago ikaratu zan.

«Oinak txingar gorri artean eukiteko, gizon hau ze deabru ete dok...?», bere artean esaten eban.

Eta oldozmen ilun hori buruan ebala jakinmin latzez itandu eutsan:

—Nor zara zu?

—Nor izango nok, ba? Nazana Nazana basojauna ber-berbera nok —gizonak, bere bizar handiari ezkerreko eskuaz eraginaz, erantzun eutsan.

Erantzun horregaz mutilaren burua nahastuago jarri zan.

«Nazana Nazanaren entzuterik be orain arte egundo ez joat izan, bada-ta! Ze pizti ete dok berau?», buruko matazea¹⁵¹ haritik marira harildü guran esaten eban.

¹⁵¹ Mataza: nahaspila, anabasa.

Eta oldozkor zala, isilune luzetxu baten laster barrirokoan esan eutsan:

—Txingar artean dozuzan oinak ez jatzuz erreten? Minik ez dozu nabariten?

—Behin ondo errerikorik barriro ez dala erreten, ez al dakik heuk? —Basojaunak ahots lakarrez esan eban.

Hori entzunik, Martin laborrian jarri zan; eta izu-ikara larriz aterantzako bidean jarri zan. Atera heldu baino lehen, baina, su ondoko gizonak, Basojaunak, orroaz deadar egin eutsan:

—Geldi hor, mutil! Heure burua bape maite badok maite, hiru egia handi hontxe esan barik ez hadi bertatik urten!

Orduan mutila ezin gehiagoan estutu zan; ikarearen ikaraz hurrera jausi beharrean aurkitu zan. Eta esturaldi horretan zala, totelka-motelka esan eban:

—Hiru egiarik handienak, hontxe, hontxe esango dodaz, ba... Lehenengoa, taloa ogi zuri fina baino gozoagoa dala esaten dabe; nik, baina, ogi zuri fina taloa baino askozaz hobeagotzat daukat.

—Egia handia dinok, mutil —Basojaunak, txingar-piloa kolkoan sartuaz, esan eutsan—. Ogi zuria taloa baino gozoagoa dok, izan be. Ea beste egia bat orain...

—Ilargiak eguerdiko eguzkiak baino argi gehiago egiten dabela uste dabe; nik, baina, ilargia baino eguzkia mila bider argiagoa dala dinot.

—Heuk dinoan lez dok, izan be; eguzkia lako ilargirik ez jagok, egon be eta. Orain hirugarrena esan eik, eta kitu...

—Hirugarrena, hirugarrena... Nazana Nazana hemen dagoa-la jakin baneu jakin, hona ez nintzan etorriko honen bizkor eta arin! —mutilak Basojaunari begi zeharka begiratuaz esan eban.

Hirugarren egia entzutean, Basojauna bat-batez zutundu zan eta aharrausi handi eta luze bat egin eta ostean, mutilari irribarrez esan eutsan:

—Heure azkenengo hitzakaz bertsolari samarra agertu hazan ezkerro, orain neure kolkotik haizetaratuko dan bertsoa zehatz eta mehatz ikasi behar dok. Eta bertso hori, ondo ikasirikoan, ar-

danetxera joanda bertako heure lagunai berrogei bider esan beharko deusek... Hona hemen:

*Istoria misterio latz,
ehun zorri eta berrehun bartz¹⁵²;
horreek guztiok bizkarrean dauzanak
izango dau non egin hatz.*

Esan eta esan, Martinek bertsoa, Basojaunak gura eban lez, haritik marira ederto baten ikasi eban. Eta berehala arin-arinka ardanetxera joanda, ikasiriko guztia bere lagunen artean berrogei bider esan eban. Azkenez, esan eta esan eta entzun eta entzun eginda, ardanetxeko lagun guztiak, Martin erdi-erdian zala, zorri-eta bartz-piloak soinetan balebez lez hatz eta hatz hasita, nabariten eben azkurea jasan ezinda, herri guztiaren barregarri ibili ziran. Eta herriko abadeak onespén sendo batzuk emon arterainoko aldi guztian holan ibili beharra izan ei eben.

¹⁵² Bartz: bazpi, zorri-arrautza.

XVIII

BIRAOLARIA ETA TXERRENAK*



Txikitan be ipuin zale-zalea nintzan eta zaletasun begiko hori zala-ta, ipuin politen bat non eta zelan entzungo, artega samar ibiltzen nintzan. Ikastolara joaten nintzanetan, neure laguntxuai sarritan be sarritan isil-misilka esaten neutsen:

—Gaur zelako ipuinak dakarzuez, ba? Aitita-amamak bart zer edestu deutsue, ba?

* Geuk ezarritako izenburua; jatorrizkoan: *Aititordearen lehenengo ipuina*.

Eta berehala neure laguntxuak itaun horrerri egokiro erantzunaz, sekulako ipuin politik edesten eustezen.

Nik, baina, tamalez neure aitita-amamak egundo ezagutu ez nebazalako, neure adiskide eta lagunai ipuin askorik ezin izaten neutsen edestu. Nire gurasoen gurasoak ni ludiratu orduko bestalderatu ziralako, euren ahoetatik ezertxu be entzuteko zorionik ez neban izan; hori, berriz, zoritxar handitzat etsiten¹⁵³ neban. Eta zoritxar hori gogoan nebala, lagunartean behin baino gehiagotan esan izan neban:

—Neure aitita-amamak bizi balira, horraitik, hazelako ipuinak edestuko neukezan!

Eta hori esaten neban bakotxean neure begitxuak malko garratzez ezotzen¹⁵⁴ ziran. Holakoxe ipuinzale errimean nintzan!

Ganeko egun baten, esaniko hitzak buruan nebazala, neure barruan asmo berezi gozoa sortu zan; eta asmo gozo horren altzuan, zelan be ez nekiala, neure ipuin egarria asetzeko, herriko atso-agureen artean aitita-amamaren bat bilatzea erabagi neban.

Hain zuzen be, hurrengo igandean hamarretako meza nagusi ostean, aguretxu zahar bat, larogei urteren zama astuna bizkarrean ebala, oin narraska etxerantza joiala ikusi neban. Agure hori herrian, Baltzuntze basetxean bizi zalako, Baltzuntzeko Andolin izenaz ondoen ezagutzen zan. Ondo gizon ona eta zintzoa bera! Basetxe zahar haretan, bere emaztea eta bera, beti donokira¹⁵⁵ begira bizi zirala esaten eben. On-onak ziran, bai!

Eta igande haretan neure asmoa eta zaletasuna betetearren, Andolin agurgarriari, geldiro-geldiro atzetik jarraitu neutsan eta bere ondora heltzean, neure aitita izan gura ete eban itandu neutsan; eta hori entzutean, Andolin on-onak neure aitita poz-pozik izango zala barreka esan eustan. Orduan nik, holan izan ezkeru,

¹⁵³ Etsi: eretxi.

¹⁵⁴ Ezotu: umeldu, busti.

¹⁵⁵ Donoki: zeru.

igande guztietan etxerantza lagunduko neutsala esan neutsan, begiak be erdi itsutuak eukazala-ta; horretarako, baina, berehala baldintza polit bat ipinteko azartasuna¹⁵⁶ izan neban: igande guztietan ipuin bat edo beste edestu beharko eustala esan neutsan. Eta agure agugarri eta onak baldintza hori onez hartuta, neure guraria poz-pozez betetuko ebala esan eustan; ganera, barriz, lantzean behin kereizak, sagarrak eta intxaurak, eta abar emongo eustazala be esan eustan. Orduko nire poza! Ene! Ezti-bitsetan saltuka!

Gerotxuago nik, barriz, bere hitzakaz jaubetuaz, hantxe bertan ipuintxu bat edesteko arren egin neutsan eta, beste barik, Andolin agurearen ahotik ipuin polit-polita urten zan. Hona hemen.

Behin baten, Ganoste menditik Urkioletako gizon bat burdi bete egurregaz etxerantza etorri zan; eta gizon hori, negurako egur ederra pilatu ebala-ta, bidean poz-pozez etorren. Honetan, burdi-txirringa batek lupetzan laprast egin ebalako, burdia itzuli egin zan. Hori ikusita, Urkioletako gizonak, goiak eta beheak aitatuta, haserre-bitsetan birao ikaragarri bat jauiti eban. Orduan Itsue-rreka aldetik adar-buztandun txerren bildurgarriak agertu ziran; eta txerren adarroker hareek Urkioletako gizona, atzealdetik burduntzi gorria sartzen eutsiela, bere burdi eta idi eta guzti Artzateko labarrean gora aiene baten eroanda Akelarreko txuntxurrera eroan eben. Eta gehiago gizon biraolariaren azterrenik inork egundo ez eban ikusi.

Txerren bildurgarriak euren soin baltzak jake luze gorriakaz estaltzen ei ebezan eta euren oinetan burdinazko oski¹⁵⁷ gogorrek ei eukiezan.

¹⁵⁶ Azartasun: ausartasun, ausardia.

¹⁵⁷ Oski: zapata, oinetako.

Agure zaharraren ipuina entzutean, poz gozo-gozoa barruan ganezka nebala, une haretan ludian zoriontsuena neu nintzala uste izan neban; eta uste atsegingarri horregaz ezin gehiagoan poztuta, aguretxuari eskuan mun eginaz agur eginikoan, neure etxera pozez beterik joan nintzan.

Eta biharamonean, ikastolaratzeaz batean ipuintxua irakasle-meari¹⁵⁸ eta neure laguntxuai haritik mamira edestu neutsen, baita Baltzuntzeko Andolinegaz egin neban hizketalditxuaren barri be zehatz-zehatz emon neutsen. Orduan irakaslemeak, errukitsua eta ona izateko eta zaharrari gogo onez laguntzeko eta abar esanda, idaztino¹⁵⁹ polit bat emon eustan. Hain bezuza polita eskuratzean bihotz-ikutze gozoa izan neban eta neure begiak malkoz ezotuta nebazala, bere aholkuak onez hartzen nebazala eta esanak osoan betetuko nebazala esan neutsan.

Esan eta egin. Aurrerantzako igande guztietan meza nagusi ostean Baltzuntzeko agureari «Aitita!» ahoa betean esanaz etxera gogo onez laguntzen neutsan, nahiz-ta laguntxuakaz jolasean ibili, guztia itxita aititagana joaten nintzan. Geroago, barriz, herriko atso-agure guztiakaz adiskide handi egin nintzan. Eurakandik, barriz, hamaikatxu gauza on eta eder entzun izan nebazan. Zenbat esakune eta aholku onuratsu!... Jaungoiko ona!

*Zaharraren esana,
gaztearen zentzuna.*

¹⁵⁸ Irakasleme: maistra.

¹⁵⁹ Idaztino: liburutxu.

XIX

LAMINEAREN ORRAZIA



Behin, Ibarra basetxeko etxagunak, basotik etxerantza etorrela, Sailuenteko landan orrazi dotore bat aurkitu eban. Eta «Hau dok orraziaren polita!» esanda, Ibarrako etxagunak orrazia kolkoan sartu eban.

Etxera heldu zanean, orrazi dotorea aurkitu ebalata, pozarren inoiz baino gogotsuago afaldu eban; eta gero, egun haretan eginiko lanaz nekatu egin zala-ta, Agurtza¹⁶⁰ deuna otoitz egin eta gero, ohera joan zan.

¹⁶⁰ Agurtza: Errosario.

Gau haretan eguraldi euritsu eta zaratatsua zan. Eta Ibarra-ko etxagunak, haizearen burruna handiak eta trumoi-hots itzelak artegatuta, lorik bape ez eban egiten.

Honetan, ekatxaren burrundada itzelaz batera, urrinetik¹⁶¹ etozan deadar bakan batzuk entzun ebazan. Emakume-ahotsa zan, eta geroago eta hurrago etorren.

Halako baten, basetxeko atearen hotsaz, hurrengo berbok entzun ebazan:

Txantxibarraaa!
Non dok nire orrazia?
Orrazia emoten ez badeustak,
joan dok hire grazia...

Berbok entzutean, etxaguna gelduta geratu zan eta «Laminearen bat dok» esanaz, artazi batzuk eskuetan ebazala, atartera jatsi zan; eta atean egoanari, berbots dardarez, hauxe itandu eutsan:

—Nor edo zer haz?

—Sailuenteko kobako lamina bat —erantzun eutsan atean egoanak.

—Zer behar don?

—Atzo bidean aurkitu zenduan orrazia; gaur gaueon ospatuko dogun jaiari erabilteko behar dot eta.

Basetxeko ateari barrenean zulotxu bat eukan, eta etxagunak lamineari hauxe esan eutsan:

—Orrazia hartu gura badon, lehenen hire mihina ate-zuloan sartu behar izango don.

Eta lamineak, orrazia hartzearen, bere mihina ate-zuloan sartu eban. Eta orduan etxagunak artaziaz, rast!, mihin erdia ebagi eutsan.

¹⁶¹ Urrin: urrun, asago.

Laminea, uluka eta garrasika, berbarik egin ezinik geratu zan. Eta negar baten hasita, «*Mirle, mirle, mirle!*» esaten, tximiste baizen arin alden du zan. Eta bidean joiala, Labarrondo inguruan beste lamina-pilo handi bat aurkitu eban; hareek be orrazi eske etorri ziran. Eta euren lagunak «*Mirle, mirle, mirle!*» inoala konturatu ziranean, euren aurka mila gizon jagi ziralakotan, burundada eta abiada baten, guztiak batera barrero kobara joan ziran.

XX

MUGARRA ETA ARRANATX



Antxina, gura asabak praka laburrakaz eta ule luzeakaz ebiltzan aldi zoriontsuetan, Mugarra eta Arranatz hatx jagiak haserraldi handiak izan ebezan. Handiguraz eta inartziz¹⁶² sorturiko haserraldi garratzak.

Iluntze baten, Mugarra hatxak Arranatz hatxari ahots itzalez esan eutsan:

—Eup, Arranatz! Hi baino ederragoa nok! Hi baino ederragoa!

¹⁶² Inartziz: enbidia, bekaitz.

—Ni baino ederragoa? Nongo ederragoa, gero? —Arranatzek erantzun eutsan—. Alde batetik hazana, bestetik bahintz be...

—Hi baino handiagoa banok, behintzat!

—Ezta, handiagoa be ez haz hi! Mañarian zeruaren hurren Leungane neure txuntxur jagia jagok eta. Coren Leungane jagok!

—Dana dala, bata nahiz bestea dala, hor konpon! Higaz, harro ketoorregaz, ezin leitekek ezer jokatu, goren ibilten ohituta hago beti eta. Horraitik, baina, zugatzetara joko baneuk... Nire bizkarrean zutik dagozan zugatzak ikusi eta zenbatuko baheuz, ikaratuko hintzateke.

—Ajajaja! Hire zugatzak dirala-ta, ni ikaratu...? Ez jagok holakorik! Atze eta aurre, albo eta inguru, zugatzez beterik ez naiagok, ba, neu?

—Tirok, ba, tirok, ba! Horraitik, nire bizkarrean larratzen¹⁶³ diran ardi zuri ederrak ikusiko baheuz... Hamaika ardi bajabilk hemen bedar gozoz klikatzen! Eta txoritan, barriz, sai-arranotan eta abar!

—Arditan, txoritan, abelgorritan, eta danean danera, hi baino gehiago nok beti. Hi baino gehiago eta gorago beti-beti... Nire ondorako, zer haz, ba, hi?

Hori entzunik, Mugarra haserratu zan eta haserre-bitsetan orroa ikaragarri bat egin eban; eta Arranatzek be, orroa bardina eginaz, haserre bizia agertu eutsan. Eta ahots sendoz esan eben:

—Goazen burrukara!!!

Zer jazoko adi eta zuhur egozan inguruetakoko artzainak, horrenbeste astrapalagaz ikaratu ziran eta alkarrereri tamalez esan eutsien:

—Horreek horretan hasten badozak, gure galdua! Ene, ene!... Holakorik arean be jazo ez daiten, baina, gaiozaan danok gora, eta bakotxari zati handi bana kenduta alkarregandik urrin-

¹⁶³ Larratu: larran joan, bazkatu.

du jaiguazan, gauza onerako bata-bestearen hurregi jagozak eta. Hori egin behar joagu gaur. Bestela, artzain eta ardi, hementxe galduko gozak danok.

Artzainok esana ederto egin eben. Arranatxeri zati bat eta Mugarrari beste zati bat kenduta, harri-mokil handi bi Aldebaraietaraino jaurti ebezan.

Eta hori eginikoan, sekulako bake santua ekarri ebela-ta, poz-pozez jarri ziran. Baina, euren poza eta atsegina beste gau bateko jazokun batek otoz otoan¹⁶⁴ goibelduta itxi eban.

Gaua zan, ilargi eta izar bako gau iluna. Enparadu gauak baino askozaz ilunagoa eta itzalagoa...

Gau bildurgarri haretan, Mugarra hatxa barriri jagi zan eta orroa eginaz, ahots garratzez abestiz esan eban:

*Zerua ilun dago,
lurra ilunago...
Arranatax nagiori,
orain be lotan hago?*

Eta beste barik, zantzo handi bat eginaz, Arranatxeri deadar handiz esan eutsan:

—Eup, Arranatx! Iratzartu hadi!

—Ez naiagok lotan —Arranatxek erantzun eutsan.

—Arranatx, hire ganean baino nire ganean artzain gehiago jabilk.

—Hirean baino nirean gehiago? —Arranatxek erantzun eutsan—. Zenbat daukazak, ba?

—Zantzoka zenbatuko joadaz hontxe.

Eta ujujuka hasita, hogezi zantzoraino egin ebazan. Arranatx be zantzoka hasi zan eta hogeta bat egin arte ez zan geratu.

¹⁶⁴ Otoz otoan: ezustean, ustekabeen.

Orduan be, artzainak estutu eta ikaratu ziran eta gau hutsez batzarra eginda, zozketa egitea erabagi eben; zozketan zoria izaten ebana Gorbeia mendira bialtzeko.

Zozketa berehala egin eben eta zoriak, halan beharrik, artzainik gazteena jo eban. Eta artzain gaztea, biderako janaririk asko aldean ebala, bere artalde ederraren atzetik Gorbeiara joan zan. Holan, hatx bakotxa hogeina artzainegaz geratu ziran.

Ordutik aurrera guztiak bakea izan eben beti; eta ganeko gauak, ilargiak eta izarrak argi-argi eginaz, gau gozo zoragarriak izan ebezan.

XXI

BIDEKURUTZEKO MUTILA*



Behin baten, Bidekurutzeko mutila, azkora zorrotz bat eskuan ebala, zugatzak inausteko¹⁶⁵ asmoz basora joan zan. Eta heldu eta bertantxe, pago handi baten ganera igon eta zugatzaren adarrik sendoena azkoreaz joten hasi zan; berak oinak ezarririta eukazan zugatz-adarra lehenengo ebagi behar ebala otu jakon, baina.

* Bigarren argitalpeneko izenburua; lehenengoan: *Txikitako ipuina..*

¹⁶⁵ Inausi: kimatu, moztu.

Horretan iharduala, basoaren erdiko bidean gizon txiki-txiki bat otoz otoan agertu zan; gizon txikia, astotzar baten ganean, kantetan umore onez etorren. Bidaztiak, gizon txikiak, Bidekurutzeko mutila berak oinak ezarrita eukazan zugatz-adarra ebaten ikusi ebanean barre egin eban.

—Kokolo-mokolo horrek bere oin azpiko egurra ebagiten jaragoiok, bada-ta! —barreka esaten eban—. Holan jarraitzen bajok, laster dok jausi...

Eta, zugatzera bere begiak maitasunez zuzenduta, mutilari ondoguraz esan eutsan:

—Hi, mutil! Horixe zugatz-adar hori jausten danean, heu be jausi egingo haz... Habil arduraz.

Zugatz ganean inausketan joranez ebilen mutilak, berba horreek entzun ebazanean, barre-zantzoak egin ebazan. Eta irri eta barre nahikoa egin eta gero, gizon txikiari destainaz esan eutsan:

—Jausi? Bai, zera! Jausiko nazala igarteko astururen bat ala igarleren bat ete haz heu? Holako gauzarik ez joat sinisten nik...

—Ez, ez nok asturua, ezta igarlea be. Baina asturua eta igarlea ez nazan arren be, hor zugatz ganean habilen moduan bahabil azkenengo azkorakadea emon ordukoxe jausiko hazala igarteko beste argi bajaukat buruan. Beraz, zugatz-adarraz batera jausiko hazala, barrero be esaten deuat.

—Hi haz kokoloa!... Hori be esan? Nork sinistu balegok, horraitik!

Eta hori esanda, Bidekurutzeko mutilak bere arloan lehen baino garratzago ekin eban. Azkoraketa errimean ebilen.

Ekin eta ekin, halako baten, bere oin azpiko zugatz-adarra lokatu egin zan eta bat-batez *karak* eginda, lurrera jausi zan. Eta adarraz batean, mutilaren soinak be lurrean hots egin eban, zartada errimea hartzen ebala.

Orduan mutila ikaratu zan; bidetik igaro zan gizon txikiak esanikoa osoan betetu zalako, bere buruko uleak zutik jarri ziran.

—Eta berari berba egin eutsan gizona igarleren bat izango zala-ta, haren atzetik bidez bide joan zan.

—Oño, harexek gizonak igarri egin jok! Igarleren bat-edo izan behar jok berak. Burla eta barre egin deutsadan arren, bere bila joango nok; eta parkazinoa eskatuko jeutsaat —mutilak damu handiz esaten eban—. Beharbada, barriz, gizon horrek jausiko nazala igarri deustan ezkeru, noiz hilgo nazan be kapaz dok igarteko. Oi, hori banekik...!

Ibili eta ibili egin eta gero, halako baten gizon txikia bide-ertzeko landa baten atsedentzen egoala ikusi eban. Eta beragana itzalez eta bildurrez hurreratuta, berba tamaltsuakaz esan eutsan:

—Zu, gizon, burla eta barre egina damu naz bihotzez. Parkatu eidazu... Gizon handiren bat zaralakoan nago eta. Lehen, zugatzetik jausiko nazala esan deustazunean, ezertxu be ez deustu sinistu, zeure esanak haizcaren putzak izango ziralakoan. Orain, baina, guztia sinisten dot, zeure esanak osoan betetu diralako. Hori igarri dozun ezkeru, barriz, orain beste gauza bat be igarriko dozulakoan nago. Itau garrantzitsu bat egin gura deustu; noiz hilgo nazan jakin gura neuke eta. Noiz hilgo ete naz, ba?

—Irri eta barre egina parkatuta daukak, mutil —gizon txikiak erantzun eutsan—. Baina badakik, gero, itau ausartu bat egin deustaala hontxe bertan? Norbera noiz hilgo dan jakitea, zer dala uste dok? Baina, tira, itxaron eik apurtxu baten, heure itau ausartuak crantzuna lastertxu izango jok eta.

Gerotxuago, gizon txikiak mutilari bere astoa erakutsita esan eutsan:

—Eutso asto hau heuret zat. Hiretzako lagunik onena berau dok, izan be eta. Heu noiz hilgo hazan jakin gura badok, barriz, hoa asto honegaz mendirik mendi, eta bide askoak igaro eta gero, aſtoak hiru uzker jaurtiten dauzanean, orduantxe jakingo dok noiz hilgo hazan. Astoak hiru uzker jaurtiten dauzanean, hire azkena izango dok eta.

Mutila, gizon txikiak esanikoaz ikaratuta, astoa aurean eballa mendian gora abiau zan.

Apur baten ibili eta gero, mendi barrenean astoak uzker bat jaurti eban; eta goratxuago, beste bat be jaurti eban. Bigarren uzker-hotsak mutila laborrian ikaran ipini eban, bere azkena hur-hurrean izango zalakoan... Hirugarren uzkerria entzun ebanean, barriz, Bidekurutzeko mutila, bere azkena orduantxe izango zalata, bildurraren bildurrez ikaratuta konorte barik lurrera jausi zan.

Holan egoala, bertatik lau gizon igaro ziran; eta bidearen erdian mutila konorte barik ikusi ebanean, hildakoren bat izango zala uste izan eben. Eta lau gizon hareek Bidekurutzeko mutila hilda egoalakoan, sorbaldetan hartuta erruki handiz eroan eben.

Lau gizonok, mutil eta guzti mendian behera etozala, bidekurutze batera heldu ziran; bertan lau bide egozan. Eta gizon bik, bide batetik joatea gura izan eben; eta beste biak, ostera, beste bide batetik. Zein bideri jarraitu ebatzi ezinik ebiltzala, gizonok eztabaida gogorrean hasita haserre handian jarri ziran.

Orduan hildakotzat egoan mutilak, bere arpegia bat-batez gora jaso eta eskuaz alboko bide bat erakutsiaz, ahots itun-itunez esan eban:

—Ni, bizirik nengoanean, hortixik bidetik joaten nintzan...

Mutilaren ahots ituna entzun ebanean, lau gizonak gelduta geratu ziran; eta hildakoak berba egin eutsela-ta, gorpua bertan behera bidearen erdian itxita hanka-joko errimea egin eben.

Bidekurutzeko mutila be, bere burua bakarrik ikustean, bildurrez arineketan hasi zan; bera eroan eben gizonak harrapau gurarik arin-arin joan zan. Noizik behin deadarka esaten ebala:

—Hor nok! Hor nok!

Eta bidez bide arinka joanda, gizon eta mutil mendi-gailurrean aienatu ziran.

XXII

ABADEA ETA DEABRUA



Garileko¹⁶⁶ egun argi baten, herri txiki bateko txauburua¹⁶⁷, goizean goiz mezea emonda, udako goiz-inontz gozoa hartzen basora joan zan.

Eta gure abadea, mendi-gailurrera heldurikoan, txuntxur haretatik bere herriari begi zabalez adi-adi jarri zan. Han behean, bere herrian, eleizatxu polita, basetxe zuri-txukunak eta solo-baratz eder-ederrak ikusten ebazan. Haren poza eta haren atsegina!

¹⁶⁶ Garil: garagarril, uztail.

¹⁶⁷ Txauburu: abade nagusi.

Batez be, hango garitzak, hango artotzak eta hango igali¹⁶⁸ ederrak abadearen bihotza atseginez ipinten eben. Halako edertasunaz gelduta egoan:

—Hau dok edertasuna! —esaten eban—. Nire herriarentzat, Jaungoikoaren eskuaren zabala! Aintzaldia eta onetsia¹⁶⁹ izan bedi bera ordu eta une guztietan...

Eta bere barruko poza gehiago ganeratuaz, gorantza begira zerura adi zala, *Gloria in excelsis Deo* abesti ederra pozez abestu eban. Abestiaren amaian, barriz, abadearen ahots durunditsuari¹⁷⁰ zeruko aingeru zuriak ahots gozo-gozoz, «Amen! Amen!» erantzun eutsien.

Barriro be, abadea bere herritxuari adi jarri zan; haren edertasunak pozez zoratu behar eban!

Abadea horretan zala, mendi-goienean kedarra lakoxe gizon baltza agertu zan. Eta agerturiko gizon baltz bildurgarri harek, abadeari bere ondora hurreratuta, barre-destainaz esan eutsan:

—Mutil! Zer dala-ta horrenbeste poz eta horrenbeste atsegina?

—Honenbeste poz zergaitik daukadan dinok heuk? —abadeak begi zeharka erantzun eutsan—. Begiratu egiok nire herriari; horko solo-baratzen ederrak eta horko igalienen bedeinkatuak!... Benetan pozteko ziorik ez ete jagok bertan, ba?

—Tirok, tirok... Horrenbeste pozteko gauzea be ez dok hori eta. Hire herriko solo-baratzak apurtzeko zaldia eskuan daukadazala, ez ete dakik? Habil arduraz eta marduraz...

Azkenengo berbak entzuteaz, abadeak ha gizona deabrua zala igarri eban. Eta arpegia beragana adoretu zuzenduaz benben esan eutsan:

—Eta, eta..., hire zaldi indartsuak eusteko indarra lortu neikela ez al dakik heuk be? Txerren madarikatuori, hi baino guztira gehiago danen bat bajagok han goian!

¹⁶⁸ Igali: frutu.

¹⁶⁹ Onetsi: bedeinkatu.

¹⁷⁰ Durunditsu: zaratatsu.

Orduan txerrena haserratu egin zan; eta hagin kirrizka¹⁷¹-hotsa bildurgarriro eginaz haserre biziz deadar egin eban:

—Ikusiko dok, ikusiko dok... Iluntzera orduko hire herriko solo-baratz guztiak triskauta eta birrinduta geratuko dozak. Ez garirik, ez artorik, eta ez igalirik ez dok geratuko bertan!

Hori entzunik, abadea deabruari «Ikusiko joagu nor, nor dan» esanda, mendian behera abiau zan.

Bidean etorrela, lantzean behin zero aldera begiratzen eban; zeruan eguzkia argi-argi ikusten eban, lainoaren apurrik ez zan agiri bertan, urdin-urdin birjina-margoz apaundurik egoan dana.

Hori ikusita abadea poztu egin zan; egun haretan ezertariko ekatxik ez zala izango uste izan eban.

Ibili eta ibili eginda, eguerdirako etxea jo eban. Eta bazkaria jaten iharduala, bere arrebeari esan eutsan, nekatuta egoala-ta, apur bat atsedentzearren eguerdi ostean ohera joan behar zala; eta bera lotan egoan bitartean, zerua lainotzen bazan lainotu, bertatik dei egin egiola.

Arrebeak, ardura hori leporatzen ebala esanaz, baietz erantzun eutsan.

Neskea, baina, arratsalde haretan auzoko andra batzukaz briskan hasi zan; eta joko horretan joranez iharduala, bere nebearen esanaz arean be ez zan gomutau. Nebarik munduan bazan be ez zan orduan gomutetan!

Halako baten trumoiak hots egin eban. Eta ustebako trumoi-hots handi harek ohe ganean atsedentzen aurkitzen zan abadea darda ganean¹⁷² ipini eban.

Ohetik jagi eta leihoratu zanean, barriz, zero guztia lainoz beterik egoala ikusi eban... Eta bere herritxuko solo-baratzak apurtu behar ebazan ekatx bildurgarria baetorrela ohartu ebanean, haren tamala eta ikarea!

¹⁷¹ Kirrizka: karrakada.

¹⁷² Darda ganean: larri eta urdui bildurrez.

Kurutze deuna, ur onetsia eta liburua hartuta, etxe-baratzera arrapala baten jatsi zan. Eta bertatik, arrebeari, lexiba-ontzi bat buruan hartuta baratzera bere ondora joan eitela agindu eutsan. Eta arrebeak, lexiba-ontzia buruan hartuaz, abadearen agindua berehala betetu eban.

Orduan abadea konjurua egiten hasi zan; eta otoitzakaz batean, Jaungoikoari bidean etorren ekatx kaltegarria atzeratu egiala eskatu eutsan. Edo bestela, jausi behar zan harriabarra¹⁷³, herriko solo-baratzetan kalterik izan ez dagiantzat, bere arrebearen buruko lexiba-ontzian sartu egiala, gogo beroz arren egin eutsan. Atzeratzea komenidu ez bazan be, behintzat, herrian kalterik ez egiela egin eskatu eta eskatu egin eutsan.

Honetan, oinaztuakaz eta trumoi-hots itzelakaz, goitik behera euria eta harria sendo jausten hasi ziran. Holan zala be, baina, Jaungoikoak, abadearen otoitzak gogo onez entzun ebazalako, goitik behera jausi ziran harri guztiak, ezeri be kalterik egiten ez eutsala, neskatilearen buruko lexiba-ontzian pilatu ziran.

Holan, euren herriko solo-baratzak lehen adina¹⁷⁴ eder ederrago geratu ziran.

Gauza miragarri hori izan zan unean, deabrua barrien barri agertu zan, eta bere esan kaltegarriak betetu ez ziralako amorruez beterik, agertu be.


Abadeak, baina, deabruari kurutzea erakutsita, oinetan eukazan zapatak indar handiz jaurti eutsazan. Eta horrenbestegaz, txerren madarikatua bertatik su eta gar aldendu zan, abadea eta herriko jente guztia pozez beterik geratzen zala.

¹⁷³ Harriabar: inetasi, kazkabar.

¹⁷⁴ Adina: beste, lain.

XXIII

TXIRRIKIZEN TXILIBITUA



Peli eta Mikel eskola-mutikoak egun baten herriko enparantzán intxaurrekak *bi-bika* jolasten iharduela, *Txirikiz* gaitzizenaz¹⁷⁵ ezagutzen zan eskeko-aguretxua enparantzaren erditik eleizarantza igaro zan.

Mutiko biak *Txirikiz* ikustean, euren jolas polita bertan behera alde batera itxita, harlosa baten ganean jarri ziran agureari arretaz begiratzeko ustez.

¹⁷⁵ Gaitzizen: ezizen, goitizen.

—Ene! Haor non doan *Txirikiz* agure zaharra! —Mikelek barre-destainaz esan eban—. Geure kortako asto zaharra baino be narrasago jabilk agure hori, bada-ta! Horrek jaukak planteaa, osteraa! Holako agure zaharrari irri eta barre egin behar jeutsaagu, Peli. Gaur arratsaldean, *bi-bika* jolasten aspertu garan ezkeron, zetan edo hatan astia emon behar joagu eta.

—Ni ez naioak zaharrari eta arabere eskekoari iririk egiten —Pelik eskekoari itzalez begiratuta erantzun eban—. Eskekoa eta agurea iraintzea hobena¹⁷⁶ handi-handia dala gure amamak esaten jaragoiok beti eta. Ia-ia, Jaungoikoari berari irri egitea lakoxe hobena dala esaten jok harek. Beraz, ni ez naioak horretan...

—A, leloa...! Amamaren esanak buruan-eta habil hondino be? Nik holako atso pesteen esanari, katuak sagarrari adina jaramon egiten jeutsaat. Atsoen esanak zehatz egiten bahabil, horraitik, oilo eta erdi izango haz beti!

—Atsoen esana dala nahi ez dala, hire esanak dirala nahi ez dirala, ni ez naioak eskekoari iririk egiten eta kitu! Nahi hareek esan, nahi horrek esan, txarra dana, txarra, eta ona dana, ona izango dok beti. Hik be, barriz, Mikel, *Txirikizeri* iririk eta barrerik egingo ez baheutso, hobe.

Mikel mutikoak, baina, bere lagumaren esanari jaramon barik, atzetik arinka joanda, eskeko-agureari irri eta barre egin eutsan, esaten eutsala:

*Txirikiz mirrikiz,
sabela bete txarrikiz!*

Txirikizek, baina, destaina-berba irrigarriak entzun arren, mutikoari bape ez eutsan haserrerik egin; bestera, arpegi otzan-otzanaz begirakume gozoa eginaz esan eutsan:

—Mutiko politori, ez hadi hain okerra izan. Agure zaharrari eta, batez be, eskekoai irri eta barre egitea hobena itsusia dala ez

¹⁷⁶ Hobena: pekatu.

ete dakik heuk? –Eta sakeletik txilibitu polit bat aterata, jarrai eban esaten–: Gehiago holako destainarik ez egiok inori egin, Jaungoikoak be holako destainarik egitea arean be gura ez dauelako... Ikusi eik, barriz, zelako gauza polita daukadan eskuetan. Txilibitu miragarria dok. Tramankulutxu honeri mutiko zintzo eta onen ahoetako putzak hots miragarriak eragiten jeutsiezak; horretarako batek ona izan behar, baina. Eta zarata miragarriaren hots gozoan, notin¹⁷⁷ eta abere, handi eta txiki, agiri diran guztiak, soinuaren gozotasuna geldirik jasan ezinda, pozaren pozez dantzan egin behar izaten juek. Holakoxe soinu atsegingarria dok, izan be. Bera entzun ezkeroran, gurata be inor geldirik ezin egon, hiru mila txilibitu joten dagozala begitantzen jakek eta. Begira, ba, mutiko, eta entzun arretaz eta ulertu ondo: On-ona izaten bahaz heu, gauza miragarri hau heuretzat hontxe bertantxe izango dala benez esaten deuat. Beraz, mutiko, zintzoa izango haz, eztok? Ona izango haz?

Mutikoa, halako txilibitu polita ikusi eta agurearen esanak entzun ebazanean, pozez eztitan jarri zan; eta txilibituaz jaubetzearren, une baten bere barruan ona izateko asmoa hartuta, agurari, barretxu apala eginaz, ona izango zala esan eutsan. Eta orduan agureak txilibitu miragarria eskuetan ipini eutsan.

Handik hiru-lau minutu igaro orduko, baina, Mikeleri barriro be eskekoari irri eta barre egiteko gogo sortu jakon. Txikitatik hasita eban ekandu¹⁷⁸ txarrak bere asmo onari gehiago egin eutsan; holakoxe okerkeriak egiten txiki-txikitatik ohitua zan.

Eta mutiko okerrak, harri-koskor bat edo beste lehenengo jaurti eta gero, agurari erdi kantetan barre-zantzoka esan eutsan:

*Zaharra da eta hil bedi,
ez dau balio lauziri¹⁷⁹!*

¹⁷⁷ Notin: persona.

¹⁷⁸ Ekandu: ohitura, usu.

¹⁷⁹ Lauziri: balio bako txanpona, ezer be ez.

Holako okerkeria ikusita, *Txirikizen* eroapenak¹⁸⁰ eten egin eban; aguretxu artetsua¹⁸¹ osoan haserratu zan. Hain bigun eta maitetsu mutikoari berba egin berak, eta ganera bezuza be bere onerako gogo onez egin, eta holanda guzti be, mutikoaren gogoa ezin ezertara be irabazi! Agureak bere kolkorako inoan.

«Horrentzat, esan onak eta bezuzak eta abar, alper-alperrik dira guztiak», jarrai eban esaten.

Eta agure haserratuak mutikoari dei zolia eginda, begirakume zorrotzez esan eutsan:

—Mikel, nik eginiko bezuza heure zoritxarrerako izango ahal dok!

Agurea aldendu zaneko, Mikel txilibitua joten hasi zan. Bere bularreko arnasa guztiaz putz eta putz joranez egiten eutsan arren, baina, tramankulutxu harek berak uste eban lako hots politik ez eban egiten... Horretarako ahalegin guztiak egin ebazan arren, adar zaharraren zarata lakarra baino besterik ezin izan eutsan eragin.

Hori ikusita, mutikoak hagin artean ikaraz esan eban:

—Ze arrano dok hau? Adar zahar baten zarata lakarra baino besterik ez jok egiten, bada-ta! Belarriak mintzeko alagalakoa¹⁸² dok... Harek agureak esan jeustazak guzurtzarrak! Horraitik, gauza ona izateko asko falta jok berak!

Eta mormorka¹⁸³ baten ibili eta gero, barrero be txilibitua jotzen hasi zan; hiru mila txilibituren hots miragarria entzungo ebalakoan ekin eban... Baina dana alperrik; barrerokoa be adar zaharraren zarata lakarra bakarrik egiten eban.

Halako baten horretan gogait egin eban. Eta esku artean erabilen tramankulutxua ezertarako be ez zala izango eta, erre kara jaurtiteko asmoa hartu eban.

¹⁸⁰ Eroapen: pazientzia, egonarri.

¹⁸¹ Artetsu: pazientzia handiko.

¹⁸² Alagalako: hautu-hautuko.

¹⁸³ Mormorka: marmarka.

Gerotxuago, baina, urari emona urak daroala-ta, bere txilibitua Peli lagunari emotea erabagi eban.

—Hona hemen *Txirrikiz* agure zaharraren bezuza miragarria... —Peliri destainaz esan eutsan—. Eutso, heuretzat.

—Ondo gauza polita dok, izan be —Pelik, txilibitua pozez hartuaz, erantzun eutsan.

—Polita edo motza, hor daukak, ba, eskuan. Baheki zelako adar zaharra dan... Berehala putz egiok, eta jo eik bertan.

—Ez, orain ez; horretarako orain ez jaukaat astirik, euki be. Honezkero etxean afaritarako itxaroten egongo dozak eta. Beraz, bihar-edo ikusiko joagu...

Eta Peli, hori esanikoan, arinka etxeko mahaira joan zan.

Biharamon goizean mutiko biak basora alkarregaz joan ziran. Pelik bezperan Mikelek emoniko txilibitua basora aldean eroan eban. Eta mendi-txuntxurrera heldu ziraneko, Peli txilibitua jo eta jo hasi zan. Orduan haren soinuaren gozoa! Entzun eben guztiai hiru mila txilibituren hots gozoa iruditu jaken.

Hori zala-ta, notin eta abere, soinua entzuten eben guztiak dantza baten hasi ziran. Mendian larratuta egozan ganadu gorriak, landa-bedarretan elikatzen ziran ardi zuriak, eta hartxirriketan¹⁸⁴ ikotika ebiltzan ahuntz bizkorrak eta abar, dantza baten ebiltzala ikusi ebezan. Baita mendi-hegalean agiri zan basetxe zuriko sololan egozan laiariak be, laiak alde batera jaurtita, guztiak batean dantzan hasi ziran. Azkenerako, Mikel mutikoa be dantzan hasi zan.

Hango dantzearen dantzea eta hango zaratea! Holako erromeria bat egundo ez zan inon egin.

Halako baten, luzaroetan joten ekin eta gero, Pelik, nahiko dantzarik izango zala-ta, soinua isildu egin eban.

Eta soinua geratzeaz batean, dantzan ebiltzanak be geratu egin ziran. Eta nekatuta egozalako guztiak atsedena hartzen jarri

¹⁸⁴ Hartxirriketa: harritzta.

ziran. Mikel be, bere soina zelanbait atsendu gurarik, Peli bere lagunaren ondotxuan jesarri zan.

Holan zala, Mikeleri isilka-misilka bekaitz kaltegarria sortu jakon; egun haretan ikusi eban gauza miragarria ikusita, bere lagunari txilibitua emona osoan damutu jakon. Eta barruan eban bekaitzak eraginda, emoniko gauzeaz barriro jaubetzeko ahalegi-
netan hasi zan.

—Hi, Peli, ekark txilibitu hori —Mikelek negar-muskurioz esan eutsan.

—Ez, ez deuat emongo —Pelik erantzun eutsan.

—Bai emongo deustak, neurea dok eta.

—Hirea? Bai, zerko hirea! Emona, emona dala, ez al dakik? Lehen izango zoan hirea, baina orain ezertara be ez!

—Lehen be bai eta orain be bai, hori beti neurea. Eta neurea dalako, gurataez¹⁸⁵ hontxe bertan emon behar deustak. Bestela...

Eta hori esanda beste barik, arrapaladan joanda, Peliri eskue-
tan eukan txilibitua kendu egin eutsan. Pelik orduan, zarataka hasita, emona, emona zala-ta, kenduriko gauzea barriro emon egiola arren egin eutsan. Esan guztiak alperrik, baina, Mikel, txi-
libitua besapean ebala, bere etxera lauoinen joan zan.

Horrenbestegaz, Peli haserratu zan; eta haserre be haserre zala, bere lagunari *emona kentzearen* zemaia jaurti eutsan:

*Harek emon nahi horrek emon,
emona, emona dok.
Emon eta kendu,
zapoak behatzak kendu!*

Gau haretan Mikel txilibitu eta guzti pozarren oheratu zan; bere lagunaren esan bildurgarriak arean be ez eban ikaratu. Txi-

¹⁸⁵ Gurataez: derrigor, ezinbestean.

libitu miragarriaz behin jaubetu zan ezkeru, txarrik ez onik ez eban oldozten. *Txirikizek* esanikoaz be bape ez zan gomutetan.

Gaueko hamabi-hamabietan, baina, etxe aurreko harri baten azpitik urteniko zapo handi batek Mikeleri lotan egoala oinetako behatz nagusiak jan eutsazan. Mikel zapoaren haginkadeak irartzartuta negarrez hasi zan. Haren negarrak eta haren uluak! Eta hanketako minak zirala-ta, ganeko egun-gauetan be eten barik negar egiten eban. Eta tantaka-tantaka negar-malkoz upa¹⁸⁶ handi bat bete arte ez zan geratu be egin.

Mutiko okerra, eskeko-agureari irri eta barre egin eutsalako, Jaungoikoak zigortu egin eban.

¹⁸⁶ Upa: upel.

XXIV

MUTILA ETA MUSKERRA



Igande goiz baten Oxintxuetako mutil gaztea, ez mezarik entzun, ez ur onetsirik hartu, kristauaren ezertariko beharkunik¹⁸⁷ betetu barik, patxadaz-patxadaz basora joan zan.

Mutila joan eta joan bajoian bidean, eta aurrera eta aurrera eginaz, mendi-gailurrerantza egiten eban beti.

¹⁸⁷ Beharkun: eginbehar, betebehar.

Eta bide-zati handia holan igarota, sastrakarte¹⁸⁸ batera heldu zanean, pizti narras batek ezkerreko oinean, zart¹⁸⁹ bizi-mingarria egin eutsala ohartu eban. «Ai ene!» handi bat eginaz begiratzen dau, eta musker handi batek bere oinean ahoa ezarritak eukala ikusi eban.

Estutu zan, larritu zan eta eskumakilaz zartada errimeak emoten eutsazan arren, muskerrak ikararik be ez, gogor bertan.

Hori ikusita, mutila, hara inguruetara begi luzez begiratuaz, laguntza eske deadar baten hasi zan.

Bere deadar zolietara bertatik atsotxu bat agertu zan. Eta atsotxu zaharra, mutilaren oinean halako musker handia ikusi ebanean, gelduta geratu zan. Eta zur eta lur eginda, bere esku biak buruan ebazala, mutilari erruki handiz esan eutsan:

—A, mutil...! Ederra daukak aldean! Gau, igandez, mezarik entzun dok?

—Ez, ez dot entzun —mutilak negar-muskurioz erantzun eutsan.

—Eta ur bedeinkaturik hartu?

—Ezta...

Kristau-beharkunak ez ebazala betetu ikusi ebanean, atsoak barrero be bere esku biak burura jazo zituan; eta holan luzarotxuan egon eta gero, tamal-tamalez esan eutsan:

—Hire galdua, mutil! Hori holan badok, orain pizti horren ahoa hire haragitik aldentzeko, hiru herritako eleizetako kanpaiak hamar minuturen barruan hots egin beharko juek. Bestela, hire zoritxarraren zoritxarra... Muskerra oinean doala, hor egon beharko dok sekularioan¹⁹⁰!

Berba bildurgarriok entzunikoan, mutilak garratzago negar egiten eban; hamar minuturen barruan hiru herritako kanpaiak jotea gauza gatxa be gatxa izango zala-ta.

¹⁸⁸ Sastrakarte: sasiarte.

¹⁸⁹ Zart: usigi, haginkada.

¹⁹⁰ Sekularioan: luzarotan, denpora askoan.

Negar asko-asko egin eta gero, bere begiak begirakune ilunez zuzenduta, atsoari ahots itunez itandu eutsan:

—Eta hamar minuturen barruan hiru herrietako kanpaiak, nork joko ditu?

—Besterik ezean, neuk joko joadaz, mutil —atsoak errukiz erantzun eutsan—. Hori egiteko, heure hobenakaz damututa hagoan ala ez jakin behar, baina. Damu haz, eztok?

—Bai, damu naz! —mutilak bular-joka erantzun eutsan.

Orduan atsoa, «Ondo jagok» esanda, hiru herritara joan zan; eta euretariko eleizetako kanpaiak gogo beroz jo ebazan.

Lehenengo herriko kanpaiak bere hotsaz batean esan eban:

*Txalan, txalan,
mezarik entzun ez dauelako,
muskerra oinean!*

Bigarrenekoak, barriz:

*Txilin, txilin,
ur bedeinkaturik hartu ez dauelako,
muskerrak min egin!*

Hirugarrenekoak, ostera:


*Txolon, txolon,
txarto eginaz damutu dalako,
hontxe bertan zorion!*

Eta azkenengo kanpai-hotsaz batean, muskerra mutilaren ondotik arrapaladan aldendu zan eta bidezidorretik arin-arinka joanda sasipe baten sartu zan.

Holan, mutila muskerraren ahotik aske geratu zan, oratuaren ezaugarririk be geratzen ez jakola.

XXV

AINGERU HARRI-IRAGOTAILEA



Antxina, Berriz herrian bertako biztanleak eleiza eder bat egi-
tea erabagi eben.

Eta egun baten, horretarako gaiak ugari batuta, han inguruko
harginik onenak eleiza barria hainbat lasterren jasoteko horma sen-
doak egiten hasi ziran, bertan harri-pilo handiak pilatzen ebezala.

Biharamon goizean beharginak euren zereginera joan ziranean,
aurregunean eurak egin eben lan guztia osoan gauzeztuta egoala
ikusi eben; egin eben lanaren azterrenik be, arean be ez eben ikusi.

Hori zala-ta, ikaratu eta tamaldu egin ziran. Eta bertan pila-
tuta egon ziran harri-piloak bertatik aldenduta ikustean, ezin
gehiagoan tamaldu ziran.

Gauza bakan hori ikusita, hargin-gizonak alkarrereri gelduta esaten eutsien:

—Ze arrano jazo dok hemen? Sorginak, pamerialak, ala ze demonino ibili ete dok bertan hara-honaka?... Lan eginaren azterrenik be ez joagu ikusten, bada-ta! Ai! Atzo ekarririko harri-piloak non eta non ete jagozak?

Eta holako berbak esan eta gero, aldenduriko gauzen bila joatea erabagi eben.

Eta ibili eta ibili egin eta gero, halako baten, aldenduriko harriak herriko zelaiune¹⁹¹ baten alderreskan¹⁹² polito-polito ipinita egozala aurkitu ebezan.

Horrenbestegaz, gizonak ikarearen ikaraz ule-zutik jarri ziran.

—Nor edo zer ibili dok? —etenka esaten eben.

Eta ikusirikoaz gerora adoretuta, harriak eta abar, nork edo zerik eroan ebezan jakinguraz etxerik etxe itaunka hasi ziran.

Gangoiti basetxera heldu ziranean, baina, bertako neskatila batek gaueko hamabietan burdi baten «Aurrera, Zuria! Beilegi, jo!» deadarra entzun ebalá esan eutsen.

Hori entzunik, gizonak neskatileari gaueko hamabietan bere gelako leihoan zuhur eta adi egon eitela arren egin eutsien; behar bada, aldenduriko harriak burdi haretan eroanak izango zirala-ta. Neskatileak baietz erantzun eutsen.

Hurrengo egunean, hargin-gizonak aldenduriko harriak eta abar atzera lehengo lekura eroanda, barriri eleiza barria jasoten joranez hasi ziran. Eta egun guztian, jateko lain¹⁹³ asti oztaz hartuta, eten barik lanean edo beharrean ekin eben.

Gau haretan Gangoiti basetxeko neskatilea, harginen esanari jaramonda, bere gelako leihoan begi eta belarri, adi eta zuhur zer igarokoaren zain jarri zan.

¹⁹¹ Zelaiune: lautada, zabalune.

¹⁹² Alderreskan: erreskadan, lerroan.

¹⁹³ Lain: beste, adina.

Honetan, gaueko hamabi-hamabietan ilargiaren argitan han urrintxuan burdi berezi bat etorrela ohartu eban.

Burdiak, etorri eta etorri, Gangoiti alderantza egiten eban. Eta astiro-astiro hurreratuaz etxe ondora heldu zanean, harriz beteriko burdi handi bat behi zuri-gorri eder-ederrak ekarzala ikusi eban. Eta behi zuri-gorri ederren ondoan, hego handidun aingeru zuri lirain bat be oinkada leunez etorrela barru-ikaraz ikusi eban.

Gangoiti basetxearen ondotik igarokeran, barriz, aingeru ederrak, bere esku leunakaz behiak mokor-aldeetan gozaro-gozaro joten ebezala, deadar handiz esan eban:

Aurrera, Zuria!
Beilegi, jo!
Begira dagoanari
begiak urten begijo!

Eta aingeruak deadar egin eban unc-unean, Gangoitiko neskatileari ezkerreko begiak bere lekutik at urtenda, soloko bedartzara saltu egin eutsan.

Hori izan zanean, neskatileak negarrez hasita deadar baten ekin eutsan. Aingeruak, baina, «Aurrera, Zuria! Beilegi, jo!» eten barik esanaz, bape jaramon barik bere burdi eta guzti aurrera jarraitu eban, eta harriak lehen eroaniko lekura eroan arte ez zan geratu be egin.

Gangoitiko neskatilea, ikusgura larregiz leihotik begira egon zalako, Jaungoikoak begi bat kenduaz zigortu egin eban.

Jazoriko guztiaren barri zabaldu zanean, herritar guztiak osotan harrituta geratu ziran eta aingeruak harriak eroaniko lekuan Jaungoikoak eleizea egitea gurako ebalata, hantxe lekuan bertan eleizea egin eben. Eta eginiko eleiza barria Jaunaren zerura Igote-ari opaldu¹⁹⁴ eutsien.

¹⁹⁴ Opaldu: opatu, opetsi.

XXVI

ARTZAINA ETA EPAILA



Ehun ardi eta ahari baten jaube zan artzain morrosko bat, mendi-hegaleko txabola zahar baten bakez-bakez bizi zan.

Artzaina, bere artalde ederra lakorik han inguruan be ez egoala-ta, poz-pozez aurkitzen zan.

Ardi bakotxak, urtean-urtean, batek be hutsik emon barik, bildots bina ekarten eutsiezan; eta horrez ganera be, esne, gaztai eta artule, eurakandik gauzarik asko hartzen eban. Hori zala-ta, artzaina bere artalde ederriari begira harropuztuta bizi zan.

Otsailaren azkeneko gauean, artzain morroskoa, enparadu gauetan lez, sutondoan afaritarako taloak egiten hasi zan. Eta

horretan iharduala, haize-bihorraz batean txabolako atakan ahots miragarritz norbaitek «Artzain, artzain!» deadarrez esaten eutsala entzun eban.

Artzaina, holako ahots bakanaz eginiko deadarra entzutean, ikaratu egin zan.

—Zer heldu dok hona? —bildurrez inoan—. Aspaldion heldu ez danen bat heldu behar izan jok gaur bertara...

Eta aterantza egiteko be bape adorerik ez ebala, kanpoko deiari ahots dardarez erantzun eutsan:

—Nor edo zer haz heu?

—Ni haize-putzaren ahots miragarria nok... —mendian jirabi-raka ebilen ahotsak esan eutsan.

—Haize-putzaren ahotsa hazala dinok? Holakorik egundo ez joat entzun be egin. Eta ordu honetan, zer arrano dakark nire etxera? Ze izpar¹⁹⁵ edo ze barri dakark, gero?

—Hara, izpar-itun bat heuri emotera naiatork. Epail¹⁹⁶ anker-
ra, euri eta txingor, begietatik txinpartak dariozala heure artal-
deko ardi guztiak hondatu gurarik datorrela, hontxe esatera naia-
tork eta. Hontxe laster etorri be, barriz. Heure artaldea on eta eder
euki gura badok, habil arduraz eta marduraz...

Eta izpar-itun hori emonikoan, haizearen putza bat-batez isil-
duta, mendiak zeharkatzen ebazala beste leku batera iraduz joan
zan.

Holako hitzak entzunda, artzaina oldozkor jarri zan. Epaila-
ren gomuteak berak bakarrik ikara bizia emoten eutsan; eta bere
artalde ederraz zer izango ete zan oldoztean, artega be artega jarri
zan.

Halako baten, bere esturaldian, mendi-erpinera igonda
mendi-basoetako morroskoai dei egitea otu jakon.

¹⁹⁵ Izpar: barri.

¹⁹⁶ Epail: marti, martxo.

Eta mendi-gailurretik deika eta deika ekinda, hamar zantzo luze egin orduko, habea lakoxe hamar mutil morrosko hurreratu jakozan. Eta hamar mutil sendo hareek artzainari bere deadarraren zergaitia jakin gurarik, aho batez esan eutsien:

—Artzain, zer dala-ta deitu gozak? Zertarako behar gozak?

—Neure artalde ederra jagoteko behar zaituet, mutilak. Hai-zearen ahotsak esan deustanez, Epail maltzurra, euri eta txingor, neure artaldeko ardi guztiak galdu gurarik jatork... Hori dala-ta, neure artaldea eder eukiteko zeuen behar nok, mutilak; horretarako zeuek behar zaituet... Epaila igaro arteko morroitza egingo ete zeunkie?

—Guraina talo emoten badeuskuzu, bai —mutilak erantzun eutsien.

Gerotxuago, Epaila, haizearen ahotsak esan eban lez, betozko¹⁹⁷ ilunez agertu zan. Eta hile guztian, egun-bitarteetan behin izaten ziran aterrun txiki-txikiak izan ezik, euri eta euri, eta txingor eta txingor, eten bako ekatxa jausi zan. Hori zala-ta, morroiak euren ardurapeko artaldea jagotearren zereginez beterik ibili ziran; bitarteko aterrun txikietan ardiak basora atera, eta barriro minutu bat baino lehenago artaldea arrapaladan txabolaratu behar izaten ebelako.

Holanda be, baina, morroiak zuhur eta bizkor ibili ziralako, Epailaren maltzurkeriak gorabehera, artaldeko ardi guztiak lehen baizen sendo eta eder geratu ziran.

Epaila igarorikoan, hamar mutilak, artzainak aurrerantzean euren beharrik arean be ez ebala izango eta, guraina talo jan eta gero, euren lekuetara joan ziran.

Mutilak atzea emon orduko, baina, artzaina, bere artalde ederrari begira adi-adi jarrita, barriro be harropuztu egin zan. Eta «Honeek dozak ardien ederrak!» esanda, Epailari atzetik irri eta barre egiten hasi zan, destainaz esaten eutsala:

¹⁹⁷ Betoeko: begitarte, bekozko.

*Marti kakatsu,
apiril ederrean sartu naiatzu.
Hik egin arren euria eta txingorra franko,
nire ardirik makalenak egiten jok salto!*

Holako irri-destaineaz Epaila haserratu egin zan eta artzainaren harrokeria gogor zigortzeko ustez, Jorrailari¹⁹⁸ dei eginda esan eutsan:

*Apiril biribila,
ekarzak egun bi eta erdi,
horri artzain harroorri kentzeko
ehun ardi eta begi!*

Hori entzunik, Jorrailak bere lagun Epailari eskaturiko egun bi eta erdiak berehalako baten emon eutsazan. Eta Epail maltzurak orduan, Jorrailak eskuratu eutsazan egunetan euria, txingorra eta edurra errime jaurtiaz, artzain harroaren artaldea betiko gauzeztuta itxi eban; ebazan ardi guztiak goitik beherako ekatxak bata-bestecaren atzean hil egin eutsazalako.

Eta artaldeko adar handidun ahari sendoak, barriz, itunik aurkitzen zan bere ugazabari, esturaldian errekatik saltu egitera joiala, adar bategaz arpegian jota, eskumako begia atera eutsan.

Horrenbestegaz, artzaina itunago jarri zan. Eta ez ardi eta ez begi, tamal-tamalez negarrez hasita, Epailari barrero aupadea jaurtiteko adorerik arean be ez ebalta geratu zan.

Epailak, ostera, artzaina negarrez ikustean barre eta barre egin eban, artzaina baino bera hondino askozaz gehiago zala-ta.

¹⁹⁸ Jorrail: apiril.

XXVII

EHIZTARIA ETA DEABRUA



Igande baten Atxurkulu basetxeko gizona, goizean goiz mezea entzunda, iskilu¹⁹⁹ bat sorbaldatik dingiliz ebala basora txoritan joan zan.

Egun guztian basorik baso eta mendirik mendi txori atzean ibili eta gero, soina ezin gehiagoan nekatuta eukala-ta, harri-mokil biribil baten ganean atsedena hartzen jarri zan.

Aharrausika eta abar, holan egoala, inguruko landatxuan asto baltz handi bat bedar guria jaten iharduala ikusi eban.

¹⁹⁹ Iskilu: arma.

Ehiztaria, begi eta belarri, asto baltzari adi-adi jarri jakon eta berari, astoari, eder-eder eretxi eutsan.

—Honako zoririk, horraitik! —inoan—. Horra etxera gehiago nekatu barik joateko era ederra non daukadan bertan!

Eta hori esanda beste barik, astoari bizkarrera saltu egin eutsan, eta bere ganean patxadaz-patxadaz jesarri, astoari deadar handiz esaten eutsala:

*Arri, arri, astoa,
orain lan eta
gero lastoa!*

Hori entzunikoan, asto baltzak be hitz egin eban:

*Basoan gora,
mendan behera,
sasitzan zehar
labar-ertzera!
Arri, demoninoa!*

Eta hori esanda gehiagoko barik, astoak, ikotika eta saltuka arineketan hasita, Atxurkuluko gizona basorik baso eta mendirik mendi, sasitzarik sasitza bildurgarriro erabili eban.

Halako baten, labar handi baten txuntxurrera heldu ziran; eta orduan astoak bizkar ganean eban gizona, handixik labar-erpinetik behera jaurti gura izan eban.

Bere gurari okerra ezertara be ezin beteta, baina, indar miragarri batek hori egiten galarazoten eutsalako. Barrero be astoak, bere atzeko hankak labar-erpincan sartuta ebazala, aureko hanka biak eta burua labarrean behera ipinita, ehiztaria bere bizkarretik jaurtiteko ahaleginak ahalegin egin ebazan. Ahaleginak, alper-alperrik, baina. Gizona ezertara be ezin jaurti!

Horretan, basotxonoko txilinak hots berezia egin eban.

*Txarri demonino!
Gaur mezea entzun dauelako,
gatzik ezin egin hondino!...
Hire txarrerako eta
gizonaren onerako
egiten joat nik din-dan.*

Eta basotxonoko txilinak, din-dan, din-dan, eten barik joten ekin eban.

Orduan astoak beste gatzik ezin ebala egin igarri ebanean, hanka-urtika²⁰⁰ eta ikotika hasita, bizkar ganeko gizona bide-ertzeko landa bedartsura amorru handiz jaurti eban; eta hori eginikoan, astoa bera apatxoska²⁰¹ eta arrantzaka, itzulipurdika labarrean behera su eta gar joan zan.

Bitartean, ehiztariak landako bedartzan txori-abestien artean lo gozo-gozoa egin eban.

Aitaturiko asto baltza deabrua izan ei zan.

Beste igande baten be, arratsalde, Atxurkuluko gizona berbera, Agurtza deuna otoiztu eta gero, basora ehizan²⁰² joan zan.

Eta mendian edo basoan sartu zanezkoxe, bere inguruan erbi-piloak ikotika eta saltuka ebiltzala ikusi ebazan. Ehiztariaren poza...!

—Hau dok, hau! Honakorik ikusteko be! —pozez inoan—. Daunbada²⁰³ bategaz hamar bat ardura barik hil leitekezak, bada-ta!

Eta hori esanda, daunbada bat jaurti eban; eta daunbada bakar harek hamar erbi eder era batean hil ebazan. Orduan ehiztaria ezti-bitsetan jarri zan, halako ehiza ederrik egundo ez ebala egin eta.

²⁰⁰ Hanka-urtika: ostikoka.

²⁰¹ Apatxoska: tröstaka, lauoinka.

²⁰² Ehizan: kazan.

²⁰³ Daunbada: danba, danbateko.

Eta erbi-txorta ederra eskuetan ebala, iluntzean etxerantza pozez beterik abiau zan. Ibili eta ibili eginda, bide erdian gaua egin jakon.

Halako baten, Oxinbaltzaren ingurura heldu zan. Eta Oxinbaltzaren ur-ertzean oilar gorri-gorri bat ilargiaren argitan ikusi eban.

Ehiztaria oilar gorria ikustean poztu egin zan, begiz ikusten eban lako oilarra izango zalakoan.

—Hau dok poza! —pozarren esan eban—. Erbiak ezeze, oilarra be sekulakoa etxeratu behar joat gaur nik...

Eta hitzokaz batean, iskilu-erpina oilar gorriari begira ipini eban.

Honetan, baina, Oxinbaltzaren barru-barrutik hots ikaragarri bat, deadar ikaragarri bat kanporatu zan.

—Hori hor dagoanori be ekarri eidak hona!... —ur barruko hotsak itzalez bildurgarriro esan eban.

Deadar horregaz batean, ur-ertzeko oilar gorriak kukurruku zolia egin eban, geroago esaten ebala:

—Ez, gaur ez... Errosarioa ondo-ondo erreza dauelako, beronen ondora heltzeko be eskubiderik ez jaukat, bada-ta!

Eta gehiagoko barik, oilar gorria, beste kukurruku zoli bat haizetara jaurti eta gero hego-hots handiak egiten ebazala, Oxinbaltzaren barruan sartu zan.

Horrenbestegaz, Atxurkuluko gizona estutu eta larritu zan; eta erbi-txortea eskuetan eta iskilua sorbaldatik dingilizka ebala, aitearenka bidean abiau zan, etxera arteroinoko bide guztiak arin-ka igaroteko.

Ur-ertzeko oilar gorria be deabrua izan ei zan. Eta deabru harek, ehiztaria, Agurtza deuna otoiztuta basora joan zalako, ezin izan ei eban beragaz eroan.

XXVIII

ILARGIAREN ZIGORRA*



Antxina baten, gizon bat, ez guraso eta ez anaia, Etxetxu eritxan basetxe baten bakar-bakarrrik bizi zan.

Egun baten bere etxean lapurrak sartu ziran eta kortako behirik ederrena ostu eben. Hurrengo egunean be lapurrak barrien barri sartu ziran; eta orduan behi, txahal, txarri, asto eta abar, etxeko abere guztiak tatarrez eroan ebezan.

* Kerexetaren bildumatik ateratako izenburua; jatorrizkoan izenbururik ez dakar.

Holako zoritxarraz Etxetxuko gizon bakartia tamalez artega jarri zan. Eta ezertariko abere barik aurrerantzean bizikera ituna eta latza izango ebala-ta, negar eta negar egiten eban.

Huntze baten, zoritxar itun hori gomutan ebala, bere gelako leihotik ortzea harrigarriri apaintzen eben ilargi eta izarrari adi-adi jarri zan.

—Ez abere, eta ez ezer... Hau dok bizikerearen latza eta bal-tza! —leihotik adi negarrez inoan.

Honetan, ezkaratzeko kezuloan zarata eta deadar bakanak izan ziran...

Halako zarata itzelakaz Etxetxuko gizona gelduta geratu zan; gaizkinen batzuk barrien barri etxeratu ziralakoan ikaraz jarri zan.

Apur bat adoretu eta gero, badoa bertara eta kezuloaren erdian gizon bat kedar artean zirkinik egin ezinik egoala ikusi eban. Orduan haren ikarea! Ene!

«Hona hemen beste lapur edo gaizkinen bat! —bere kolkorako esan eban—. Zer ete dok, gero, berau?... Horren atzamarretan jausten banok, nire galdua!».

Eta nor edo zer ete zanentz itandu eutsanean, kezuloko gizonak ez eutsan hitzik egin, jaramonik be ez.

Halako baten, baina, gizon ezezaguna bere artean uluka eta garrasika hasi zan, deadar handiz esaten ebala:

—Ez beherantza eta ez gorantza, kedar artean baltzituta hemen naiagok ni galdua!

Hori entzunik, Etxetxuko gizonak, lapurrak gatxik ezelan be ezingo eutsala egin eta, barre-barreka esan eutsan:

—Galduta bahago, hago. Bestela, gero galduago...

Eta hori esanda beste barik, Etxetxuko gizona, azkora zorro-tza eskuetan ebala, lapurra erretoko egurretan basora joan zan.

Basora heldu zanekeoxe, egur-txorta handi bat egin eban. Eta, egur-zamea bizkarrean ebala, berehala etxerantza abiau zan.

Holan bide-zati bat igarorikoan, bide-ertzeko landatik otso handi bat hurreratu jakon.

Eta abere bildugarri harek Etxetxuko gizonari bere ezkerreko oinean hagin zorrotzak ezarri eutsazan.

Orduan gizonak minaren minak eraginda, hitz zantarrak esan ebazan:

—Otso madarikatua! Ilargi...

Azkenengo hitza oguzitean, txori batek, kardantxilo²⁰⁴ batek, eresi itunez abestu eta gero, gizonari belarri-belarrira esan eutsan:

—Ixi, xixi! Hitz ondo egin, ondo, zoritxar artean be, hitz ondo egin, ondo...

Eta hori esanikoan, txoriak bertatik iges egin eban.

Eta gizonak txoriaren esanari bape jaramon barik, lehengo bidean aurrera egin eban; etxera albait arinen heltzekotan iraduz etorren.

Gerotxuago, hatxean behera azeri bat ikotika jauzkan²⁰⁵ agertu zan; eta azeriak be, otsoak lez, bere hagin zorrotzak gizonaren ezkerreko oinean sartu ebazan, haginka egin eutsan.

Bigarren haginkadan, gure gizona ezin gehiagoan mindu eta haserratu zan. Eta haserre-bitsetan bere begiak gorantza zuzenduta hitz zantar-zantarrak esan ebazan:

—Ilargi zirtzila...! Non dok hire laguntza, ba? —haserrez esan eban.

Ordura arte barreka zan ilargi mosuzabala, hořako hitzak entzutean, betozkor jarri zan.

Eta orduantxe, bat-batez jagi zan haize indartsu batek Etxetxuko gizona, bere egur-txorta eta guzti, indar bereziz bildurgarriro gorantza jasota, ilargiraino bertaraino eroan eban.

Etxetxu basetxeko gizona, hitz zantar-itsusiak esan ebazalako, ilargiak beragana eroan eban. Eta ludia ludi dan artean egur-txortearen zama astuna bizkarrean dauela, batera eta bestera jirabiraka atsedean apur barik beti ibilteko zigortu eban.

²⁰⁴ Kardantxilo: karnaba.

²⁰⁵ Jauzkan: saltuka.

XXIX

MALUTAKO ATSOA



Urte asko be asko dirala, Mugarra barreneko txabola txiki baten atso zahar bat bizi zan. Atso txu hori, aldi luzean inora joaten ez zalako, Mañariko gazteak, eta baita zahartxuagoak be, izenez bakarrik ezagutzen eben.

Lehenago Malutako Atsoa –hau zan bere izenik ezagunena–, enparadu emakumeak lez, herrian noizgura ibiltan zan; baina gero, herriko ezbehar eta zoritxar guztien errua berari ezartan eutsielako, herrira joatea osoan galarazo eutsien.

Herrian umetxuren bat gaixotzen bazan, Malutako Atsoak begirakune okerre bez goguzkoa egin eutsala esatan eben; gazteren

bat bere arorik onenean hilten bazan, barriz, Malutako Atsoak haizetan bialduriko arnasa zikinak gaixotuta hil zala, ahoa betean esaten eben. Eta beste zoritxar edo atsekaberen bat herrian jazoten zanean be, Malutako Atsoak itsuski²⁰⁶ ganetik jaurtiriko maldizinoa osoan betetu zala, guztiak haserre-bitsetan esaten eben.

Holako esate eta siniskeriakaz, Mañariko biztanleak emakume gaixoaren bizkarrari eroan ahala harri eta gehiago egunero ezarten eutsien. Hori zala-ta, gure atsotxuak berrogei harri eta sei zaran²⁰⁷ lupetzegaz eginiko txabola txikitxuan ondo gorderik bizi beharra izan eban, eguerdiko eguzkiaren bero gozoa eta gauerdiko ilargiaren argi biguna hartzen lantzean behin bakarrik urteten zala.

Eta Malutako Atsoa larogetaka urteetan era horretan bizi zalako, herrian soinez²⁰⁸ zaharrak eta artzainak bakarrik ezagutzen eben. Holanda be, umeak eta gaztetxuak berari bildur handia izaten eutsien. Ume txikiak okerkeriaren bat eginikoan, «Malutako Atsoak eroango zaitu» entzuten ebenean bildurrez dardarka jarten ziran; gaztetxuak-eta be, bera aitatzean bihotz-taupada galantak jasaten ebezan.

Neguko gau luzeetan, hotzaren igesi sutondoko bero gozoan batzen ziran lagunak, Malutako Atsoatzaz gauero hitz egiten eben. Gehienak soinez ezagutzen ez ebelako, nor ete zan eta zer izan ete zeitekeanentz, jakingura handiz itantzen eben.

Behin aguretxu batek inoan, berak atso hori gaztetxutan eza-gutu ebala eta ikatza lakoxe begi baltz ederrakaz bere arpegiak larrosa bat zirudiala. Hori entzunik, emakume gazte batek, bere aititak inoanez, inpernuko burduntzia baino itsusiagoa zala begi zeharka esan eban. Artzain gazte batek, ostera, berak atsotxu hori txabola aurreko landan goruetan ikusten ebala, eta bere buruko

²⁰⁶ Itsuski: inarra.

²⁰⁷ Zaran: otzara.

²⁰⁸ Soinez: arpegiz, gorputzez.

ulea ilargitan zidarrezkoa izaten zala eta eguerdiko eguzkitan, barriz, urregorri bihurtzen zala esan eban; berak, barriz, errukituta, behin baino sarriagotan ardi-esne epela be emon eutsala eta abar.

Agerreko artzain gazteak hori esatean, ezkaratzeko lagunik gehienak laborrian ikaran jarri ziran.

—Oi, mutil hori Malutako sorginagana hurreratzen don! Holan, buruan uletan adina zoritxar izango jon... —neskatila gazte guztiak, Ortuostekoak izan ezik, gelduta esan eben.

—Bai, bai, dabilela!... Mugarrako hatxa jausi orduko damuko jon eta. Holako gaiztoari jatekorik ez edatekorik be egundo ez jako emon behar; gosea eta egarria jasan dagiala baino —emakume erkin batek arpegi haserreaz esan eban.

Hori entzunik, Ortuoste basetxeko neskatileak, bere begi ederrak artzain gazteagana zuzenduaz, ahots ikaratiz esan eban:

—On-egina ez jak damuko, ez! On-eginak atze ona jaukak eta.

Orduan danak isil-misilka hasita, neskatileari begirakune itzelak egin eutsiezan.

Ganeko egun baten, Malutako Atsoa gaixotu egin zan eta txarto, hatan be; eta gaixoaren minak jasan ezinda, ulu eta negar sarri egiten eban arren, batzuk bildurrez eta beste batzuk gorrotoz ziralak, egun batzuetan inortxuk be ez eutsan lagundu. Agerreko mutila orduko bere ardiakaz Anbotora joana ei zan.

Honetan, atsotxuaren negarrak Ortuosteko Maripatxuren belarrietara heldu ziran; eta neskatila ona, bere bihotza errukiz urtuta ebala, deadarra entzun ordukoxe, arin-arinka Mugarra barrenera joan zan. Eta hantxe txabola txikian, emakume zaharra hil aginean²⁰⁹ aurkitu eban. Orduan Maripatxuk, ezertarako asti barik, ur onetsiz igurtzita ahots gozoz esan eutsan:

²⁰⁹ Aginean: zorian, hurrenik.

—Andera gaixoa, Jaunak donokira eroan zaizala...

Eta emakumeak, berehala, azkenengo arnasea emon behar eban unean, ahots ikaratiz esan eutsan:

—Holantxe izan bedi, ba, neskatila. Neure azkenengo arnasea gozotzera etorri hazalako, Jaungoikoak onetsi hagiála, ba. Errukizko egintza handi bat egin don. Mihingaitoen guzurak eta nahasteak dirala-ta, baztertuta eta ezezkátuta²¹⁰ nazala hementxe txabola txikian bizi beharra izan jonat. Oi, zenbat neke eta atsekabe igaro dodazan bertan!... Hainbeste eta hainbeste jasan eta ostean, baina, Jaungoiko onak neure azkenengo une latza aingeru baten bihotzaz gozotu gura izan jon. Aingeru hori, heu haz Maripatxu... Eginen on hori ez jakinat nik zelan ordaindu be, eta orain, emoteko beste gauzarik ez dodan ezkeru, neure buruko ulea emotea erabagiten jonat. Ule hau, beste uleak lakoa ez don, gero! Ule hau, ba, gauerdiko ilargitan ipinten donanean ule-hari bakoxtetik hamar zidar-diru eskuratuko dozan; eguerdiko eguzkitan ipinten donanean, barriz, berrogei urre-diru izango dozan. Heure bihotzeko goi-maitasuna Jaungoikoak oso-osoan onetsiko dauclakoan naiagon. Bai... Eta entzun ondo: heu eta heure laguna, neure zoritxarraz hainbeste bider errukitu zan gaztea, zeuen bizitzan zorionekoak izango zarie.

Eta hori esanik, emakume gaixoak Maripatxuren mosu gozoa bere arpegian ebala, bere azkenengo arnasea gozaro-gozaro emon eban.

Ganeko egun baten, Maripatxuk emakumearen esana osoan egin eban; eta berak esan eutsan lez, zidar eta diru askogaz aberastuta ogasun handiaren jaube egin zan.

Handik laster Ortuosteko hiru mutil gazte lerdén joan ziran bertako etxagunari bere alabea emaztetzat eskatzera. Hiru muti-
lok, hango inguruko etxagunik handienak eta aberatsenak ziran.


²¹⁰ Ezezkatu: aintzat hartu cz.

Maripatxuk, baina, zaldun aberatsari muzin eginda²¹¹, Agerreko mutila, bere artalde ederra baino beste ogasunik ez eukan gaztea, senargeitzat hautu eban; eta egunak joan eta egunak etorri, egun argi eta eder baten biak alkarregaz ezkondu ziran. Eta Malutako Atsoak iragarri eutsan lez, euren bizitza guztian ondo eta zoriontsu bizi izan ziran.

²¹¹ Muzin egin: hutsera bota, onartu ez.

XXX

OTSOA ETA AZERIA*



Gau baten otsoa eta azeria haserratu ziran, otsoak azeria iruntsi gura izan ebalako.

Eta haserreka iharduela, azeriak otsoari ahots tamaltsuz esan edo arren egin eutsan:

—Otsoko, ez naik jan! Ez naik iruntsi!... Bizia heuk adina edo gehiago maite joat eta.

* [Ipuin zaharra.]

—Ez, nire bizia nik adina ez dok hik maite, neuk askozaz be maiteago joat eta —otsoak haserre erantzun eutsan—. Zortzi egunean gosez naiagok, hor mendietan jatekorik ezer ez joat aurkitu eta. Beraz, hain maite dodan biziari irauarazoteko, gura eta gura ez²¹² heure soinaren mamin-hazurrak jan behar joadaz...

—Tirok, Otsoko, ez naik jan, itxi eidak bakean —barrero arren egin eutsan azeriak—. Heure gose handi hori kentzeko edo asetzeko, gaztai eder bat dagoan lekura berehala eroango haut eta.

—Non jagok, ba, gaztai hori? Tirok, esan eidak arin, Axeriko, bestela galdu behar haut!

Eta herbok amaitzeaz batera, azeriak otsoa oxingira²¹³ baten ertzera eroan eban. Eta oxingira haretan ilargiaren irudia gaztai eder baten antzean ikusi eban.

Orduan otsoa, ilargiaren irudia gaztai ederra zalakoan, pozez beterik oxingirea hustu gurarik, ura edan eta edan hasi zan. Eta edanak edan egin eta ostean, azeriak otsoari barruan eban urak urten ez egion, atzetik zotz lodi bat sartuaz esan eutsan:

—Hi, Otsoko, gaztai horrek nekez lortzekoa izan behar jok; hainbeste eta hainbeste ur kendu dogun arren, lehen adina edo urrinago ikusten joagu eta. Hemen horretan ekin baino, hobeto joagu Aitita Txarrantxako eta Amama Malutakoren etxera joanda, morokilaz ase eta bete egitea. Zer deritxak? Gure gose gogai-karriok hantxe ederto kenduko joaguz...

Esan eta egin. Azeriaren asmoari otsoak ondo eretxita, biak behingo baten Aitita Txarrantxako eta Amama Malutakoren etxera joan ziran.

Eta basetxeko atarte zabalera heldu ziranean, aitita-amamak gariak artzan²¹⁴ garbitzen ebiltzala aurkitu ebezan.

²¹² Gura eta gura ez: gurataez, derrigor.

²¹³ Oxingira: oxin-zingira, istinga.

²¹⁴ Artza: bahe, galbahe.

Gure aitita-amamai halako jente bakana etxe inguruan ikustea atsegingarri ez jaken izan; eta alkarrereri berbarik be egin barik, isilean, euren zereginen aurrera jarrai eban.

Harako baten, azeriak otsoari atzean sartuta eukan zotz lodia atera eutsan; eta orduan sabelean eban ur-piloak uriola²¹⁵ baten antzean arrapaladan kanpora urtenda, atarteko gari guztia behingoan hondatu eban.

Galtze harek Aitita Txarrantxako eta Amama Malutako haserre bizian jarri zituan; eta atso-agure hareek, euren barruko haserrea asaskau²¹⁶ guran, adaki²¹⁷ handi bana hartuta, otsoari bizkarrean sekulako zartada errimeak emoten hasi ziran. Otsoaren garrasi eta uluak!

Bitartean azeriak sutondoan morokila sendo jaten eban. Eta ase eta bete egin eta ostean, galdarilako morokil-hondarraz bere bizkarra ondo igurtzita ebala, basorantza iges egin eban. Eta bide-zati on bat igarota, labarpe baten otsoa aieneka, garrasi baten egoala aurkitu eban. Otsoa modu haretan negarrez ikustean, azeria be, hazur guztiak hausita baleuz lez, negarrez eta uluka hasi zan. Eta otsoak azeriaren zaratokaz ikaratuta eta bihozberatuta, azeriari ahots leunez itandu eutsan:

—Azeriko, zer dok?

—Oi, Otsoko! Horreek atso-agure denganinoak sekulako zartadak emon jeustezak!

—Hiri be bai, Azeriko? —erantzun eutsan otsoak—. Niri be bai, atso-agure peste horreek ederretan be ederrak emon jeustezak. Makila-hotsik izan dok han!...

—Ez joat uste, Otsoko, hire bizkarrak nireak adina min jasan dauenik. Begiratu eik nire bizkarrera, zauriak damosten min bizia gitxitzeko ipini dodan ora miragarria bertan ikusiko dok eta. Oi,

²¹⁵ Uriola: uiol, errekada.

²¹⁶ Asaskau: nasaitu.

²¹⁷ Adaki: txibita.

nire hazur-mamin errukarriak! Ahulduta naiagok, oinkadatxu bat be nekez emoten joat... Ni baino askoz hobeto hagolako, heure bizkarrean eroan behar nok, Otsoko. Errukitu hadi nire ezbeharraz edo zoritxarraz!

Eta otsoa, holako berba tamaltsuakaz bigun-bigun eginda, azeria bizkarrean ebalatzen mendian gora abiatu zan.

Bideak eta mendiak txairo eta bizkor igaro eta ostean, otsoa eta azeria azeriaren bizitoki-zulora heldu ziran. Orduan azeriak bere burua leku seguruan ikusi ebanean, bizkarrean eban morokila otsoari irriz musturrera jaurtiz esan eutsan:

—Nik ez jaukaat goserik ez minik! Makilakadak heurtzat bakarrik izan dozak, ondo baino hobeto merezidu izan dozaalako. Hurrengoan inoren biziari itzal izan; enparaduak be urari kakoaz kenduak ez gozak...

Eta azkenengo berbak esateaz batera, azeria bere zulorantza abiatu zan. Otsoak, baina, irri garbi egin eutsala-ta, buztanetik haginka eginaz zulora sartzen ez eutsan itxi. Halako haginkada gogorraz azeria bildurtu zan; eta hagin zorrotz honeek bere buztanetik aldentzeko, otsoari berba egitearren esan eutsan:

—Otsoko, hori dok gosea!

Eta otsoak, amorru handiz, begietatik be txinpartak eriozala erantzun eutsan:

—Gosea? Oraintxe konponduko haut!!!

Baina azeria otsoa baino burutsuagoa izan, eta otsoaren haginak bere buztanetik aldendu ziran unetxu haretan, rast!, behingoan zuloratu zan.

Eta otsoa, aho bete haginegaz eta gose galantaz, tamalez betarik zulo-ertzean geratu zan.

Azeria, beti azeri...

XXXI

ZOZOA, AZERIA ETA TXAKURRA*



Goiz baten, Aitita Txarrantxako eta Amama Malutakoren beresiko²¹⁸ tantai eder baten, zozo-eme batek pozarren abesten eban.

Egun baten azeria beresi haretatik Mugarra alderantza joian; eta azeria, zozoaren abesti alaiakaz atseginduta, abestiak entzutearren tantai azpian jesarri zan.

* [Umeentzako ipuina.]

²¹⁸ Beresi: txara, txaraka.

Halako baten tantai-puntara begiak zuzenduta, zozoari txantxetan-benetan²¹⁹ esan eutsan:

—Kantari hago, txori. Gaur lez alaikiro egundo ez don abestu. Hainbeste poz eta alaitasun, zer dala-ta? Malutako atsoak janari gozoren bat opaldu deuna, ala?

—Abestuko ez joat, ba, azeri! —zozoak erantzun eutsan—. Janari gozoak eta beste edozer baino gauza atsegingarriagoak pozten naiok eta. Tantai honetako adarrik gorenengoan, habia zabal baten lau ume eguzkia baino be ederragoak jaukaadaz eta. Oi, zelako ederrak! Hau dala-ta, pozarren abesten joat, zorion handi honegaz nor ez litzatekek pozez zoratuko?

—Poztekoa don, izan be! Abestu heike, bai. Lau ume! Edonork ez jaukazan! Horraitik, lautatik bat neuri emon beharko deustan, egunotan ezer jan barik gosez naiagon eta.

Hau entzuteaz, zozoa estutu zan eta bere alaitasunak berehala iges egin eban. Abestiak isildu ziran; negar egian.

—Ez horixe, horixe! —ahots tamaltsuz erantzun eutsan—. Hainbeste maite dodazan eta hainbeste kostauriko umeak inorentzat ez dagoz. Lau ume daukadazan arren, bat baneuka letxe zaintzea jagot eta. Guztiak bardin-bardin maite joadaz, guztiak maitasun eta neke bardinakaz sorturiko umeak diralako. Beraz, batxu be ezingo deuat emon...

—Bat berehala emoten ez badeustan —azeriak haserrez erantzun eutsan—, zugatz hori neure buztan mardo honegaz jota, behingoan lurreratuko jonat; eta heu eta heure umeak neure sabe-larentzat izango zarie.

Orduan txori koitaduak, berba itzal honeekaz ikarattuta, azeriari ume bat emon eutsan. Biharamonean be, azeriak zozoari zemakun bardina eginaz, beste ume bat kendu eutsan; eta hurrengo egunean, beste biak...

²¹⁹ Txantxetan-benetan: olgetan-benetan.

Txori errukarriak ganeko egunetan, ezbehar hain handia zio zala, negar eta negar egiten eban.

Iluntze baten Aitita Txarrantxako eta Amama Malutakoren txakurra, Txalinerrota eritxana, zozoa egoan zugatzaren ingurura joan zan. Eta txakurra txoriaren negarrakaz gelduta geratu zan. Halako negar egiterik!

Txalinerrota bihozbera izan, eta zozo negartiaz errukitu zan. Eta ulu eta negar hareen zergaitia jakin guraz, ahots maitatiz itandu eutsan:

—Txori gizagaixoorrek, zergaitik negar? Horrenbeste atseka-be, zer dala-ta?

—Negar egingo ez joat, ba?! —zozoak erantzun eutsan—. Lau ume eguzkia baino be ederragoak euki joadaz, eta azeri maltzur-gaiztoak laurak iruntsi jeustazak... Negar egingo ez joat, ba?!

—Heure umeak azeriak jan? Holakorik! Neuk konponduko jonat azeri peste hori. Neure lau oinok hamaikatxu bider bere atzean erabili jonadaz. Baina, oraingoan jausiko dala uste jonat... Txarrez dabilena onez hartua ez don izango!

—Jausi, bai...? Ai, Txalin! Ha harrapetako zortzi oin eta hamar zentzun beharko dozak, haren maltzurkeriak azkenik ez jaukiek eta.

—Oraingoan jausiko don, ba! —Txalinerrotak erantzun eutsan—. Ni, hor goiko landako bedartzan hil-itxuran jarriko non, bai?, eta azeritzar horri, honantza datorrenean, hilik nagoala esango deutsan hik. Eta orduan azeri gaizto hori, azkenengo asperkundera²²⁰ egitearren-edo, beharbada neure ahora korotza egin gurarik hurreratuko jatan; eta nik... ume haretan zaunk eginaz²²¹, hagin artean behingo baten apurtuko jonat. Ea, ba, hola-koxe bat eginaz, azeri peste hori bion artean betiko galtzen dogun!

²²⁰ Asperkundera: mendeku.

²²¹ Zaunk egin: usigi egin, laginka egin.

Esan eta egin. Hurrengo egunean Txalinerrota beresiko landan hil-itxuran jarri zan. Bitartean, zozoak zugatzaren puntan, beste egunetan lez, abesti tamaltsuak ahots itunez abesten ebazan.

Honetan, azeria zugatzaren ondora joan zan eta pizka baten abestiak entzuten egon eta gero, azeri oker harek txoriari esan eutsan:

—Zer, orain be negar egiten don?

—Egingo ez joat, ba? —erantzum eutsan—. Txalinerrota hor goiko landan hilik jagok eta... Oi, bera izan dodan adiskidea!

—Txalinerrota hil da? —azeriak ikaraz eta pozez esan eban—. Hamaikatxu arineketa nire atzean eginiko Txalinerrota!... Txakur pestea! Horraitik, non dagoan banekin, bere ahora korotza egin barik ez nintzateken gaur geratuko. Non dagoan, mesedez, erakutsi eidan...

Eta berba honeek amaitzeaz, zozoak azeria txakurra egoan lekura eroan eban. Azeria, baina, lehenengotan txakurraren ondora joaten ez zan azartu, bizirik egoalakoan.

Baina zozoak, hilda egoala eta hilda egoala esanda, txakurrari bere ezkerreko begian mokoaz ikutu eutsan. Azeriak be, orduan zozoak egin ebana ikusita, txakurraren ahora korotza egiten hasi zan, irriz eta barrez esaten eutsala:

—Txalinerrota, gaizto pesteori! Neu harrapau gurarik hamaikatxu bider heure oinak jaso dozak! Baina gaur neure azpian hago, eta hona orain zelako irria egiten deudan... Nigaitik jasan dozaan nekeen ordaina dok hori!

Eta Txalinerrota, azeriaren irri eta barre guztiok gorabehera, hildako bat lez isilik eta geldirik egoan.

Halako baten, baina, haserratu zan eta amorru handiz zausk eginda²²², azeritzarra hagin artean apur-apur egin eban. Eta orduan, azeriaren heriotzea ospatzearren, txoriak dantza-abesti

²²² Zausk egin: usigi egin, haginca egin.

politak abestu ebazan, eta txakurrak atzeko hanken ganean inon diran dantzak egin ebazan.

Aitita Txarrantxakok eta Amama Malutakok be azeriaren heriotzeaz poz galanta hartu eben. Eta euren poza agertzearren Txalinerrotari eta zozoari bazkari ona emon eutseen: buzkantza hiru eratara gertauta, eta ganean taloaz esnea eta putz-erroskilak. Eta guztiak ase eta bete egin ziran.

XXXII

AZERI GAZTAIZALEA*



Zuen aitita zaharren aldietan, Inungane mendian, mendi erpin-erpinean, azeritzar handi bat bizi zan. Azeri hareri, janari guztien artean, ardi-esnez eginiko gaztai gozo-gozoa atseginen izaten jakon; gaztaizale handia zan. Gaztaia non eta noiz jango ete eban oldozten ebilen beti; egunez eta gauez, gaztaiaz bakarrik ames egiten eban. Halako gaztaizalerik!

* [Umeentzat.]

Hori zala-ta, bere jangurea asetzearren, artzain-txaboletatik eta basetxe inguruetatik sarri-sarritan igaroten zan. Eta inon gaztai-usainik nabariten baeban nabaritu, surra astin²²³ eta buztana astinago ebala, hantxe bertan geratzen zan, ahorako kopau²²⁴ gozoaren zain.

Iluntze baten gure azeria Urtsule anderearen basetxeko atarte zabalera heldu zan; eta, begi eta belarri, barrura adi-adi zala, atarte haretako jesarleku baten patxadaz-patxadaz jesarri zan. Eta holan egoala, abesti baten durundia belarriratu jakon. Barrutik etorren ahots gozoa zan:

*Baso baltzean okila²²⁵,
solo landuan mokila,
behar eta behar egin behar da,
etxeratzeko opila.*

Hori entzunik, azeriak esan eban:

—Zein ete dok kantaria? Urtsule ala bere alabea?

Eta barriro be belarriak adi-adi ipini ebazan; apur baten holan egonda, kantaria Urtsule zala igarri eban.

—Iño! Andra hau gaur alai jabilk, pozarren jabilk!... Holan hain pozez egoteko, ze barri on ete dok bertan? —azeriak jarrai eban esaten—. Kortako behi gorriak txahal barriren bat ekarri ete jok, ba? Ala, ala..., artaldeko ardi bakotxak bildots bina ekarri ete deutesiez? Oi, holako bat balitzok, horraitik, esne eta mesne! Hazelako gaztai-piloak! —Eta gaztai-usaina nabarituaz—: Ene! Eta gaztaia egiten jabilk hontxe be! Bai, horretantxe jabilk, ibili be... Barrutik datorren usain gozoak argiro dinostak. Nik egin behar joat sabelkadea! Hiru-lau gaztai hontxe bertan eskatu behar jautsada.

²²³ Astin: urten, handi.

²²⁴ Kopau: mokau.

²²⁵ Okil: katatxori.

Eta pozarren saltuka hasita, bertsoz eskatzea erabagi eban:

*Urtsule eta alaba,
ama-alaba onak,
mendi-basoetako
larrosa ederrak.*

*Zuen bihoztxuetan
maitasuna ugari,
goserik dagoanaz
izateko erruki.*

*Janari gozoaz
asetu naizue,
gaztairik ederrenak
emonik eskure.*

Urtsulek eta alabeak azeriaren abestia isil-isilik entzun eben; eta adi eta arretaz entzuten egon ziran arren, ezertxu be ezin izan eben ulertu. Kanpoan ebilen haizearen burrunda-hotsak entzuten galarazo eutselako.

Ama-alabok abesti-ahotsaz ikaratu ziran. Atean egoana nor eta zer zan arean be ez ekielako, errime estutu ziran. Eta zer zan jakingo bazan jakin, Urtsule anderea atartera urten behar izan zan. Eta atarteratu zanean, Inunganeko azeri gosekila ikusi eban. Zer behar eban itandu eutsanean, gaztaiak eskatu eutsazan:

—Gaztaiak, gaztaiak gura dodaz nik! —esaten eutsan.

—Ez jagok hemen gaztairik —Urtsulek erantzun eutsan.

—Bai, bajagozan. Hortik datorren usain gozoak ezertara be ezin faltau! Bajagozan...

—Hara, egia esateko, bajaukaadaz euki; baina ez hiri eta ino-ri emoteko... Bihar goizean merkatura eroateko, otzara zabal baten guztiak ipinita jaukaadaz eta.

—Zenbat daukazan, ba?

Eta Urtsulek apur baten oldoztuaz esan eutsan:

*Hiru eta hiru, sei
eta hiru, bederatz
eta hamar, hemeretzi
eta bat hogei,
zirkilu eta mirkilu,
hirurogei.*

—Jesus! Hori don piloa! Hirurogei gaztai! Horraitik, batzuk emongo deustazan...

—Ezingo deuat bat be emon, ba...

—Ez, batxu be ez?

Urtsuleren zekenkeria ikusita, azeriak haserrez iges egin eban; buztana beherantza ebala, Inungane mendira joan zan.

—Bihar andra zeken hori merkaturatu baino lehen, gaztairan batzuk harrapauko joadaz. Bestela, azeria be ez nok izango...
—bidean joiala esaten eban.

Biharamon goizean egunsentiak bere argia emon orduko, Inunganeko azeria merkaturako bidera joan zan eta, hantxe, bidearen erdian abarka bat ipini eban; ume-abarkatxu polita zan. Honetan, Urtsule anderea gaztai-otzarea buruan ebala agertu zan; eta bide haretan berrehun oinkada egin orduko, bidearen erdi-erdian ume-abarkatxua ikusi eban.

—Hako abarkatxuaren polita! —esan eban—. Baina, tamalez, lagunik ez jaukan; bakarra-edo don. Bestela, gure mutikoarentzat alagalakoak izango zonazan...

Eta hori esanda, abarkea aurkitu eban lekuan bertan itxita, bidean aurrera egin eban. Azeriak, baina, Urtsulek esan eban guttia bide-ertzeko zugazpetik belarri zuhur entzun eban; zer jazoko be, hantxe gorderik egoan eta.

Eta azeri maltzurak, lehen berak bidean itxi eban abarkatxua hartuta, bidezidorretik aurrera joanda, emakumea igaroteko zan bidean lehengo abarkatxua bera ipini eban.

Urtsulek abarkatxua bigarrenez ikusi ebanean, besteren bat zala usterik poz-pozik jarri zan, eta pozarren esan eban:

—Honakorik! Hemen beste abarka bat! Eta berau, hor bidean ikusi dodanaren laguna dala esango neuken... Bai, harexen laguna don, izan be, bardin-bardina don eta. Baina, hauxe tama-la! Lehen aurkitu izan dodan abarkatxua, zertako ez jonat jaso, baina? Ni lako lelarik inon ez jagon, egon be eta. Lehengoa hartu izan baneu hartu, horraitik, orain gure neskatoak abarka pare ederra eukiko jonan. Egin-eginean be, oinetako batzuen beharra bajaukan... Noan, noan lehengo bideetatik bestearen bila.

Eta Urtsule anderea, gaztai-otzarea bide erdian bertan behe-
ra itxita, beste abarkatxuaren bila joan zan. Eta azeri gaiztoa orduan be emakumeak egiten ebanari adi-adi egokon; eta gaztai-otzara handia bide erdian ikusi ebanean, haren poza eta poza!

Arrapalada baten bidera jatsi, eta otzarako gaztai guztiak hatz-miazketan jan ebazan. Haren ekina horretan! Ase eta bete egin zan.

Gero, barriz, azeriari, gaztaiak janikoan, egarri handia sortu jakon; egarriz itoten aurkitu zan. Eta Inpernuerrekara joanda, bertako ur guztia edan eban. Eta urez putxi-putxi egin²²⁶ eta gero, basetxeko solora joanda, lo egin eban.

Halako baten, barruko urak atzealdetik kanporantza parras-tadaz urteten hasi ziran. Urten eta urten, halako uriolarik! Ur ugari harek soloko gari guztiak tatarrez eroan zituan.

Soloko garia urak hondatu ebanean, han inguruan aurkitu zan mutiko zoli batek Urtsule andereari dei egin eutsan:

—Urtsule, urak daroe garia! Urtsule, urak daroela garia!!! Azeri maltzuraren atzeko urak!...

Orduan Urtsule anderea mutiko zoliaren deadar errimeak higituta, zer jazo ete zan ikusten arinka joan zan; eta azeri gaizto-

²²⁶ Putxi-putxi egin: putzitu.

ak basetxeko soloan egin eban triskantzea ikusi ebanean, haserre-bitsetan jarri zan. Azeriaren okerkeriak umore txarrez ipini eban.

Azeri peste harek, abarkatxuakaz polito-polito atzipetuta, lehenengo otzarako gatzai guztiak jan eutsazan; eta gero, soloko gariak hondatu...

Urtsulek azeria solo-munan lozorroan egoala aurkitu eban; eta buztanetik oratuta zartada galantak emon eutsazan. Eta makilaka eta makilaka sekulako edertoen astindu eta gero, basetxeko kortara eroan eban, eta hantxe korta ilumean gilzpean ipini. Kortan behi bat, txarri bat eta asto bat egozan. Azeriak, artogarauna lakoxe negar-anpuluak isuriten ebazala, negar eta negar egiten eban. Haren uluak eta garrasiak Mugarra bera bigunduko eben! Halako erostaririk²²⁷!

—Azeri, horrenbeste ulu eta negar, zer dala-ta egiten dok? —astoak itandu eutsan.

—Zergaitik negar egiten dodan? Heure etxeoandra okerrak emoniko zartada errimeak negar eragiten deustek, eta ez bestek... —azeriak erantzun eutsan.

—Zergaitik jo hau, ba?

—Urak soloa hondatu deutsalako jo naiok... Urioleak gariak eroan deutsalako... Holakorik, horraitik, inon ez dok jazo! Hire etxeoandra zirtzilak eginikoari, zer deritxak, Astoko? Urak eginiko kaltea nire bizkar gaixoari leporatzea, gauzarik okerreana ez ete dok?

—Holantxe dok, izan be. Urak eginiko kaltearen errua heuri ezartea bidegabekeriarik baltzena dok... Lainoan behera datorrena, nork atzeratu? Goitik beherakoari, zein besok eutsi? Eta euriaren errua, urak eginiko kaltearen errua, heure lepoari ezarri... Gauza bakan hori, edozeinek ez jok ulertuko. Erruki haut.

Astoa, eta azeria barriketan ebiltzan bitartean, behia eta txarria han korta-bazterrean isil-isilik egozan. Inunganeko azeritzar

²²⁷ Erostarti: kexati, negarti.

handia aspaldiz ezagutzen ebelako, aska hutsaren ertzera, badaezpadan be, musturik ez eben eroan. Zer jazokoaren bildurrez egozan eta.

—Hi, Astoko, heure bihotz ederreko errukia behar dan lez agertzeko, mesede handi bat egin behar deustak gaur... —azeriak arpegi tamaltsuz esan eutsan—. Urtsulek kortako atea edegiten dauenean, hortxe heure lepoan jesarrita nazala, arineketa baten Inungane mendira eroan behar nok. Eroango nok? Mesede handi hori egiten badeustak egin, guraina lasto eta guraina arto emongo deudadaz...

Eta asto handiak, guraina arto eta lasto jatearren, oso-osoan baietz esan eutsan. Gauerd inguruan, ba, azeria zarata baten hasi zan: «Sua, sua! Etxea erreten!» esaten eban. Eta Urtsule, azeriaren zaratera jagita, sua egoalakoan izututa kortaratu zan; eta kortako atea edegi zaneke, asto handiak, azeri maltzurra lepoan ebal, lauoinka iges egin eban.

Inungane mendira heldu ziranean, baina, azeria, astoari ez esker eta ez mesede, ezertxu be esan barik, rast!, bere zulora sartu zan. Astoa, oster, azeria atzera agertuko zalakoan, zulo-ertzean zain geratu zan. Lastoa eta artoa jateko gurariz egoan gaixoa eta.

Azeria, baina, bere zulotik egundo ez zan kanporatzen, eta hori zala-ta, gure astoa estutu zan. Eta orduan astoak, bere burua zulantza jarrita, ahots tamaltsuz esan eutsan:

—Azeri! Artoa eta lastoa, noiz emongo deustazak? Ala, nik eginiko mesedearen gomutarik arean be ez ete dok?...

—Ajaja! Orain be hor hago, Astoko? —azeriak erantzun eutsan—. Orain be hor? Nik emoniko artoaz eta lastoaz heure zilbot²²⁸ bete behar badok, horraitik, ez hago hain txarto be! BARRIRO be egon beharko dok, bai, belarriluze eta buruhandi, txantxetan-benetan negar-kantari... Behinolako zereko zeren esakumea, ez ete dok buruan?

²²⁸ Zilbot: tripa, sabel.

*Agindua bat, emona bi;
aginduz kontentu izan hadi.*

Eta orduan astoa, destainazko berba lakarrak entzun eta gero, arrantza baten hasi zan. Barriro be azeriak barre-zantzo egin eban eta gero haserre antzean esan eutsan:

*Ze arto eta ze lasto?
Hoa etxera, Astoko!*

Hori entzumikoan, astoaren tamala! Eta azeriaren esker txarrak ikaratuta, asto gaixoa, halako baten mendian behera abiau zan. Bide guztia negarrez igaro eban. Eta hatan-horretan etxeratu zanean, korta-bazterrera joanda, bere sabel gosea asetu gurarik garagarra irabazten hasi zan.

Horretan zala, Urtsule anderea adaki bat eskuetan ebalu hurreratu jakon eta andra harek makileaz emon-emonak egin eta gero esan eutsan:

—Hor dozak, artoa, lastoa eta garagarra be... Azeri gaiztoaren laguntzaile onena heu izan haz, e? Etxean egoterik be ez dok merezidu, astotzar handiorrek!

*Azeria, azeri
eta astoa, asto...
Etxera ekarri dozue
kalterik asko.*

Eta asto gaixoak, han buruzuriketan hastea alper-alperreko gauzea zala ohartu ebanean, belarri biak zapal-zapal ebazala, apal-apalik esan eban:

*On-eginaren saria,
atoſtean makila.
Han makila eta hemen makila,
astoarentzat beti makila.*

Inungane mendiko azeritzar handiak emakume bakunari²²⁹
eta asto gaixoari hortik-hemetik larakotza²³⁰ sekulako ondoen
sartu eutsen... Azeriagaz kontuz ibilteko da. Esakunea gogoan
euki beti:

*Azeria bere ongarri,
eta besteen kaltegarri.*

²²⁹ Bakun: tolesbako, inozente.

²³⁰ Larakotz: ziri.

XXXIII

HERIOTZEAREN SAGARRA



Egun baten sagutxu bizkor batek, ganbarako leihotik kalera begira egoala, etxe ondoko bide-ertzean itxura oneko sagar bat egoala ohartu eban. Eta arineketan bertaratu eta sagarraz jaubetu zalakoan, pozez beterik esan eban:

—Honako sagarrik ikusteko be! Orain berau, neuk hartu dodan ezkerro, neure-neurea dok!

Hori esatean, baina, etxeko katu baltzak, arrapaladan jatsita, sagutxuari bere erpe zorrotzakaz zauri mingarriak eginaz, sagarra behingo baten kendu eutsan. Eta katuak be, sagarraz jaubetu zalakoan, pozez esan eban:

—Hau dok gauzaren ederra! Orain berau neure-neurea dok!

Gerotxuago, barriz, katuari erpeetan laztankiro eukan sagarra itzulipurdika agertu zan tximinoak kendu eutsan. Eta tximinoak be, musturraz kinuka ebilen artean, zugatz-erpinera igonda igaliari begira esan eban:

—Ze sagu eta ze katu? Indarra beti nagusi. Sagar ederrori, orain neurea haz!

Horretan, hodei artetik arrano handi bat hego zabalez jatsi zan. Eta arrano handi harek be, ikusiriko igalia gura izan ebala-ko, bere moko eta erpe zorrotzakaz, tximinoari gogorkiro eginda, aitaturiko sagarra indarrez kendu eutsan.

Arranoa be igaliaz pozik egoan, eta labar ganean bere lumak harro-harrorik higitzen ebazan artean esan eban:

—Neure hego zabal eta, moko eta erpe zorrotzari esker, sagar eder-eder hau neure-neurea baino ez dok!

Handik geroago, baina, mendian zehar joan zan ehiztari batek pozaren pozez labar ganean egoan arranoa iskiluaren bidez bat-batez hil eban. Eta arranoaren erpeetan egoan sagarra laztankiro kolkoan sartuta, mendi-gailurreko landara ezti-bitsetan joan zan. Eta landatxu haretan zuti eta tente egoala, harro-harrorik esan eban:

—Sagar eder eta atsegingarri honen bila hamaikatxu bider ibili nok! Ibiliak ibili eta ahaleginak ahalegin arren, baina, gaur arte ezin izan joat lortu... Gaur, baina, zoriak hala gura dauela, igali honegaz neure ahoa gozotu eta neure bihotza poztu ahal izango joadaz. Hau dok poza! Eta neurea dok! Indarra beti nagusi.

Eta hori esanda, sagarra, une haretan ahoratzeko asmoz, aizto zorrotz bategaz erdi bi egin²³¹ eban. Harra handia eta ikatza lakoxe baltz-baltza zan.

²³¹ Erdi bi egin: erdibitu.

Eta har bildurgarri harek ahots lakar eta itzalez esan eutsan:

—Sagarra hirea badok, neu be heurea nok!...

Hori entzunik gizona estutu zan, zurbildu zan; eta ikarearen
ikaraz, lurrera zerraldo jausi zan.

Sagar barrutik urten zan harra, heriotzearen harra izan zan.

XXXIV

MIKEL ANTONEN GAUZAK



Pagatzarteko Mikel Anton agure zintzoa, lehengo asteko arratsalde baten igitai zorrotz bat eskuan ebala Inungane mendira ira-ebaten joan zan. Kesmingo landan gora astiro samar joian, biharamonerako baso-beharrak zelan gertau eta abar oldoztenedo.

Honetan, Arriduko iturritxura heldu zan; eta bertako ur gozo hotza edanaz, harri-mokil baten ganean atsedean apur bat hartzen jesarri zan. Atsedean ostean barrero lehengo bidean jarrai eban. Eskubaratx aldera heldu zanean, bide-ertzeko zugatzarte baten hiru-lau *señorita* barriketa ugarian iharduela aurkitu zituan. Neskok oraingo modako jazki itsusiakaz euren soinak erdi estalduta ebezala lotsagarrero egozan.

Mikel Anton, moda txar guztien arerio benetakoa denez, neska hareen lotsabakokeria ikustean haserre bizian jarri zan. Eta bere kautan, haserre, honan inoan:

«Honeek pizti denganinook, bai inon diran lekuetara heldu be! Euron jazki inpernutarrak hor beheetan, urietan eta hondartzetan, erabiliaz bakarrik ez dira nahikotzen²³². Geure baserrieta-ko ekandu eder eta garbiak ilundu eta lohitu arteraino ez dira geratuko, zirtzilok halakook!...».

Haserre be haserre joan zan gure agure zintzoa mendian gora; eta bidean joiala, erabagi eban *señorita* hareek zelan edo halan menditik uxatzea.

Joan zan inguruan aurkitzen ziran behi, behor eta enparadu baso-abereakana, eta batzen deutsez ebezan mando-euli guztiak buruan eban txapel handira. Eta asko batu eta ostean, neskak aurkitzen ziran landatxura jatsi zan; eta hareen ondotik igarokeran, txapeleko mando-euli guztiak bestelabaitakoan²³³ sakabana-tu zituan. Eta orduan, han izan zan zaratea eta burrundadea! Hango negarra eta hango ulua! Hatx-mendietan behera etorri balira be, handiagorik ez. Laster joan ziran, bai, *señoritok* agertu ziran bideetatik euren etxetara, barriro behingoan ez etorteko asmoz.

Ganeko egunetan Mikel Anton begikoak auzoetako jenteari esaten eutsan:

—Neska barrabasok barriro behingoan ez jatazak aurreratu-ko... Eurak uxatzeko, ba, sekulako erremedio santua asmau joat eta. Nik lehengoan egin nebana askok egingo baleukiek, laster litzatekezak *señorita* guztiak ganora eta ondo jantzita agertu!

Errazoi handia eban, bai, Arriduko Timoteok esan ebanean, oraingo emakume askoren buruak eta letra bako liburua bardinak dirala...

²³² Nahikotu: bete, ase.

²³³ Bestelabaitakoan: disimuluan, ezer ez dan moduan.

XXXV
ATSO GAIXOA



Behinola, osagilea eta laguntzailea, *pratikantea*, Katasketako atsoa ikertzen joan ziran. Eta osagileak gaixoari ondo arakatu eta ostean esan eutsan:

—Andrea, gaur atzo baino txarrago zagoz... Hau ez da gano-rea! Zuk zerbait jan dozu; ur hutsaz agindu neutsun moduan ez zagoz, behintzat.

—Hara, ba, jauna —atsoak erantzun eutsan—, ardao apur bat baino ez dot hartu, ba, triste nago eta.

—Baita gehiago be hartu dozu zuk! Sagarra be jan dozu eta.

—Sagarra jan dodala? Hori da asmetakoa!

—Bai jan dozu! Ez ukatu hemen, neuk dakit ondo eta.

—Hara, sagar txiki-txiki bat baino ez dot jan, ba!

—Ez uste izan, gero, niri tranparik egiterik, nik dana igarten dot eta!

Gaixoaren gelatik urten ebenean, laguntzaileak osagileari esan eutsan:

—Jauna, berorren jakinturiak harrituta itxi nau. Atso horreri sagarra jan dauela, zelan igarri deutso?

—A, lelotzarra...! Hori be itandu? Ohepeko sagar-muskila ez ikusteko nora begira egon haz? Holako lekuetan zuhur eta adi egon behar izaten dok!

Ganeko egun baten *pratikantea* atso gaixoa ikertzen bera bakarrik joan zan. Eta gelaratu zanean, bere lehenengo begirakadea oheperantza jaurti eban, eta ohepean lasto-maluta²³⁴ bat ikusi eban... Orduan arpegi benaz atsoari esan eutsan:

—Gaur lehengo egunean baino askozaz txarrago aurkitzen zara. Honan ezin egin zeinke gauza onik, ahorik ez dozu jagoten eta. Gaur be zuk lastoa jan dozu eta!

Hau entzutean atsoa ikaratu zan, eta negarrez esaten eutsan berak ez ebala lastorik jan eta abar. Baina atsoaren errazoi guztiak ez eben balio izan, ba, gizon harek haserre biziz esan eutsan:

—Hurrengoan be, sagarra eta lastoa, eta halako gauza bakanak jan egizuz, bai?, eta ikusiko dozu zelako arin azkenak egingo²³⁵ dozuzan; laster be laster eroango zaitue lau gizonek hortik zehar...

Eta Katasketako atso koitaduak negar eta negar egin eban.

²³⁴ Lasto-maluta: kapaxa, artazorro.

²³⁵ Azkenak egin: hil, tragau.

XXXVI

DIMAKO PEDRO DEUNA



Pedro Deunaren jaiaren aurreguna zan. Egun haretan Dimako eleizan, bertako neskatala jaseko²³⁶ batzuk euren herri-zaindari handiaren ondi²³⁷ edo altarea apaintzen iharduen.

Neskatilak, Pedro Deunaren irudia inoiz baino dotoreago loraz eta abar apaindu behar ebela-ta, pozik eta urduri ebiltzan. Hango lorak eta argiak azkenik ez eben. Ikusgarri be ikusgarri jarri behar eben.

—Oi, bihar herriko guztiak ikaratuko dira eleizea hain txukun eta dotore ikusita! —esan eban Marianton neskeak.

²³⁶ Jaseko: ganorazko.

²³⁷ Ondi: altara.

—Halantxe izan be! —erantzun eutsan Maripatxuk—. Sekulan baino dotoreago agertuko don geure deun maitea. Eta beronegandik, hazelako mesedeak lortu behar doguzan! Hilten nazanean, zeruko atea edegiko deustan ustea bajonat behintzat.

—Nik, ostera —esan eban Andonetxuk—, Obako Ilipan mutilak bihar hamarretako meza ostean egingo dauen aureskua newi opaldua izatea eskatzen jeutsanat. Ai, hori lortuko baneu...!

Hiru gazteak honako barriketakaz pozik ebiltzan bitartean, Pedro Deunaren irudia, neskaitilen eskuetan laprast eginda, altaratik behera jausi zan eta dana apurtu zan...

Neskak, euren herri-zaindari handiaren irudi ederra zatituta ikustean, negarrez eta zarataka hasi ziran. Eta haren zaratetara eleizazain edo sakristaua behingoan eleizaratu zan; eta arpegi benaz esan eutsen:

—Zenteilea! Zer jazo da hemen? Neska arraiook, horra zer egin dozuen! Zeuen barriketakaz santuari be gogait eragin deutzazue eta! Ointxe gaiagozan onak santu barik... Bihar herri honetara etorriko diranak; zer esango dabe? Ene!...

Berba itun honeekaz estu eta larri ebiltzan bitartean, Mañariko Atximo oskigile²³⁸ edo zapatagilea sartu zan eleiza haretan. Eta hango zoritxarra ikusi ebanean errukitu jakon, eta sakristauari eta neskai esan eutsen, herriko jaia igaro arteragino, deunaren soinekoakaz jantzi eta Pedro Deunaren lekuan, altaran, bera jarriko zala. Guztiak aho batez baietz erantzun eutsien.

Berehala, ba, Atximo zapatagileari deunaren jazkiak ipini eutsiezan, eta arpegia eta eskuak itxurea aldatzearren, ezti zirinaz igurtzi eutsiezan. Eta altarearen erdian ipinita, lora politez eta argi ederrez ederto apaindu eben. Guztia, isilean egin eben arren, sakristauaren semeak hortik edo hemetik jazorikoaren *lurruna*²³⁹ laster hartu eban. Eta, zeozer asmau behar eban!...

²³⁸ Oskigile: zapatagin.

²³⁹ Lurrun: susmo.

Biharamonean, eleizea jentez gonburu²⁴⁰ zala, hamarretako meza nagusia hasi zan. Eta meza bitartean, abade jaunak deunatzazko berbaldian honan inoan:

—San Pedro santu handia! Gure herri-zaindari maite eta miragarria! Zeruko atezain bizkor eta arduratsua! —eta abar.

Abadeak honetan iharduan bitartean, sakristauaren semeak altaran deunaren antzaz aurkitzen zan oskigile horrerri erle-pilo bat jaurti eutsan arpegi ingurura; eta erleak oskigilearen eztiz beteteko arpegian eztenak errime sartzen hasi ziran.

Orduan Atximo berehala zutundu zan eta deadar handiz «Dimatarrok, hor konpon! Ni banoa eta kitu» esanaz, altaratik behera saltu handi bat eginda, eleizatik arineketan urten zan.

Jazokun honegaz dimatar zintzoak ikaraz jarri ziran; gehienak uste izan eben, ba, Pedro Deunak herrian jente txarra egoalako alde egin ebala... Hango negarrak eta tamala ikusi ebanean, berbalditxu baten bitartez adierazo eutsen, arrentza²⁴¹ edo erro-gatiba bat eginaz deunaren bila joatea ondo izango zala eta abar. Jenteak abadearen asmo onari ederto eretxi eutsan, eta eleitzar guztiak danak batera arrentzak abesten urten ziran.

Txaunburuaren etxe ondora heldu ziranean, abadeak bere ortuko baba-lasto artean oskigilea gordeta egoala ohartu eban. Eta abesteko eran, ahots itzalez esan eban:

—Hemen dok onen bat.

Eta herriak be era bardinean erantzun eutsan:

—Babatzaren²⁴² baten.

Atximo berba honeek entzutean larritu zan eta bere kolkorako «Oraintxe galdua nok!» esanda, Obarantza abiau zan; eta handik tximista baizen arin Mañariratu zan.

Ganeko egunetan oskigile edo zapatagile ospetsuak auzoetako jenteari esaten eutsan:

²⁴⁰ Gonburu: gainezka, mukuru.

²⁴¹ Arrentza: erregu.

²⁴² Babatza: babarte.

—Dimatarren artean behin larri, baina gehiagotan ez!
Eta haren hankazurrak²⁴³ egundo gehiago Dimako herrian ez
ziran sartu.

Dimatarrak, barriz, handik hile batzuen buruan Pedro Deu-
naren irudi barria eder-ederra ekarri eben, eta deunaren aintzaz
jai handiak ospatu ebezan.

²⁴³ Hankazur: oin.

XXXVII

HAMARGARREN AHALEGINA



Behin baten, Larrabiko etxandera²⁴⁴ maratzak²⁴⁵ bere seme gazteenari, arto-zorro bat bizkarreratuaz, esan eutsan:

—Hoa errotara, maite, hoa saltu baten, eta zorro honeri jago-kon uruna ekarri cidak arin; taloak egiteko hontxe bertan esku artean behar joat eta.

—Enc, hau da zorroa! —esan eban mutilak—. Zama hau nire-tzat astunegia dala esango neuke... Harri-koskorrezkoa balitzok

²⁴⁴ Etxandera: etxeandera.

²⁴⁵ Maratz: behargin, fin.

be! Zorro hau bidean noala-edo jausiko balitxat, zelan arrano bairri bizkarreratuko neuke? Ene! Hau da, hau!

—Ez hadi egon horren bildurrez, zorro hori horren astuna be ez dok eta! Holakorik jazoko balitxak, barriz, besterik ezcan, beharbada Hamargarren Ahaleginak-edo heure zorro hori leporatuko leuskik eta.

—Hamargarren Ahaleginak? Nor da, gero, Hamargarren Ahalegina?

—Hamargarren Ahalegina hik egundo ezagutu ez doan ezezagun begiko bat dot. Hoa agudo errotara, bai?, eta beharbada ezezagun begiko hori hantxe bidean ezagutzeko zoriona izango dok. Hoa, hoa agudo, maite!

Eta gure mutila amaren esana egitearren beste barik, errotarako bidean jarri zan. Eta bide-zati bat igarorikoan, zugatz-erpinean txirulika²⁴⁶ iharduan txori abeslariari adi geratu zan, umearoko abesti polita aho-barruz²⁴⁷ esaten ebalá:

*Txori kardantxilo,
non dozak umeak?
Datorren urterako
hazi eidazak.
Oi, txorikumak kolkoan,
oi, txorikumak gili-gilikan²⁴⁸!*

*Hareek kantauko juek
txiruliruli, txiruliruli.
Hareek esango juek
noiz dan udabarri.
Oi, txorikumak kolkoan,
oi, txorikumak gili-gilikan!*

²⁴⁶ Txirulika: txistuka, kantaka.

²⁴⁷ Aho-barruz: isilean, hagin artean.

²⁴⁸ Gili-gilikan: kili-kilika.

Hatan-horretan, mendian behera behi gorri bat, herri-behi bat, ikotika agertu zan. Eta gure mutila «Ene! Gure auzoko behi okerra!» esanaz adarkadaren baten bildurrez, zorroa lepoan ebal arinka hasi zan; eta holan joiala, bide-ertzeko pekorotzean²⁴⁹ larrapast eginda hankaz gora jausi zan.

Eta zutundu zanean, jagi zanean, arto-zorroari ikututxu bat be egin barik bide ondoko landan, bedartzan, patxadaz-patxadaz jarri zan, handik noizik behin Ahaleginari deadarrez deika ekiteko.

—Hamargarren Ahalegina, hator hona!!! —esaten eban—. Ahalegina, hator zama hau neuri bizkarreratzen, bakarrean neuk ezin joat jaso eta! Ahalegina, hator arin-arin! Gure amak uste dauenez, morrosko indartsuren batek izan behar dok hik eta!

Holan deika, deadar baten ordu luzeetan ibili zan; nonbaitek zeozer agertuko zalakoan joranez ekin eban. Gizajoak uste eban, ba, mendian behera morrosko bat edo beste agertuko zirala. Baina, bai zera! Holakorik arean be ez zan jazo. Txoriak, ardiak, ahuntzak, behiak eta behorrak baino besterik han ez eban ikusi gizajo handiak! Eta orduak ordu, eguzkia ostentzen eta eguna iluntzen be ikusi eban... Orduan zer egin? Esturaldi horretan zutundu eta jagi zan, eta arto-zorroari hor ikutu eta hemen ikutu hasi zan... Halako baten, soinean eban indar guztia ipinita, zorro hori harri-mokil baten ganera jaso eban, eta gero handik behingoan bizkarreratu eta errotara joan zan.

Errotara osterea eginda joan zanean, amak ikaraz esan eutsan:

—A, mutil...! Bahator, horraitik! Errotara osteran egun guztia igaroteko, Jainkoaren ze bendizino jazo jak? Holakorik egundo!

—Zer jazo jatan? —erantzun eutsan.

²⁴⁹ Pekorotz: behi-korotz.

Eta jazorikoaren barri, hau eta hau, eta hori eta hori, zertzelada guztiakaz emon eutsan, ganeratzen eutsala:

—Zuk aitaturiko morroskoa, barriz, lozorroan-edo egon behar izan da. Nik egin deusadan beste deadar eta zarata eginda inondik be ez agertzeko, hilik edo lo egon behar da eta!

—Eta zorro hori zelan jaso dok, gero?

—Neure deadarretara inortxu be etorri ez dalako, neuk jaso beharra izan dot. Putz eta putz, soinean dodan indar guztia ipinita, lehenengo harri-mokil baten ganera nekez baten jaso dot eta gero handik behingo baten leporatu.

Hori entzunik, amak barreka-barreka esan eutsan:

—A, kokolotzarra...! Hamargarren Ahaleginak jaso deua, bada-ta! Norbere indar guztia eta egingura²⁵⁰ osoa, horixe dok benetako *hamargarren ahalegina*: Jaungoikoak emoniko ahala, erdizka barik osoan erabiltea... Oi, gauza onak egiteko geure aldetik dagoan guzti-guztia ipiniko bagendu, zelako onurak eta mesedeak lortuko geunkez! Jaunak osoan onetsiko gindukez.

²⁵⁰ Egingura: nahi, guramen.

XXXVIII

GIZONA, GIZONTXO



Emakume luze-luze bat gizon txiki bategaz, polita zala-ta beste barik, ezkondu zan. Gizona *Txautviriko* izenaz ezagutzen eben, eta emakumea Kukiñe izen politaz.

Ezkonibiltea²⁵¹ eginaz, Bilbo ikusi behar ebela-ta, Bilbora joan ziran; eta Bilbo ondo-ondo ikusi eta gero, iluntze baten zer kontau handiakaz mando-gancetan etxeratu ziran.

Ganeko iluntzeetan, gure ezkonbarriok, eguraldi hotzak eta motzak zirala-ta, sutondoko bero gozoan kontu-kontari egoten

²⁵¹ Ezkonibilte: ezkonbidaia.

ziran. Emazteak goruetan egiten eban, eta senarra pipea funetan ke baten egoten zan.

Kukiñek egunez, etxe eta solo, lanik asko egiten eban; hau eta hori eginaz, zeri edo hari beti-beti ekion. Emakume langilea zan. *Txautxirikok*, ostera, ez egunez, ez iluntzez, eta ez gauez, ezertxu ez eban egundo egiten; kanpoan hotza ugari egoten zala-ta, ezkaratzeko su handiaren inguruan jesarrita, pipea musturrean ebala egoten zan beti.

Egunak joan eta egunak etorri, gure gizontxua beti holan egoten zan.

Senarraren patxadea ikusita, emazte gaixoak bere kolkorako esaten eban:

«Hau gizontxuau sutondoan apatx²⁵² jesarrita egoteko baino ez da... Alper arrano hau ezertarako be ez da gauza! Hona orain beronegaz zelako bizimodua eroan behar dodan! Polita zala-ta beste barik ezkondu nintzalako, baina, neurea da errua, neurea bakarrik... Ai, gauzak birritan egitekoak balira...! Baina, tira, eroapen gehiagogaz jasan daidan. Beharbada, udabarriko eguraldi epelakaz adoretuta-edo, sutondo horretatik jagita lanean hasiko da eta. Baleiteke, eta itxaron daidan, gaurtik ordura arte...».

Asteak joan eta hilak etorri, udabarria bere txori eta lorakaz mosu argiz agertu zan. Eta udabarriaren aldi alaiak sutondoko gizon txikia bere altzo gozora eroan eban.

Goiz argi baten *Txautxirikok* bere emazteari esan eutsan:

—Gaur goizean solora joan behar naz; bertan zeri edo hari ekinaz, lan apur bat egin daidan be.

—Bai, zoaz, ene gizona, eta ekin lanari, lana egiteko da eta —emazteak erantzun eutsan.

Txautxiriko solora joan zan, ba; eta han egun guztia hatan-horretan igaro eta gero, gauean, nekatuta balego lez, ben-ben

²⁵² Apatx: geldi-geldian.

etxeratu zan. Eta emazteari zeregin handia eta garrantzitsua aurkitu ebala esan eutsan:

—Ze zeregin aurkitu dozu, ba? —Kukiñek itandu eutsan—. Beharbada, laietan ekingo zenduan...

—Ez, gauza garrantzitsuagoan izan da.

—Zertan ekin dozu, ba?

—Hara... Soloratu nazanean, kereiza-zugatzaren ganean txori-piloak txorrotxioka²⁵³ dabiltzala ikusi dodaz. Eta eurari begira jarrita, neure barrurako esan dot: «Txori horreek hor dagozala, geure soloan ezer egitea alper-alperrik dok... Ezer ereiten bajoagu, euren moko zorrotzakaz lurra irulita, ereiniko hazi guztiak jateko kapaz dozak eta. Gari-aldian, barriz, sekulako betekadak egingo juezak; eta igalietan-eta be, mesedetan baino kaltetan gehiago egingo jeuskuek. Beraz, hemen soloan laietan eta atxurketan egitea alper-alperrik dok, geuk eginiko lan guztia behingoan gauzeztu leukiek eta. Holan, hobe izango dok soloan lana egitea baino, soloa bera jagotea; bestela, ezertxu be ez joagu hartuko, eta emaztea eta neu goseak galduko gaiozak...». Eta hori esanaz, zugazpean jesarrita, makila-piloak jaurtiaz txoriak uxatzen ekin dot. Zati baterako lana badaukagu bertan. Gaur joan diranak beharbada bihar barriro agertuko dira eta.

—Ene! Astia horretan emon dozu, ba? Soloan hainbeste lan egiteko eta! Txori gaixoak barik, zeure alperkeriak galduko gaitugu, eta ez bestek...

Eta gizontxu harek, lehenengo eguneko arloari ederto eretxita, hurrengo egunean eta hurrengoan be bardin egin eban. Txoriak makilakaz uxatuaz, zugazpeko bedartza bigunean patxadaz-patxadaz jesarrita egoten zan.

Bitartean, Kukiñe zereginez beterik artega. Halako baten, kuxua²⁵⁴ edo txorimaloa egitea bururatu jakon. Bere senarraren

²⁵³ Txorrotxioka: txio-txioka.

²⁵⁴ Kuxu: kuso, txori-jagole.

zeregina lastozko gizon harek egingo ebala-ta, kuxu bildurgarria soloaren erdi-erdian ipini eban.

Gure *Txautxiriko* kuxua ikusteaz haserre jarri, eta emazteari agiraka egin²⁵⁵ eutsan, bera baino lastozko gizona gehiagotzat baeukan esanaz. Emazteak, baina, jaramonik be ez.

Lau eguneko ipar-haize hozkirriak gizontxuaren haserrea zeharo aienatu eban, irribarrea sortu eragiteko poza ganeko egunetan emonaz.

Beste iluntze baten, barriro be soloan zeregin onuratsua aurkitu ebala-ta, pozez beterik etxeratu zan.

—Oi, gaur soloan aurkitu dodan zeregina! Oi, gaur soloan aurkitu dodan zereginaren onuratsua! —esaten eban.

—Ze zeregin topau dozu, ba? —Kukiñek artega itandu eutsan.

—Hara... Arratsaldean laiak eskuan dodazala soloratu nazanean, muna-goienean, bedartzan, txindurri-piloak ikusi dodaz; guztiak batera eta bestera iraduz ibili dira, lanean-edo ibiliko ziran. Eta txindurri hareek geure soloan egin leikiezan kalteakaz gomutauta, errime ikaratu naz; eurok dagozan artean gauza onik ez dogu izango eta, dardaraz jarri naz... Orduan zer egin? Eskuetako laiak bertan behera itxi, eta koko hareei begira adi-adi egon naz. Zenbatu be egin dodaz, eta urteak egunetan adina txindurri dagozala ohartu dot. Hori ikusi dodanean, neure barruan asmo berezi bat hartu dot: txindurri guztiak goiz edo berandu solotik jaurtitea. Beraz, bihar goizean hasita, txindurri bakotxa beheko erre kara croango dot, hangoxe uretan lehenbailehen ito daitezan be; nahiz-ta horretarako lau orduko bidea egunero igaro. Holakoi guztiz eta zehatz alde eragin behar jake eta; bestela, gauza onik ez dago. Egunero bat kenduaz, urtebetearen buruan guztiak amaituko dira, eta orduan bakea...

Berba horreek entzunaz, Kukiñe artegatu zan, estutu zan:

²⁵⁵ Agiraka egin: errieta egin.

—Nire senarra baino alperragorik! Nire senarra baino leloagorik! —esaten eban—. Hori ezertarako be ez da gauza, ezertarako be ez... Ez, hori neuri jasan eragiteko baino ez da. Hori dala-ta, gizontxu horren lelokerietatik aldentzeko, gaur zeozer asmau behar dot... Bai, asmau behar dot! Honan ezin leiteke bizi eta!

Eta bere senarra Durangoko merkatuan saltzea erabagi eban.

—Inork lauzirikorik²⁵⁶ emoten badeust emon, gizon txiki petral hori han geratuko da plazearen erdi-erdian —esaten eban.

Horretarako, otzaraginagana joanda, otzara handi bat erosi eban; eta hurrengo larunbat goizean bere senarrari hantxe otzara handian sartzeko agindu eutsan.

—Hor otzaran neu sartu? Zer dala-ta? Arranoa! Neu ez behintzat!... —senarrak erantzun eutsan.

—Bai, sartu zaitez, gizona... Gaur Durangon merkatu handi bat ospatzen da, bai?, eta merkatu horretara zeu be etorri zaitez gura dot eta. Bertako gauzak zeuk zeure begiakaz ikusi daizuzan, hementxe otzaran, neure buru ganean eroango zaitut. Honan, hara osterea bape nekatu barik egingo dozu, bape ez jatzu kostauko, eta ez jatzu damutuko. Tira, gizon, sartu agudo!

Beste barik, *Txautxiriko*, rast!, otzaran sartu zan. Eta Kukiñe orduan, otzarea buru ganean ebala, Durangorantza abiau zan. Bidean joiala, neskato bat galtzerdiginen iharduala aurkitu eban.

—Ene! Hori da otzaratzarra! —neskatoak esan eban—. Zer daroazu hor? Kereiza gorriak?

—Ez.

—Okaranak?

—Ezta.

—Zer daroazu, ba?

—Gizon txiki-txiki bat, ontza biko bizarraraz...

Neskatoak hori entzunik «Ajaja!» eginaz, irri eta barre egin eutsan. Orduan *Txautxirikok*, otzaratik burua jasota, agiraka

²⁵⁶ Lauziriko: balio bako txanpona, ezer be ez.

egin eutsan; eta neskatoak, bildurrez izututa, arineketan egin eban.

Gerotxuago, mutiko bat intxaur-zugatzari harrika ebilela ikusi eban. Eta mutiko harek otzarea ikusi ebaneko esan eutsan:

—Ene! Hori otzarea! Mugarra eta Arranatz osoan hartuko leukez. Ze arrano daroazu hor?

—Gizon txiki-txiki bat kana eta erdiko bizarraz...

Mutikoak be irri eta barre egin eutsan eta, ganera, orri batzuk jaurti eutsazan. Andreak haserre egin arren, mutiko okerrak jaramonik be ez.

Orduan be *Txautxirikok*, otzaratik burua jasota, agiraka egin eutsan:

—Mutiko! Heltzen badeuat heldu, zapuztuta itxiko haut!

Mutikoak be, gizonaren erremuskadak²⁵⁷ entzunda, igesari emon eutsan. Eta Kukiñek bidean aurrera egin eban. Harantzago, txakur zuri bat ikusi eban; eta txakurra, ahausi eta ahausi eginaz, emakumeari orkatilatik oratzen joan jakon. Eta emakumeak erremuskadak egin arren, txakur oker harek aurrera egiten eban. Gure gizontxuak bere burua, bakea izango bazan, hirugarrenez atera behar izan eban.

—Txakurto! Isilik eta geldirik ez bahago, zati-zati eginda itxiko haut!

Txakurak be, gizonaren ahots lakarra entzun ebanean, lauoinka hanka egin eban. Belarriak eta buztana beherantza ebazala, ugazabaren etxean begi larri-larriakaz sartu zan.

Horreek guztiok ikusita, Kukiñe ikaratu zan, bere artean esaten ebala:

«Otzara eta gizon, noan, noan etxera! Ezertarako gauza ez dala-ta ekarri dot, baina, zetako edo hatako badok, bai, gauza! Sutondoan jesarrita dagoala be, etxea ederto zainduko deust beronek. Ai, honen *errespetua*! Bestela, berau barik, andra, gizon, nes-

²⁵⁷ Erremuskada: murruskada, purrustada.

kato, mutiko eta aberek barre eta irri egingo leuskide... Bidean jazoak etorkizunaren barri ederto emon deuste, atzean zer dato-
rren apur bat gorabehera badakit. Noan, noan, ba, etxera!...».

Eta Kukiñe emakume luze-luzea, eginikoaz damututa, bere gizona otzaran eبالa etxerantza abiau zan, ezkaratzeko supazte-
rrean be gizona, gizon zala-ta...

*Gizon, gizontxo;
prakak badaukaz, gizonto.*

XXXIX

*KOKOLOMOKOLO**



Amama Malutako, Aitita Txarrantxako zanaren emaztea, bere iloba bategaz bizi zan.

Amama Malutako atso zuhurra eta bizkorra bazan be, bere semearen semea buruan argi larregirik ez ebala ludiraturiko mutil bat zan.

Mutil hareri, berak egiten ebazan tentelkeriak eta kokoloke-riak zirala-ta, herriko jenteak aho batez *Kokolomokolo* erexten eutsan.

* [Umearoko ipuina.]

Egun baten gure *Kokolomokolo* bere amamaren sakelean bost ogerleko oso-osoak hartuta, Abadiñoko feriara txarri bat erosten joan zan.

Feriara heldu zanekoxe, begi eta belarri, inguruetara adi-adi zala, txarri eder bat begiz jo eban. Eta bertan, salneurriatzaz hortikoz-hemetikoz eztabaidaka barregarri ibili eta gero, azkenez txarri eder haregaz lau ogerleko eta erdigaitik jaubetu zan.

Gure *Kokolomokolo*, txarri ederra aurretik ebala, baetorren etxerantza; eta egun haretan eroste on-ona egin ebala-ta, Durango-rainoko bidea pozez beterik igaro eban. Durangora heldu zanean, baina, bertako ardanetxe baten aurrean geratuta, txarriari bere ezkerreko belarriko zuloan sei erreal sartu eutsazan, esaten eutsala:

—Hi, txarri! Hik lau hanka eta nik bi... Zein arinago etxera, gura dok postura?

Eta hori esanda beste barik, *Kokolomokolo* arrapaladan ardanetxean sartu zan, bertan ardao apur bat edateko ustez.

Ardanetxean apur bat txurruplin egin eta gero, gaulehenean etxerantzakoari emon eutsan. Eta txarria noiz ikusiko bideak arinka eta saltuka igarota, halako baten etxeko atea jo eban. Etxeratu eta berehala, amamari ea txarririk heldu ete zanentz itandu eutsan; eta amamak, txarririk ez bere azterrenik arean be ez ebala ikusi esan eutsan.

Orduan mutilak:

—Txarririk heldu ez?... Hondino holakorik! Belarriko zuloan sei erreal dauzala, zein arinago etxera heldu postura eginda bialdu dot, bada-ta! Berak lau hanka eta nik bi baino ez, eta holanda be, postura neuk irabazi! Honako arranokeriarik, horraitik! Etxeratzen dan une berean, belarriko sei errealok laster kenduko deusadaz, bai...

Hori entzunik, Malutako atsoa gelduta geratu zan; eta bere ilobearen ganorabakokeriaz gomutauta, haserre antzean jarri zan, hitz garratzez esatèn eutsala:

—A, lelotzarra...! Txarria holan bakarrik etxera helduko dala uste dok? Hona etorteko biderik be, non jakik, ba? Heure gano-

rabakokeria dala eta ez dala, ez ogerleko eta ez txarri! Horra ezer be barik non geratu garan! Holako txarria ondo etxeratzeko, soka bategaz samatik ondo lotuta dala, norbere ondotxuan, norberagaz ekarri behar izaten dok...

Biharamon goizean, *Kokolomokolo* gaztainak egosteko topin bat erosten Durangoko merkatura joan zan.

Eta amamak aurregunean txarriatzaz esan eutsanaz gomutauta, erosi eban topina kirtenetik soka lodi bategaz lotuta, bide guztian dingilin-dongolaka eta tatarrez ekarri eban.

Etxera heldu zanean, eroseriko topina amamari poztuko zala-koan erakutsi eutsan; amamak, baina, topina hainbestean mailatuta eta gauzeztuta ikustean, agiraka garratzak egin eutsazan:

—Hori dok ganorea, mutil! —esan eutsan—. Higaz gauza onik ezertara be ezin leitekeek egin! Topina bidean dingilin-dongoloka ekarriko heuan, ba? Orain gaztainak jan barik egon beharko dok, bai. Ezer egosteko ez dok gauza, bada-ta! Topina, holan dingilin-dongoloka barik, besoan sartuta polito-polito ekarri behar izaten dok...

Ganeko egun baten, haserrearen beroa apur bat hotzitu eta gero, Malutako atsoak bere ilobeari Durangora joanda uruna eralgiteko bahe edo eralginoa²⁵⁸ ekarri egiala agindu eutsan.

Barriro be mutilak bere amamaren esana zintzo-zintzo egitearren, Durangora joan beharra izan eban. Ogerleko zabala sakelean sartu eta Durangorako bidean jarri zan, ba.

Eta uruna eralgiteko eralginoa baino beste asmorik barruan ez ebal, bidea arinka eta ikotika igarota, ordu lauren baten barruan Durangoko *Muskiandiren* dendan tente-potente²⁵⁹ burduntzi baltza baino be artezagou plantau zan.

Bertan, begi zeharka bazterrak ondo arakatu eta gero, hama-lau txakurgaitik herrian zan eralginorik ederrena erosi eban.

²⁵⁸ Eralgino: bahe.

²⁵⁹ Tente-potente: artez-arte.

Eta orduan be amamaren esanakaz gomutau zan. Topina besoan sartuta polito-polito etxeratu behar zala ez jakon ahaztu; eta hori zala-ta, eralgino barria be besoan sartuta polito-polito etxeratu beharko ebala bururatu jakon.

Horretarako, eralginoari ukabilaz gogor jota zulo handi bat egin eutsan, eta gero, bertatik besoan sartuta ipini.

Eta eralginoa besoan ondo sartuta ebala, halantxe-holantxe etxera helduta, egun haretan eginiko erostea be amamari erakutsi eutsan.

Amama orduan be haserratu egin zan:

—Ene! Hori dok egin doana! Hi lako kokolorik ludi guztian be ez jagok! Lehen, topina eta orain, eralginoa... Horra gauza guztiak zelan gauzeztuta itxi doazan! Eta txarria, barriz? Ai, non ete jagok bera?... Heure aitita zanaren antz asko ez daukak, behintzat. Gauzak artez eta zehatz egiten, ha zoan mutila! Bihar goizean, txiki-txiki eta handi-handi, neuk joan beharko joat, bai, Durangora, beste eralgino barri bat ekarten... Hi inora bialtzea hobena egitea dok, izan be eta.

Esan eta egin. Biharamon goizean Malutako atsoak Durango-ra joanda beste eralgino barri bat ekarri eban.

Handik egun batzuen buruan, Amama Malutakok bere ilobeari, bera basora egurretan joiala-ta, gauerako taloak egiteko uruna eralgi egiala agindu eutsan.

Kokolomokolok, amama basorantza abiau zanezkoxe, eralgino barria hartuta ezkaratzean uruna eralgiten hasi zan.

Horretan iharduala, basetxeko solora ahuntz-pilo handiak sartu ziran. Orduan *Kokolomokolok* bere lana bertan behera itxita, solora joan zan eta bertatik ahuntzak uxatzen ekin eban. Gero-go be ahuntzak harrien barri soloan sartu ziran.

Ahuntzak soloan egiten eben kaltea ikusita, mutilak barrero soloratu beharra izan eban; eta abere hareekandik soloa hobeto jagoteko, eralginoa hartuta soloaren erdi-erdian uruna eralgiten hasi zan.

Otoz otoan jagi zan haize indartsuak, baina, bur-bur hots itzela eginda, eralginoko urun guztia mendian zehar eroan eban, eralginuan urunaren apurrik be geratzen ez zala.

Urun-galtze harek *Kokolomokolori* tamal handia emon eutsan. Eta gure mutilak bere ituntasuna kentzeko, ezkaratzeko upa handira joanda sagardaoa edaten ekin eban. Halako baten, upearen giltza, bere lekutik at urtenda, beheko kortara jausi zan eta bertantxe sagardaoa parrastaka kanporatzen hasi zan.

Mutila estutu zan eta upearen giltza aurkitzeko ahaleginak ahalegin egin ebazan arren, giltzaren azterrenik be ezin izan eban aurkitu. Orduan Tototxu izenaz etxeko txakurrari dei egin eutsan; eta Tototxu heldu zanean, *Kokolomokolok* txakurraren buztana upa zuloan sartu eban, bertatik sagardaoak gehiago urten ez egiantzat.

Txakurrak, baina, ahuntzak soloan ikustean, upea eta *Kokolomokolo* bertan behera itxita, basetzeko solora iges egin eban. Eta txakurrak iges egiteaz batean, upa handiko sagardao guztia ezkaratzean bat-batez zabaldu zan...

Kokolomokolo ezkaratzean hainbeste sagardao ikustean estutu zan, ikaratu zan. Eta amama basotik laster be laster etxeratu ko zala-ta, ora-mahaitik hamar arto handi aterata ezkaratzearen erdian hor-hemenka polito-polito ipini zituan; amamak, basotik etxeratzen zanean, arto-ganeetatik oinkadak emonaz, bere oinak busti ez eizan.

Halako baten, amama basotik etxeratu zan; eta etxe haretako ganora txarra ikusita, inoiz baino haserreago jarri zan:

—Peste handia halakoa! —haserre-bitsetan inotsan—. Arranoorrek, zer egin dok, baina? Etxe guztia hondatu dok eta! Heurre ganorabakokeriak dirala-ta, hontxe gaiagozak onak... Ez, ez, gaur ez deuat parkatuko... Ezertara be ez deuat parkatuko, ezertara be ez deuat parkatuko! Heurre hobenaren ordaina, hontxe bertan hartu behar dok eta.

Bitartean, mutilak hitzik be ez.

Honetan, amamak, kortara joanda, bertako ate nagusia ekarri eban; eta gehiagoko barik, mutilari kortako ate handia bizkarretatuaz esan eutsan:

—Hoa, hoa, zama honegaz mendian zehar! Hoa, hoa, heure hobenaren parkamena jadesten²⁶⁰!

Eta mutila, kortako atearen zamea bizkarrean ebala, mendian gora abiau zan. Eta egun guztian mendirik mendi ibiliak ibili egin eta gero, iluntzean nekatuta be baegoala-ta, gaua igaroteko asmoz bere ate eta guzti zugatz batera igon zan.

Gauerdi inguruan zugatzaren azpian lapur batzuk batu ziran; gau haretan egin ebezan lapurretak euren artean banantzeko. Euren artean gauzak banandu ezinik deadarka eta zarataka ibili ziran.

Kokolomokolo, eurai begira adi-adi, ule-zutik egoan.

—Lapurrak, sorginak, edo ze demonino dozak, gero, eurok? —ikaraz inoan—. Hontxe naiagok ni ona!...

Hori esan eta gero, bizkarrean eban atea ikarearen ikaraz zugatzetik behera jaurti eban. Eta, orduan izan zan izan zana!

Ate handi eta astunaren zartada errimeak zugazpean aurkitu ziran lapur guztiak, batxu be itxi barik, hil egin ebazan.

Lapur bildurgarri haren atzamarretatik bere burua aske ikusi ebanean, gure *Kokolomokolo* pozez beterik jarri zan; eta zugatzetik oin-bardinka²⁶¹ berehala saltu handi bat eginda, bere amaren etxera ezti-bitsetan joan zan.

Jazorikoaren barri Malutako atsoak jakin ebanean, bere ilobeari esan be egin eutsan:

—Tirok, ba, tirok, mutil! Beti ganorabako izan barik oraingoan zintzo jokatu dok heuk. Herria gizon ankerren atzamarretatik ederto askatu dok behintzat. Aurrerantzean zetako edo hatako izango haz heu...

²⁶⁰ Jadetsi: lortu, eskuratu.

²⁶¹ Oin-bardinka: oin biak bat eginda.

Herriko jentea be, *Kokolomokoloren* egingenaren barri jakin ebanean, poz-pozez jarri zan; eta lapur gaiztoen eskuetatik aurretzean aske be aske izango zirala-ta, guztiak batean dantzan eta dantzan egin eben.

Eta hori zala-ta, Malutako atsoaren ilobeari, bere adorea saritzeko, txikitatik izan eban *Kokolomokolo* izena kenduta, Adoretzu izen handi eta begikoa ezarri eutsien.

XL
KATAKUMEA ETA KEREIZAK*



Bagilaren hamargarrena zan; beraz, kereiza-aldi gozoan gengoan. Kereizakaz beti ames egiten dogun mañaritarrontzat, urteko aldirik begikoena eta zoriontsuena.

Hona esakune zaharra:

*Kereiza gorriak arboletan,
barrea gure ezpanetan.*

* [Umearoko gauzak.]

Urte haretan, baina, bagilaren erdi inguruan be, udabarria hotza eta euritsua izan zalako-edo, goiz-kereizak bakarrik egozan helduta.

Igali gozo horrek margo gorri politez zugatzak berariz apaindu ebazanean, guk neskatoak be, beste urteetan lez, kereizakaz egunoro ames egiten genduan. Aldirik onena, gora begira zugatzari adi igaroten genduan.

Jolasean, etxean, bidean eta ikastolan bertan be, kereizatzaz gehien hitz egiten genduan. Geure buruetan kereiza gorriak ondo irarrita²⁶² egozan. Hori zala-ta, irakaslemeak (Jaunak zeru zabalean euki bei) sekulako agirakak egiten euskuzan. Guztia alperrik, baina, mañaritar zintzoak ginan...

Arratsalde haretan, ikastolako orduak betetu eta gero, beste egun batzuetan lez, hamabi neskato eleiza aurreko zelaira *izar-jolasean* ekiteko asmoz joan ginan; eta bertara heldu eta berehala, hogeta hamaikaraino zenbatuaz *izar harrapalariak* zarata eta eztabaida askoren artean hautetsi genduzan.

Orduko zoriak Mirentxu eta ni bape erruki barik mustur-musturrean jota, mustur oker jarri ginduzan. Hogeta hamaikagarren zenbakiak izar harrapalari, hamar izarren harrapalari, *hartzik zotzera* egin ginduzan.

—Honako zoritxarrik izateko be, horraitik! Izar biok beste hamar izarren atzean triski eta trauski joan behar.. —laguntxu biok itunez eta tamalez esan genduan.

Eleiza aurreko arte-zugatz handia habetzat genduala, geure jolas polit eta neketsuari hasikerea era onez emon geuntsan.

Izar nagusiak, hamargarren neskatoak, bere ahots gozo zoliaz han inguruetan durundi gozo-gozoa hedatuta, deadar egokiz esan eban, abestu eban:

²⁶² Irarri: itsatsi, grabau.

*Bat, bi, hiru, lau,
izarrok badoaz;
bat, bi, hiru, lau,
zerurantza doaz.*

*Zeru goi urdineko
oihal eder apatzean²⁶³,
izarrak olgauko dira
Birjinaren ondoan.*

Eta hori abesturikoan, izar guztiak, geu harrapalariok izan ezik, saltuka eta ikotika mendirantza joan ziran. Hareen pozak eta hareen ikotikak mendian gora!

Eleiza osteko hatxean behingo baten sakabanatu ziran danak, aho batez esaten ebela:

*Mendi ganeko haizea,
biziaren arnasea;
bedar arteko inontz gozoak
zabaltzen dau bihotza.*

Euren abestia entzun, eta euren txairotasuna eta poza ikusita, esan be egin neutsan neure lagumari:

—Hontxe gaiagozan onak! Izar bizkor horreek zelan harrapauko jonaguz? Harrapalari bik, hamar izar, bata baino bestea bizkorragoak, zelan eskuratu? Hatan be, mendi-gailurrerantza abietan badozan...

Eta hori esatean, oldozkor jarri ginan.

—Barrero honako zoriak jo ez gaizan be, hurrengoan kereiza gorri-gorriak, goiz-inontzetan baturiko kereiza guri-guriak, belarrietan dingiliz ipiniko jonaguz... Goizean goiz baturiko kereizak

²⁶³ Apatz: astin.

belarrietan dagozan artean, zoriona norbere inguruan jirabiraka dantzan ibilten ei don eta —nire lagunak irribarrez eta uste osoz esan eustan.

—Hori holan badon, hori egiten kereiza-aldietan gauza erraza don —neuk be irribarrez erantzun neutsan—. Honik aurrerako kereiza-aldi guztietan, geure belarriok kereiza gorriz ederto apainduta erabili behar jonaguz, ba... Ea, ba, hori eginaz zorionak non edo non joten gaituan! Behintzat gaur lez izar harrapalari ez gaitezala izan...

Horretan geniharduala, halako baten izar nagusiak labar ganetik deadar garratza egin eban:

*Izar-mixar, katamixar,
etorri arin, txairo eta laster!*

Izar nagusiaren deadarrari, baina, arean be jaramonik ez guk; entzun eta gor geure arloan aurrera...

Bape jaramonik ez geuntsala egiten ikusita, izar nagusiak barrero be dei egin eban, eta dei garratza egin be:

—Bazatoze ala ez zatoze???

—Ez, ez gaioazan inora be! —erantzun neutsan nik—. Hamarren atzetik bik, zera egingo juen! Zuek hamar zarie eta gu bi baino ez... Beraz, zirkinik be ez jonagu egingo; horretarako gaur gogo handirik be ez jaukanagu eta.

—Tiron, neska! Ez adorerik galdu! —ahots gozoz erantzun eustan—. Hamar izarretatik bat zeuen lagun egingo jonagu eta; izar harrapalari bat gehiago izango dozue. Gero, baina, enparadu izarrai hatxean nongura ibilten ixtekotan...

—Ez, ez eta ez; hatxean nongura ibilten ez deutsuegu itxiko. Gura badozue hatx barrenan ibili, bai; baina bestela, zuen atzean gu ez gaioazan. Zuen atzetik triski eta trauski ibilteko gogo gixi jaukanagu! Bazenkie zelako buruko mina daukadan...!

Eta azkenengo hitzak oguzitean, neure esku biak bekokira jaso nebazan.

Orduan izar guztiak, neskato guztiak, hatxean behera harra-paladan jatsita eleizpera etorri ziran.

Eta euretariko batek, laugarren izarrak, zeharka begiratuta irri eta barre eginaz esan eustan:

—Buruko mina donala? Hori don asmetakoa! Harrapalari ez izatearren asmau donan guzurra don hori, izan be eta.

Hori esatean hiru-lau neskatok barre gozoa egin eben, «Hori don okaran-hazurra, latza eta biribila» esakunea esanaz. Ni, ostera, haserratu egin nintzan; neure lagunen ahoetatik horrenbeste entzun beharrak mindu egin ninduen. Gitxiagorako ez zala uste neban...

Eta bat-batez arpegi eta begi haserre bizian jarrita, laugarren izarrari agiraka egin neutsan:

—Guzurra dinodala dinon? Hori don esatekoa, oster! Okotzeko bat emoten badeunat emon, Eperlabarretaraino jaurtiko haut. Buruko mina dodan ala ez, heure esku biak bekokiratu eidan, bai?, eta orduantxe ikusiko don; neure bekokiko beroak atzamarrak erreko leukezan.

Orduan isilunea izan zan; inortxuk be ez eban hitzik egiten. Gerotxuago izar nagusiak, bertako isilunea geldiro-geldiro hausta irribarrez, bakeak egitearren esan eban:

—Buruko min hori kereizak osatuko deune... Barrua gozotu eta burua argitzeko, igali gozo horreek jatea lakorik ez jagon, egon be. Beraz, kereizetara gaioazanan!

Igali gozoaren izenak guztiok begi argi jarri ginduzan; guztiok poz-pozez. Neure buruko mina be, une haretan Mugarrako landara-edo hegatzu zala esango neban... Kereizearen izenak bakarrik holakoxe ona egin euskun.

—Gaioazanan hontxe bertan, ba! —danok aho batez esan genduan.

—Nongo kereizetara joango gara, ba? —batek itandu eban.

—Labarrondogoikoa basetxera —beste batek esan eban—. Kereiza-zugatz asko jagozan bertan, eta goiz-kereizak, hatan be. Beraz, ondoen heldurikoak hantxe aurkituko jonaguz. Aiko-

-maikoetan ibili barik, bertara joanda guraina igali jan jaigunan...
Zugatari igon, jan eta kitu!

—Ederto jagon! —gehienok txaloka esan genduan—. Baina, bertako gizonak makilaka hartzen bagaiuezan, zer?

—Holako gauzarik arean be ez jakun jazoko. Zugatzera hel-
du eta berehala geure belarrietan kereiza gorriak dingiliz ipiniko
jonaguz, bai?, eta orduan zorionak geure inguruan dantzan egin-
go jon... Gaioazanan, ba, eta besteak esan daben lez, bertara joan-
da aiko-maikoetan ibili barik, guraina jan jaigunan eta kitu!

Hori entzunik:

—Oi, hori holan ez! —bosgarren izarrak eleiza aurreko zugaz-
petik egin eban—. Hori egitea hobena egitea da eta. Jaubeak jakin
barik edo berak gura ez dauela inorenik ezer hartzea hobena dala,
ez ete dakizue?

Horrenbestegaz danok isilik... Hitz garrantzitsu hareek, geu-
re barruetan jirabiraka hasita, oldozkor jarri ginduezan.

Halako baten:

—Hori holan dala, bajakinagu jakin —hamargarren izarrak
erantzun eban—. Kereiza bat edo bi hartzea, barriz, ez don gaizto-
keria handia be. Baina, tira, gaur joateari itxi jegiogunan, bai?,
eta biharko zeozer asmauko jonagu... Labarrondogoikokoakandik
kereizak jateko baimena zelan edo halan lortzeko ahaleginak aha-
legin egin behar jonaguz.

Biharamonean eleiza aurreko zugatz azpian barriro batu
ginanean, izar nagusiak irribarrez eta betargiz²⁶⁴ esan eban:

—Labarrondogoikoan, bertakoen baimenaz, guraina kereiza
jateko gauza polit bat egitea otu jatan. Ene! Zer bururatu jatan
bazenkie, pozarren barre eta barre egingo zeunkiel... Zer dan
ezetz igari? Holako gauza bat, amesetan be inoiz ez dozue egin
izango eta.

²⁶⁴ Betargiz: pozik, alai.

Izar nagusiaren, hamargarren izarraren, esanakaz lagun guztiok goitik behera jakinguraz bete ginan. Eta geure jakinmina asetzearren, beragana geldiro-geldiro hurreratuta begi zeharka itandu geuntsan:

—Zer don, ba? Tiron, esan eigin berehala! Jakinguraz neketan hemen euki barik...

—Hara, kolkoan dodan isilpeko polita zeuen pozgarri hontxe bertan azalduko deusuet, ba. Hara, entzun, ba, begi zoli eta adi... Gure etxean katutxu polit bat jaukanagu; orain hile bi-edo etxeko katameak²⁶⁵ kortako ira-pilora ekarririko katakume zuri polita. Politagoa don bera! Zeru urdina lakoxe begitxuakaz, mendi-edurra lakoxe zuri-zuria don... Oi, bera dan polita! Ikusiko bazendue, horraitik!

Gu, barriz, holako hitz atseginkorrak entzunaz, katutxu polita begi aurrean bageunka lez gengoan. Begi eta belarri, adi eta zuhur gengoalako, Igonetxureneko katakumea ikusi be egiten genduala esango neuke. Irudimenaren hegoz, haren kortako ira-piloan gengoan...

Halako baten, neskato txikienak, izar txikienak, mustur-musturrera badinotso:

—Katu hori bai polita izango dala! Beragaz bai polito jolas-tuko neukela nik! Ekarn neuri, neuretzat...

—Bai, heuretzat jaukanat! —izar nagusiak barreka erantzun eutsan—. Heuretzat izango dalakoan, egon hadi lotan-molotan trankil eta patxadaz jesarrita... —Eta jarrai eban esaten—: Katutxu hori dala-ta, guraina kereiza jan geinkela, uste ete dozue zeuek? Nik bai, behintzat. Itxaron apur baten, ba, neure asmoa hontxe bertan agertu behar deusuet eta. Hara... Labarrondogoikoan katu baten beharrean aurkitzen dirala entzun jonat; euren lehen-go katua mutiko okerrak harrika tragau²⁶⁶ ebelako, basetxe guztia, kamara eta korta, saguz eta arratoiz beterik aurkitzen ei don

²⁶⁵ Katama: umeak eginiko katu-emea.

²⁶⁶ Tragau: hil, galdu.

eta. Hori dala-ta, katu bizkor eta harrapalari baten beharrizan handian ei jagozan. Hau jakinik, gure katutxu polita haraxe erotea otu jatan. Hareek bai pozik hartuko leukiela! Eta beharbada egingo deutsegun bezuzaren orde, egun baten edo gehiagotan guraina kereiza jango jonaguz... Nire asmoari, zer deritxazue? Nigaz batean ez dagonak atzamarra goratu bei...

—Ez, ez, atzamarrik inortxuk ez jonagu jasoko, heure esanakaz batean gaiagozan danok eta. Heure asmoaren begikoa! Holan, katua zenbat eta lehenago eroan hobe! —danok aho batez esan geuntsan—.

Esan eta egin. Arratsalde haretan izar nagusiak katakume zuri polita besoetan ebala, hamabi neskatook Labarrondogoikoa-ra joan ginan. Eta basetxeko ezkaratzean sartzeaz batean, bertako alabeari katurik behar ete ebenentz itandu geuntsan.

—Beharko ez jonagu, ba? —berak erantzun euskun—. Egin-eginean be, katu baten eske nora edo hara hontxe joatekotan egon non. Mutiko okerrak etxeko katua harrika galdu euskuenetik, arratoi-saguak baketan be ez jeuskuen ixten eta.

Eta katakumea ikusirikoan esan eban:

—Hako gauzearen polita! Honako katu politik egundo ikusi be ez jonat egin... Edur-matazaz egina jirudin, bada-ta! Honakorik! Eta beraugaitik, zer eskatzen dozue?

—Guk eskatu ezer be ez; dirurik ez behintzat. Kerezak emon ezkerero, jan bai... —guztiok irribarrez esan geuntsan—.

Eta berak orduan:

—A, bai, kerezak! Zoaze, ba, muna-goieneko landara eta guraina jan egizue, ba...

Azkeneko hitzakaz batean, hamabi neskatook katutxua bertan behera itxita, saltuka eta ikotika ezti-bitsetan landaratu ginan. Eta hango zugatz-erpinetara igonikoan, lehenengo-lehenengo, suberte onak izateko, geure belarrietan kereiza-gorriak dingiliz ipini genduzan, eta gero ase eta bete egin arteraino jan...

Guraina jan eta ostean, *Txotxo Arratiako* abestia ezpanetan genduala landan behera etxerantza abiau ginan.

Labarrondogoikoara hurreratu ginanean, baina, geure katutxuaz gomutau ginan eta bera bertan ixtea tamal izan jakun, biharamonean be kereiza-gose izango ginala-ta...

Basetxetik igarotean, Igonetxu, izar nagusia, bere katutxuari mis-miska deiez hasi zan. Eta katutxu polita, neskatoaren ahots samur eta gozoa entzutean, kortako atepetik arineketan urtenda, geure artera harrapaladan etorri zan. Gure poza! «Zati baterako kereiza-jana bajaukanagu!» esaten genduan bidean.

Hurrengo egunean be kereizak jatearren, katakumea barriro eroan genduan; eta orduan be basetxeko neskeak kereizetara joateko esan euskun. Guk, barriz, zugatz-erpinetara igonda guraina jan.

Ganeko beste egun bitan be bardin egin genduan: katutxua atzera eta aurrera erabiliaz geure herriko igali gozoz ase eta bete egin.

Azkenez, nahiko jaterik izango zala-ta, katakume zuri polita Labarrondogoikoa basetxean betiko itxi genduan.

Geroko aldietan kereiza-tratu hori zala-ta, barre gogotsu egiten genduan; eta baita hontxe be umearora begiratu ezkerro, barre-ak barre egiten doguz...

Izan be, aldi gozo hareetara begira jarri ezkerro, itunaldirik aurkitu be ez da egiten.

XLI

BASOKOIPETSU



Gure aberriko basaurietan²⁶⁷ txitxi-burduntzi gozoa basoan jateko urtero-urtero egun berezi bat izaten zan. Egun berezi hori, barriz, Aratoste aurreko igandea izaten zan beti.

Eta igande hori, Arratia aldean *Kanpomartxo* izenaz ezagutzen zan; Durango aldeko herrituetan, ostera, *Basokoipetsu* izen politaz. Ikusten dogunez, bigarren izen hori lehenengoa baino politagoa eta horretarako egokiagoa da. Batagandik besteagana

²⁶⁷ Basauri: aldea, auzo.

alde galanta dago, egon be! Lehenengoa, erderakada handia da; bigarrena, barriz, euskera huts-hutsa.

Aitaturiko igande hori, Garizumearen gorabeheretan egoten zalako, urte batzuetan goiztxuago eta beste batzuetan belutxuago heltzen zan. Horregaitik, gure herritxuko ume eta gaztetxuak urtarrilak bere azken agurra egin orduko, zorioneko egun hori noiz izango ete zan jakingura latzez egoten ziran, une orotan itantzen ebela: «Basokoipetsu noiz da? Txitxi-burduntzi gozoa noiz jango ete dogu?».

Eta joranez itxaroten genduan egun hori bere orduz etorten zanean, bakotxak gura ebanetz, ume eta gaztetxu, nagusi eta zahar, adiskide-lagunakaz batean, askari²⁶⁸-fardeltxuak eskuetan genduzala, baso-mendietarantza ezti-bitsetan joaten ginan; eta ekandu zaharrari jarraituaz, askaritzat urdai, lukainka, solomo eta abar, txarriki hutsa bakarrik erooten genduan.

Mendiratu eta berehala zugatz-adar ezoakaz txarrikia erreteko burduntziak egiten genduzan; eta gero, hor-hemen egurrak batuta, su handi bat egiteko gertau. Eta orduan sua zeinek isiotu erabagiteko zozketea egiten genduan, eta zozketearen zoriak musturrean jotzen ebanak, bere ahoko haizea baino horretarako beste hausporik ez ebala, putz eta putz ke artean negarrez zala, sua egin behar izaten eban. Suaren gar bizia gorantza igoten zan unean, barriz, urdai eta lukainkak burduntzi-erpinetan jasota, guztiok batean ahots zoliz esaten genduan:

*Urdai eta lukainka,
txitxi eta burduntzi,
ardaotxu gozoaz
guztiak iruntsi!!!*

²⁶⁸ Askari: merienda, bazkari arin.

Eta hori abestean, burduntziak txingar generatuaz txarriki-koipeaz ezoturiko ogia gozo-gozorik jaten genduan. Gauzearen gozoa! Gerotxuago, urdai eta lukainkak be ezpanak miazketan barruratzen genduzan.

Holan zala, hor arratsaldeko laurak inguruan gure hatx eta mendietan sutzar handiak agertzen ziran; eta ordu horretatik aurrera Mañaria herritxuan, ujuju eta zantzo zolien oihartzun miragarriak berarizko alaitasuna sorrarazoten eban. Une haretan hatx-mendiak emoten eben poza inortxuk be kolkoan ez eban gordeten!...

Eta arratsalde osoa atseginez holan igarota, gauaren ilunak egunaren argia aienatu behar eban une-unean, abesti eta zantzo, baso-bideak bizkor-bizkor igarota, pozez heterik etxeratzen ginan, hurrengo urtean be bardin-bardin egiteko asmoa geure buruetan genduala.

Horra, ba, Euskadiko herri txikietako ekandu zahar bat laburkiro azalduta. Ekandu hau antxina-antxinakoa ei da. Eta lehengo urte baten Urkiolako aldatsean aguretxu batek esan eustanez, lehenagoko Garizumetan haragi-ixteak, bijiliak, eta barauak ugari egin behar izaten ziralako, Basokoipetsu eguna okeleari eta umore alaiari Pazkoetara arte agur egiteko ipinia izan zan.

XLII

MAÑARIKO KEREIZAK



Mañaria nire herritxua, Bizkaian, kereiza-herririk ospetsuena izan da. Bertako kereizak izan be, beste herrietakoak baino ederragoak eta gozoagoak izaten ziran. Hau irakurtean neuk dakidan batek, azkenengo hitzak dirala eta ez dirala, ahopean baino ez bada be zeozertxu baino gehiago esango dau... Baina, adiskide maite horrek jakin bei, gaur honetzaz neure burutik bakarrik ez dødala hitz egiten, antxinako euskaldunakaz batean baino. Ikusi bestela:

*Ur ona edaten Iturbegira,
eta kereiza gozoa jaten Mañarira.*

Bizkaian kereizak lehenengoz Mañarian ezagutu ei ziran. Bertara lehenengo kereiza-zugatza nondik ekarri zan, edo bertan zelan sortu zan, gauza garbirik ez dakigu, baina. Batzuk esaten dabe, ba, zeruko aingeruak urrezko ontzi baten kereiza-landara eder bat Mugarra txuntxurrera ekarri ebela. Beste batzuk, ostera, behinola Beiti basetxeko atsoak –sorgina ei zan bera– non edo non kereiza-garaun bat hazur eta guzti jan ebala, eta gero, hazur hori hiru egunean urdailean eukita, Munuguruko sasitzan itxi ebala; eta hortik sortu zan landaratik Mañariko kereiza guztiak etorri zirala esaten dabe, eta hori dala-ta, bertako kereizak sundarik gozoena izaten dabela.

Esanak egiak ete diran dinostazu? Egia dala, guzurra dala, gaur horretaz ezer jokatzekotan ez nago, sarritan esanak, esanak baino ez dira izaten eta. Ikusi dogunez, baina, gure herriko kereizak bere kolkoan gauza miragarriren bat badabe... Kereiza-aldietan, Mañaria, Mañaria izaten zan, gero! Ez dakienak baleki...! Dana dala, bata nahiz bestea dala, esanak eta entzunak alde batera itxita, uste dogunaz hitz egin daigun, Mañariko kereizak lako ederrik, gozorik eta sunda onekorik ludi zabalean be ez dala egiten esaten dogu. Hor dago, ba!

Mañariko kereizak, barriz, antxina, nire aitaren aitaren aldian-edo, ospetsu-ospetsuak ziranez, urre-truke bakarrik saltzen ei ziran. Hori zala-ta, Euskadiko herrietan jentea kereiza-saltzaileak noiz agertuko eskuetan urrea ebela egoten ei zan.

Urre- eta kereiza-tratu horretaz, gure herritxuan ipuin bat edo beste edesten ziran, eta horreen artean gehien edesten zana Arriduko etxaguna eta txakur gorriarena izaten zan. Ipuin hori, hona hemen laburkiro.

Antxinako urte baten, Mañarian inoiz ez lako kereiza-aldirik handiena izan zan. Urte haretan bertako zugatz guztiak, garaun gorrien zama astuna zutik jasan ezinda, euren adarrakaz lurrari munda aurkitzen ziran. Hori zala-ta, herriko jentea igali gozoari begira ezti-bitsetan egoan. «Aurten, sekulako urre-piloak batu behar joaguz», guztiak aho batez esaten eben; eta hori esanaz,

baso eta mendietara joanda herriko kereizen edertasuna goratzen egoten ziran.

Etxe guztietan guraina eta gehiago kereiza baegoan be, baina, Arridu basetxeko etxaguna Jaungoikoak esku zabalez emon eutsanaz arean be ez zan nahikotu. Eta hori zala-ta, egunak joan eta egunak etorri, herriko kereiza guztiak bide okerrez eskuratzeko asmo gaiztoa hartu eban. Eta gure gizona hurrengo gauean, gauaren iluntasuna lagun ebalá, auzoetako kereizak ostuten hasi zan; eta geroko gau guztietan bere eginen gaiztoari eten barik ekinda, hilebeteren buruan herriko kereiza guztiak Bizkai, Araba eta Gipuzkoako herrietan urre-truke saldu ebazan.

Holan, Arriduko etxagunak idi-narru handi bat bete urre-diru etxeratu eban; eta hainbeste urrereren artean bere burua ezin gehiagoan aberastuta ikustean, pozez zoratu beharrean aurkitu zan. Bitartean, mañaritarrek lapurra zein ete zan jakin gurarik estu eta larri ibili ziran; eta euren artean askok euren zoritxarra ikusita, negar gogotsu egiten eben. Honetan, kereiza-margodun txakur gorri bat agertu zan herrian. Eta txakur gorri harek basetxe bakotxaren aurrean ahausi egiten eban artean, ahots miragarri batek hitz honeek esaten ebazan:

*Arriduko etxagunak
kereizakaz batean,
urrea eta zoritxarra
bizkarra betean.*

Hori entzunik, mañaritarrek kereiza-lapurra Arriduko etxaguna zala behingoan igarri eben; eta bere eginen txarrari jagokon zigorra berehala emotea ondoen izango zala-ta, gizon-mutil piloak adaki sendoak eskuetan ebezala, Arridu basetxera arin baten joan ziran. Ordurako, baina, gure gizona bere urre-diru eta guzti nonbaitera joana izan zan eta, bere bila batera eta bestera begi eta belarri ibili ziran arren, bere azterrenik be ezin izan eben aurkitu.

Hurrengo urteko kereiza-aldian, baina, txakurraren ahausi eta garrasiakaz batean etxagunaren ulu eta aieneak entzun ebezan. Arriduko gizona, urrez beteriko idi-narru handia bizkarrean eta txakur gorriaren hagin zorrotzak orpoetan sartuta ebazala, Mugarra hatxean gora eta behera ebilela ikusi eben. Eta geroago-ko kereiza-aldi askotan be, gaixoak holan ibili beharra izan ei eban. Ikusi ebenez, kereiza-lapurra bere eginen txarragaitik gogor zigortua izan zan.

XLIII

BIDE-IPINTEAK



Gure herritxuan, Bizkaiko beste herri askotan lez, herriko bideak atondu eta barrizteko egun berezi bat urtero izaten zan. Egun hori Mañarian, bertako Udalak haututa, zezeileko²⁶⁹ larunbat baten izaten zan, eta *Bide-ipinteak* izenaz ezagutzen zan.

Horretarako, Bide-ipinteak noiz izango zan aurreragoko igandean txauburu jaunak eleizan iragarten eban. Horrez ganera, egun horren aurreragoko gauean, eleizako kanpai nagusiak ordu erdi inguruan hots itzal berezia egiten eban.

²⁶⁹ Zezeil: otsail.

Iluntzeko haize hozkirritan kanpai-hotsa entzutean, barriz, mañaritarroi doinu politez hurrengo hitzak belarrirutzen jakuzan:

*Dan, dan,
danak beharrean,
dan, dan,
alperrik ez etxean!!!*

Biharamon goizeko bostetan be kanpai nagusiak zeregin bardina eginaz, herriko jenteari zein laneri ekin esaten jarduten eban.

Eta hor seirak inguruan, atxur, mailuketa, errastilu²⁷⁰ eta enparadu lanerako tramankuluak hartuta, bakotxa etxebideak, burdibideak eta eleizbideak atondu eta barrizten poz-pezik joaten zan; batez be, eleizbideak edertzen eta txukuntzen gehien ahalegintzen ziran. Bai, ba! Gure baserritarrak, kristau on-onak ziranenez, Jaungoikoaganako beharkunak beteten joaten ziran bide maitegarri horreek begirik onenaz ikusten ebezan.

Gure gizon-mutil zintzook, herriko bide guztiak atontzen goizetik gauera esku, buru eta hanka lanik asko egiten eben. Horretan eurak ikustea gauzarik atsegingarriena zan. Peru eta Mikel, Txomin eta Anton, jaioa damu ez ebela, gogaro²⁷¹ onez ibiltzen ziran. Egun hori egun alaia izaten zan.

Eta egunaren barruan bakotxak beretzat lez lanean zintzo-zintzo ekin eta gero, iluntzean langilerik gehienak Udaletzeko ardandegira joaten ziran, bertaratzen ziran guztiai, ba, Udalak musturrak bustiteko lain baino ardao gehiago eta gehiago doan emoten eutsen eta. Lanean ekinda ardandegira barik etxeratzen ziran gizon etxezaleai, barriz, kuartilutxu bana ardao eta libratxu bana ogi baino ez eutsezan emoten...

Eta holan, gure gizon-mutilok, *mama gozoa* txurrutada politez edanda, ardandegian animazinoz ibiltzen ziran beti. Hango

²⁷⁰ Errastilu: eskutila.

²⁷¹ Gogaro: umore, aldarte.

umorea! Baina, baina... holakoetan umorea *umore on* beti ez zan izaten. Batak hau, eta besteak hori, eztabaida gogorrek aterata, lantzean behin *Ukabiltxu* morroskoa sutsu eta gogor ibiltzen zan eta.

Ni gaztetxua nintzala behintzat, sekulako burrukaldia egin zan. Ez dakit nik zelan eta zergaitik be, Aldebarrietako agure batek, *Karlos Setimoren* aldian-edo, Aldebarrentarrak azkonar-zepo eder bat ostu eutsiela esan eban. Hori entzunik, Aldebarrentarrak, zahar eta gazte, haserre-bitsetan jarri ziran, eurok eta eurenak esku garbikoak eta jente ondradua beti izan zala-ta esanaz. Eta ustebako salatze hori zala eta ez zala, eztabaida gogorra sortuta, euren artean matraka itzela sortu zan. Gizon, mutil eta agure, hango zapladak, hango musturrekoak eta hango bultzadak!... Egundo bada, ahutzok eta pahutzok ederto astindu ebezan!

Burruka hori, baina, holan beharrik, hango burruka guztiak izaten ziran lez, zirt eta zart, ukabil hutsezkoa izan zan.

Eta jazoa jazo..., eta hurrengo egunean, igande goizean, alkate jaunaren aginduz Mañariko herrizain zintzoa burrukan ibili ziran guztiak Udaletxera joateko esaten etxerik etxe ibili zan.

Beharbada, alkatearen agintze hori ogerleko batzuen isuna ezarteko-edo izango zala uste izango dozue. Bai zera! Uste horregaz oker zagoze... Horrelakorik arean be ez!

Arratsalde haretan, eleizkizunaren ostean, alkatearen esanari jaramon eginda, gure gizon-mutilak Udaletxean zintzo-zintzo batu ziran. Eta beste barik, alkate jaunak, guztien artean zutunduta zala, izan eben burrukeatzaz azalpen ederrak egin eutsezan. Eta eztabaidetatik eta haserretik egundo gauza onik ez dala etorten eta abar esanda, alkarrerik parka²⁷² eskatuta, gero guztien artean askari on bat jatea ondoen izango zala esan eutsen.

Orduan gure gizon-mutilok, alkatearen esanak onez hartuta,

²⁷² Parka: parkamena.

azalpen arin batzuk hitz leunez eginikoan alkarrereri bihotzez asketsita²⁷³, guztiak batean, esaten dan lez *on-amorean*, askari eder bat jan eban. Eta holan, zorionez *Karlos Setimoren* aldiko azkonar-zepoaren arazoa, euren artean behin eta betiko ahaztuta geratu zan. Hontxe bertan antxinako esakuna bat jatort burura:

*Odol bako burrukeak
konpontze arina.*


Gure baserritarrak holakoxe on-onak ziran, izan be: bihotz onekoak eta gorroto bakoak... Herritik at, batetik bestera nabilen artean, eurakaz hamaikatxu bider gomutetan naz!

Jaungoikoak donokia holakoxeentzat egin eban.

²⁷³ Asketsi: parkatu.

XLIV

EMAKUME GAIXOA!



Bizkaiko herritxu baten emakume alarguna sei seme-alabagaz bizi zan. Emakume gaixoak, senarra hil jakonetik, sendiaren zama astuna bere bizkar bigunean eroan beharra izan eban.

Bere bihotzaren sei zatiak elikatu behar, eta inondik diru ez beste ondasun-etorririk ez. Bazterrak ilun, inguruan ezer agiri ez... Etorkizunaren itzala!

Emakumearen lansaria²⁷⁴, etxearentzat eutsigarri edo habe makala izaten dan arren be, gure alargun gaztea gau eta egun lana sendo eginaz bere etxea jaso gurarik-edo ebilen. Gaixoa...!

²⁷⁴ Lansari: aloger, soldata.

Egun baten emakume zintzoa etxe handiki batera garbiketak egiten joan zan. Eta jauregi haretako ezkaratzean lanean ihardu-
la, bertako alaba nagusiari beste gauza askoren artean honan esan
eutsan:

—Hau nekea! Txiro izan behar dana ezin aberastu.

Neskatila harek alargunari entzuniko guztia gauean aitari
edestu eutsan. Eta jauregiko ugazaba, bihotz oneko gizona zanez,
errukitu zan; eta biharamonean etxeko morroi bategaz ogi eder
baten barruan sei urre-diru bialdu eutsazan.

Emakumetuak halako ogi ederra pozez hartu eban; eta ogia
esku eta begiakaz ondo arakatu eta ostean, bere kolkorako esan
eban:

«Hau ogiaren ederra! Nire umetxuak poz-pozik jango dabe.
Gaur, behintzat, goserik ez dabe izango... Baina ogi honek, erre
barria dalako, beharbada jatordu bateko gosea baino ez deusku
kenduko. Ogi biguna, hagina zorrotz sartuaz, hasi eta amaitu
behingoan egingo geunke... Eta gero, bihar zer? Ez ete litzatake
hobe, jataro²⁷⁵ oneko ogi hau Munguruko Marimanuri hiru bat
artogaitik-edo trukatzea? Bai, hobeto izango da, bestela gaur
ondo eta bihar txarto gintzatekez eta».

Eta bere kautan esan ebazan hitzok amaitzeaz batera, Mun-
guruko etxandereagana joan zan eta ogi erre barriaren ordez hiru
artopil etxeratu ebazan.

Ganeko egun baten, ogia bialdu eutsan zaldun agurgarriak
emakume alarguna kaletik zehar joiala aurkitu eban, eta apur bat
hitz egin eta ostean itandu eutsan:

—Eta, lehengo egunean bialdu neutsun ogia jataro onekoa
izan zan?

Itaun honegaz gure emakumea ezin gehiagoan gorritu zan.
Eta lotsearen lotsaz begiak lurretik jasoteko be gauza ez zala,
erantzun eutsan:

²⁷⁵ Jataro: jakera, gustu.

—Hara, ba, jauna, egia-egia esan behar deusat: berorrek bialduriko ogia, erre barria zalako nire umeak behingoan iruntsiko ebela-ta, Munguruko etxandereari hiru artopilen ordez emon neutsan. Eta arto hareek nire etxean egun biko gosea kendu eben. Biharko egunaren ardurea be hartu egin behar, jauna...

Orduan jaun bihotz oneko harek emakume alargunari erruki handiz begiratuaz esan eutsan:

—Emakume gaixoa! Zer egin dozun badakizu? Bialdu neutsun ogiak zeure umetxuai egun biko gosea ezeze, hile batzuetakoa be kenduko eutsen... Hauxe tamala! Ogiaren barruan sei urre-diru bialdu neutsuzan eta. Egia esaten dozu, bai, dinozunean: «Txiro izan behar dana ezin aberastu», eskuetan euki dozun dirua auzoko andreari emon deutsazu eta. Zeu baino askozaz aberatsagoa dan etxandereari.

Eta gaixoak negarrez erantzun eutsan:

—Egia da, bai... Jaungoikoak honantxe txiro bizi naiten gura dauela argiro ikusten dot.

Eta bere begiak zerura jasoaz, behinola Jesus gure Jaun maitteak Getsemaniko Baratzean otoitzean iharduala esan eban lez, ahots itunez esan eban:

—Aita, gauza guztietan zeure guramena²⁷⁶ egin beit.

Gau haretan emakume on eta zintzo harek bere umetxuak mosu bana emonda oheratu eta ostean, etxearen gelarik hotzenean, aulki zahartxu baten jesarrita negar eta negar egin eban...

Eta isuri ebazan malkoak eroapenaren ontzi deunean pilatu ziralako, harribitxirik dirdiratsuenak lez edertu ziran.

Eta makal-apalak²⁷⁷ maite-maite dituzan Jaunarentzat, bitxi bihurturiko malko garden hareen oparia oso begikoa eta kutuna izan zan.

²⁷⁶ Guramen: borondate.

²⁷⁷ Makal-apal: indarga eta unil.

XLV

OXINBALTZA



Egun haretan, Errotazaharra basetxeko etxeoandra gazteak bere etxeko labea goizean goiz sutu²⁷⁸ eban, aste guztian etxean beharko ebezan ogiak bertan egiteko asmoz.

Eta andra gazte haren horretan iharduala, ogi-orak labaratzeko une-unean, «Eup!» deadarra zoli-zoli entzun eban.

—Ene! Nor ete don? —esan eban—. Honakoxe ordu zeregin-tsuetan, bai jentea gurera etorri!...

²⁷⁸ Sutu: biztu, isiotu.

Eta nor izan ete zeitekeanentz atea edegi ebanean, taiu oneko emakume gazte bat umetxu polit bat besoan ebala ikusi eban. Emakumea bere umetxuagaz eskeko antzean agertzen zan.

—Emakume ezezaguna, zer behar dozu edo zer eskatzen dozu? —etxeakoandreak artega itandu eutsan.

—Andrea, etxeke labea hontxe bertan sutu dozun ezker, gosez negarrez aurkitzen dan umetxu samur honentzat, ogi-opil erre barria bihotz-bihotzez eskatzen deutsut. Opiltxu bigun bat behin emongo deutzazu, ezta? Gosez negarrez dago gaixoa...

—Bai, zeozertxu emongo deutzat, bai... Gosez dago, ezta? Gaixoa! Hori umearen polita! Itxaron apurtxu baten, ba, opiltxu bat-edo geroago ekarriko deutsuet eta —errotako andreak ahots artegaz erantzun eutsan.

—Eta ezkaratzera iraduz joanda, titara bete urunegaz ogi-opil txiki-txiki bat oztaz egiteko lain ora egin eban eta umetxu-ri emoteko ustez eta mustez, eginiko opil-orea enparadu ogien artean laban sartu eban.

Handik gerora, andrea, ogi-opilak nahiko erreta egongo zirala-ta, labearen ahora iraduz joan zan; eta ondo erreta aro onez aurkitzen ziran ogiak, banan-banan kanporatzen hasi.

Batzuk eta besteak ederrak zirala, hareek bai ogien bedeinkatuak! Halako labaldirik edo labakadarik andra harek bere bizian egundo ez eban egin. Hori zala-ta, pozez egoan.

Ogiak labatik atera eta atera, pozarren ebilen bera, eta horretan ekinago eta pozago egiten zan gaixoa. Ekin eta ekin, halako baten, enparadu ogi-opilak kanporatu eta gero, titara bete urunegaz umearentzat egin eban ogi-opila eskuratu eban. Eta orduan andrearen ikarea! Titara bete urunegaz eginiko opil-ora txikia, beste ogi-opil guztiak baino askozaz handiagoa eta ederragoa zala bere begiz ikusi eban eta!

—Honakorik! —inoan—. Hau don opilen ederren ederra!... Labako suak su eginda be, honako ogi-opil ederrik begi aurean egundo ez jonat euki. Beste guztiak baino ederragoa eta handiagoa don, bada-ta! Honakorik eta honakorik! Titara bete urunegaz

eginiko ora apurraz, honako ogi ederra, zelan egin leiteken, baina? Horra hor, untzea eta muntzea! Tamaletan tamalena, baina, ogirik ederrena eta apatzena hor atean dagoan eskeko-umeari emon beharra... Horrerri umekondoorreri emotea baino, etxerako gordetea hobe izango don, horraitik, etxean zer beharko be. Ganera, barriz, hau beti emoten ibiltea baino gauza gogaikarriagorik! Lehengo urtean be, eskeko bateri berakatz-atal eder bat emon neutsan; igaz, ostera, beste bateri lau baba-garaun oso-osoak, eta atzo bertan aguretxu zahar-zahar bateri pipea isiotzeko ilinti biztua erruki handiz eskuratu neutsan. Holan, ba, gehiago inori ezer emon ez arren be, neure bihotz samurra hemen inguruetako bihotzik ederrena dala edozeinek ulertu eta esango leuken. Umetxu horrerri opil honen ordez beste ogi txikiago bat be emongo neuskion, bere sabeltxu gosea zelan edo halan asetu dagian be... Baina holan be, etxerako bat gitxiago... A!... Ama-seeok edo dalakook, beste etxe batera joanda, hango atea jo beien. Etxean zer beharko be, horrerri emoterik ez jagon...

Eta andra zekenak umeari ezer emon ala ez, ebatzi ezinik aldi luzetxuan oldozten egon eta gero, inori ezertxu be ez emotea erabagi eban.

Eta atartera arinka joanda, emakumeari esan eutsan:

—Jaungoikoak lagun! Hemen ezertxu be ez daukazue eta zoaze beste ate batera...

Hori entzunik, eskeko-emakumeak «Bai, Jaungoikoa lagun» esanaz, umeari laztan gozo bat emon eutsan; eta errotako andra zekenari begi gozoz ondo begiratu eta gero, bere umetxua besoan ebala mendian zehar abiau zan.

Beste egun baten be, haxe emakunea berbera, lehenago letxe bere umetxua besoan ebala Errotazaharra basetxera joan zan. Eta egun horretan be, Errotazaharreko etxekeandra gaztea labako sua egiten iharduala aurkitu eban.

Orduan be eskeko-emakumeak Aita gurea arretaz otoiztu eta gero, barrura adi-adi zala, «Eup!» deadar begikoa, ahots gozoz deadar egin eban; eta ahots gozoz eginiko deadar berezi leunak

etxeoandra gaztea, atean nor ikusiko, behingo baten kanporatu eban.

—Gaur be hemetik? Jainkoaren ze bendizino dakarzue?... —etxeoandreak haserre antzean itandu eutsan.

—Onarentzat, ona eta txarrantzat, txarra... —eskeko-emakumeak erantzun eutsan—. Gosez negarrez aurkitzen dan umetxu kutun honentzat, ogirik edo artorik badaukazu? Neure semetxua gosez dago, negarrez dago... Hori dala-ta, neure kutun-txua bere gose mingarria kenduko leukien bihotz samur-maitatien bila munduan zehar abiau da. Eta, hau mundua! Bihotzik onena atsekabez eta larrosarik ederrena saminez... Eta, atea jo eta ezer ez... Guztia emon deutsunari, zeozertxu ez ete deutzazu emongo, ba?

Azkenengo berba ikutugarriak errotako andrearen buru-buruan mataza berezia sortu eban; eta horregaitik, andra gazte artegea, buruan eban mataza nahastua haritik marira atondu gurarik, bertatik oldozkor jarri zan.

Eta holan egoala, eskeko-emakumeak barriro be arpegi ben-gozoz esan eutsan:

—Etxekoandra maiteorrek, nire loratxuarentzat, ezer be, ezer be ez daukazu, baina?

—Zuri edo baltz, asko edo gitxi, baleiteke zeozer egotea edo eukitea be... —errotako andreak oldozkor erantzun eutsan.

Eta berehala barruratuta, barriro be titara bete urunegaz ogi-opil txiki-txiki bat oztaz egiteko lain ora gertau eban; eta egini-ko opil-gaia, eskekotxuaren sabel gosea asetzeko ustez, beste ogi-opilakaz nahastean laba gorrian sartu eban.

Orduan be, baina, lehenago jazo zana jazo zan. Opil-ora txiki-txikia, ogi handi eta eder bihurtu zan; beste ogiak baino hamar bider handiagoa, ederragoa eta apatzagoa egin zan eta.

Barriroko jazokun harrigarri honek errotako andrea zuti eta muti, zur eta lur eginda itxi eban; zer oldoztu ez zer esan ez ekiala, kokolotuta geratu zan. Ogi-opil miragarriari begi zabalez begiratzen eutsan:

—Ze mirari don hau? ... —artega eta ikaraz itantzen eban.

Eta, begiratu eta begiratu, eta egon eta egon..., bere bihotz erkinean aspaldiz egoan zekenkeria geldiro-geldiro sendotzen hasi zan.

Lehenengo, opilik ederrena umeari emotea tamalgarri izan jakon; gero, ostera, opilik txikiena eta kaskarrena etxetik kanpora bialtzeko gomuteak be, bere barruan halako *zertxua* egin eban. Hirugarren gogaldian, barriz, handia nahiz txikia, ederra nahiz erkina, gitxi nahiz asko, inori ezer emoteak bihotza apurtzen eutsan. Holakoxe zeken gaiztoa zan...

Eta errotako andra zekenak bihotzean jirabiraka ebilkon zekenkeria higuingarriaren aholku kaltegarriari oso-osoan jaramonda, inongo inori altsirik²⁷⁹ be egundo ez emoteko asmo berezia hartu eban.

Eta etxekoandra barrabana²⁸⁰, «Etxean zer beharko be» bere betiko leloa ezpanetan ebala, eskeko-emakumeagana joan zan eta emakumeari eta umeari, begirakada zorrotza jaurtiaz, erremuskada latzez esan eutsen:

—Zoaze hortik zehar gogaikarriak halakook! ... Beti eskean-meskean etxe-inguruetan ibili barik, zoaze, zoaze hortik-hemetik, eskeko pesteok! Joan, joan hemetik beste leku batera, zuek gura dozuen herriren batera-edo...

—Eta ezertxu be emon barik, erremuskada latzez bialtzen gozuz? —eskeko-emakumeak apal-apalik itandu eutsan—. Badaukazu, ba, zuk artoa, ogia eta abar, etxean gauzea ugari... Jaungoikoak esku zabalez emoniko ogasunez gonburututa²⁸¹ dago Errotazaharra basetxe ederra da eta. Guztia emon eutsunari, hamarretik batxu be ez ete deutzazu emongo, ba? Jaungoikoaren izenean zeure onerako eskatzen deutsut.

²⁷⁹ Altsi: pitin bat, apur-apurtxu bat.

²⁸⁰ Barraban: oker, barrabas.

²⁸¹ Gonburutu: gainezka egin.

—Ez, ez... Ez Jaungoikoaren izenean, ez beste inoren izenean be ez deutsuet ezer emongo. Ogirik, artorik ez beste gauzarik, ez daukazue hemen! —etxeoandra zitalak erantzun eutsen.

Horrenbeste zekenkeria ikusita, eskeko-emakumeak negar eta negar egin eban. Errotako andrearen bihotza zekenkeriaren harrak sendo jota egoala ohartu eban; eta hori zala-ta, bere eta bere etxearen hondamendia hur-hurrean zala igarri eban.

Horregaitik, tamalduta negar egiten eban; errotako andrea zekenkeriak galduko ebalako... Eta eskeko-emakumea, andra bihozbako hareri gehiago berbarik egin barik —berari ezer esatea alperrik zalako—, umetxua bere bularrean maite-maitero estututa ebalala, mendian gora eta gora joan zan, mendi-txuntxurreko zeru urdinean miragarriri aienatu zala.

Hurrengo iluntzean, eskeko-emakume harek Errotazaharra basetxeko soloan neskatila eder bat ikusi eban. Eta basetxe haretako otseina ete zanentz itandu eutsanean, neska eder harek baietz, hangoxe otseina zala esan eutsan.

Hori entzunik, emakumeak maitero esan eutsan:

—Neskatila onori, zoritxarreko etxe horretatik, lehenbailehen aldendu hadi... Errubakoak errudunaz jasan ez dagian, bihar goizean goiz, egun barriak bere argia ekarteaz batean, hoa heure gurasoen basetxe maitegarrira. Heure onerako agintzen deunat dana. Neure esanak zorionduko hau... Hoa hemetik.

Neskatileak, emakume ezezagunaren aholkua, zer jazokoaren bildurrez-edo, oso-osoan betetu eban.

Biharamon goizean, egun barriak bere argia ekarri ebaneko, bere jazki-fardela besapean ebalala, zoritxarreko etxe haretatik bere gurasoen etxera arinka joan zan.

Eta ordu batzuk geroago, Errotazaharra basetxe inguruan, trumoi-hots itzelakaz ekatx bildurgarria sortu zan. Eta oinaztu, trumoi, euri eta txingor eta haize-bihorra ugari zirala, Errotazaharra basetxea ezarrita egoan lurra dardaraldi errimeak higituta, bat-batez edegi zan; eta orduantxe bertan Errotazaharra basetxe

entzutetsua, bere etxekoandra zekena barruan ebala, lurak bildurgarriro iruntsi eban.

Eta etxea eta etxekoandrea hondatu ziran lekuan bertan, ur lohiak eta zikinak piloan batuta, oxin zikin-zikina sortu zan. Eta han inguruko jenteak, jazokun horregaz ikaratuta zala, oxin zikin hareri Oxinbaltza izentzat ezarri eutsan.

Lehen sarritan aitatu dogun eskeko-emakumea, Maria Birjina izan zan eta bere besoko umea, Jesus Umea.

Errotazaharra basetxeko andra zekena, gosez egoanaz errukitu ez zalako eta eskekoari bihotz gogorrez berba egin eutsalako, Jaungoikoak merezidu eban zigorraz zigortu eban. Berak esku zabalez emon eutsazan aberastasunetatik hamarretik batxu be Berari, hau da, eskeko-txiro errukariari emon ez eutsalako... Andrearen zekenkeria Jaungoikoaren begietarako higuingarri izan zan.

XLVI

BIRJINA ETA NESKATOAK



Ama bat alabatxu bigaz bizi zan. Egun baten alabarik zaharrena, fardeltxuan ogia eta gaztaia biderako ebazala, basora egurretan joan zan.

Neskatoak, basoan ibili eta ibili egin eta gero, ogia eta gaztaia ahoa betean piti-pauta²⁸² jaten iharduala, bide-ertzeko landa eder baten Maria Birjina bere Jesustxu altzoan ebala aurkitu eban. Jêsus Umea negarrez egoan.

²⁸² Piti-pauta: txitean-pitean.

Maria Birjinak, bere semetxuari begi gozo-gozoz begiratu eta gero, ogia eta gaztaia jaten bidez-bidez heldu zan neskatoari hitz tamaltsuakaz samurkiro esan eutsan:

—Neskato politorrek, nire semetxuarentzat ogi apur bat-edo badon? Ogi apurtxu bat emongo deutsan, ezton?...

—Ez, ume horrentzat ez daukat ezer be... —neskatoak mustur oker erantzun eutsan.

—Tiron, neskato, ogi nahiz gaztai, apur-apurtxu bat izanda be, zeozer emon egion... Tiron, neskato, emon egion... Nire kutuntxua gosez negarrez ez al don ikusten?

—Eta horrek negar egin arren, niri zer? Neuk be hamaikatzu bider, gosez ez arren be, negar egin behar izaten dot, bai... Amak zapladakoak emoten deustazanetan-eta. Ganera, barriz, ogia eta gaztaia ume horrerri baino, lurpeko sugeari lehenago emongo deutsat!

Neskatoaren hitz lakarrak entzutean, Maria Birjinak eta Jesus Umeak negar egin eben.

Gerotxuago, barriz, neskatoak Maria Birjinari sua egiteko egurrik onenak non aurkituko ebazanentz itandu eutsan:

—Sua egiteko egurrik onenak hemen, non ete dagoz?

—Mendi barrenean dagoan ate gorri-gorrira joan hadi, bai?, eta heuk behar donan egurra hantxe aurkituko don. Sua egiteko egurrik onenak bertan jagozan, egon be... —Birjinak erantzun eutsan.

Orduan neskatoak, mendi barrenera, Maria Birjinak izentauriko lekura iraduz joanda, bertako ate gorri-gorria esku zabalez errime-errime jo eban.

Atea jo ebanekoxe, bertatik txerren batzuk ikotika agertu ziran. Txerrenak, buztan eta adar handiakaz, bildurgarri be bildurgarri egozan.

Eta txerren itsusi hareek bihotzean maitasunaren apurrik arean be ez eban neskato zekena oin bietatik helduta, gaiztokira tatarrez eroan eben. Eta burduntzi sendo baten sartuta jirabiraka zala, hango sugarretan erreten ipini eben. Soinaren zirkin bakotxean, haren negarrak eta haren uluak!

Neskato zekena, Maria Amari bere Jesustxurentzat ogirik ez gaztairik emon ez eutsalako, Jaungoikoak gaiztokiko neke betikorrakaz zigortu eban.

Beste egun baten, bigarren alabea be, bere ahiztea lez, fardelean ogia eta gaztaia ebazala, basora egurretan joan zan.

Eta neskato harek be, ogia eta gaztaia jaten iharduala, bide-ertzeko landa ederrean Maria Birjina eta Jesus Umea aurkitu ebazan.

Neskatotxu hareri be Maria Birjinak bere semetxu samurra-
rentzat ogi apur bat hitz gozoz eskatu eutsan:

—Maitetxu laztana, neure semetxu kutunari ogi apur bat emon egion. Gosez negarrez aurkitzen dan lora ederrenari, ogi apur-apur bat emongo deutsan, ezton?...

—Bai, emongo deutsat, bai —neskatoak hitz samurrez esan eutsan—. Ogi apur bat ezeze, eskuetan daukadazan ogi eta gaztai guztia emongo deutsat zeure seme politari...

Eta «Hartu, andrea, zeure mutikoarentzat» esanaz, ogi- eta gaztai-zati galantak emon eutsazan.

Eta emonikoari hondino gitxi eretxita-edo, ahoaren barruan eban ogi-kopaua be berehala eskuaz aterata, Jesustxuri bihotz-ikaraz emon eutsan.

Horren bihotz maitatia ikusita, Maria Birjinak eta Jesus Umeak barre gozoa egin eben. Eta neska onak be, on-eginaren poz deunaz, barre alaia egin eban.

Gero egurak non aurkituko ebazanentz itandu eutsan:

—Etxera eroateko egurrik onenak, non ete dagoz?

—Hor mendi-txuntxurreko lorategian dagoan ate zuri-zurian aurkituko don heuk gura donan guztia... —Maria Birjinak ahots zoragarritz esan eutsan—. Hoa bertara, maite, hoa bertara eta lorategiko ate zuri ederra esku lemez jo ein. Gaur egin donan errukizko egintza aintzagarriaren saria, leku zoriontsu horretan izango don eta. Hoa, ba!

Eta gehiagoko barik, neskatoa, Maria Birjinaren aholku onari jaramonda, lorategiko ate zurirantza abiau zan.

Joan eta joan, eta ibili eta ibili, bajoian gorantza. Halako baten, ortzeko laino zuriak gozaro-gozaro urratuaz, donokitik hego handidun aingeru lirain bat harrigarriro jatsi zan.

Eta aingeru lirainak gure neskatoari, lehengo jazki edo soinekoak kenduta, beste soineko eder-eder batzuk ipini eutsazan. Urre-bitxiz apainkiro jantzi eban.

Hatan-horretan, joranez bilatzen eban lorategi ederrera heldu zan; eta bertako atea esku leunez jo eban.

Lorategiko ate zuria bat-batez edegi zan; bertan larrosa zuri-gorri ederrak usain gozo-atseginkorrez²⁸³ beterik egozan.

Aneika²⁸⁴ aingeruak, neskabila eder-ederrenen antzean, alkarrren lehian piloan urtenda, gure neskatotxuari zoragarriro inguratu jakozan. Eta aingeru eder hareek neskato ona, eskuetatik gozaro helduta ebela, soinu eta abesti alaiaren artean lorategi ederrera, donokira, beti zoriontsu izateko eroan eban.

Neskato bihoztsua, Maria Birjinari Jesus Umearentzat ogia eta gaztaia gogoz eta bihotzez emon eutsazalako, Jaungoikoak donoki ederraz saritu eban.

²⁸³ Atseginkor: atsegingarri.

²⁸⁴ Aneika: milaka.

XLVII
HIRU GORULARIAK



*Hiru neskatila,
hiru gorulari;
mingainari eraginaz,
ardatza erabili.*

Eguzkiak, ilargiak eta izarrak hizketaldi gozoak egiten ebezan aldian Usotegi basetxe zuri-zurian hiru ahizta, hiru neskatila, poz-pozik bizi ziran.

Neskatilak Atxiñe, Zuriñe eta Usune izenakaz ezagutzen ziran, eta hirurak gorulari maratzak ziran. Hari zuria ondo eta

mehe egiten, eurak lakorik herrian ez inguruan be ez egoala atso-agureak aho batez esaten ei eben.

Gorulari errimeok neguko gau guztietan Etxetxiki basetxera joaten ziran, hango lagunartean aldiko gau luzeak atsegintsu igarotearren.

Gau izartsu haretan be Usotegiko alaba lirainak, euren eskuetan goru-ardatzak ebezala, bata-bestearen atzetik oinkada isilez Etxetxiki basetxera joan ziran. Eta bertaratu eta berehala, sutondoko bero gozoaz atseginduta, hizki eta mizki kontu-kontari hasi ziran.

Lehenengo, Atxiñek hitz egin eban. Bere hitzak, baina, neskatila baten ahorako egokiak ez ziranak ziran. Gau horretan Atxiñek bape lotsa barik hitz zikinez hitz egiten eban. Entzule zoroen barregarri, suburuko laratzua lotsatzeko eran ebilen...

Atxiñek jardun higuinarrarian iharduala, ikuskizum bakana ikusi eban. Bizar zuridun agure bat bere ondoan egoala ohartu eban. Gizon ezezagun miragarri harek neskatilearen esanak guztiak idazti handi baten hizki baltzaz idazten ekin eban. Gauza miragarria!

Hori ikusita, gorulariaren ikarea! Ene! Eta esku biokaz arpegia ondo estaltzen ebal, bere hizkera lotsagarrian bat-batez isildu zan; barriketan ez goruetan ekiteko adore barik geratu zan.

Enparadu notinak be euren lagunari zer jazo ete jakon oldozten jarrita, ikeraldi errimea hartu eben.

—Zer jazo jana? —itandu eutsien.

—Jazoa, jazo! —gorulariak ahots itunez erantzun eban.

Erantzuera horregaz, lagunak isildu egin ziran.

Gerotxuago Zuriñe neskatilea hitz egiten hasi zan. Bere ahok, barriz, artazi zorrotza balitz lez, une batetik bestera auzoko emakumearen gonea, goitik behera eta magaletik magalera, tamalgarriri, ebagi eban.

Horretan, Zuriñek be, bere ahizteak lez, bizar zuridun agurea idazti handian zeozer idazten ikusi eban.

Bera be ikaratu zan, taiu haretako gizonik egundo inon ez eban ikusi... Eta «Hondino holakorik!» deadar zoli esanikoan,

goru-ardatzak esku-ikaraz supazterrera jaurtita, bigarren gorulariak be, barriketarik ez gorurik gehiago ezin izan eban egin.

Barrirokoan ezkaratzeko lagunak ikaraldi errimeagoa hartu eban. «*Izenbako* sorginen bat-edo» euren artean oinkada isilez ebilela uste izan eban.

—Zer jazo jana? Zer ikusi don? — artega itandu eutsien.

—Jazoa, jazo; gaur bai eta ez atzo!— Zuriñek erdi negarrez esan eban.

Hori entzunda, bere ondoko neskato totoleak esan eban:

—Hori don erantzuera, jazorikoa baino be bakanagoa!

Gero, danok isilik...

Handik lasterrera euren bildurrak bat-batez aienatu ziran; eta orduan, aldiko isilune itzala urratuaz, ezkaratzeko notin guztiok, Atxiñe eta Zuriñe izan ezik, era batez barriketa ugarian hasi ziran; ez ur eta ez ardao, ez gatz ez berakatz, zoro zentzumbakoen jardunean ebiltzan...

Barriketa eta nahaste haretan, bizar zuridun agurea Usunek ikusi eban. Eta hirugarren gorulariak hango notin guztien esanak agureak idazti handian gordeten ebazala ohartu ebanean, ikusirikoa, zana zan lez deadar handiz azaldu eban.

—Bizar zuridun agure miragarri batek gure esan guztiak daroaz!...

Esan bildurgarri horregaz, ezkaratzeko notin guztiak, zahar eta gazte, izu-ikaraz zutunduta, euren etxeetarantza tximista bairin arin abiau ziran.

Eta euren atzetik hiru gorulariak be, ikusi eban gauza bakana oldozten ebela, Usotegirantza arin-arin joan ziran.

Zerua izarrez beterik egoan, eta hego-haizeak baso-mendietan firi-firi egiten eban bitartean, han goian, ilargiak arpegi haserrea agertu eban.

Hatan-horretan, gorulariak gorantza begiratuta, zeruari, ortzeari adi-adi jarri ziran. Eta hantxe zeruaren erdi-erdian izar-piloaren artean, idazti, liburu handia hizki baltzakaz ikusi eban.

Eta orduan Atxiñek, Zuriñek eta Usunek bizar zuridun agurrearen idaztian euren esanak begi zabalez irakurri ebezan...

Esan bakotxaren barrenean, barriz, hurrengo hizkiak egozala, ikara handiz ohartu eben.

*Hitz ondo-ondo egin,
bestela damutu egin...
Onak dirala, txarrak dirala,
Jaunaren begiak adi dirala.*

XLVIII

ARRIZABALGO JAUNA ETA BIDAZTIA



Antxina-antxinako aldietan, mendi jagi eta eder baten txun-txurrean horma sendozko gaztelu eder bat egoan. Gaztelu eder hori Arrizabal izenaz ezagutzen zan, eta bertan gizon aberats bat handikiro eta nasaikiro bizi zan. Aberats okitu²⁸⁵ harek, barriz, bere gaztelua apaintzen eta abar, urtero-urtero txindi²⁸⁶-pilo handiak eralgiten²⁸⁷ ebazan. Bitartean, bere inguruko txiroak ogia

²⁸⁵ Okitu: guztiz aberats.

²⁸⁶ Txindi: diru.

²⁸⁷ Eralgi: gastau, xalutu.

jan ezinik negarrez bizi ziran. Bihotz gogorreko gaztelu-jaubeak txiro gaixoai egundo ezertxu be ez eutsen emoten.

Egun baten, bidez bide nekatuta aurkitzen zan bidazti txiro batek gaztelu haretan gaua igaroteko aterpea eskatu eban.

Eta Arrizabalgo jaunak, bidaztiari bere eskakizuna erremuskadaz ezeztuaz, ahots lakarrez esan eutsan:

—Gaztelu eder hau ez da ostatu-etxea! Beraz, ez daukazu lekurik hemen... Joan zein tekez zeuk gura dozun lekura, ba.

Hori entzunik, bidaztiak apal-apalik esan eutsan:

—Zeuri hiru itaun egiten ixten badeustazu, bertatik poz-
-pozik joango naz...

—Tira, ba, bertatik arin alde egitearren hiru itaunak zeuk gura dozunean zuzendu eidazuz, ba, neuk ahal dodanez poz-
-pozik erantzungo deusut eta -zaldunak irribarrez esan eutsan.

Orduan bidaztiak itandu eutsan:

—Gaztelu honetan zure aurretik nor bizi zan?

—Neure aita -zaldunak erantzun eutsan.

—Eta zeure aita baino lehenago nor egoan bertan?

—Neure aitita.

—Eta zeure ondoren nor biziko da?

—Jaungoikoak gura badau gura, orain hemetik urrintxu aurkitzen dan neure semea... -gaztelu-jaubeak oldozkor esan eban.

Orduan bidazti agurgarriak begi errukitsuakaz begiratuta, ahots gozoz esan eutsan:

—Zuetariko bakoetak etxe honetatik alditxu bat igarota beste barik, hurrengoari lekua itxiaz alde egin beharra izan badau, gaztelu eder hau, ondo begiratu ezker, ostatu-etxe bat baino ez da... Eta zuek bertan behin-behineko ostalari batzuk baino ez zarie. Beraz, holan dala, zeure gaztelu honegatz ez zaitez harrotu, ez larregi, arduratu, zeure aurretikoak lez, ba, usterik gitxien dozunean guztia itxi beharra izango dozu eta. Gaztelua edertzen eta apaintzen eralgiten dozun txindia eta gehiago, barriz, bihotz zabalez eta esku zabalez txiro artean zabaldu eizu, bai?, eta bertatik alde egiten dozunean, han donokian zeure egiten onakaz

eginiko jauregi ederra, jauregi betikorra aurkituko dozu. Hemeko aberastasunak apur baterako baino ez dira; hangoak, barriz, beti-betiko...

Eta Arrizabalgo jaunak, hitz ikutugarri horreekaz bihotza bigunduta ebala, bidazti agurgarriari gaua igaroteko aterpea gogo onez emon cutsan. Eta gizon aberats harek, entzuniko hitz eder-rak egunoro oldozten ebala, aurrerantzean eskeko-txiroi esku zabalez lagunduaz eta beste eginen on asko eginaz eta abar, donokian jauregi ederra, jauregi betikoa egiten jardun eban.

Bere buru eta bihotzean hitz honeek ondo irarrita geratu ziran:

*Hemeko aberastasonak apur baterako,
hangoak, barriz, beti-betiko.*

XLIX

BIRJINAREN EGURRA



Txarea²⁸⁸, bere abar zuri eta orri txiki ugariaz, zugazñoaren polita! Mañariko hatx handi eta jagietan horretariko asko egoan. Eta zugatz polit ezagun horrek, beste zugatz asko baino txikiagoa izaten dan arren, harriarte haretan bere burua zutik eta harrorik agertzen eban. Herriko emakumeak euren begi gozoz maitegarri-

²⁸⁸ Txara: txaraka, beresi.

ro joten ebala, baekian-edo... Bai, ba, etxekoandra maratzak euren lan batzuk txukunkiro eta egokiro egiteko bere behar izaten ziran eta!

Gure herrian txara-egurra, onespén miragarriren bategaz onetsita balego lez, gauza on eta berezitzat etsiten zan. Izan be, txara-hautsaz eginiko lexibearen txukuna! Eguzkiaren mosu gozoak laztantzen ebanean, edurra baizen zuri eta hatxura baizen garbi agertzen zan. Beste lexibakandik alde galanta! Zegaz egina zan itandu beharrik ez egoan, bere burua berak agertzen eban ondo.

Baita txara-egurraz egosiriko lapikokoa be, bardinean, beste egurrakaz egosirikoak baino sunda gozoagoa izaten ebala be esaten eban. Goiti basetxeko etxaguna zan Txuan Goiti gizonak eta bera lako beste atso-agure askok txareaz egosiriko baba-lapikoak aparteko grazia izaten ebala sarritan esaten eban behintzat.

Lehenago, barriz, Mañarian txarea *Birjinaren egurra* izenaz ezagutzen zan. Zazpigarren karlaren²⁸⁹ gudatean²⁹⁰, gudari erdeldun batek Kaudalategiko Maripatxu andra zaharrari txara-egurrak ze izen eban itandu eutsan. Eta Maripatxuk erdera mordoiloiz honan erantzun eutsan:

—*Esto ser leña* ‘Birjina’, *para* ‘lexiba’ y ‘lapikoko’ ez dago inon bardina.

Izen polit horren jatorria, barriz, gure herritxuan ipuintxu baten bitartez azaltzen zan.

Behin baten, Bidekurutze basetxeko Mari neskatilea, lexibea egosteko egurra ekarteko asmoz, basorantza joan zan eta bidean joi ala harri-mokil handi baten ganean agure zahar bat negarrez ikusi eban. Gure neskea agurearen itxura ituna ikusita tamaldu egin zan, bihotz bigunez itantzen eutsala:

—Aitita, zergaitik negar egiten dozu?

Eta aguretxuak negar-zotinez erantzun eutsan:

²⁸⁹ Karlaren: karlista.

²⁹⁰ Gudate: eraso.

—Neure artaldeko bildots bat galdu dalako negar egiten jonat, neska. Basorik baso eta mendirik mendi bere bila ibili nazan arren, azterrenik be inon ez jonat aurkitu-eta...

—Bildots bategaitik horrenbeste negar...? Zeure artalde ederrean bildots ederrik asko ez daukazuz, ba? —barrirokoan Marik esan eutsan.

—Bai, baina, askoren artean be baten hutsa, beti huts... Bata lez bestea be, neure-neureak danak, barriz. Oi, nire bildots ederra! —eta agureak, hori esanda, negar gehiago egiten eban.

Hori entzunik Mari errukitu zan; eta bihotz oneko neskatileak, hatx eta mendiak joranez arakatuta, galduriko bildotsa labarpe handi baten ertzean bizirik eta zutik aurkitu eban.

Eta artzain zaharra Marik bildotsa eroatean poz-pozez jarri zan, irribarrez esaten eutsala:

—Bihotz oneko neskatila maitegarriorrek, gaur poz handi bat ekarri deustan... Jaunak onetsi eta zaindu hagi ala beti! Eta orain, on-eginaren saritzat, zer eskatzen deustan, ba?

Eta Mari zintzoak irribarrez erantzun eutsan:

—Ezertxu be ez deusut eskatzen, ba, aitita. Horraitik, lexi-bea egiteko egurrik onenak non dagozan esaten badeustazu esan, poz-pozik jarriko nintzateke.

Orduan agureak, Artzategana eskuaz crakutsita, begi argiz esan eutsan:

—Hoa Artzateganera, bai?, eta hantxe harriarteko lurrunetan, abar zuri eta orri txikidun zugazñoak ugari aurkituko dozan. Zugatz txiki polit horren egurraz eta beragaz eginiko hautsaz Ama Birjinak Jesus Umea berotu eta bere soinekotxuak garbitzen jonzan; eta zugatz horreek urrin egozanetan, donokiko aingeruak euren hego zuri-bigunetan egurrak hartuta, Birjinari maitasunez eta itzalez eroaten jeutsienazan. Beraz, zugazñoaren egurrak donokiko Amak bere eskuakaz onetsirikoak dozan... Horregaitik, egur horren hautsaz egiten dan lexibea edurra baizen zuria izaten don, eta beragaz egosten lapikokoa ezta baino be gozoagoa. Hoa, ba, Mari, eta neure esana egina egundo ez jana damuko...

Eta Mari neskatila onak artzain zaharraren esana oso-osoan eginda, aurrerantzean herrian lexibarik zurienak eta lapikokorik gozoenak egiten ebazan; eta bere eginen ona zala-ta, aldiko emakumerik aintzagarriena herrian bera izan ei zan.

Horra, ba, txareari ezarririko izena ipuin politez azalduta Euskadiko herritxuetan hamaikatxu honako ipuin eta asele²⁹¹ polit badagoz, egon be.

²⁹¹ Asele: kondaira, elezahar.

L

URTEBARRIAREN ONUA



*Irudimenaren hegoz
mendi txuntxurrean,
ludia urrin dala,
goi-gogartepean.*

Gabonzahar gauean, artzain morrosko gazte bat, urtezaharri agur eginaz, urtebarria agurtzeko asmoz Untzilatx txuntxurrera joan zan.

Artzain gazteak hatx jagi horretatik zerua izarrez beterik ikusten eban. Eta izartxu bakotxa ipar-haizearen soinu-hotsean

berarizko txairotasunez dantzatzen zala ohartu eban. Mutila dizdizka²⁹² polit horreekaz atsegintzen zala, «Bat, bi, hiru, lau» esanaz, izartegiko harribitxiak ahal eban eran zenbatzen hasi zan.

Honetan, gauerdi inguruan oinkada narras batzuen zarata latza entzun eban. Zer edo nor ete zanentz begiratu ebanean, ule zuridun agure zahar bat arnasa larriz joiala ikusi eban. Leku haretan holako agure zaharra ikustean ikaratu zan; eta zerbait jakin guran itandu eutsan:

—Agure ezezagunori, nor zara?

—Ni Urtezaharra naz —agureak ahots ikaraz erantzun eutsan.

—Urtezaharra zara? Nora zoaz? Gelditu zaitez hementxe.

Hitz egin behar dogu eta.

—Ez, ezin neinteke hitz egiten jarri, ezin neintekelako gelditu; neure azken arnasa emotera, izentauriko lekuraino behar dan ordurako joan beharra dodalako. Orain arte Jaungoikoak ipini deustazan beharkun guztiak zintzoro betetu izan dodaz; eta beteteko daukadan azkenengo eginbeharra behar dan lez beteteko ahaleginak ahalegin egin behar dodaz. Azken onaren onureak lehen eginiko guztiak iraupenaren sari ederraz aintzagarriro osotzen dabezalako. Beraz, banoa aurrera...

Eta agure zahar maitegarriak, oinkada narrasez eta arnasoska latzean, bere bidean aurrera jarraitu eban. Artzain-mutilak, baina, zer gertauko-edo, zuhur eta adi zala, agureari atzetik jarraitu eutsan.

Gauerdia, pizka-pizkaka, oinkada isilez hurreratzen hasi zan. Eta gauerdi-gauerdiaren altzo miragarrian, agure maitegarria mutikotxu potolo guri-guri bat maitekiro besarkatzen ikusi eban. Eta horretan iharduan une berean, ule zuridun agurea artzain gaztearen begi aurrean harrigarriro ezereztuaz bat-batez aienatu zan. Eta mutikotxu potoloak, bere bidean jarrita, eskuakaz arpe-

²⁹² Dizdizka: dirdira.

giko malkoak lehortzen ebazala, aurrera egin eban artzainaren ondora heldu zan arte.

—Nor zara, mutiko? —artzainak itandu eutsan.

—Ni aldia naz —mutikoak irribarrez erantzun.

—Aldia zarala? Egundo entzun ez dodan gauzea... Nik muti-kotxu bat baino ez dot ikusten!

—Bai, aldia naz, Urtebarria. Hor joan dan agure zaharraren semea, Urtezaharraren unea. Biok Jaungoikoak eginak.

—Ene bada! Beraz, Urtebarria zara. Urtezaharrari agur eginaz, Urtebarria, zeu, agurtzeko ustez hatx-txuntxur honetara etorri naz eta.

—Zaharra ikusi dozu, ba, eta Barria be hemen daukazu...

Orduan artzaina mutikoaren arpegira arretaz begira jarri zan. Eta txikiaren arpegia bustirik egoala igarri eban.

—Ene! Arpegia bustirik daukazu! —esan eutsan—. Zer jazo jatzu?

—Hara, neure aita izan dan Urtezaharrak, atsekabearen negar-malkoz arpegia busti deustala, neure etorkizuna begi aurrean ipini deust —esan eban mutikoak—. Neure aldiaren barruan jazoko diran zoritxarrak eta egingo diran gaiztakeriak alderreskan ipini deustaz. Hori esatean, berak negar egin dau, bere aldiaren gain jazo ziranakaitik eta nirearen barruan jazoko diranakaitik. Eurak, nire aitaren malkoak, nire arpegian irarri dira. Eta ludia-
ren gaurko izate eta jokereari begiratu ezkerroan, nire negar-malkoak be, nire ondoren agertuko danaren arpegi samurrera nonbait isuri beharra izango dabe...

—Zeure hitz tamaltsu horreekaz ikaratzen nozu.

—Ikaratzea ez da harritzeko gauzea. Gehiago be zerbait esango neuskizu. Zertarako, baina? Jaungoikoa guztien gain.

—Hori bai! Holan be zeure kolkoan zer dagoan jakin gura neuke. Onez ala txarrez zatoz?

—Zerbait esango deusut horretzaz...

Hitz horreekaz artzaina ezin gehiagoan ikaratu zan. Eta Urtebarriari bere aldian Jaungoikoaren bidetik zintzoro ibilteko onuak

eskatu eutsazan. Eta Urtebarriak arretaz eta gozaro begiratuaz esan eutsan:

—Nire aldiak hirurehun eta hirurogeta bost maila daukazala badakizu. Beraz, aldi hori Jaunak gura dauen lez igaroteko, maila horretan beti gorantza egin behar dozu. Egunoro, baina, mailatu bat igarotea nahiko dozunez, horretarako neke larregirik ez dozu izango; batez be, hontxe neuk erakutsiko deusudan otoitza, goizero iratzartzean gogo beroz esaten badozu.

Eta Urtebarriak orduan artzainari gora begiratzeko arren egin eutsan. Eta begiratzeaz batean, han goian izarrak baino gorago, urre-hitzez idatzita otoitz ederra irakurri eban:

*Jaungoiko ona,
egun bakotxa zerura igoteko maila izan daidala;
zeuganako maitasunak higituta nazala,
gorantza igon daidala beti,
zeure arpegi ederra betiko argitan ikusi arteraino.*

Otoitz horregaz artzaina poz-pozez geratu zan, zeru-bidean zuzen jarraitzeko sendotasuna otoitz horretan izango ebala-ta.

Beste barik, Urtebarria, artzain-mutilari besarkada gozoa eginaz, «Jaunak amaigabeko zorionez saritu zaizala» esanda, bere bidean joan zan.

LI

ERROTAZURI



Nik ez dakit noiz be, Anboto aldean Eneko izeneko artzain gazte bat bizi zan. Artalde eder baten jaube zan. Hirurehun ardi ebazan; eta ardi bakotxak edurraren arnasatik sortu zala irudian: zuri-zuriak eta eder-ederrak ziran.

Udabarrietan, gure mutila, Uletsu txakur zolia bere ondoan ebalá, mendi-landa ederrean jesarten zan; eta ardi zuriakana begira, alboka-joten poz-pezik jarduten eban.

Egun hareetan bateko esne eta besteko gaztai salduaz, Ene-koren sakelak polito-polito beteten hasten ziran. Udabarri eta udea, artzainaren lagun izan ohi dira beti; neguaren mustur balz-tzak ikarutzen ez dauen artzainik ez dala esaten dabe, baina.

Holan dala, Anboto aldeko artzainari be neguak lerrenak eragiten eutsazan. Aldi haretako negu batek, hatan be, euri, txingor, edur eta haize-bihorraz, kalteak kalte egin eutsazan. Bere artalde ederra gauzeztuta itxi eutsan. Hori zala-ta, gure mutilak, negarraldi luzea egin eta gero, bere bizibidea aldatzeko asmo sendoa hartu eban.

Hain zuzen be, goiz baten, Uletsu txakurra lagun ebala, Anbotoko Andereagana, Mariurrikagana, burubide eske oinkada arinez joan zan. Eta Anbotoko Anderea, bere koba miragarrian urrezko aulki eder baten jesarrita goruetan iharduala aurkitu eban. Bere inguruan, hiru morroi eta hiru neskatila, euren etxe-koandrearen gurariak ondo beteteko zuhur eta adi-adi egozan. Bitartean, andereak, goru-ardatzari firi-firi eraginaz, urre-mataza ikusgarriak egiten ebazan. Marik mutilari bere bizitokian hain goiz ikustean, irribarrez:

—Oi, Eneko! —esan eutsan—. Honen goiz etorteko, zer dok?

—Andera ahaltzuorregana burubide eske etorri naz, nire bizibideaz aspertuta nago eta.

—Hire bizibideaz aspertuta? —erantzun eutsan Marik—. Zer dala-ta? Lehenen, behintzat, alboka-soinua jo behar deustak, eta... gero gerokoak...

Anbotoko Anderea alboka-soinu zale-zalea zan; eta Eneko, hareri atsegin emotearren, soinua jotzen hasi zan.

Orduan hiru morroiak eta hiru neskatilak alkarregaz dantzaz hasi ziran. Baita Uletsu txakurra be, hareen erdira joanda, dantzaz hasi zan; besoak gorantza ebazala, atzeko oimen ganean, sekulako dantzak egiten iharduan! Hori ikusirik, anderea barrearen barrez konorte barik geratu zan. Ene bada! Ha zan behar zana! Hiru morroiak eta hiru neskatilak, etxe-koandrea senera ekarteko *hamargarren ahalegina* egiten hasi ziran. Neskatila batek berakatz-saldea sartu eutsan; bigarren neskatileak igurtziak egin eutsazan, eta hirugarrenak, barriz, piperminaz sur-puntan ikutu eutsan. Guztia alperrik, baina! Anderea bere zentzunera ezelan be ezin ekarri... Guztiak negarrez hasi ziran,

hiru morroiak, batez be; honeek arrantzaka lez egiten eben negar.

Honetan, albokea jo behar ebala esan eban Enekok; beharba-da, alboka-soinuak konorteratuko ebala-ta. Halantxe jazo be: anderea, soinua entzutean, behingoan zentzuneratuta, barreka hasi zan. Eta bere neskatilai Enekori bazkaria emoteko agindu eutsen.

Bazkaria jaten iharduala, andereak artzainari hauxe esan eutsan:

—Ea, ba! Orain agertu egidak hire bizibideatzazko asmoa.

—Artzain-bizitzeaz aspertu nazan ezkeru, beste bizibide bat hartzea erabagi dot —erantzun eutsan artzainak.

—Holako asmorik ez eik hartu, mutil. Udabarriaren erdian artzain-bizitzea dan ederra! Bedar guri ganean ipar-haizeak egiten dauzan laztan gozoak, ez ete dozak gogoratzen, ba?

—Bai, Mari, gogoratzen dodaz, baina... Aurtengo neguak guztiz aspertu nauen ezkeru, nire asmoan inortxuk be ez nau atzeratuko. Negu anker honek egin deustazan kalteak bazenkiz, horraitino, zerbait esango zeunke; artalde guztia triskauta itxi deust eta.

—Bai, Eneko. Holan dala, bizibidea aldatzeko errazoia eta eskubidea badoazala ikusten joat. Ze bizibide gura dok? Hargin ala arotz?

—Ez, ez dodaz bizibideok gura. Niretzako bizibiderik onena, errotari izango nintzatekela uste dot. Zer deritxazu?

—Ederto, ederto. Urun on eta ederraz jentea janaritzen doan artean, errotariatiaz dirutza polita egin ahal izango dok eta.

—Bai, baina... Niretzat errotatxu bat, non aurkitu? Hemen inguruko errota guztiak hartuta dagozan ezkeru, niretzat bat bera be ez dago hutsik... Horregaitik, Mari, jakintsua eta zuhurra zaran ezkeru, niretzat errotatxu bat zeuk bilatu behar deustazu.

—Hori baino ez badok, bilatuko joagu, bai.

Orduan Marik, hiru morroiak palanka bana sorbaldetan ebazala, Anboto erpinera bialdu ebazan. Mari eta artzaina be hareen

atzetik joan ziran. Handik lastertxura morroirik zaharrenak hatx-
-erpinetik palanka sendo bat berehalako baten jaurti eban. Eta
palanke, zeru urdina harrigarriro zeharkatuaz, tximiste baizen
arin Mugarra alderantza joan zan. Beste morroi biak be eskuetan
eukiezan palankak era berean jaurti ebezan; eta hareen palankak
be Mugarra aldera jausi ziran.

Eneko hiru morroien trebetasunaz ikaratuta:

—Hori trebetasuna! —esan eban—. Hori jasa eta indarra! Non
ikasi dabe horren egoki palanka-jokoan?

—Hementxe berton —erantzun eban Mariurrikak—. Eguzkia-
ren urtenaldietan eta sartzaldietan, egunoro palanka-jokoari eki-
ten jeutsiek. Honeen trebetasunaren zuztarra, beraz, hementxe
Anboto ganean jagok.

—Bai, horixe trebetasuna! Jesus! —esan eban ikaraz artzai-
nak—. Eskola errinea dabe berton, gero! Eta orain jaurtitako
palankok, non aurkituko doguz?

—Errotari izan gura badok, palankok heuk aurkitu behar
dozak —erantzun eutsan Marik— Hoa, ba, bizkor!...

Gure mutila, Uletsu txakurra alboan ebala, Mugarra alde-
rantza joan zan. Lehenengo palanke hatx-erpinean aurkitu
eban, eta haren ondoan errotarri eder bat ikusi eban. Bigarren
palanke egoan lekuan be, beste errotarri bat aurkitu eban. Eta
hirugarrena egoan lekuan be, beste bat aurkitu eban. Beraz, hiru
errotarri.

Eneko hiru harri hareekaz poz-pozik jarri zan; eta ezti-
-bitsetan zala, arineketa baten Anbotora bihurtu zan, Mariurrika-
ri aurkitzearen barri emotera. Eta Mariurrikak, aurkitzearen barri
entzutean, gorantza begiraturik mutilari hauxe esan eutsan:

—Orain errotarriok Mugarra erpinetik behera jaurti behar
dozak, eta harriak geratzen diran lekuan bertan, hiretzako errotea
eragi behar dok. Ondo egiteko, baina, gaueko hamabi-hamabietan
jaurti behar izango dozak...

Artzaina, Marik agindu eutsanez, Mugarrara joan zan; eta
gaueko hamabi-hamabietan, hango erpinetik behera hiru harriak

bilin-bolaka jaurti ebazan. Eta, harrigarria! Hain zuzen be, hiru harriak erreka handi baten ertz-ertzean geratu ziran!

Hori ikustean, Eneko pozez zoratu beharrean jarri zan. Eta bere errotearentzako lekurik onena haxe zala-ta, gizon-piloak lanean hasita, etxe polit bat behingo baten egin eben. Eta etxea amaitu zan egunean bertan, edurra zara-zara jausten hasi, eta etxetxu barria berehalako baten zuri-zuri ikusgarriro geratu zan. Edurraren laztan gozoa etxearen ganetik kentzeko, eguzkiaren arnasea ez zan inoiz be gauza izan. Horregaitik, herriko lagunak errota barriari izena Errotazuri ezarri eutsien.

Hiru harriak urun bikaina emoten hasi ziran. Halako urun gozo eta ederrik inoiz be ez ebela jan, guztiak aho batez esanda, Errotazurira lagun askoak hasi ziran joaten. Etxearen inguruan, egunoro ehunkada astoak zorroz beteak ikusten ziran. Errotari barria lanari arpegia emon ezinda, artega ebilen; baina, hatan-horretan dirua polito egiten hasi zala-ta, poz-pozez jarri zan. Halan, urte gitxi barru aberats handia egin zan. Eta diruaren diruz, inguru hareetako errota guztiak erosi ebazan; guztiak gilz-pean itxita, Errotazurik bakarrik lanari ekiteko...

Luzaroetan, Enekoren eginaz eta Errotazuriko urunaz jentea pozik ibili zan. Urteak joan eta urteak etorri, baina, Eneko aberats okitu egin zan, eta... urrez beteriko gela baten loak hartuta, urre artean lozorroan geratu zan.

Bitartean, herria haren etxe inguruan negarrez eta ate-joka:

—Eneko, edegi eiguk atea eta emon eiguk uruna, goseak hil behar gaiozak eta!

Errotariak, ostera, jaramonik be ez. Azkenez, etxe aurrean egozan agure zahar batzuk be deadar egin eutsien:

—Zabaldu eiguk atea eta emon eiguk uruna! Bestela, hire galdua...

Deadar horreri be jaramonik be ez.

Ganeko egun baten, euria, txingorra eta haize-bihor handiak izan ziran. Euria, uriola antzera, Errotazuriren ganera bildurgarriro jausi zan; eta urioleak Errotazuri etxea, bere ugazaba barruan

egoala, zuztar-zuztarretik itsasora eroan eban. Herriaren negarrak, zeruraino helduta, Jaungoikoaren zigorra eratsi eban, antza.

Ganeko egun baten, baina, Eneko barrero bere herrian agertu zan; uretatik Uletsu txakurrak atera ebala esaten eban... Baina orain, behartsurik zirtzilena baino zirtzilago jantzita, bere txakurra alboan ebala, aterik ate eskean ibili beharra izan eban. Eta Errotazuri egon zan lekutik igaroten zanetan, bere zoritxarra gogoraturik, negar eta negar egiten eban.

Enekoren diruzalekeria eta zekenkeria Jaungoikoak esku gogorrez zigortu ebazan.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlana eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaila: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilén*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardurua: Igone Etxebarria
26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar

27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizinoa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizinoa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizinoa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Candiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizinoa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. José Basterretxea *Oskillaso: Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

39. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura.*
Ume-denporako oihartzunak
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea

41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizinoa: Nagore Etxebarria

43. Errose Bustintza *Mañariko: Ipuinik ipuin Mañarian gora*
Sarrerea: Jabier Kalzakorta
Edizinoa: Nagore Etxebarria

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

33. GURE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK
Estepan Urkiaga. *Lauaxeta*
Sarrera: Xabier Altzibar
34. NEURE AMATXO MAITIA
EUSKERAZKO GUTUNAK
Balentin Berrio-Otxoa Santua
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
36. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
37. HITZ LAUZ IDAZTEN
Bitoriano Gandiaga
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. KURLOIAK
MUTIKO KALETARRAK BIZKAIAN
Jose Basterretxea. *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. BIZKAIA BEGIETAN (1913-1928)
Ebaristo Bustintza. *Kirikiriño*
Testu aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. MILLOITIK MUNDURA
UME-DENPORAKO OIHARTZUNAK
Angel Ugarteburu
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. ASPALDIKO MAIGRET
Georges Simenon
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. IPUIN-BARREKA
Felix Bilbao
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
43. IPUINIK IPUIN MAÑARIAN GORA
Errose Bustintza. *Mañariko*
Sarrera: Jabier Kalzakorta
Edizioa: Nagore Etxebarria



LABAYRU IKASTEGIA

bbk

 cengotita


lansegur, s. l.
CORREDURIA DE SEGUROS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

ISBN: 978-84-92599-09-7



9 788492 599097